## aurkibidea

*Zenbaki honetan* ........ 3

**Bertsolariak**

ELKARRIZKETA: Bertsolaritza modernoaren bideak ........ 7
LANDA, J.: Bertsolari Txapelketa Nagusiaren historia ........ 35
SARRIUGARTE, I.: Epaimahaia txapelketan ........ 49
E.H.ko BERTSOLARIEN ELKARTEA: Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusia 85-86 ........ 57
ELKAR-LANEAN: Bertsolaritzaz galdeketa ........ 67
TORREALDAI, J.M.: Bertsolariei inkesta ........ 101

**Gaiak**

PEÑAS AIZPURU, E.: Euskal Alderdien barneko demokrazia ........ 217

**... hainbat aburu**

STÜRTZE, A.; GONZALEZ DE GARAI, I.: Euskal sorgina: estereotipo bat ........ 237

© JAKIN

JAKINeko idazlanez
inon baliatzerakoan
aipa bedi, mesedez, iturria.

JAKIN

aldizkari irekia da eta
ez dator nahitaez
idazleen eritziekin bat.

**Zuzendaria**

joan mari torrealdai

**Idazkaritza eta administrazioa**

Ategorrieta hiribidea, 23, 1. esk.
20013 Donostia. Tel. (943) 27 17 13

**1987ko prezioak**

| | barruan | | kanpoan | |
|---|---|---|---|---|
| | **harpideduna** | **ez-harpideduna** | **harpideduna** | **ez-harpideduna** |
| harpidetza | 2.500 pta. | – | 2.700 pta. (130 FF) | – |
| ale arrunta | 625 pta. | 750 pta. | 675 pta. (32 FF) | 800 pta. (40 FF) |

Jabegoa: Anaidia Arantzazu. Lege gordailua: S.S. 25-1977. ISSN 0211-495X
Fotokonposaketa: Onena. Lasarte. Inprimaketa: Lizarra. Lizarra

# ZENBAKI HONETAN

*Eskuetan duzun zenbaki hau bigarren aldiko 44.a da eta aurtengo hirugarrena.*

*Zenbaki mardula eskaintzen dizugu oraingoan ere. Mamitsua, gaur-gaurkoa eta interes handikoa. Gai nagusiak hartzen ditu zenbaki honen orrialde gehienak.*

*Bertsolaritza gaur zertan den azaldu nahiko luke bildu dugun dossier honek.* Jakin *14/15 zenbaki bikoitzean eskaini genuen teorizazioa. Beste bidetik jo dugu oraingoan. Aztergai nagusia txapelketa da: txapelketa, bai metodo bezala eta bai gertakari bezala.*

*Hiru zati nagusi ditu dossierrak.*

*Lehenean, Joan Mari Lekuonak eta Joan Dorronsorok bertsolaritza modernoaren bideak aztertzen dituzte, elkarrizketa gisa. Gerraurretik honako bide luzean, inguru soziokulturala, bertsolari-munduko gertakariak, berrikuntza nagusiak, izen garaiak dira aipatzen.*

*Bigarren zatia txapelketei eskainia da osorik. Josu Landak txapelketen historia egiten du, hots, txapelketa bakoitzean antolakizuna, kanporaketa-sistema, epaimahaia, bertsolari eskuhartzaile eta irabazleen izenak.*

*Sarriugartek epaimahaia aztertzen du; hobe, historian zehar epaimahaiaren erizpideak, bertsoak neurtzeko. Batez ere, azken txapelketako gorabeheretan luzatzen da (Artikulu hau, ia osorik,* Egin-en *eman zuen argitara azken txapelketakoan).*

*Euskal Herriko Bertsolari Elkarteak, bere aldetik, azken txapelketa nagusiaren balantze ofiziala eskaintzen du. Euskaltzaindiarekin hautsi*

© JAKIN

JAKINeko idazlanez
inon baliatzerakoan
aipa bedi, mesedez, iturria.

JAKIN

aldizkari irekia da eta
ez dator nahitaez
idazleen eritziekin bat.

**Zuzendaria**

joan mari torrealdai

**Idazkaritza eta administrazioa**

Ategorrieta hiribidea, 23, 1. esk.
20013 Donostia. Tel. (943) 27 17 13

**1987ko prezioak**

| | barruan | | kanpoan | |
|---|---|---|---|---|
| | **harpideduna** | **ez-harpideduna** | **harpideduna** | **ez-harpideduna** |
| harpidetza | 2.500 pta. | – | 2.700 pta. (130 FF) | – |
| ale arrunta | 625 pta. | 750 pta. | 675 pta. (32 FF) | 800 pta. (40 FF) |

Jabegoa: Anaidia Arantzazu. Lege gordailua: S.S. 25-1977. ISSN 0211-495X
Fotokonposaketa: Onena. Lasarte. Inprimaketa: Lizarra. Lizarra

- Saioak egitura desberdina eduki behar du, estrofa bat, nahiz bi, nahiz hiru eta abar dituenean.
- Saioan progresio bat nabarmentzea.

- Gauza negatiboak:

— Bakarka denean:

- Bi estrofatan gauza bera esatea.
- Estrofak sobratuta betelana egin beharra egokitzea.
- Saioak interesa galtzea, biztu beharrean motelduz.

## 5. LANGINTZA BAKOITZA NEURTZEKO BAREMOA

Lege eta erizpide horien arabera, bapateko bertsogintza neurtzeko, metodo praktiko baten beharra ikusten da. Gure ustetan gutxi dago eginik teknika kontuan, eta, bestalde, ariaren-ariz zabaldu beharreko bidea dugula derizkiogu honi.

Hasteko, eta metodo praktiko bat eratu aurretik, aurkeztu eta arakatu ditugun langintzen baremoa emango dugu. Abiapuntu da eztabaidarako; eta abiapuntu, agian, fitxa tekniko bat asmatzen hasteko.

Saioaren puntuaketa guzitara 10 izanik, 3 puntu emango genioke gaiari, beste 3 hizkerabideari, beste 3 metrikari eta 1 egiturari.

Legeetaz, erizpide nagusienetaz eta baremotaz akordio zabala lortu ondoren, epai-mahaikoek asma eta egiazta dezakete bertsoen neurketa azkar eta bateratu bat emateko sistema berriagoa.

Loiola, 1985, Urriak 21.

*zenetik hasi, eta geroko antolakizun-gorabehera guztiak zehatz-mehatz ditu hor irakurleak: presupostuak eta irabaziak, propaganda eta publizitatea, gaien prestakuntza, ikusentzuleen erantzuna, etab.*

*Hirugarren zatia da nagusi dossier honetan. Bi inkestak osatzen dute parte hau. Lehena, mini-inkesta da, bertsozale kualifikatu zenbaiti zuzendua. Bertsotan aditu diren horiei, azken txapelketa dela eta, puri-purian jarri diren hainbat arazori buruz egin dizkiegu galderak; hala nola, txapelketen komenentzia, azken txapelketaren balorazioa, bertsoak neurtzeko erizpideak eta sistemak, gai-jartzailearen eragina, bertso-eskolak, berrikuntza tekniko-tematikoa.*

*Bigarren inkesta, bertsolariei zuzendua, luze-zabala da. 70 galdera dira 145 bertsolariri eginak. Egungo bertsolaritzaren eitea, jarrera eta eritziak ezagutzea dute asmo eta helburu. Horretarako, lehenbizi pertsona eta profesional bezala eskatu diogu informazioa. Eta gero, eritzia gaurko bertsogintzaz: bertso-saioak, jaialdiak, txapelketak, bertso-eskolak, Bertsolari-Elkartea. Joan Mari Torrealdaik landu du inkesta hori.*

*Bertsolariei egindako inkesta honek suposatu duen lanaren parterik handiena eta diru-kostu osoa Bertsolari-Elkartearen gain joan da.*

*Gai nagusiaren luzera ikusita, gainerako sailak gutxitu beharrean aurkitu gara. Bi bakarrik ematen ditugu,* Gaiak *eta* ... hainbat aburu.

Gaiak *sailean, Eugenio Peñasek euskal alderdien barneko demokraziaz idazten du. 1986an idatziriko tesinaren laburpen honetan, Euskadiko alderdi nagusien barneko funtzionamendua aztertzen saiatzen da, alderdi teorikoaren ondotik.*

... hainbat aburu *sailean Alizia Stürtzek eta Iñaki Gonzalez de Garaik sorgingoa aztertzen dute. Polemika bitarteko,* Sorginak eta Errepresioa Euskal Herrian *liburuskaren luzapen eta argitzapen izan nahiko lukete orri hauek.*

Elkarrizketa
Josu Landa
Iñaki Sarriugarte
Bertsolarien Elkartea
Elkar-lanean
Joan Mari Torrealdai

# BERTSOLARIAK

**Bertsolaritza modernoaren bideak**

Gerra aurreko bertsolaritza. Gerra ondoko txikizioa eta berrastapenak. Plaza-bertsolaritza. Krisi eta zigor artean. 1980ko gailur berria.

**Bertsolari Txapelketa Nagusiaren historia**

Txapelketa bakoitzeko hautapen-sistema, antolaketa, partaideak, epaimahaia eta honen erizpideak, txapeldunak.

**Epaimahaia txapelketan**

Joko-jolasaren erakargarritasuna. Bertso-neurketaren historia. Txapelketa nagusietako erizpideak. Azken txapelketakoak.

**Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusia 85-86**

Prestakuntza. Euskaltzaindia eta bertsolariak. Kanporaketak. Bertsozaleen eta bertsolarien lana. Kritikak.

**Bertsolaritzaz galdeketa**

Txapelketak. Txapelketa Nagusia. Bertso-neurketak. Gai-jartzailearen eragina. Bertso-eskolak. Komunikabideak. Bertsogintzaren berrikuntza.

**Bertsolariei inkesta**

Metodologia. Bertsolariaren irudia eta eitea (jatorria, ikasketak, lanbidea, etab.). Jokabideak eta zaletasunak (lekuak, txapelketak, bertsolari zaharrak, ...). Eritziak eta jarrerak (egungo bertsogintza, bertso-saioak, bertso-eskolak, Bertsolari-Elkartea, etab.). Inkestaren laburbilduma.

# Bertsolaritza modernoaren bideak

**Elkarrizketa**

*Dorronsoro:* Bertsolaritza modernoaren historian mugarrizko mementu batzuk seinalatzekotan, 1935, 1960, 1968/1970, 1980, izan litezke horiek. Txapelketen inguruan beti. Puntu mugarrizko horiek aipatzerakoan, eskematxo honi jarraituko diogu: lehenengo egoera sozio-kulturala ikusi. Aldi bakoitzeko gertakari garrantzizkoenak bertso-munduan azpimarratu. Berrikuntzak aipatu, teknikan, organizazioan, etab. Entzulegoa bera nola aldatuz joan den. Mikrofonoaren erabilerak zer esan nahi duen, esate baterako. Hor sartzen dira liburuak, irratiak, hitzaldiak. Eta aro bakoitzeko izen nagusiak aipatuko ditugu, mugarrion erakusgarri bezala.

## I. Gerra aurreko bertsolaritza: 1935

*Dorronsoro:* Gaurko bertsogintza zertan den ulertzera iristea da gure xedea. Hori adierazteko perspektiba historikoa behar dugu.

Oro har, bertsolaritzaren historia guztiak du eraginen bat oraingo bertsolaritzan. Edozeinek ikusten du Xenpelar-ek eraginik baduela oraindik. Bilintx-ek ere handia du. Eta beste askok. Baina bertsolaritza modernoa deritzogunaren abiagune garbi bat aipatzekotan, arrazoi askogatik, 1935eko *Bertsolari Eguna* gerra aurrean aipatu behar. Gaurko perspektibarekin bertso-txapelketa deituko genuke, orduan izen hori ematen ez bazitzaion ere. 1936an berriro egingo da. Inguru horretan dago, beraz, gaurko bertsolaritza modernoaren mugarri jakinena. Txirritaren garaia da. Aldakuntza handiak hasten dira. Zer gertatu den ulertzeko, orduko egoera sozio-kulturalaren eta politikoaren deskribapen bat beharko genuke, garapenaren oinarri edo euskarri bezala.

*Lekuona:* Oinarrizkoena, nik uste, txapelketak, gerra ostean, eta nahi bada gerra aurrean ezerezetik ez direla sortu, ulertzea da. Badira hor elementuak, eragin nahikoa zehatza izan dutenak. Horietatik nabarmendu, orain hauek egingo nituzke.

Batetik tradizio zaharra, Txirritaren inguruan. Bertsolaritza entretenigarri hori oso bizirik dago. Agian gehiago kokatzen da herri txikietan, tabernetan, bentetan, etab. Baina usadiozko bertsolaritza hori indartsu dago eta jendeak gogokoa du.

Gero urrats inportanteak ematen dira liburu eta, batez ere, aldizkari aldetik. 1931-1932 bitartean Makazagaren *Bertsolaria* ateratzen da. Makazagak izugarrizko propaganda egiten du. Bertsolaritza asko zabaltzen da. Aita Zavala baino ia 30 urte lehenago da hori. Horrekin batera, bertsolaritzaren inguruan sortzen diren liburuak daude. Fenomeno oso inportantea da hori niretzat. Alegia, Lekuona Zaharraren azterketa teorikoak, eta besteak. Etnologia aldetik eta, batez ere ahozko literaturaren interesa eta azterketak azkartzen dira.

Beraz, bertsolaritza indarrean zegoen eta interesa gora zihoan. Bide jator bat ematea falta zen. Eta hori batez ere Aitzoli zor zaio. Berak aitortzen du, poesia landuaren asmoak porrot egin duela eta, euskara indartzeko, sustraitzeko, beste bide bat hartu behar dela: herriak parte gehiago hartuko duena, etab. Orduan olerki-jaiak organizatzetik bertsogintzaren organizaziora ere etortzen da.

Elementu guzti hauekin sartzen gara 1935era. Eta hor, esandakoez gain, oso inportantea izango da belaunaldi berri baten agertzea. Lehenengo txapelketan, alegia, Basarri aurkezten dela batez ere, eta irabazi gainera. Jendeak susmoa zuen eta barnetik bilatzen

zuen zera hura, pertsona konkretu batengan gauzatua ikusi zuela: Proiektu berriak badu bere gizona, horri dagokio bertsolaritza berritzea, etab. Elementu desberdinen konbergentzia bat ematen da, beraz. Eta, azkenik aipatzeko, agian sozialki inportanteena zera da, proiektu hori EAJ-PNVk hartu eta bere egiten duela. Orduan dena josten da: zein politika kultural egin? Dena bertsolaritzaren berrikuntzaren alde jartzen da.

*Dorronsoro:* Bai, EAJ-PNVren presentzia garbi sumatzen da bertsolaritzaren berrikuntza horretan. Aitzolen eraginaz gain, *Euskaltzaleak* elkartea tartean zebilen, eta EGI. Bi erakundeok Bertsolari Egunaren antolaeran parte hartzen dute eta, gero, epaimahaian ere bai. Aspaldidanik zuten gogoa, baina luzatu egin bide zaie. *Euskaltzaleak* antolatzaile ibili zen: horko lehendakari Monzon zen, hain zuzen; Aitzol, idazkaria. Leizaolak ere parte hartu zuen antolaketan. Eta Zubimendi, EGIko idazkaria, epaimahaian dago, bera izango da idazkari egin zuena. Gero, epaileen artean Olaizola bat ere badago, etab.

*Lekuona:* Hauexek osatu zituzten epaimahaiak: 1935ean egon zirenak, Jose Ariztimuño "Aitzol", Toribio Altzaga, Jose Olaizola, Manuel Lekuona, Joseba Zubimendi eta Txomin Olano. Eta 1936koan, "Aitzol", T. Altzaga, Leizaola, Lekuona eta Olaizola, Basarri gai-emaile arituz.

*Dorronsoro:* Ez da dudarik, hor EAJ-PNVren pentsaera dabilela. Eta bertsolariak oso erne ibiltzen dira, epaileek zer entzun nahi duten, handik aritzeko. Bertsolaritza bildu zuen proiektu kulturala nazionalista zela, garbi zegoen denentzat hasiera-hasieratik: Euskal Herri guztira zabaltzen da, bertsolariak Iparraldetik, Bizkaitik, Nafarroatik ekartzen dira Donostiara. Araban ez dago noski bertsolaririk. Egun horrek Euskal Herri osokoa izan nahi du.

Hau litzateke, bada, egoera sozio-kulturala. Orain, bertsolaritzaren berrikuntza adierazten duten gertakari garrantzitsuenak edo, aipatu beharko genituzke, 35 inguru horretan. Garrantzitsuena txapelketa bera da, noski, 35 eta 36ko Bertsolari Egunak. Baina hori ez da isolamenduan gertatu.

*Lekuona:* Liburuena lehen ere aipatu dut eta nik inportantzia handia ematen diot: Bilintxen bertso-bilduma ateratzen da, Xenpelar-ena, Txirritaren Testamentua... Eta, hori lehentxeago, Aitzolen hitzaurrearekin, Otañoren *Alkar.* Honek merezi du azpimarratzea: horrek ireki bait du bidea, 1932an. Berez 1904ean argitara-

tua zen, Buenos Airesen. Baina 32ko berrargitarapenak inpakto handia izan zuen. Basarri eta Uztapideren eskola berria hortik sortu da. Utzi Txirrita, eta beren testu-eredua Otaño izango dute. Hori aldakuntza handia da. Orain hasi den bertsolaritza ez da Txirritarena, Otañoren modeloa edo eskola da.

*Dorronsoro:* Txapelketara itzuliz, esan beharra dago, antolakuntza bezala oso gauza sinplea izan zela: hiru edo lau ariketa bakarrik, eta hori bera malizia gutxirekin. Esate baterako, gaia denei eman eta, inongo ordenarik gabe, kantaerazi: eta lehenengo kantatzen duena, eta bederatzigarren egiten duena, gai bera kantatzen ari dira. Ez da kontu hartzen nolako bentajak dauden lehenengo kantatu ala azkeneko kantatu.

*Lekuona:* Bai, eta jaialdia bera ere, batere jaialdi-egiturarik gabe zegoen antolatuta. Dena izan zen nahikoa sinplea. Gero, Euskaltzaindiak hartzen duenean, hori dena erabat aldatzen da. Batez ere puntuazioa, bertsoa nola baloratu, zeri begiratu behar dion epaimahaiak, etab. (Gaiaren interesarengatik, eta luzeagatik ere, puntu honen informazioa elkarrizketatik atera eta aparte ematen da: ik. "1. eranskina" *Idazk. oh.*).

*Dorronsoro:* Txapelketa horretan bi belaunaldi desberdin oso nabarmen elkartu zaizkigu, esan duzun moduan: Txirrita, Saiburu, etab., itzal handiko herri-bertsolari eginak, tradizionalak, alde batetik. Bestetik, uhin berria, nolabait esateko, batez ere Basarri eta Uztapide. Txirritaren eta Basarriren bertsogintza alderatuz, aipatuko zenuke bertsolari berrion agerpenak zer suposatzen duen?

*Lekuona:* Bi belaunaldiren tenka dago. Tenka horretan bi elementu desberdin kontrajartzen dira. Batetik, pertsonak berak. Txirrita, denok badakigu zein zen Txirrita. Karakterizazioa: 150 kiloko gizon-puska, mutilzaharra, bi makulurekin ibiltzen zen. Tabernaz taberna ibili-zalea, zelebrekerietan. Ogibidez, alfer famakoa, etab. Basarrirekin beste gizon-klase bat agertu da bertsolari: gaztea, mutil apaina, gorbatarekin; profesionalki kazetaria, etab.; baina bertso aldetik ere bai. Basarrik beste bertsolaritza bat egin nahi du, beste proiektu bat dakar. Nahi bada, egin, Basarriren proiektua eginez-eginez joan da, denborarekin. Baina hasieratik argi dago jokabide berri bat. Gizona aldatzen da eta artea aldatzen da.

*Dorronsoro:* Berria, baita, lehen aldiz erakunde batzuk sartzea da, bertsolaritza kanpotik zuzentzen edo, bultzatzen edo... Eta horrela bertsolari ez diren pertsonaia eta eginkizunak sortzen dira

bertso-munduaren baitan: gai-emaile, mahaiko, antolatzaileak, etab.

*Lekuona:* Bai, lehenago, Lore Jokoak, Euskal Jaiak eta horrelakoak antolatzen ziren. Horien jarraipen bat ote den, esango nuke, Bertsolari Egunaren antolaketa. Garbi dago, dena dela, 35ean *Euskaltzaleak*-ek eratzen duela, bertsolariena ez den talde batek.

*Dorronsoro:* Baina lehenengo aldiz bertsolariei bakarrik begira, eta jaialdi osoa bertsoz bakarrik osatuz. Zeren, bestela, edonolako jaietan edo bertsolariek interbenitzea bazegoen lehendik ere, baina bertsogintza beste hainbat gauzaren ondoan egoten zen: idi-dema, etab.

*Lekuona:* Esan beharra dago, bertsozalerik ere, oraingo moduan, orduan ez zegoela oraindik. Gaurko erako bertsozalea gero egiten da. Txapelketen inguruan jendeak berak ikasi egin du: eztabaidak egoten dira, publikazioak, kantatu dena gero irakurri egiten da, etab. Jendea jantzi egin da. 35ean entzulegoa joera zaharrekoa zen oraindik.

*Dorronsoro:* Izenik edo protagonistarik aipatzekotan, zalantza gabe, Txirrita eta Basarri. Baina mereziko luke gogoratzea Mattin Senperetarra, txapelketan bigarren geratu zena 35ean eta 36an azaltzerik izan ez zuena, tartean hil egin zelako. Baina oso bertsolari fina izan behar zuen.

*Lekuona:* Baina Senpereko Mattinekin, gero Xalbador-ekin gertatu zena gertatu zen pixka bat: iparraldeko bertsolariak entzunez, jendeak zirrara bat eraman zuela, ongi ulertzen ez bazuen ere: musika finagoa, irudietan kopla zaharren antz handiagoa. Mattin Senperekoak esaten zuena: hemengo bertsolariak bertsoa egiten hasieratik hasten dira; guk, aldiz, hasieran irudia jartzen dugu eta gero bertsoa egiten dugu, urrutitik hasten gara eta bukatu egiten dugu bertsoan. Kontraste-modu hori badago: arrazoi gutxiago, irudimen gehiago, kopla zaharren bidetik.

*Dorronsoro:* Alde positiboak eta negatiboak ikustera pasako gara. Egin ahal liteke balorazio bat, hor hartu zen bideaz, eragin handikoa izan bait da gerora. Orain berton bide hari jarraitzen gabiltza.

*Lekuona:* Teknika aldetik, positiboak dira, nik uste, lehenengo, antolabideak berak, organizazio bat sortzea. Gero, Basarri batek, Txirritaren aldean, zerbait berria suposatzen du: kultura, gaia emateko modua, erabiltzen dituzten gaietan bertan alde handia

dago. Bertsoa egiteko posturan ere bai. Euskara, adibidez, Txirritak eta, mordoiloa esaten zena erabiliko zizuten; berriak Otañoren modeloan datoz. Saioak ere harez gero laburragoak egiten dira. Usadiozko bertso-saio molde zaharra luzea izaten zen eta klimax baten bila joaten zen. Ez zen begiratzen 10 ala 20 bertso bota behar al ziren. Bota botatzekoak eta segi. Orain saioak laburragoak egiten dira eta landuagoak ateratzen dira. Oro har, uste dut positiboa dela orduan hartu zen bidea.

Negatiboa, beharbada, ba, ironiaren problema hori: ironia gozoagoari Uztapidek eta Lasartek eutsiko diote oraindik; Basarri eta, serioagoak izan dira, horiek ironia apalagoa dute. Ironia garratza ia galdu egin da. Galdu edo, baita, bertsolaritza komikoa ere, umoretsu entretenigarri hura. Nahiz eta ofizioetan, esate baterako, oso onak izan bai Basarri eta bai Uztapide, eztabaidari dagokionez.

*Dorronsoro:* Umorea edo txispa galtze horretaz. Txapelketa Basarrik irabazi zuen, irabazi. Baina txapelketa hartatik jendeak oraindik gogoan daukan ia bertso bakarra Txirritaren harako hura da:

Larogei urte gainean ditut
nago hanketako miñez
Donostiara etorria naiz
herren haundia egiñez
bi bastoirekin txit larri nabil
pausorik eman eziñez
euskera ia aztu zait eta
erderarikan jakin ez
maixu batekin eskolan laister
hasi behar det latiñez.

Beti ere Txirritaren tiroak txispa ateratzen zuen.

*Lekuona:* Baliabide-kontua ere badago. Txirrita beti uste ez zen edozein aldetatik ateratzen zen. Gaia euskara zen. Bertsolariak, euskara gora, euskara behera. Txirritak ez zuen gaia seriotan hartu. Hau da, eman zioten gaia hartu bai, baina komentario komiko batekin ateratzeko, zelebrekeria batekin. Mementu hartan, egun hartako giroan, euskararen aldeko arrazoiak ziren nagusi. Txirritak zelebrekeriara jo zuen: laurogei urte, herren haundia, eta maisu batekin latinez hasiko zela, euskara ahaztua eta erdara ikasi gabea zituenez. Eta maisu hori Aitzol izango zen, "maisu bat" esatean behatzaz berau seinalatzen zuenez. Algara zaratatsuaren bila, noski.

*Dorronsoro:* Arras bestelakoa Basarriren hasierako bertsoa:

Uso zuri bat inguratu zait
goizean egun argitzez
alaitasuna hartxek sortu dit
jaun maiteak, bere hitzez
eta ni orain zuen aurrean
nauzute pozaren pozez
lendabiziko, entzule onak,
agur danori bihotzez.

*Lekuona:* Horixe: 21 urteko mutil gaztea, dotorea, gorbataz jantzia, eta hasiera horrekin, literatura erromantikoan jantzia agertuz, sentsazioa egin behar zuen.

*Dorronsoro:* Epaimahaikoek maite zutena Basarriren modua zen. Esan dugu EAJ-PNVko jendea zela.

*Lekuona:* Txirritaren umorea, herriko jendeak oso maite zuen, baina donostiar jende dotoreagoxeak ez zuen hain gogoko umore-modu hori, eta nik uste dut maila baxuagokoa jotzen zuela. Politikara etorriz, lehen ez dugu aipatu, eta aipatu beharra zegoen Enbeita Urretxindorra, mitinetan ibiltzen zen bertsolaria. Ez da ahaztu behar Basarrik eredu horri ere jarraitu nahi izan ziola, eta ibili ere egin zela harekin mitinetan. Eta gero, bertsolaritzak sozialki halako leku pribilejiatua irabazi badu, ezagutu egin delako, da, bertsolaritza indar handia dela.

*Dorronsoro:* Bertso-kantaldi tradizionalen luzea eta saio berrien laburtasuna aipatu duzu. Beharbada esan daiteke, bertsoa geldiroago kantatzen ere handik hasi zela, astiroago, pentsatuago. Hori gaur gehiago nabarmentzen da, baina bertsolari tradizionaletatik Basarriren bertsogintzara ere sumatzen da. Intelektualagoa, logikoagoa, hobeto betea, egokiago konposatua..., baina astiroago eta patxada gehiagoz osatzen da bertsoa.

*Lekuona:* Arrazoia, beharbada, begizko memoria indartu dela eta entzunezko memoria ahuldu. Begizkoa zehatzagoa da, baina askotan entzumenezkoa azkarragoa: bestelako konexioak sortzen ditu. Gero, baita, hurbilketa bat hasi da literatura idatziari. Positiboa, negatiboa? Nola ikusten den, izango da. Baina besterik ezinezkoa zen hori: Basarri eta horiek, egunero irakurtzen eta idazten duen jendea baziren, nahitaez horiek idatziaren eragina zekarten, bertso ez-logikoago zahar hura ez zuten maite. Eta hori gero konstante bilakatu da, gaur arte, gero eta indartsuago. Gaurko

bertsolari-estiloa hurbilago dagoela dirudi bertso idatzitik, joan den mendekoena baino.

*Dorronsoro:* Historiaren hariari jarraituz, gerra ostera etorriko gara.

## II. Gerra ondoko txikizioa eta berrastapenak

*Dorronsoro:* Gerrak txikizioa dakar, bere ondorio guztiekin. Bertsolariak ihesi joan dira, edo espetxean daude, desterruan. Entzulerik ere, egoera hartan, ezin egon. Urte batzuetan behintzat zeharo ezkutatzen da bertsogintza guztia alde honetatik, bai bapatekoa, bai idatzia.

Baina txarra ere ez da dena. Alabeharrez, beti gertatzen den eran, Euskal Herriaren egoera eta sasi-muga hori tartean dela, askok beste aldera joan behar izan du eta han bertsogintza bizteko aukera dator. Hernandorena han dabil. Baita Monzon ere. Basarri ere bai, gerra ondorengo hiru urtetan behintzat. Errexil bertsolariak ere, hor mugan goardian dagoela, pentsatzen du "bueno, nik joan egin behar diat hemendik" eta hanka egiten du bere mitraileta eta guzti Francoren zeretik beste aldera. Bertsolari bat gehiago Iparraldean. Hernandorenak bultzatuta, xaxatuta, lehenengo txapelketak 44/45 urteetan hasi dira, Donibane Lohitzunen. Han agertzen dira Xalbador eta Mattin, eta hemendik ihesi joandakoak, Zubikoa eta. Hernandorenak bildu ditu horiek denak.

*Lekuona:* Hegoaldean poliki-polikiago joan behar izan da. Txapelketaren oroitzapena badago herrian. Eta gogoa ere bai, "noizbait iritsiko bagina horrelakorik berriro egin ahal izatera" eta; sua badago azpian. Egin ere, zenbait txapelketa-antzeko saio egin ziren. Tolosan behintzat badakit, 46 aldean. Gero hementxe Gros-en egin zuten zerbait, 47/48an, bertsolari gazteentzat. Eta 50ean Falage-ak berak antolatu zituen San Tomas ferietako lehiaketak. Salbatore Mitxelena eta hor ateratzen dira, poesi sariketekin batera egin bait ziren bertsoenak. Gero Perla-n bertsolari gazteen txapelketa bat ere egin zen. *Arantzazu* aldizkariak bertsoak publikatzen ditu, eta Arozamena eta, bertsolarien argazkiak, etab. Beraz, 52 inguruan berriro mugimendu bat hasia dagoela hemen ere, esan genezake.

*Dorronsoro:* Ordurako Iparraldea dexente aurretik zebilen. 49-50-51 urteetan ia Hernandorenak Euskal Herri osorako sarike-

ta berezia prestatzen du han. Hiru urtetan segidan, nork jaso txapela, jokatu zuten: Basarrik irabazi zuen eta Xalbador bigarren.

*Lekuona:* Hegoaldean, besterik ezinaren poderioan, Basarrik eta herriz herri egiten duten lan izugarria dago batez ere berrogeitamarkada horretan. Hau da, lehen esan den moduan, nahiz eta zerbaitek lehenengotik kaltetarako bakarrik dela eman, eta politikoek horixe bakarrik nahi, luzarora, lana eginez, ondorio onak ekartzen ditu. Eta nik uste hori dela Basarrik eta Uztapidek herriz herri egin duten lanak ekarri duena. Bizkaian ere badabiltza, Enbeita, Iturri, agian besteren batzuk. Gutxi batzuk; egon ere, dirurik ez bait dago, bertsolari gehiago ibili ahal izateko eta ordaintzeko. Baina urtero urtero herriz herri, bertsozaletasuna zabaltzen ari dira. Beraz, 60an txapelketa etortzen denerako, lan bat egina dago azpitik. Ibilian ibilian horiek egin dutena, katekista-lan izugarria izan da bertsolaritzarako. Jendea ikasiz joan da zer den bertsolaritza.

Beharbada hemen gehitu behar da, urte horietan bertsolaritza sinbolo bihurtzen dela, frankismoan alegia. Han euskaraz egiten da, euskal pentsamendu eta sentimendu bat bizitzen da, hemengo herri izateari eutsi nahi zaio. Baina hori gehiago indartuko da gero.

*Dorronsoro:* Noski, Basarri eta Uztapide izan dira lan gehiena egin zutenak. Baina izen batzuk gehiago luzatuz, Bizkaia aparte, gutxiago ezagutzen dudalako, Gipuzkoan bederen bertsolari gazteak ere badatoz horien atzetik: Joxe Lizaso, Lasarte, Mitxelena, Lazkao Txiki eta, herriz herri lagun egiten hasten direnak eta txapelketan ere tartean ibiliko direnak. Txapelketa, hemengoa, 60an izan da, Donostian hau ere. Donostia, gauza hauetan, sekula diskutitu ez den lekua izan da. Txapelketak beti Donostian jokatu izan dira. Arrazoi askogatik, bertsozale asko dagoelako inguru honetan, etab. Hori izango genuke, beraz, bigarren mugarria. Eta txapelketak bere aurreko urtean kanporaketak dakartza, herrialdez herrialde. Batez ere Bizkaian eta Nafarroan. Horrekin bigarren puntura heldu gara, 60ra, eta horri heldu beharko diogu.

## III. Plaza-bertsolaritzaren gora berria

*Lekuona:* 60an aurkitzen dugun egoera sozio-kulturala zerbait bestelakoa da jadanik. Zentsura eta errepresio-giroa zerbait lasaitu

da. Adibidez, 49an Salbatore Mitxelenaren poema argitaratzen da, 50ean Orixerena, gerraosteko literaturaren berrastapenak. Poliki-poliki gero literaturak bere martxa eraman du. Beraz, pixka bat bigundu egin da euskal kulturaren zapalkuntza eta horrela ulertzen da zergatik Gobernadoreak onartzen duen bertso-txapelketa bat berriro antolatzea.

Bigarren lekuan, Euskaltzaindiak hartzen du txapelketaren antolakuntza. Zergatik? Entitate hori nolabait txapela bat bezala zelako, buru denak estaltzen zituena, hemengo zenbait ekinbide alegia, bai hizkuntz arloan, literaturan, etab. Itzal bat bazuen, onarpena zuen guztien aldetik, eta horregatik hartu zuen bere eskuetan batez ere. Berak bakarrik egin zezakeen. Eta horrekin aldakuntza garrantzizko bat nabarituko da: Euskaltzaindiak antolatu duen txapelketa hori gerra aurrekoak baino askoz ere zehatzago egiten da.

*Dorronsoro:* Aurretik kanporaketak egin ziren. Bizkaian eta Nafarroan nahikoa xuxen jokatu zuten, Gipuzkoan gutxiago. Gipuzkoan, Basarri eta Uztapide hor zeuden, besteren batzuk ere bai, itzal handikoak, bertsolari askoz gehiago ere bazebilen, etab. Eratu izan dira hemen ere kanporaketak, baina ez da beste herrialdeetan bezala funtzionatu.

*Lekuona:* Hasiera batean pelota-txapelketako eskema hartu zen. Alegia, lehengo txapeldunak azkeneko saioan bakarrik jokatzea. 60ko txapelketan Basarrik azkeneko saio bakarra egin zuen. Egon zen egun osoan zain, ea nor ateratzen zen harekin jokatzeko, eta azkena bakarrik jokatu zuen Uztapiderekin. 62an Basarrik berak eskatzen du egun guztian ihardutea. Ez dela ona hotz-hotzean eta bapatean azkena jokatzea. 62an, txapela galdu zuenean hain zuzen, Basarri goizetik hasia zen kantatzen.

*Dorronsoro:* Hautaketetara etorriz. Iparraldetik ere bikote nahikoa segurua dator beti, ez zen egiten kanporaketarik. Euskaltzaindiak dei egiten zuenean txapelketara, Mattin eta Xalbador-i dei egiten zien, ez zitzaion inori burutik pasatzen besterik egitea. Nafarroatik, Lasartek ez zuen nahi izaten eta hautatzen zen bikotea bigarren mailakoa edo izaten zen. Kejak ere beti egon dira, gipuzkoar gehiago edo gehiegi omen zegoelako, etab. Problemak beti egon dira; eta gaur ere badaude oraindik, lurralde bakoitzak duen bertsolarien maila eta ugaritasuna Txapelketa Nazionaletan nola ordezkatu egoki, erabakitzeko orduan.

Baina egoera sozio-kultural orokorrari heldu beharko genioke aurrenik. Alegia, bitartean ETA sortu da, ikastolen mugimendua hasten edo dabil. Joanes XXIII.aren eta Kontzilioaren garaia da, Elizan batez ere aldakuntza handiak nabari dira, horrek asko esan nahi du frankismoan eta Euskal Herrian ere, Kennedy, Khruschev, etab., egoera optimista bat dago, indarberritu nahi bat, eta hor sartzen da lehenengo txapelketa honetako giroa. Bestalde 35etik zetorren uhin berri hura orduantxe dago sasoi bete-betean, berrogei urte inguruan, onenean daude eta hamarkada honetan bultzada izugarria emango diote bertsolaritzari, 60tik hasita.

*Lekuona:* Oso bertsolari trebeak elkartu dira hor. 60tik 68ra plazako bertsolaritzaren gailurra eman dela esango genuke. Urre Aro antzeko bat. Basarri, Uztapide, Mattin, Xalbador, Lazkao Txiki, Lasarte, azpeitiarrak ere bai, saila dago eta jende oso ona dago. Azpillaga gaztea, Basarri eta Uztapideren ondoren hirugarren egingo duena 62ko txapelketan, Lopategi ere badator, Mitxelena, Garmendia —gero igoko zen gehiago hori—, asko eta oso onak; bapatean ez dago denak esaterik.

*Dorronsoro:* Txapelketen inguruko publikazioen inportantzia aipatu dugu lehen. Teorizazioa, dibulgazioa, txapelketei lagun egiten.

*Lekuona:* Hemen ere badago. *Auspoa* 61ean hasi da, Zavalak *Bosquejo de historia del bersolarismo* ematen du 64ean, urte berean Onaindiak *Gure bertsolariak*, etab.

*Dorronsoro:* Mikrofonoa ere jadanik sartu da, bertsogintza asko aldatu duen bitartekoa.

*Lekuona:* Esan izan da, bestela eztarria behar bait zen, Lazkao Txiki bat, adibidez, mikrofono gabe ez zela egingo egin den bertsolaria, eta horrelakoak. Eta agian mikroak izango ditu beste alderdi batzuk: ez ditugu aztertu, baina ahots handian kantatu beharrean, xuabe egin ahal izanez, agian inprobisazioan bertan badu zerikusirik, lirika egiteko ahalbideren batzuk beharbada ematen ditu, eta horrela. Jakina, lirikarakoa Xalbador-ek asko eragin duen joera izan da. Dena dela, orain, gauza hauetan, 60ko txapelketa esaten dugunean, 60tik 68rako epea batean hartu behar da. Aldi horretan inportantea izan da Iparraldeko bi mezularien ekarria, hemengo bertsolaritzari berari eragiteko. Mattinek zekarren giroa ere, xaribarien gatza eta biperra, esaterako. Bertsozale tradizionalari Mattin batek eta bera bezalakoek eutsi diote, parateatrotik hurbil.

Teknikan sartzen bagara orain, lehen ere esan dut, txapelketa hauetan hasieratik ikusi zena, gauzak gero eta zehatzago egiten direla. Euskaltzaindiak gaiak denentzat berdintsu jartzen ditu; gainera, zotz egiten dira gaiak, bakoitzak bere gaia izango du; ahal den kondizio berdinenetan egingo dute denek saioa. Hor abiatzen da, adibidez, gartzelako edo banakako saio hori: gai bera, baina batak besteari entzun gabe, kantatzea. Bordarik asmatu zuen hori eta Euskaltzaindiak sartu.

Musika aldetik, zuk hobeto esango duzu hori. Gaiak ugaritu eta zabaldu ere egin dira. Gero, kondizioekin berekin, bertsolaritza bera aldatzen da. Goizekoan eta bazkalondoko saioan ez dira gauzak berdin egiten. Konposizio aldetik ere, lehenengo bertsoan zer esan, bigarrengoan, hirugarrengoan, ikusten da bertsolariak asko begiratzen duela. Lopategi, Xalbador eta Lazkao Txikiren influentziari zor zaio hori seguruenik. Hau da, konposizioaren estilistika bat nabarmentzen zaie. Hau aldakuntza inportantea da bertsoaren lanketan.

Balorazio-sisteman ez zen gehiegi aldatu. Esaten zen, bakoitzak notak eramateko, baina denok ez genuen sistema bera erabiltzen, ez dut uste askok egiten genituenik ere notak. Gainera 60an oraindik bi epaimahai bezala zeuden. Hori ez dakit nondik arraio sortua izango zen. Bat zen Euskaltzaindiko ohoratuena edo, ez dakit, beharbada herri-literaturarekin zuzeneko erlazio gutxiago zutenena; bestea, herrikoia edo, bertsozalez osatua, bertsolaritzaren testigu edo bezala ginenona. Bi izaten ziren behintzat. Herri-tribunalekook, nolabait esateko, gure eritzia ematen genion Euskaltzaindiko beste epaimahaiari, eta, pixka bat denon artean hizketatuta beraz, hark ematen zuen erabakia Euskaltzaindiaren izenean. Azken hitza epaimahai horrek izaten zuen. Hori horrela, nolanahi ere, 60an bakarrik egin zen. 62an dagoeneko ez, epaimahai bakarrarekin hasi zen orduan.

*Dorronsoro:* Jakingarria litzateke epaimahai bakoitzekoen izenak ezagutzea.

*Lekuona:* Bai, 60ko txapelketako epaimahai horiek honela osatu ziren: Euskaltzaindiaren izeneko epaimahaian zeuden Mitxel Labegerie, Aingeru Irigarai, Antonio Arrue, Luis Mitxelena, Antonio Zavala eta Bordari; bigarren beste mahaian Antonio Pagola, Migel Goitia, Pedro Diez de Ulzurrun, Marzelo Andrinua eta ni neu. Alfontso Irigoien zen gai-emailea.

*Dorronsoro:* Eta entzulegoari begira zer? Esan nahi dut, 35eko txapelketa Euzko Gaztediaren "Poxpolin" izeneko aretoan egin zen, eta 36koa "Victoria Eugenia"n.

*Lekuona:* Galdera polita. 60koa Victoria Eugenian egin zen. 62koa Astorian. Garbi zegoen alferrik zela, horietan ez zegoen lekurik. Jende-pila geratzen zen kanpoan, egunak aurretik sarrera bat lortzeko eromena izaten zen. Orduan hurrengo txapelketa Anoetara eraman behar izan zen, 65ekoa. Hortik, publiko gehiago ezezik, beste giro bat hartu du jaialdiak. Gainera, publikoak berak gehiago entenditzen du bertsoa eta gehiago partizipatzen du nolabait. Badira hor, 67an eztabaida batzuk Xalbador-engatik. Onartu onartu, hemengo publikoak, Xalbador, 67ko txapelketaren ondoren onartu du, 67an txistu franko jo eta gero.

*Dorronsoro:* 60tik aurrera txapelketa oso-osoak jaso ahal izan dira magnetofonoen bitartez. 35ekotik ia ezer ezin jaso izan zen; 36kotik dexente, baina gutxi fidatzeko moduan...

*Lekuona:* Ba al dakizu nola egin zuten 36koa jasotze hori? Elkartu ziren taldetxo bat, bakoitzak bertso bana kopiatzen zuen, eta gero bata bestearen ondoren josi. Baina bakoitzat bakarra hartuz, edo ez zutela eskuz ondo idatzi, edo ez ondo ulertu, dena dela, akats askorekin atera zen. Eta ez dena.

*Dorronsoro:* 60koa lehenengo aldiz osorik jasotzen da eta liburu batean argitaratu. Horrela bertsozaleak esperientzia berri bat egiten du: entzun duena irakurri eta berriro epaitu. Interes handia sortu zuen. Edizio piratak eta, egon ziren.

Beste berritasun bat, ordea, irratiena izan da. Bertso-saioak irratiz ematen dira eta bertso-tradiziorik ez duten herrietan ere, Arrasaten edo Eibarren, bertsozaleak sortzen dira horrela. Loiola Irratiak txapelketa bat ere antolatu zuen urtero, hasi 63an eta 72a arte. Irrati-kontuan ere Basarriren katekesia, periodikoan egiten zuenarekin batera, inportantea izan da.

Lehen musikarena airean utzi dugu. Bertso-doinuei buruz liburuek ez digute inongo informaziorik ematen, 1967. urteko txapelketa arte. Hala ere, labur-labur, doinu aldetik abanikoa asko zabaldu dela, esango dut bakarrik. Bertsolariek doinu desberdinak erabiltzen dituzte eta dominio gehiago erakusten dute neurri desberdinetako bertsoetan airoso agertzeko. 35eko txapelketan bi edo hiru doinutan dago dena, ez dago besterik: zortziko txikiko doinu bat, "Sastarretik hasita" deritzona; zortziko haundiko bat: "Ari

naizela" izenekoa; eta beste bat, hamarreko haundikoa, "Mutil koxkor bat". Orain hainbat neurritan eta doinutan aritzen dira kantari. 67ko txapelketako azken saioan 20 doinu desberdin erabili zituzten.

*Lekuona:* Ugaritzea eta dibertsifikatzea, aberastea, edozertan sumatzen da, bertsolarien ibileretan eta presentzian ere kalean. Lehen Basarri eta Uztapide, eta besteren bat, ibiltzen baziren herriz herri, txapelketak, su bat edo tentsio bat sortzen duelako edo, giro bat, arrakasta izaten du jendearen artean eta herrietatik eskabideak ugaritu egiten dira. Orduan, bada, bertsolariak, ez herriz herri bakarrik eta urteko egun jakinetan, baina jaialdietan, soziedadeetan, afarietan, edonon dabiltza; bertsolaritza ikaragarri zabaltzen da, 67tik aurrera batez ere, eta jaialdi asko egin da garai horretan. Jaialdian, ordea, espektakuluaren baldintzetan kantatzen da, ez konkurtso-baldintzetan eta orduan musikaren ugaritasunak eta, ikus- edo entzungarritasunak desarroilo bat berez bezala dute.

*Dorronsoro:* Jaialdi inportante samarrik ez da egingo, gainera, Iparraldeko biak gabe, Bizkaitik ere bat do bi ekarri gabe. Azpillaga gelditu gabe ibili da. Bertsolariek elkarri ikusi eta ikasi egiten diote, elkarren artean festa bat muntatzen dute.

*Lekuona:* Inportantea, baita, zein isiltzen den ere: Basarri, 62tik aurrera zirkuitutik atera egiten da, isilik geratzen da. Lehenago Zepai bezala; Tolosako lehen esan dugun txapelketa-moduko hartan, orduko agintari gorenari buruz kantarazi eta, gero ez da urteetan azalduko. Geroago, borroka armatua indartzen denetik batez ere, herriak horixe eskatzen zuelako, edo bertsolariek horrelaxe sentitzen zutelako, bertsolaritza politizatu egiten da. Azpillagak eta Lopategik bertsolaritza sozialetik asko egin dute. Kontutan izan behar da, salbuespen-egoerak eta zigorrak ugaritzen hasi direla. Giroa zaila dago. Orduan, Uztapide, Lasarte, ez dira gustora sentitzen mundu horretan, edo ez zitzaien hori jaiotzen, pixka bat gaizki pasa zuten nolanahi ere. Baina prozesu hori txapelketatik kanpo gertatu da.

*Dorronsoro:* Aurrera baino lehen, 60ko hamarkada honetan aipatzekoa izango litzateke bertso-paperen arloa ere, Euskaltzaindiaren "Xenpelar Saria". Bertso-papera ere indartu egin bait da garai honetan.

*Lekuona:* Bertso-paperak beti inportantzia izan du bertsolaritzaren eboluzioan eta garapidean. Gerra ondoan galerazia egon zen, baina, giroa lasaitutakoan, bertso-jartzaileak hasi ziren beren

bertsoak aldizkarietan argitaratzen. Orduan Euskaltzaindiak urtero Xenpelar Saria jarri zuen 62tik aurrera. Xalbador izango da Xenpelar Saririk gehien irabazi duena. Eta irabazlerik gehienak, Xalbador eta Lazkano salbu behintzat, ez dira plazako bertsolariak izango. (Irabazlen eta beren gaien zerrenda aparte ematen da: ik. "2. eranskina". *Idazk. oh.).*

Bertso-paperekin batera liburuak aipa genitzake, *Auspoa*-ren edizio bereziak, geroxeagokoak badira ere. Uztapidek bere bizitza idazteak, etab., esan nahi du, bertsolaritza prosagintzaraino heldu den honetan —gogora Lasarterena, Xalbador-ena—, belaunaldi honek bere goena jo duela. Proiektua bete du. Eta inguru honetantsu Uztapide ere isildu egiten da, lehen Basarri bezala.

*Dorronsoro:* Edozein moduz ere, gogor samar esanda, 67/68 aldera, beranduenik *Auspoa*-ko liburu horiekin, gizaldi hau beheraka sartzen da. Uztapide, Mattin, Xalbador bera laster. Emateko hoberenak eman balituzte bezala, *Auspoa*-ko liburu horiek testamentu antzera ikus genitzake, bai Uztapiderena, bai Xalbador-ena. Jarraiko urteetan ikusten duguna, belaunaldi berri baten errelebua da, oro har.

## IV. Krisi eta zigor artean gora

*Dorronsoro:* 60ko aldi hau, hots, gerra ostean zerotik hasi, poliki-poliki abiada hartu, 60an gorputza hartuta agertzen dena, 80raino jarraitasunean iristen da, kanbio handirik gabe, bertsolaritzaren beraren tamainan behintzat. Baina 60tik 80ra izan du gorabeherarik bertsolaritzak, batzuk larri samarrak.

*Lekuona:* Bai, 67an txapelketak moztu egin dira.

*Dorronsoro:* Zergatik?

*Lekuona:* Esan egin behar al da? Bueno, 67ko txapelketan, Xalbador zela eta ez zela, Xalbador finalera pasa zuelako hain zuzen, edo hegoaldekoren bat pasa ez zuelako, izenak hobe izango da alde bat uztea, dena dela publikoak sekulako txistualdia jo zion epaimahaiari. Mingarria izan zen.

*Dorronsoro:* Gero 68an "Onena" pentsu-etxeak bere aldetik Sariketa handi bat antolatu zuen, hogei mila duro sari eskainiz,

gainera. Eta bertsolari guzti-guztiak presentatu ziren hor, txapelketara joaten zirenak eta ez zirenak, erretiratuta zeudenak, puntakoak behintzat denak. Eta hor aldakuntza nabarmenak datoz. Lehenengo, ez direla gutxi batzuk bakarrik presentatzen, kanporaketaren ondoren bezala. Baina, batez ere, mahaikoen aldetik, puntuazio aldetik —lehenengo aldiz orduan ematen da puntuazioa agerian—, eta hor bukatzen dira txapelketak, nahikoa eskandalurekin. Hamabi urteko etena dator txapelketetan.

*Lekuona:* Nik epaimahaiaren alderdia aipa nezake, hor egon den aldaketa. 67ko txistualdiarekin, epaimahaia nahikoa erreta geratu zen. Herria konturatu zen Xalbador bertsolari aparta zela eta saiatu zen eskuratzen, oso ongi saiatu. Inor baino maitatuagoa izan da gero Xalbador hemen. Erreta, Juradua gelditu zen. Bestetik, pixka bat nekatua ere bazegoen, ikusten zuelako herrian edo bazegoela deskontentu-modu bat. Eta, guztiaren gainetik datorrena, esan duzun 68koa. 68koan ez da Euskaltzaindiaren epaimahaia aintzakotzat hartu. Esaten dizute: mahaikoek gutxiago izan behar dute; bertsolaritza hurbil-hurbildik ezagutzen dutenak izan behar dute, etab. Jakina, egongo zen beste pentsamenduren bat ere azpitik. Taka, bada, hartu zuten idazkari bat, Joan San Martin, eta herrialde bakoitzeko ordezkari bat: Nafarroatik, Satrustegi; Bizkaitik, Amuriza; Iparraldetik, Mitxel Itzaina; Gipuzkoatik neu egon nintzen. Hori izan zen epaimahaia. Urte askotan lan egindako Euskaltzaindiaren epaimahaia oro har bazterrera geratu zen horrela, eta nolabait desautorizatua bezala. Horrek denak, uste dut, Euskaltzaindiaren barruan ezinegon bat sortu zuen. Gauzak horrela, ez dut uste Euskaltzaindiaren epaimahaiarekin justizia egin zenik. Beti egon da Juraduaren kontestazioren bat, eta azkeneko gorabehera hauetantxe ere ikusi da: berrikuntzarik handiena epaimahaiaren berrikuntza izan da. Ez da erraza hor zuzen asmatzea.

*Dorronsoro:* Txapelketarik egon ez den denboraldi horretan —jaialdiak, ordea, asko egon dira— esan dugun Azpillaga eta Lopategiren bertsogintza soziala desarroilatu da. Bueno, ez horiena bakarrik. Herriz herri dabiltzan guztiena. "Onena"ren Sariketaren ondoren hilabete-pare batera gertatzen da Etxebarrietaren hilketa, ondoren etorri den guztiarekin. Giroa oso bestelakoa da. Gaien aldetik egundoko aldakuntza dator, ezta?, eta gaien trataeran ere bai. Nolabait, bertsogintzari oso ondo datorkio, gehiegikeriak aparte, kontrabandoko mezu bat transmititzen aritzea. Edozein gai jartzen zitzaiela, bertsolariek aterako zioten puntta politikoa

nonbaitetik, bigarren sentidu bat azpitik. Garaiak ere halakoxeak ziren eta gai-jartzaileak ere ezkutuka emango dio gaia. "Sardina zaharra"ri kanta diezaion agintzen baldin badio, adibidez, bertsolariak laster helduko dio bigarren zentzuan, "ea noiz disekatzen dituzten beste sardina horiek" kantatuz. Horrela grazia bat desarroilatzen da, malizia bat, bertsolaritza zaharrak oso berea zuena. Horrek entzulego berria sorterazten du: Francoren aurka dagoena, gazteria politizatuagoa, berak esan ezin duena eta sentitzen duena bertsolariak esatea espero duena, etab. Publikoak eta bertsolariek bat-bat eginda ikusten dituzte bere buruak, elkarren konplize moduan. Honela helduko ginateke 80ko arora. Hernandorenak elkartuta Donibanen kantatu zutenen aroa, esan genezake, itxi egiten da. Berri bat ireki.

## V. 1980ko gailur berria

*Dorronsoro:* 80koan aldakuntza nabarmenak ematen dira globalki: frankismoaren bukaera, Erreforma izenekoa, Alderdi politikoak.

*Lekuona:* Horregatik bertsolaritza sozialaren arazoa 80an espreski birplanteatzen da. Bertsolariek berek egian dute. Alegia, posible al den, komeni ote den, hortik jarraitzea. Hitz egiteko eta mitinak egiteko aukera orain badago eta bertsolariak lehengo moduan jarraitu behar al duen ala tradiziozko gai zabalak tratatu.

*Dorronsoro:* Berrikuntza teknikoetan, lehen irratia bezala, orain bideoa sartzen da. 80ko txapelketa bideoan jaso da. Liburugintzan eta teorizazioan aurrerapauso handiak eman dira. Amurizaren *Hiztegi errimatua* eta *Hitzaren kirol nazionala*, nere *Bertsotan* izeneko liburua, 1981. urtean argitaratzen dira; eta 1982. urtean, berriz, Amurizaren *Zu ere bertsolari*, Joan Mariren *Ahozko euskal literatura* eta nere *Bertsotan gidaliburua*. Berritasunik ohargarriena, halere, bertsolari-eskolak dira zalantza gabe, eta bertsolaritza eskolan sartu nahizko bideak eta azpiegitura sortzea: testugintza, haurren txapelketatxoak, liberatuak, etab.

*Lekuona:* Honekin bertsolaria jaio ala egin egiten den, planteatu da.

*Dorronsoro:* Berrikuntza guztietan gertatzen da, datozenean, planteamenduak zeharo garbi egin gabe etortzen dira, eta hasieran *shock* bat bezala eragiten dutela. Joera batean bertsolaritza zerbait mitiko samarra bezala zegoen hartuta. Berezkoa, Jainkoak emandako dohain ezkutua, etab., lilura bat duena, misteriozkoa denez. Beste joera batek hor misteriorik ez dagoela, esango du; bertsolaritzak teknika batzuk ditu, txikitatik hasiz gero ikas litezke, beste edozer gauza ikasten den moduan. Hori dela eta, hain zuzen, bertsolaritzaren oinarrizko kontzeptuak argitu beharra etorri da, eta ari dira argitzen. Zer den zehatz-mehatz puntua, oina, edo zortziko txikia. Hiztegi bat ere ez zegoen egina, terminoak berak finkatzeko. Eskolan sartuko bada, ordea, teorizazio bat egin beharra dago, eta egiten ari gara.

*Lekuona:* Gero dibulgazio mailan txapelketa honen inguruan ere dexente egin da. Horretan aritu direnetatik bi behintzat hementxe gaude eta beste asko ibili da prentsan, irratian, telebistan, liburugintzan. Konstantea da txapelketen inguruan dibulgazio-mugimendu bat sortzea. Berdin, berriz ere bertsolaritzaren dibertsifikazio eta ugaritze bat ikusten da: 80an eskolarteko haur-txapelketak hasi dira; gazteenak lehenagotik datoz, 62an egin zen bat Loiolan, eta lehenagoko luistarrenak eta gerra ondorenean, aspaldikoak dira horiek, baina 70etik aurrera finkatu dira. Gero, neska bertsolarien interesa bizten da, etab.

*Dorronsoro:* Belaunaldi berri bat ere agertzen da gailentzen. Aldian aldian, gizaldiek aurrera segitzen dute, olatu baten atzetik bestea etortzen da, eta izenak ere berri-berriak datoz. Amuriza lehendik baldin bazetorren ere, eta lehengo batzuek segitzen badute ere, hor datoz Lizaso eta bere sasoiko olatu berria indarrean.

*Lekuona:* Berritasun nagusia, denok ados izango gara horretan, Amuriza da. Amuriza plazan lehendik dabil, eta 80an etortzen da, beste batzuk ez dira etorri, eta txapeldun atera da. Amurizarekin bapateko bertsogintzak zeharo beste maila bat erakutsi du. Han ikusi zen zer handitasunezko artea zerabilen bertsoan. Denean, gainera: musika berriak, gai biribilki emanak, hizkuntza landua euskara batuan, etab. Berrikuntza handia. Gero, bere teorizazioa praktikan erakusten zuen: errimak egoki eta erraz eginak, *Hiztegi errimatua*-n irakatsi bezala. Berriztapen handia zekarkion bertsogintzari edozein aldetatik. Bertsogintzan ez da Txirrita, ironia ez du bere fuertea, baina bere alderdi bikainak baditu, euskara zoragarria, teknika zuzena eta ongi landua: badu berea. Maila bat jarri

du, bakarkako saioan batipat, ofizioetan eta ez hainbeste nabarmendu arren.

*Dorronsoro:* Doinu berriak aparte, neurri desberdinetan aisa moldatzea, bertsogintza luzearen dominioa, bapateko saioetan sekula erabili izan ez diren hemistikioak, zortzi/zazpi adibidez, eta horrelako mila gauza. Ikusten da gogoeta sakon bat egin dela bertsolaritzaren barrutik, bertsolari batek berak egina, orain arteko Lekuonarenak, Onaindiarenak, Zavalarenak ez bezala. Amuriza, bera bertsolaria izanik, bere teorizazioaz praktikan baliatzen da.

*Lekuona:* Ez dago ahazterik Basarrik ere baduela bere teorizazioa, Xalbador-ek ere bai. Azkenean, prosara pasa direnean, denek egin dute teorizazio-moduren bat. Amurizak, ordea, badu maila zientifiko eta literario bat, besteek ez bezalakoa, eta beste modu batean elkartu ditu teorizazioa eta praktika.

*Dorronsoro:* Inoiz ez da mundu guztia guztiz gustura izaten eta esamesak orduan eta gero azaldu izan dira, 86ko txapelketan adibidez, Lizaso gazteak irabazi duenean, berriz ere bertsolaritza herritar jatorrak bertsogintza intelektualaren aurka irabazi balu bezala. Baina ikuspide motzak ematen dute horiek.

*Lekuona:* Egia da, lehen ere esan dugu, Amurizak ez du erakutsi dohain apartik umorerako, ironiarako. Horretan beste batzuk gehiago dira; aipagarria Peñagarikano baten komizitatea. Amurizak bere modua du eta bere moduan ekarri duena hor geratuko da. Nik ez nuke planteatuko modu bat herritarra balitz bezala, eta bestea ez. Herritarra bertsogintza guztia da. Eta zaila izango da aurrerantzean bertso lirikoa edo dramatikoa Amurizaren moduan ez baina bestela egitea, denbora batean. Horrek ez du esan nahi, ofiziokoetan, eztabaida dialektikoan, beste edozein bertsolari abil hobea ez denik.

*Dorronsoro:* Nik uste dut oraindik azkar samar dela gauza hauek zer diren ikusi ahal izateko. 80ko bertsogintza berria oraindik bidea egiten ari da. Ez dago esaterik, 80an Amurizak joera bat ekarri du, 86an jadanik beste joera bat nagusitu da. Horrela izan denik behintzat ez da inondik sumatzen. Nik uste dut Amurizaren aportazioa 86ko bertsolaritza guztian nabaritu dela. Ez da lehen bezala. Gero, bertsolari bakoitza bakoitza da eta bere modua du. Beti hala izan da eta orain ere joera desberdinak daude, indar eta modu diferenteak, denen artean ari da oraingo bertsogintza bere forma propioa hartzen eta osatzen. Gaur oraindik ez dago baloratzerik azkenean zer aterako den. Bertsogintza bat zer den,

mementu bakoitzean, bertsolari guztiek egiten dute bakoitzak bere aportazioa. Amurizak egin duena eta egiten ari dena hor dago, eta besteek egiten dutena ere hortxe dago. Historia ez da bukatu eta distantzia gehiago behar da gaur-gaurkoa epaitzeko.

Transkribatzailea: **Joxe Azurmendi**

1. eranskina

## Epaimahaiaren erizpideak bertsoak neurtzeko

I. 1935 eta 1936ko Bertsolari Egunetan epaimahaiak zituen arau guztiak hauexek izan ziren (Ik. *Bertsolari-Guduak 1935-1936,* "Euskaltzaleak", Donostia 1936, 31 or.):

*Bertso bakoitzari puntuak emateko era*

Oso txarrari ................................ 0

Txar-xamarrari ........................... 5

On-xamarrari ............................ 10

Onari ....................................... 15

Oso onari ................................. 20

"Epaikari bakoitzak, onela, errez eman zezakeen bere iritzia eta guziak batasunez, erabakia zuzen".

II. "Arrasateko Arauak": 1979an, Euskaltzaindiaren IX. Biltzarrean, Seber Altuberen mendeurrenekoan, Arrasaten, arauok finkatu ziren (Ik. *Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa,* 1985, ziklostilean):

"Bertsolari Txapelketarako Euskaltzaindiak izendatua duen batzordea bildu da Arrasaten eta epai-mahaiak jarraitu beharrezko aburuak markatu ditu, oinarri hauetan:

a) *Gaia* - Gaiari zehatz heldu eta gainera sakondu eta aberastu.

b) *Hizkuntza* - Esateko moduaren edertasuna.

c) *Egitura* - Saioaren sarrera, jarraipena eta bukaera.

d) *Neurriak eta puntuak* - Neurria musikaren arabera. Puntuetan, potoez gainera, ia aberatsak, errazak edo pobreak direnari begiratuko zaio".

III. "Bertsolari Elkartearen Loiolako txostena", ondorengo hauxe da bere osoan emanda (Ik. BERTSOLARI-ELKARTEA: *Eztabaidarako dokumentua*, 1985):

*Bapateko bertsogintza neurtzeko legeak eta erizpideak.*

OHARRAK

— Txosten hau abiapuntu baizik ez da, *Bertsolari Txapelketa Nagusia* egiten denerako; zein diren bapateko bertsogintzaren legeak argi eduki ditzagun.

— Txosten hau prestatzeko gogoan eduki ditugu, baita ere: "Epai-mahaiak jarraitu beharrezko aburuak", Euskaltzaindiak Arrasaten markatuak; "Bertsolari-Txapelketan epaimahaikoek erabil ditzaketen erizpideei buruzko aurreprojektua", J.R. Etxebarriak aurkeztua; eta Bertsolari Batzordeak Loiolan 1985eko Urrilaren 5ean ospaturiko batzarrean agertu ziren zenbait eritzi.

1. GAIA

*Legea:* emandako gaia zehatz erabili, eta asmamenez jantzi, aberastu eta girotu.

*Erizpideak:* Hauek ematen dira:

1.1. *Gaia zehatz erabili*

- Gauza positiboak:
  - Ofizioka denean:
    - Suertatu den papera ondo betetzea.
    - Lagunak esandakoari erantzutea.
    - Benetako elkarrizketa sortzea.
  - Bakarka denean:
    - Gaiari ondo lotzea.
- Gauza negatiboak:
  - Ofizioka denean, bertsolari bakoitza bere bidetik ibiltzea, aurrekoak esandakoarekin loturarik gabe.
  - Bakarka denean, emandako gaiari ihes egitea.

1.2. *Gaia aberastu eta girotu*

- Gauza positiboak:
  - — Ideia interesgarri eta orijinalak.
  - — Gauzak samur esatea.
  - — Ideien argitasuna.
- Gauza negatiboak:
  - — Topikoak erabiltzea.
  - — Besteren textuak nork beretzak hartzea, tradiziozkoa ez denean.

2. HIZKERABIDEA

*Legea:* Jendaurrean erabiltzen den hizkera publikoa, bertsolarien esaldita-ra errenditzen dena, goitasun poetikoa duena.

*Erizpideak:* Hauek ematen dira:

2.1. *Jendaurreko hizkera*

- Gauza positiboak:
  - — Arau gramatikalak zaintzea.
  - — Joskera egokia.
  - — Lokalismoen gainetik dagoen hizkera.
- Gauza negatiboak:
  - — Hutsegite gramatikal nabarmenegiak.
  - — Joskera traketsa.
  - — Lokalismo haundiegiak (laburpenetan batez ere).

2.2. *Bertsolarien esalditara errenditzen dena*

- Gauza positiboak:
  - — Hizkera argia eta zorrotza.
  - — Bertsolarien klitxeak nabari zaizkiona.
  - — Esaldi jatorrak sortzeko gaitasuna duena.
- Gauza negatiboak:
  - — Hizkera arrunta, solas-mailakoa.
  - — Esaldi errenak, landu gabeak.
  - — Gaiarekiko lotura ilun uzten duten esaldiak, hala-holako hizkerabideak.

2.3. *Goitasun poetikoa*

- Gauza positiboak:
  - Bakarka denean:
    - Nortasun poetiko bat azaltzea, bakoitzak berea: dramatizaziorako, umorerako, lirikarako, arrazoitarako.
    - Figura poetikoak sartzea: kontrasteak, ironia, metaforak, progresioak, aliterazioak, tradiziozko klitxeen baliabide poetikoak.
- Gauza negatiboak:
  - Aipatu figurok ez erabiltzea.

3. METRIKA

*Legea:* Neurria doinuaren araberako izan dadila etenaldi eta silabetan; errimak hoskidetza aberatsekoak eta maila gramatikal desberdinekoak; eta estrofa ondo eraikia eta bere erritmoan emana.

*Erizpideak:* Gogoan hartzen direnak:

3.1. *Neurriak doinuaren araberakoak etenaldi eta silabetan*

- Gauza positiboak:
  - Txukun neurtzea, doinuarekin eta silabaka, etenak ondo zainduz.
  - Betegarri orijinalak erabiltzea (esaldi egokiak adibidez).
- Gauza negatiboak:
  - Etena ez zaintzea.
  - Lerro errenak.
  - Hitzen arteko loturak eta hitzen laburdurak.
  - Ezertara ez datozen hitz betegarriak erabiltzea.

3.2. *Errimak hoskidetza aberatsekoak eta maila gramatikal desberdinekoak*

- Gauza positiboak:
  - Errimen aberastasuna: atzizkien gain, 1, 2, 3, 4 grafemaz (letraz) hoskidetza egitea.

— Beste osagai fonikoak sartzea: aliterazioak, puntu magikoak.
— Errimazko hitzak maila gramatikal desberdinetakoak erabiltzea eta konbinazioak egitea.

- Gauza negatiboak:

— Poto egitea. Errimari dagokion puntuazioan 0 edo 1 eman daiteke gehienez. Beste puntuazioak aparte doaz.
— Oinetan atzizki beren errepikatzea erabiltzea. Alderdi hau ere metrika-gaian bakarrik izango da kontuan; eta ez dago estuegi hartzerik, tradizioan —hurbilekoan ere bai— bapateko bertsogintzan puntu hau nahiko garbi ez dagoenez.

3.3. *Estrofa ondo eraiki eta bere erritmoan ematea*

- Gauza positiboak:

— Estrofari bere egitura eta biribiltasuna ematea.
— Minutu laurdenaren barruan, gutxi-asko, (hau zehaztu daiteke), kantuari ekitea; eta hasitako erritmoan jarraitzea.

- Gauza negatiboak:

— Estrofaren barruan hutsuneak nabarmentzea, bete-lanak, edota gauza trinkoegiak, nahasiegiak.
— Kantari hasteko pasatzen duen denbora ez dadila luzeegia izan.
— Behin kantari hasiz gero, erritmoari eutsi, geldialdirik gabe.

4. SAIOAREN EGITURA

*Legea:* Estrofen bidez emango den gaia ordenu baten barruan antola dadila.

*Erizpidea:* Ohar hauek egiten dira:

4.1. *Ordenu baten barruan*

- Gauza positiboak:

— Bakarka denean:

  - Saioak sarrera bat, jarraipena eta bukaera behar ditu.

  - Saioak egitura desberdina eduki behar du, estrofa bat, nahiz bi, nahiz hiru eta abar dituenean.
  - Saioan progresio bat nabarmentzea.

- Gauza negatiboak:

  — Bakarka denean:

  - Bi estrofatan gauza bera esatea.
  - Estrofak sobratuta betelana egin beharra egokitzea.
  - Saioak interesa galtzea, biztu beharrean motelduz.

## 5. LANGINTZA BAKOITZA NEURTZEKO BAREMOA

Lege eta erizpide horien arabera, bapateko bertsogintza neurtzeko, metodo praktiko baten beharra ikusten da. Gure ustetan gutxi dago eginik teknika kontuan, eta, bestalde, ariaren-ariz zabaldu beharreko bidea dugula derizkiogu honi.

Hasteko, eta metodo praktiko bat eratu aurretik, aurkeztu eta arakatu ditugun langintzen baremoa emango dugu. Abiapuntu da eztabaidarako; eta abiapuntu, agian, fitxa tekniko bat asmatzen hasteko.

Saioaren puntuaketa guzitara 10 izanik, 3 puntu emango genioke gaiari, beste 3 hizkerabideari, beste 3 metrikari eta 1 egiturari.

Legeetaz, erizpide nagusienetaz eta baremotaz akordio zabala lortu ondoren, epai-mahaikoek asma eta egiazta dezakete bertsoen neurketa azkar eta bateratu bat emateko sistema berriagoa.

Loiola, 1985, Urriak 21.

2. eranskina

**Bertso-paperen "Xenpelar Saria"ren irabazleak: izenak eta gaiak**

1962: Jesus Lete "Ibai-ertz", *Pepitari.*

1963: Gillermo Albizu, *Txerrikume bat.*

1964: Jose Maria Lertxundi "Argin", *Asto bati.*

1965: Manuel Matxain, *Salbatore Mitxelenari.*

1966: Inozenzio Olea, *Nere jaiotetxea.*

1967: Manuel Matxain, *Che Guevara.*

1968: Segundo Kalonge, *Bilintxi jarritako bertsoak.*

1969: Inozenzio Olea, *Holandako apaizak.*

1970: Jose Aierbe, *Minbizia.*

1971-1972: Fernando Aire "Xalbador", *Sortetxea.*

1973: Fernando Aire "Xalbador", *Gure artzain etxolari* eta *Mendian galdu direnei.*

1974: Jean Pierre Mendiboure, *Arrosako zubian* eta *Sentimentu batzuk.*

1975: Fernando Aire "Xalbador", *Ortzirale Saindu bateko gogoetak eta otoitza.*

1976: Fernando Aire "Xalbador", *Ene ama zenari.*

1977: Imanol Lazkano, *Ezkontzera doan dama bati.*

1978: Pello Esnal, *Soldadu ekarri naute.*

Irabazi dituzte: Fernando Aire "Xalbador"ek 4 aldiz lehen saria. Inozenzio Oleak 2 aldiz lehen saria eta 3 aldiz bigarrena. Manuel Matxainek 2 aldiz lehen saria eta 2 aldiz bigarrena. Ez dago lehen saria behin baino gehiagotan irabazi duen besterik; baina, behin irabazitako lehen sariaz gain, Jose Aierbek 3 aldiz irabazi du bigarrena eta Jesus Lete "Ibai-ertz"ek 2 aldiz. (Ik. LEKUONA, J.M., "Xenpelar Sariaz", in: *"Bertso-Paperak" Xenpelar Saria,* Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintziala, Donostia 1985, 13-17 or.).

## *LOS CAMINOS DEL BERTSOLARISMO MODERNO*

## LES CHEMINS DU BERTSOLARISME MODERNE

*La presente entrevista, organizada por la revista y transcrita por Joxe Azurmendi, ofrece un repaso de la historia del bertsolarismo moderno, que va de la inmediata preguerra hasta nuestros días.*

*Es una conversación entre dos especialistas del tema, Joan Mari Lekuona y Joan Dorronsoro. Señalan los hitos más importantes de la época: 1935, 1960, 1968/1970, 1980, que coinciden con los campeonatos nacionales. En cada período se estudian los siguientes aspectos: la situación socio-cultural, los acontecimientos en el ámbito estrictamente bertsolari, las renovaciones técnicas y organizativas, los hombres y nombres más relevantes, etc.*

---

L'entretien qui nous occupe, organisé par la revue et transcrit par Joxe Azurmendi, présente une vue d'ensemble du bertsolarisme moderne, depuis l'après-guerre jusqu'à nos jours.

Cet entretien est une conversation entre deux spécialistes du sujet, Joan Mari Lekuona et Joan Dorronsoro. On y rapporte les jalons les plus importants de l'époque: 1935, 1960, 1968/1970, 1980, qui coincident avec les championnats nationaux. On y étudie également les aspects suivants de chaque période: la situation socio-culturelle, les événements dans le cadre strict du bertsolarisme, les renouvellements techniques et d'organisation, les personnages et les noms les plus éminents, etc.

# Bertsolari Txapelketa Nagusiaren historia

**Josu Landa**

## Bertsolari txapelketen historiaurrea

Bertsolariek elkarren lehian iharduteko usadioa Euskal Herria bezain zaharra dela esatea ez dirudi gehiegi esatea denik. Halere, bertsolari-saioak eta lehiak noizdanik egiten diren zehaztea aski gauza zaila da. Horrelakoez dagoen lehen berria 1609koa da. Urte hartan (XVII. mendearen hasieran, beraz), Iruñeko apezpiku zen Antonio Venegas de Figueroa-k "bertso-gudu" bat antolatu omen zuen Eukaristiaren omenez; Pedro Ezkurra, Mikel Aldatz, Joan Elizalde eta Martin Portal aurkeztu ziren hartara. Horixe dugu, beraz, lehenengo berria.

Gerora, hemeretzigarren menderarte hutsune handi bat ageri da alde horretatik. Izan ere, hamazortzigarren mendea nahikoa iluna izan zen bertso-mundurako.

XIX. mendean, beraz, bertso-mundua apur bat piztu eta bertsolarien bilera edo bertso-jaialdiak antolatzen hasten dira. Onerako eboluzio hori Abbadie lapurtar euskaltzalearen saioarekin bururatu zen, "Lore Joko"en mugimenduaren gailurrarekin.

1860.ean izan ziren Abbadie-ren lehen Lore Jokoak, eta handik aurrera kasik mende-erdiz iraun zuten bizirik.

1926. urtean euskaltzale-talde batek "Euskaltzaleak" elkartea sortu zuen, eta berehala ekin zioten urtero Olerki Egunak zeritzenak antolatzeari. Olerti Egun horien garapen bezala har genitzake 1935 eta 1936an antolatu ziren estreinako Bertsolari Txapelketak. "Euskaltzaleak"en papera juzkatzerakoan, ezinbestekoa da Joxe Ariztimuño "Aitzol"ek izan zuen berebiziko garrantzia azpimarratzea. Esan liteke 1930ean berpiztu zela guztiz bertsolari-lehien ohitura hori, Toribio Altzagaren omenez "Euskaltzaleak" Elkarteak antolaturik, "Centro Católico" antzokian izan zen saioarekin. Txirrita, Lujanbio, Telaetxipi, Zabaleta, Agirre eta Bitoria bertsolarien artetik, epaimahaikoek Bitoria izendatu zuten txapeldun, aho batez. Hortik aurrera ez zen modu hartako saiorik izan, Bertsolari Egunen txanda etorri arte.

## 1935: Lehen Bertsolari Eguna "Basarri" gaztearentzat

1935. urteko San Sebastian egunez izan zen Donostian lehenengo Bertsolari Eguna. Urtarrilaren 20an jokatutako hura izen horrekin bataiatu bazuten ere, gerraondoko Bertsolari Txapelketa Nagusiekin homologa liteke. Donostiako "Poxpoliñ" aretoan ("Euzko Gaztedia"rena), "Euskaltzaleak" bazkuna eta "Euzko Gaztedia" izan ziren biak batera lehen txapelketa haren antolatzaileak. Orduko *Argia* astekariak zioenez, "egundo ez omen da oŕelako euskel yai mamikorik izan Donostian".

Lekua eta eguna aukeratzea ere ez omen zen oso erraz gertatu, "...baiña Donosti eŕia euskaldundu nairik, beren yaiari begira, yatoŕizko euskel kutsu duan gauzik egiten etzala-ta, Done Sebasten egunean, danbor soiñu artean, egitea erabaki zan".

Lehen saioa goizeko 10,30etan hasi zen, eta honako bertsolariok eman zuten izena, hogeik guztira: Basarri (Zarautz), Zepai (Errezil), Txirrita (Altza), Txapel (Azpeitia), Lujanbio (Altza), Matxin (Lapurdi), Larralde (Lapurdi), Abarretegi (Bizkaia), Alkain (Urnieta), Telaetxipi (Errenteria), Nekezabal (Zarautz), Sarasola (Antigua), Mintegi (Ordizia), Kortatxo (Itziar), Kepa Zabaleta (Errenteria), Jon Zabaleta (Errenteria), Sorozabal (Aiete), Etxeberria (Aiete), Etxeberria (Aiete), eta Uriarte (Bermeo).

Orduko kronikagileek kontatzen dutenez, bertsolarien besaulkiak bigunak eta dotoreak ziren, albo bietara. Ariztimuño "Aitzol"ek jezar erazi zituen bertsolariok, eta erdi-erdian epaimahaikoak: Joseba Ariztimuño "Aitzol", Toribio Altzaga, Manuel Lekuona, Txomin Olano, Joseba Olaizola eta Joseba Zubimendi (idazkari gisa azken hau, boturik gabe).

Antzinako erara, epaimahaikoek bertsoz adierazten zieten bertsolariei egin beharreko lana. Lehenik bete beharreko lana, gaiz eta doinuz librea zen, bakoitzak nahi zuenaz. Bigarrenik, epaimahaikoek doinua ematen zuten (Otañoren "Limosnatxo bat"ena), eta gaia ere emana zen: "Euskel izkuntza galtzen ari da / ta galtzen ba'da euskera, / Euskalerriko seme guziak / betiko galduak gera". Bigarren saio honetan, bertsolari gehienak ez zitzaizkion gaiari lotu, Joseba Zubimendi kronistak egiten duen kexuaren arabera.

Hirugarren saioan, hauxe izan zuten lana: lehen puntua emanda, bertsoak osatu. Laugarren saioan (azkena), bertsolariak binaka jarri eta ofizio bana eman zitzaien: nagusia/morroia, artzaina/nekazaria, arrantzalea/arrain-saltzailea...

Honako hau izan zen mahaikoen epaia: aho batez, txapeldun "Basarri" aukeratu zuten (100 pezetako saria), zarauztarrak hogeitabat urte baino ez zituenean; bigarren sarirako "Matxin" (75 pta.), hirugarrenerako "Zepai" (50 pta.); eta laugarrenerako Alkain (25 pta.). Txirrita ez zen lau horien artean agertu, nahiz eta "beste batzuek ere aukeratuak izango ziran, sari ugariagoak izan ba'lira, ba beste bertsolari yaiorik ba-zan gudu onetan-ta".

## Bigarren Bertsolari Eguna, 1936an, Txirritaren txanda

Lehen Bertsolari Egunaren arrakasta bizirik zegoela, bigarrenerako antolakizunetan hasi ziren "Euskaltzaleak" batasunekoak. Azken saiorako bertsolari gutxiago egon zedin, kanporaketak antolatu ziren herrialdez herrialde, eta, horrela, Gipuzkoako bertsolariak bi saiotan banatu ziren. Tolosan, 1935eko azken igandez, bederatzi bertsolarirekin; eta Azpeitian, urteberri-egunez, beste hamaika bertsolarirekin. Hirugarren kanporaketa bat urtarrilaren 12an jokatu zen Elizondon, nafar eta Iparraldekoentzat. Bizkaitik ez ei zen inor presentatu. Hiru saio horietan, finalerako hamar bertsolari bereizi ziren: Zepai (Errezil), Dargaitz (Otsondo), Etxe-

berria (Andoain), Harriet (Aldude), Uztapide (Zestoa), Lujanbio (Errenteria), Mutuberria (Eltzaburu), Txapel (Azpeitia), Iriarte (Banka) eta Txirrita (Altza).

Donostian jokatu zen finala, Victoria Eugenia antzokian, lehen saioa goizeko 11etan hasita. Aurreko urteko txapeldunak, Basarrik alegia, egin zituen gai-jartzaile lanak, eta, beraz, ez zuen txapelketan zuzenean parte hartu. Epaimahaia honako hauek osatu zuten: Aitzol, Altzaga, Leizaola, Lekuona eta Olaizola.

Aurrekoan bezala, lehen saioa doinu eta gai librean izan zen, bigarrena gaia emanda, hirugarrena lehen puntua emanda, eta laugarren eta azkena bertsolarien artean ofizioak banatuz eta elkarren aurka jarriz. Beraz, aurreko urteko saio bera. Puntuazioak batuta, Txirritak eraman zituen lehen sariaren 150 pezetak, Uztapide izan zen bigarren (100 pta.), Zepai hirugarren (75 pta.), Dargaitz laugarren (50 pta.), eta Iriarte bostgarren (25 pta.).

## 1960ko Txapelketan, Euskaltzaindiak testigua hartu

Errepublikako bi Bertsolari Egun haien ondotik, eta gerraondoko parentesi beltzaren erdian, hamaika herritatik deitzen zitzaien bertsolariei. Txapelketarik antolatzeko inor ez zegoen, baina. Euskaltzaindia izan zen "Euskaltzaleak" elkarteak utzitako zuloa 1958. urtean bete beharra ikusi eta lana bereganatu zuena. Bizkaiko Txapelketak izan ziren Euskaltzaindiak antolatu zituen lehenak, Nafarroakoak eta Gipuzkoakoak ondoren etorri zirelarik.

1960a izan zen gerraondoko lehen Bertsolari Txapelketa Nagusia jokatzeko aukeratu zen urtea, eta urte osoan zehar jokatu ziren kanporaketa-saioak: Bizkaia bost barrutitan banatu, eta, saio bana jokatu ondoren, Bilbon egin zen Bizkaikoen finala irailaren 11n. Nafarroan ere, Lekunberri eta Elizondon jokatu ziren lehen kanporaketak, azken saioa Lesakan irailaren 25ean eginez. Gipuzkoakoan ezin izan zuten bertsolari guztiek aurkeztu, aurretik aukeratu bait zen famatuenak zeintzuk ziren, eta haiekin Eibarren saio bat egin zuten 1959ko azaroan. Iparraldetik, besterik gabe, bi bertsolari izendatu ziren.

Bederatzi bertsolari, beraz, 1960ko abenduaren 18an jokatu zen finalerako: Basarri (Zarautz), Uztapide (Zestoa), Azpillaga

(Mutriku), Xalbador (Urepel), Mattin (Ahetze), Mitxelena (Oiartzun), Narbarte (Goizueta), Mugartegi (Berriatua), eta Perurena (Goizueta). Epaimahaikoak, berriz: Michel Labeguerie, Angel Irigaray, Antonio Arrue, Koldo Mitxelena, Antonio Zabala, "Bordari", J.M. Lekuona, Marcelo Andrinoa, Miguel Goitia, Antonio Pagola eta Pedro Diez de Ulzurrun.

Finala Donostiako Victoria Eugenia antzokian jokatu zen. Basarri, ordurarteko txapelduna zenez, ez zen goizetik lehiatu, arratsaldeko saiorako klasifikatu ziren Uztapide, Xalbador eta Azpillagarekin kantatuko zuen eta. Lau horietatik, Xalbador utzi zuten lehenik bazterrera, Azpillaga gero; eta orduantxe baino ez zen Basarri bertsotan hasi, Uztapiderekin mano-mano. Basarrik eraman zuen txapela. Onerako nahiz txarrerako, Basarrik 13 bertso baino ez zituen bota final hartan; Uztapidek, aldiz, 40. Garaiko kroniketan ez da beste gauza azpimarragarririk aurkitzen.

## Uztapidek txanda hartu zuen 1962ko Txapelketan

1960koaren esperientzia pasata, Euskaltzaindiak kementsu ekin zion hurrengo Bertsolari Txapelketa ere antolatzeari: urtetik urtera, herrialdez herrialde, eta bi urtean behin, Txapelketa Nagusia. Gisa horretan, 1962ko ekainean hasi ziren berriz herrialdekako txapelketak, abenduaren 30ean Txapelketa Nagusia Donostiako Astoria antzokian jokatzeko. Toperaino bete zen antzokia, eta hainbat jende saioa ezin ikusiz geratu zen. Herrialdekako txapelketetatik, hauek izan ziren finalerako aukeratutako bertsolariak: Nafarroatik, Arozamena (Lesaka) eta Zabaleta (Areso); Gipuzkoatik, Mitxelena (Oiartzun) eta Lazkao-Txiki (Lazkao); Iparraldetik, Xalbador (Urepel) eta Mattin (Ahetze); eta Bizkaitik, Lopategi (Muxika) eta Azpillaga (Ondarroa). Horiekin batera, eta hamarrekoa osatu arte, aurreko txapelketako txapeldun eta txapeldun-ordea: Basarri eta Uztapide.

Benetan zaila da urte hartako epaimahaiaren osaketa zehaztea. Alde batetik, inon ez da zerrenda osoa argitaratu, ez liburuetan eta ez aldizkarietan; bestetik, konprenigarria da, epaiak sortutako istiluak kontutan hartzen baditugu. Abenduaren 31ko *Hoja del Lunes*-ek tartean K. Mitxelena, A. Arrue eta A. Irigaray izan direla dio. Horiezaz gain, pentsatzekoa da Bordari, A. Zavala, M. Itzaina, E. Larre, M. Andrinoa eta J.M. Lekuona ere behintzat izendatuak izan zirela eginkizun hartarako. Egunkarietatik jakin daiteke,

baita, izendaturiko hamabietatik hamar baino ez zirela aritu epailanetan. Hortik aurrera, lekukoen oroitzapenak ere lausotuak ageri dira. Guztiz zehaztea, ezinezkoa izan zaigu.

Goizeko saiotik lau hauek jo zuten aurrera: Basarri, Uztapide, Xalbador eta Lazkao-Txiki. Azkenean Uztapide eta Basarri elkarren kontra aritu beharrean tokatu ziren, eta askorentzako sorpresa gertatu zen: Uztapideri eman zioten txapela. Alfontso Irigoienek esan bezala: "Nik sekula ez det ikusi Juradua ain seriyo bakoitzak bere eritzia ematen, eta hor ixtilluak nolako erabakia eman". Bigarrena, beraz, Basarri "bañan Juraduak ez luke esango txarragoa danikan". Halere, Basarrik ez zion trago hari bueltarik eman, eta ez zen berriro inongo txapelketatara presentatuko. Hirugarren saria Xalbador-i eta laugarrena Lazkao-Txikiri eman zioten. Hona hemen Uztapideren hitzak: "Jaungoikoak ala naiko zuan da nik ezin ezer egin. Azkenekoa eman bazidaten ere, etzegoan ezer egiterik. Lenbizikoa eman zidaten eta ura naiago, berriz!".

Basarriri txapela kentzeko trago txarra. Halakoxea izan zen askorentzat unea. Uztapide garaile eman zuen epaia eztabaidatuenetakoa izan da Bertsolari Txapelketen historia osoan. Hasteko, ez zen aho batez hartu. Desenpate bat bestearen ondotik egin eta gero, denbora gehiagorik ez zegoenez, gehiengoaren eritzia irten zen aurrera, honako bozketa honekin: Uztapidek 8 botu, Basarrik 2. *Hoja del Lunes*-ek demaigu argitasun gehiago: "La deliberación del jurado duró exactamente 12 minutos. Se hizo por medio de una votación secreta, escribiendo cada jurado el nombre del vencedor, a su juicio. Este sistema no coartaba la libertad de ninguno de los miembros ni se prestaba a presiones de influencia en favor o en contra de los dos finalistas. Cada uno puso el nombre que mejor le pareció. Y el resultado de la votación fue: Uztapide, 8. Basarri, 2".

Sesio ugari sortu ziren erabaki hartatik eta luzaro iraun zuten. Eztabaidak ez zuen, ordea, agerpenik izan garaiko argitarapenetan. Hobeto esanda, "Goitarki" izen-goitikoa izan zen *Jesus'en Biotzaren Deya*-n (1963ko otsaila) zerbait argitaratzera ausartu zen bakarra, zorrotz eta zentzudun: "Aurten Donosti'ko txapelketa onetan istilluak eta alderdikeriak izan dira ugari. Nik auzi orretan ez daukat eretxirik, baña gauza bat esan gura neunke. Maikoak erabagia emoteko gai oneik gogoan euki bear leukiez...". Eta ondoren, bost puntuok aipatzen ditu, neurtu beharrekoak, bere ustez: 1. Euskara zelakoa erabili duen bertsolariak; 2. Irudimena nork argiago eta apainagoa; 3. Adimena edo zorroztasuna; 4. Bihotza edo sentimendua; eta 5. Bertsoen azal edo jantzia. Puntu bakoitzari 0tik

3rako puntuazioa emanez, eta mahaikide guztien puntuak batuz, bertsoz bertsoko puntuazioa eman beharko litzateke, Goitarki-ren ustez. Adibide gisa, Uztapide eta Basarriren arteko lehia hartu, eta bere ustezko puntuaketa egiten zuen, bide batez. Uztapide ateratzen zitzaion berari ere nagusi; baina hori anekdota da. Inportanteena zera da: 1962ko Txapelketak, oraindik ere guztiz konpondu gabe dagoen korapiloa agerterazi zuen bere kontraesanik bortitzenean: epaimahaiaren balorazioen neurketa.

Puntu honetaz ari garelarik, ez genuke aipatu gabe utzi nahi gai honi buruz Txapelketen historian eman den beste prezedente bat. 1935ekoan, epaimahaikide guztiei esan egin zitzaien aurretik zein modutan eman behar zuten beren balorazioa (Zubimendi idazkari eta kronistak demaigu horren berri). Kontutan eduki behar ziren: bertsolarien sormena, irudimena, bertsoetarako erraztasuna, bertsoen neurketa, puntuak eta oinen berdintasuna. Hori guztiori neurtzeko, bost puntuaketa-mota: oso txarrari, 0; txar samarrari, 5; on samarrari, 10; onari, 15; eta oso onari, 20. Sistema primitiboa, agian, baina kontutan hartu beharrekoa debateari buruz.

## 1965eko Txapelketan, Uztapideren bigarren txapela

Uztapidek umorez jaso zuen 1965ean irabazitako bigarren txapela. Lazkao-Txikirekiko (txapeldun-ordea) begirunez beterik: "Berriz ere txapela neri uzten didate. Bildur dira burua oztuko ote zaidan, Lazkao-Txikik oraindik sasoia daukala ta ez dute, neretzat ainbeste erruki, orrentzat". Urte hartakoa ere, aurreko urteetakoen usadio beraz jokatu zen. Urtetik urtera lekua aldatuz, 65eko urtarrilaren lehenekoa Anoeta pilotalekuan jokatu zen. 115 bertsolaritatik (71 gipuzkoar, 26 bizkaitar, 16 nafar, Mattin eta Xalbador) honako hamarrok jokatu zuten azken saioa: Uztapide (Zestoa), Lazkao-Txiki (Lazkao), Xalbador (Urepel), Mattin (Ahetze), Mitxelena (Oiartzun), Lopategi (Muxika), Mugartegi (Berriatua), Migel Arozamena (Lesaka), Narbarte (Goizueta), eta Txomin Garmendia (Berrobi).

Epaimahaian, berriz, hauek: Gabriel Aresti, Emile Larre, Mixel Itzaina, Alfontso Irigoien, "Txapel", "Bordari", J.M. Satrustegi, Antonio Zavala, Antonio Arrue, J. San Martin, M. Andrinoa, J.M. Lekuona eta Pedro Diez de Ulzurrun.

Arratsaldeko saiora, lau bertsolariok pasa ziren, horietatik zein arituko zen Uztapiderekin erabaki behar zelarik: Xalbador, Lazkao-Txiki, Mitxelena eta Mattin. Lazkao-Txiki pasa zen aurrera, eta ondoko saioan, Uztapide aukeratu zuten bigarren aldiz txapeldun. Sari-banaketarekin eman zitzaion bukaera, Lazkao-Txikiren saio mundialaz gain, gauza berri handirik ekarri ez zuen Txapelketa honi.

Bada, halere, aipatzeke utzi nahi ez dugun xehetasun bat. Goizeko saioa bukatzeko azken iharduna, Mattin eta Lopategiren artekoa izan zen. Ordurako, Xalbador, Lazkao-Txiki eta Mitxelena klasifikatuak zeuden arratsalderako, eta beste bien artetik aukeratu behar zen laugarrena. Azkenik, epaimahaiak Mattin hautatu zuen, eta erabakia jakin erazi zenean, sekulako txistualdia jo zuen publikoak, erabakiarekiko ez-adostasuna agertuz. Anekdota oihartzun handirik gabe pasa zen, baina bi urte geroago Xalbadorekin gertatuko zenaren aurrerapen gisa har genezake: Iparraldeko bertsolarien euskara ulertzeko zailtasunak estreinako arazoak sortu zituen 65eko hartan, 67koan lehertuko zena aurrikusiz.

## 1967: Bost minutu t'erdiko txistualdia Xalbador-i

1967. urteko Txapelketara 83 bertsolari agertu ziren: 49 Gipuzkoatik, 21 Bizkaitik, 11 Nafarroatik, eta Mattin eta Xalbador. Hegoaldeko probintzietan kanporaketa-saioak jokatu ondoren, hauek izan ziren finalerako geratutako bederatziak: Xalbador (Urepel), Uztapide (Zestoa), Lopategi (Muxika), Lazkao-Txiki (Lazkao), Gorrotxategi (Bergara), Mikel Arozamena (Lesaka), Txomin Garmendia (Berrobi), Mattin (Ahetze), Mugartegi (Berriatua) eta Bautista Madariaga (Arantza).

Honakook osatu zuten epaimahaia: Xabier Amuriza, Antonio Arrue, Fernando Artola "Bordari", J.M. Satrustegi, J.M. Lekuona, Mixel Itzaina, Emile Larre, M. Izeta, Anbrosio Zatarain, "Zepai", A. Zavala eta M. Andrinoa.

Ohiturari jarraituz, Uztapidek ez zuen bukaera arte kantatu behar izan. Arratsaldeko saiorako klasifikatuak, lau hauek izan ziren: Lopategi, Xalbador, Lazkao-Txiki eta Gorrotxategi (bergarrak 21 urte zituen). Lau horietatik Uztapideren kontra nor arituko zen erabakitzeko garaian sortu ziren istiluak, Xalbador aukera-

tzearekin jendea ez bait zen gustora agertu. Hona Uztapideren testigantza: "Lauren artetik Xalbador aukeratu dute aurrera pasatzeko, jendeak erabaki oneri txistuak jo zizkion. Gure egoera ederra zan orduan! Gu biok giñan an, jendearen aurrean txutik jarrita, txistuak noiz ixilduko ziran zai, gero esan zutenez, bost minutu ta erdi iraun zuan txistu-aldi arek. Xalbadorrek negar egiten zuan. Geroztik ez da txapelketarik egin, eta alde batera ez egitea ere obe, ala ibiltzekotan; batean txistua, bestean ujua, beti bazan zerbait eta".

Xalbador-ek txistuen artetik botatako bertsoak txalo bihurtu zituen protestak, txaloen ondorioz bertsoaren erdialdean gelditu beharra izan zuelarik urepeldarrak:

> Anai-arrebak, ez, otoi, pentsa
> neure gustura nagonik,
> poz gehiago izango nuen
> albotik beha egonik;
> zuek ezpazerate kontentu
> errua ez daukat, ez, nik,
> txistuak jo dituzute bainan
> maite zaituztet orainik!

Benetan bitxia, baina aldi berean argigarria, *El Diario Vasco*-ko kronistak (67.06.13) esaten diguna:

> "Lo que no ha sabido «Xalbador» y posiblemente ninguna de las cuatro mil personas que se hallaban el domingo en el Frontón de Anoeta, es que una mujer —joven y bonita, todo hay que decirlo— lloró cuando el vasco-francés cantó su berso, haciéndose oír entre los desafortunados e insistentes silbidos del público, cuando la decisión del jurado le había colocado ya con "mano a mano" a Uztapide (...). El berso de «Xalbador», que fue también como el sollozo desgarrado de quien se sabe tratado injustamente, realizó un doble prodigio: el de hacer saltar las lágrimas de unos bellos ojos de mujer y el de hacer cambiar instantáneamente el sentimiento hostil del público. Porque "Xalbador" comenzó su berso entre pitidos y lo concluyó entre una imponente y absoluta ovación".

Geroak frogatu zuen, txistualdi hark irekitako zauria ez zela hain erraz sendatu.

Xalbador eta Uztapideren arteko azken saioa burutu zen azkenik, eta bozketan honela geratu ziren: Xalbador-ek, 4; Uztapidek, 11. Txapeldun, beraz, hirugarren aldiz, zestoar bertsolaria. Hala eta guztiz ere, Uztapideren txapela guztiz goibeldurik eta itzalean geratu zen, Xalbador-ekiko injustizia zela kausa.

Gai honi berari buruz, aurreko txapelketan ere Basarrik hitz ezin argigarriagoz bota zituen, bi urteko aurrikuspenez, 1965.

urtean *Zeruko Argia*-n kaleratutako artikulu batean. Igarle suertatu zen Inazio Eizmendi handia: "Egundo geure denboran kristauaren aotik entzun ditugun bertsorik onenak, Txapelketa egunean Xalbadorrek kantatutakoak izan ziran, emazte zanaren soñekoari kantatutakoak alegia (...) Xalbadorri Gipuzkoan bear bezela ulertuko balitzaio, konprenituko balitzaio, oso goietan izango litzake bere izena". Zoritxarrez, eta eskandalu hark izan zuen bere eragina horretan, hurrengo hamabi urteetan ez zen txapelketarik antolatu. Badirudi Xalbador-ek ustekabean hil behar izan zuela, Euskaltzaindiak berriz ere Txapelketa antolatze-kontuez pentsatzeari heltzeko.

## Hamabi urteko parentesiaren ondoren Amuriza txapeldun

Hamabi urteko zulo beltz eta luzeegi baten ondoren, Euskaltzaindiak Txapelketa berriz antolatzea erabaki zuenean, modu bitxi batez egin zuen: aurreko txapelketatako tradizioa puskatuz, hamasei bertsolari bereizi ziren hasieratik, aurreko kanporaketa zabalagorik gabe, "lehen mailakoak", baina inor presentatzera behartu gabe. Hona hamasei bertsolariok: Xanpun, Mitxelena, Koxme Lizaso, Txomin Garmendia, Narbaiza, Egileor, Azpillaga, Amuriza, Jon Enbeita, Ezponda, Larrañaga, Gorrotxategi, Iraola, Patxi Etxeberria eta Arregi. Arrasaten eta Gernikan saio bana jokatu ondoren, finalerako zortziak aukeratu ziren: Etxeberria, Azpillaga, Garmendia, Amuriza, Jon Enbeita, Larrañaga, Xanpun eta Gorrotxategi. Zortzi hauek 1980ko Errege-egunez (urtarrilaren 6an) jokatu zuten txapela.

Epaimahaia honakook osatu zuten: J.M. Aranalde, Artola, Etxezarreta, Antton Aranburu, Alfontso Irigoien, Mixel Itzaina, J.M. Lekuona, Abel Muniategi, J. San Martin eta Antonio Zavala.

Txapelketa honen bilakaeraz zer esan handirik ez dago, agian, guztiok bait dugu gogoan Xabier Amuriza txapeldun eta Jon Enbeita bigarren suertatu zirela. Egun hartako titularrak gogoratzeak bai, mereziko luke: "Amurizaren «semaforo gorriak» kable guztiak erre zituen", "Amurizarekin beste bertsoaldi bat hasten delakoan gaude", eta "Amurizarena beste kupeleko sagardoa da". Egun haietan horri buruzko eritzi desberdinak egon baziren ere, *Deia*-ko kronistak zehazki jaso zuen egun haien inguruko eritzi zabalduena (80.01.07): "Basarrik 1935.an egin zuen bezela, aire,

molde, egitura eta dinamika berri bat dakarkio Amurizak bertsogintzari, aurrerabiderako pauso bat. Ez diogu honekin, gutxiagorik ere, Amuriza bakarrik denik bide honetan abiatu den bertsolari bakarra...". Gutxi gorabehera, komentario gehienak ildo horretatik abiatu ziren 1980ko hartan.

## Lopategi eta Amuriza buruz buru 1982koan

1982an ere Txapelketa tokatzen zen eta Euskaltzaindiak zintzo eutsi zion lanari. Bertsolariak "A" eta "B" mailetan banatuz, bigarrenek beheagotik hasi behar izan zuten kanporaketak jokatzen, eta, horrela, finalean lehiatuko ziren zortzi izenak erabaki ziren, abenduaren 20an Donostiako Balda pilotalekuan jokatuko zen saiorako: Txomin Garmendia, Xabier Amuriza, Jon Lopategi, Anjel Mari Peñagarikano, Imanol Lazkano, Sebastian Lizaso, Jon Enbeita eta Jon Azpillaga.

Aurreko urtean baino jende gehiago joan zen bertsolariak entzutera, eta eskainitako bertso asko eta asko luzaro gogoratuak izango dira, batipat gartzelako gaiarekin botatakoak. "Emakumea" gaia izan zen gartzelakoa, eta horrekin batera, honako azken puntu biokin bertso bana osatu beharra: "Arrazoirik ez degu gutxi geralako" eta "Oraindik bagerala, Balda da testigu". Parte honetan Lopategik sekulako saltoa egin zuen, eta Amurizarekin desenpatea jokatzea behartu zuen. Azkenean, Amuriza berriz ere txapeldun; eta, bigarren aldiz, Bizkaiko bertsolariak nagusi irten ziren, Enbeitak hirugarren postua eskuratu bait zuen.

1982ko Txapelketak, aurrekoan hasitako bertsogintza-motaren sendotzea suposatu bazuen ere, gerora inportantzia hartuko zuen debate baten hasiera ere ekarri zuen: puntuaketa eta klasifikaketari buruzkoa (lehenago ere ikusi dugu arazoa zaharra zela, aspalditik zetorrela), gerora Euskaltzaindia eta bertsolarien arteko "haustura" ekarriko zuena. Txapelketaren biharamunean J.R. Etxebarriak *Egin*-en kaleratutako artikulu argigarri batean, honela laburtzen zuen debate horren nondik-norakoa: "Nire kezka nagusia, bertsolari eta bertso-entzule askorena den bezala, puntuatzeko sistemaren argitasun falta da. Esan dira gauza batzu, baina oso etereoak dira (...). Ez da kuantifikazioari buruz hitzegin (...). Ene eritzia, gakoa metodoa bilatzean datza. Eta jende askok ideiak ditu; hitz egiteko kontua da". 1985eko Txapelketarako bidea abiaturik zegoen, debaterako lehen urratsak emanda ere bai.

## S. Lizasorekin, Gipuzkoak protagonismoa berreskuratu 1986an

1984erako behar zuen Txapelketa Nagusiak "haustura" historiko bat ekarriko zuen, Euskaltzaindia eta bertsolarien artekoa, hain zuzen. Euskaltzaindia txapelketa honen prestaketa-lanetan ari zela, bertsolariek hainbat eskabide edo baldintza jarri zizkioten, aurreko edizioetan antzemandako okerrak berriz gerta ez zitezen. Inportanteenen artean: herrialdekako kanporaketak, partehartze librea, epaimahaiaren osaketa, eta puntuaketa publikoa. Hasieratik beretik, Euskaltzaindiak gai horietako batzuei bere konpetentzia esklusiboko eritzi zien, bertsolariek horretan erabakitzerik ez zutela, pentsatuz. Jarrera horrek ekarri zuen negoziaketak aurrera ezin eramana, alde batetik, eta, bestetik, Euskaltzaindiak Txapelketa Nagusiaren antolaketa bertsolarien beren eskuetan uztea.

Berehala osatu zen Batzorde Antolatzaile bat bertsolarien iniziatibaz, eta martxan jarri zen Txapelketa. Era berean, Txapelketa antolatu beharrak Bertsolarien Elkarte bat sortzeko premia planteatu zuen, eta, Txapelketaren antolatzearekin batera, Elkarte horren osatzeari ere ekin zioten bertsolari eta bertsozaleek.

1985eko azaroan ekin zitzaien kanporaketa-saioei herrialdeka. Partehartzea librea izan zen, eta sekula baino bertsolari gehiagok eman zuen izena, historian lehenengo aldiz emakume baten partehartzea (Kristina Mardaras) eman zelarik. 1986ko otsailean bigarren fasea hasi zen, finalerdirako izenak hautatzearren. Horrela finalera iritsi ziren 1986ko martxoan.

Ikaragarrizko espektazioa piztu zuen Txapelketa Nagusiaren azken faseak, publikoak protagonismo nabarmena lortuz, bai Tolosan eta bai Bilbon jokaturiko finalerdietan, eta batez ere Donostiako final handian. Finalerdietako lehian aritu ziren hamasei bertsolarietatik sei hautatu behar ziren, finalean Xabier Amuriza eta Jon Lopategirekin batera aritzeko. Eta hauexek izan ziren seiok: Sebastian Lizaso, Iñaki Murua, Jon Sarasua, Jon Enbeita, Andoni Egaña eta Anjel Mari Peñagarikano.

Azken fase osoan, finala barne, hau izan zen epaimahaia: Trino Azkoitia, Nikolas Segurola, Antton M. Aldekoaotalora, Patxi Goikolea, Fermin Mihura, Eusebio Osa, Jesus M. Arrieta, Iñaki Sarriugarte eta Rufino Iraola.

Martxoaren 23a izan zen finalaren egun handia: Anoetako Belodromoan, Donostian, zortzi mila pertsona bildu ziren. Hura izan zen Amuriza eta Lopategiren saio bakarra Txapelketa Nagusi hartan. Agian horregatik, edota txapela jokoan zuelako, Amurizak ez zuen bere ohizko mailarik erakutsi, eta txapelarekiko lehia Lopategi eta Sebastian Lizasoren artean erabaki zen nagusiki. Gipuzkoarrak bereganatu zuen txapela azkenik, zortzi bertsolariok gehienen ustez kalitate handikoa izan ez zen saioa bururatutakoan. On Manuel Lekuona zaharrak emozioz betetako unean ezarri zion txapela txapeldun berriari. Era berriko Txapelketa Nagusia amaitua zen, bertsolaritzak gisa askotako markak hautsi zituelarik.

*J.L.*

---

*LA HISTORIA DE LOS CAMPEONATOS*

**L'HISTOIRE DES CHAMPIONNATS**

*El autor estudia todos y cada uno de los campeonatos nacionales de bertsolaris celebrados en el país desde 1935. Presenta de forma pormenorizada el sistema de selección y de eliminación, la composición del jurado, los nombres de los bertsolaris participantes y de los ganadores, etc.*

---

L'auteur étudie tous et chacun des championnats nationaux de bertsolaris qui ont eu lieu dans le pays depuis 1935. Il raconte au détail le système de sélection et d'élimination, la composition du jury, les noms des bertsolaris qui participent et ceux des vainqueurs, etc.

# Epaimahaia txapelketan

Iñaki Sarriugarte

## Joko-jolasaren erakargarritasuna

Egunotan, Bertsolari-Txapelketa Nagusia ospatzen ari delarik, berriro plazaratu zaizkigu bertsolaritzak bere baitan dituen arazo nagusietako bi: batetik, txapelketen funtsa eta zergatia, eta bestetik bertsoaren neurgarritasuna.

Sua bizitu duena Joseba Zulaikaren *Bertsolariaren jokoa eta jolasa* liburua izan dugu, eta eztabaidaren oihartzuna irrati, telebista eta egunkarietara zabaldu da. Irakurlearentzat argigarria izan daiteke liburuaren egileak Fito Rodríguez-ekin izandako eztabaida idatzia (*Argia,* 1089. zk. 86.02.02, eta *Egin,* 86.02.06/12).

Bere liburuan eskaera zuzen eta zolia egiten die Joseba Zulaikak bertsolariei, lau haizetara aldarrika dezaten:

> "Ez dugu onhartzen gure bertsoak etsaminatzeko eta kalifikatzeko konpetentziarik lukeen juradurik; ez dugu onhartzen bertsogintza norgehiagokaren joko bihurtu nahi duen publikorik".

Edozein modutan ere, badirudi euskal bertsozalegoak etengabe erakutsi izan duela txapelketei dien atxekimendua. Hala ere, adi-

tuek eritzi desberdinak dituzte bertso-jaialdi hauetaz. Basarrirentzat (*Bertsolaritzari buruz*, 161. or.):

> "Bertsolari batek, txapelketan, bere neurriaren erdirik ere ez du ematen".

Juan Mari Lekuona, ostera, beste eritzi bateko dugu (*Ahozko Euskal Literatura*, 134. or.):

> "Hala ere, inoiz ez bezelako trantzean aurki daiteke bertsolaria, bertso onak kantatzera, eta bestela inoiz aterako ez zituen bertsoak ateratzera behartua aurkitzen delarik".

Historiari begiraturik ere, ez dirudi txapelketak edo "bertso-guduak" bertsolaritzari arrotz zaizkionik.

Bertsoaren neurgarritasunari bagagozkio, ia-ia aho batez onartzen dira bertsoak dituen alderdi neurgarriak (beti ñabardurekin, jakina): neurria, erritmoa, etenak, hizkera, denbora, etab. Baina bertsolaritzak, giza ekintza izateaz aparte, hizkera konnotatiboa erabiltzen duenez, baditu zenbait alderdi neurgaitz samar: irudiak, metaforak, sinboloak, mementuan mementuko egokitasuna, etab. Halere, Jose M. Aranaldek (*Deia*, 85.11.23) ederki azaltzen duenez:

> "Bertsoaren hamarretatik bederatzi ederki neurtzen da, ederki neurtu izan du herriak eta gerora ere, nik uste, hala segiko da. Hutsezinik ez da hemen inor eta baloraketan ari denak hutsegin dezake eta hutsegin ere egingo du behin baino gehiagotan; baina oraindainokoan gaizki neurtzeak baino kalte gehiago egin dio bertsoari artoberousainak".

Lekuona gaztea ere, bide beretik abiatzen zaigu, entzulegoak bertsoa epaitzeko duen grina aipatzerakoan (*Ahozko...*, 133. or.):

> "Horrelako saio-moldeak [Txapelketei buruz ari da] entzulego berezia du: erabat bertso-zalea. Beraz, entzulea, kantaldian parte hartzera doa, ez bakarrik bere baitako bertsogintza ahopekoan (bertso-zale jatorrek egiten duten eran), baizik eta epaiketan parte hartzera doa. Bera bertsotan aritzera, bera epaile izatera".

## Historia apur bat

Baina bertsolaritzaren historian zehar ez da beti bahe bera erabili izan bertsoak neurtzeko. Ikus dezagun ohizko txapelketak antolatu artean, zer-nolako epaiketa-motak izan diren.

1801. urtean Billabonan Txabalategi eta Zabalaren arteko apustua ospatu zenean, bertsolariek epaile bana eraman zuten plazara, hirugarrena herriko alkateak izendatzen zuelarik. Baina, "apostuco bi orduac betetcean", entzulegoa, 4.000 lagun inguru, irabazle ez galtzailerik ez zegoela oihuka hasi zelarik, epailariek gauza bera erabaki zuten, Iztuetak dioskunez:

"Utci bear ditugu.
Biac berdin berdin;
Guipuzcoa guciac
Ardezan atseguin".

Ezaguna da, era berean, Izuelako Artzaiak beste bertsolari ezezagun batekin jokaturiko desafioan gertatutakoa. Epailariek, bertsolari bien arteko berdintasuna ikusi eta epaia ezin erabakirik, bide bitxi hauxe aukeratu zuten: kantatutako 50 bertsoak errepikatzeko gai zenak lortuko zuen garaipena. Izuelako Artzaiak bakarrik errepikatu omen zituen, saria berak eskuratuz.

Aita Zavalari jarraituz (*Bosquejo de Historia del Bertsolarismo*), badakigu XIX. gizaldian ospaturiko beste desafio batzutan epailariak egon zirena. Baina, badirudi tankera zaharreko desafio edo "gudu" hauek, bigarren karlistadarekin suntsitzen direla. Geroxeago, gerra aurreko txapelketak arteko zubia "Lore-Joko"ek beteko dute.

## Txapelketa nagusiak

Aspaldiko txapelketei lotzen bagatzaizkie, ezinbesteko dugu, 1935. urteko otsailaren 20an Donostiako "Poxpolin" Antzokian "Euskaltzaleak" eta "Eusko Gaztedi"k eraturiko *Ingo Bertsolari Eguna* aipatzea. Txapelketa honetako epaimahaia "Aitzol", Altzaga, Olaizola, Olano, Lekuona eta Zurimendi jaunek osatzen zuten. Epaitzeko erizpideei dagokienez, honako aipamen hau irakur dezakegu *Bertsolari Guduak*[1] izeneko liburuan (53. or.):

> "Epa-maiekoak beren iritzia agertzeko, kontuan eduki bear izan dituzte bertsolarien sorpena, irudipena, bertsotarako eŕeztasuna, bertsoen neurkera, puntuak eta oiñen berdintasuna.
> Baita ere emandako gaiak erabiĺi zituzten edo ez; eta bakoitzari emandako ogibidearen yabe egin zan edo ez".

Bitxia dugu, halere, epaimahaikoei emandako puntuazio-orrietan agertzen den ohartxo hau (31. or.):

> "Bertso bakoitzari puntuak emateko era:
> Oso txaŕari .................................. 0
> Txar-xamaŕari ............................ 5
> On-xamaŕari .............................. 10
> Onari ........................................ 15
> Oso onari .................................. 20
> Epaikari bakoitzak, onela, eŕez eman zezakean bere iritzia eta guziak batasunez, erabaki zuzen".

Gerra ondorenean Euskaltzaindiak eraturiko txapelketetan erabilitako erizpideen bilduma gisa, *Euskera* aldizkarian (1981-1, 26, 293. or.) agertutakoak aipa daitezkeelakoan gaude:

> "Epai-mahaiak, berak ere neurketarako abiapuntu bat izan zezan, eta bertso-zalea nahaspila ez zedin, honako aburu hauez baliatzea erabaki zuen juradoak:
> a) Gaia: gaiari zehatz heldu eta gainera sakondu eta aberastu behar du bertsolariak.
> b) Hizkuntza: esateko moduaren edertasuna.
> c) Egitura: gaiaren sarrera, jarraipena eta bukaera.
> d) Neurriak eta puntuak: neurria musikaren araberan, puntuetan, potoez gainera, ia aberatsak, errezak edo pobreak direnari begiratuko zaio".

Jesus Mari Etxezarretak, epaimahaiko izandakoak, *Bertsolaritza formarik gabeko Heziketa* liburuan honako hau gehitzen du (99. or.):

> "Beste gauza asko ere gogoan izan litezke: sorpena, irudipena, ziria-sartzea, eta abar".

## Aurtengo txapelketa

Aurtengo txapelketari dagokionez, irakurle bertsozalea jakitun dagoke Euskaltzaindia eta Bertsolarien Elkartearen artean, epaimahaia osatzeko orduan, sortu ziren eztabaidez. Guk geuk, geure aldetik, ez genuke su hori bizitu nahi; eta Euskaltzaindiaren jarraitzaile eta bertsozale garen aldetik, gure nahirik behinena sorturiko txinpartak lehenbailehen itzaltzea izango litzateke.

Txapelketaren antolakuntza behin martxan jarriz gero, proposamen desberdin bi eztabaidatu ziren puntuatze-erari zegokionez. Batetik, Jose Ramon Etxebarriaren "Bertsolari-Txapelketetan epaimahaikoek erabil ditzaketen erizpideei buruzko aurreprojektua" izeneko txostena; eta bestetik, puntuaketak agerian ematearen alde zeudenen proposamena. Jose Ramon Etxebarriaren txostenak arteko txapelketetan erabilitako erizpideetan sakontzea eta horiek zehaztea zuen helburu, arazo tekniko, gai, egitura eta bertsoen zailtasuna neurtu ahal izateko datuak emanez. Txostenak fitxa batzuk ere eskaintzen zituen, saio-amaieran, gura izanez gero, bertsolari edota bertsozaleek epaimahaikoek emandako puntuazioaren berri izan zezaten. Txosten hau, 1984. urtean Mungian "Bizkaiko Bertsolari-Ikasleen Elkartea"k eraturiko "Taket" sarian izan zen erabilia, baita urte bereko Arabako Bertsolari-Txapelketan ere.

Txosten honek izan zitzakeen abantailak ontzat eman arren, bertsolariak puntuaketak ematearen alde agertu ziren eta era berezi hau hautatu zen 1985-86 Txapelketarako. Berezia diogu, ez, haatik, berria, inoiz erabilia izan bait da; hala nola, oraintsu Euskadi Irratiak antolaturiko "Fernando Amezketarra" herri-arteko lehiaketan.

Eskualdekako erakuntzari zegokionez, epaimahai bi osatu ziren Araba-Bizkaia eta Gipuzkoa mailako kanporaketetan epailana egin zezaten. Iparralde-Nafarroa eremurako, bertan egindako txapelketaren emaitzak onartu ziren. Araba-Bizkaiko epaimahaia honakook osatzen zuten: Trino Azkoiti, Karlos Ibarzabal, Andoni Iriondo, Antton Mari Aldekoa-Otalora, Eusebio Osa eta Iñaki Sarriugartek. Gipuzkoakoan seikote hau plazaratu zitzaigun: Joxe Mari Arrieta, Joserra Gartzia, Patxi Goikolea, Rufino Iraola, Jesus Mari Mendizabal eta Nikolas Segurola.

Hasiera batean, epaimahaikoen egitekoa, orain arteko esperientziak batu, aztertu eta eztabaidatzea izan zen, zelanbaiteko erizpide bateratu batzuetara heltzeko. Halere, bertsozaleak dakikeenez, zenbait arazori buruz batasunera iristea zail ere zail gertatzen da, arazo horiekiko eritzi kontrajarriak egoten dira eta. Adibide bat ematearren, errimari dagokion puntutxo bat aipatu nahi genuke. Denok dakigu bertsotan, sarritan, formaz berdinak baina esanahiz desberdinak diren berbak erabiltzen direna: *bizia* (zorrotza), *bizia* (bizitza), *bizia* (bizi izana). Zenbaitek erabilera hau errimakeriatzat jotzen duen bitartean, askok eta askok, ordea, puntuagarri den hitz-joko bailitza hartzen du. Edozelan ere, epaimahaian

partaide asko egoteak osotasuna demaio, ezpairik gabe, bertsoak merezitako puntuazioari.

Lehendabiziko fasean, puntuazioak ematerakoan, era desberdinak erabili ziren Araba-Bizkaia eta Gipuzkoako kanporaketetan. Gaia emandako saioetan, hirunaka puntuatu izan dira bertsoak lurralde bietan; ofizioetako bertsoen emaitzak, ordea, Araba-Bizkaian banaka puntuatu izan dira, Gipuzkoan hirunaka puntuatzen zirelarik.

Lehenengo fasea burututa, final-laurden, finalerdi eta finalerako bederatzi partaideko epaimahai berri bat izendatu zen, epailariak era honetara aukeratuz: Araba-Bizkaitik eta Gipuzkoatik launa partaide, bederatzigarrena (F. Miura) Iparraldetik gehituz. Orduan birplanteatu egin zen zein zatekeen erarik egoki eta fidagarriena ofizioetako bertsoak puntuatzeko, gehiengoa hirunaka ematearen alde agertu zelarik. Izan ere, era bitzuok dauzkate beren alderdi on eta txarrak. Hirunaka ematea, zenbait kasutan huts-estalgarri bihur badaiteke ere (pentsa dezagun epaimahaiko bik puntuazio bera eman diezaioketela bertsolari bati, *18* esaterako, emaitza partzialak zeharo ezberdinak izaki: 4,7,7=*18*; 7,7,4=*18*); beste askotan, errakuntzak edota txarto ulertuak zuzentzeko, lagungarri gerta dakieke epaimahaikoei. Azken hau, zer esanik ez, puntuaketa justuago baten mesedetan doa. Lehenengo bidea zehatzagoa den bitartean, bigarrena eroso eta fidagarriagoa dela esan genezake.

Baina txapelketaren funtsa eta bertsoaren neurgarritasuna eztabaidagai izan diren modu-moduan, puntuaketa-era honek ere eritzi kontrajarriak eta kezka zenbait sortu ditu bertsolari eta bertsozale askorengan. Gure ustez, puntuak agerian emateak baditu ukaezinezko abantailak; arintasuna, gardentasuna, azken mementuko sorpresak ekiditea, epaimahaiaren lana kontrolatu ahal izatea, entzulegoaren heziketa, etab. Baina galdera, Pello Esnalek zorrozki dioenez (*Deia*, 86.02.13), zera litzateke: ea helburuok benetan lortzen direnentz. Hor jagok untzea.

Huts-estalgarri izateaz gain, baditu sistema honek beste alderdi ahul batzuk ere. Izan ere, puntuak bertsoa kantatu ahala eman beharrak trantze estuan jartzen du epailaria, epailana bere baitarik soil-soilik egin bait dezake. Ez du, haatik, txarto ulertuak edo bertsoak izan ditzakeen alderdi ilunak aldamenekoekin komentatzeko asti gehiegirik. Horrez aparte, kontutan hartzekoak lirateke bertsolari handien itzalak izan dezakeen eragina, eta zer esanik ez, txapelketa aurrera doan heinean kanta-lekuetan sortzen den giroa-

rena. Jesus Mari Etxezarreta ere, komunikabide batzuetatik (*Argia*, *Deia*, *Egin*), puntuen batuketa soilak lekarkeen bidegabekeriaz mintzatzen zaigu, adibide posible batez azalduz. Gerta daitekeena denez, ez luke antolakuntzak arazo hau ahaztu behar.

Arazo guztioz eztabaidatu zuen epaimahaiak, final-laurdenei hasiera eman aurretik Zarautzen agindako bileretan. Arlo honetan eskertzekoa da, epaimahaiak bertsolari eta lehengo txapelketako epaimahaiko batzuengan aurkitutako laguntza errimea.

Amaitu aurretik, beste arazo bat ukitu nahi genuke, bidenabar bada ere. Aspaldion, idatzizko zenbait komunikabidek bertsolaritzari emandako bultzadari esker, bertso asko ikusten dugu inprentaturik. Honek, zelanbaiteko epaiketa paraleloa sortu du, *moviola* bailitza. Baina ez da ahaztu behar, kanta-lekuan luzaro itxaronda hasitako bertsoa edota kolpeta eta baldar kantatutakoa, dotore eta txukun idatz daitekeela, mementuan mementuko gorabeherak aipatzeke.

Lehen zaila ere zaila bazen epailana, aspaldiko berrikuntzekin zailtasuna areagotu egin dela esan dezakegu. Bertsolaritzaren mesederako badira, betoz ordu onean zailtasunok; aldaketen helburua hauxe bait da: txapelketak ahalik eta ondoen eratzea, entzulegoaren gozamenerako eta bertsolaritzaren eta euskal kulturaren onerako.

Egongo al dira hurrengo epaimahaian, bertsolaritzaz lerro xumeok idatzi dituen hau baino mila bider jantziago dauden euskaltzale eta bertsozale adituak! Finala heldu bitartean, bertsolariei bezalatsu, ez zaie Aita Santu eta zortzi kardinalei larritasun, nerbio eta lo-ezina faltako.

*I.S.*

(1) Liburu honetan gerra aurreko txapelketa bien berri ematen zaigu. Oraints..., Gipuzkoako Aldundiak Basarri eta Uztapideri egindako omenaldien kariaz, libur... interesgarri honen bigarren argitalpena atera du.

## *EL JURADO EN LOS CAMPEONATOS*

## LE JURY DANS LES CHAMPIONNATS

*El artículo de Iñaki Sarriugarte, miembro del último jurado, analiza los criterios literarios y prácticos empleados a lo largo de los diversos campeonatos nacionales. El autor se centra de manera especial en el último campeonato, estudiando tanto el sistema como los criterios de puntuación del jurado, así como el debate que han generado los cambios efectuados en el mismo.*

---

L'article d'Iñaki Sarriugarte, membre du dernier jury, analyse les critères littéraires et pratiques suivis durant les championnats nationaux. L'auteur s'arrête sur le dernier championnat, où il étudie autant le système comme les critères du jury pour compter les points, ainsi que le débat posé par les changements introduits au dernier championnat.

## Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusia 85-86

**Euskal Herriko Bertsolarien Elkartea**

Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusiak badu bere historia eta hasi zenetik euskaldungoak gertaera garrantzitsu bezala hartu izan du beti.

Garai batean apustu-girokoak ere izaten omen ziren, baina bertsolarien Txapelketa Nagusi modura *Bertso guduak* izanez antolatu ziren 1935 eta 1936an. Ondoren tunel ilun eta luze batean sartu gintuzten, euskalduntasun guztia desagertu nahi izan zuten. Baina euskaldungoak, bere nahien erara gauzak egiteko aukerarik izan ez badu ere, su horri bizirik eutsi dio gutxienez.

1960. urtean ekin zitzaion berriro, eta bizpahiru urtetako tartearekin jokatu ziren lau saio: 1960-62-65-67 urteetan.

Garai hori ere ez zen izan istilurik gabea. Bazen txapelketak minduta utzitakorik. Horrela, 1968. urtean Sariketa Nagusi bat antolatu zen puntuak bistan emanez eta aurreko txapelketan parte hartu ez zuten izenak azaldu ziren. Basarri eta Lasarte, esate baterako.

1967. urtean bertsozaleek Xalbador zenari jotako txistualdi luze hura guztion buruetan izan zen urte askotan eta ez zen beste

urte-sail batean Txapelketa Nagusirik antolatu. Bertsolariek ere gogo handirik ez nonbait, eta Euskaltzaindiak berak ere ez zuen antolatu. Argi dago txapelketak beti su handia pizten duela eta jendea itsutu ere egiten duela sarritan bere gustokoaren alde. Entzuleek duten berotasunak eta epaileek erabakia ematerakoan duten hoztasunak ez ditu beti ondorio berak ateratzen saio baten buruan, eta hortik istiluak.

1980. urtean berriro hasten da Euskaltzaindia hori martxan jartzen. Lehen urte horretan, hala ere, bertsolari sonatu askoren hutsunea nabari da. Bertsolariak ez dira oso txapelketaren aldeko agertzen. Jendearengan arrakasta handia sortzen du, ordea, eta gazte-jendea biltzen da ugari. 1982. urtekoak bertsolari gehiago ekarri zituen neurketara, baina emaitzak edo azken erabakiak ez zituen denak pozik utzi. Bertsolari, epaile eta entzuleen artean eritzi desberdinak zeuden. Errezeloak ere bai zenbait kasutan. Bertsolarien aldetik, gauzak argiratu beharra eta puntuen berri jakin nahia sumatu zen. Gauzak horrela, Euskaltzaindiaren Batzordearekin harremanetan jartzen dira bertsolariak, eta, hurrengo Txapelketa antolatu baino lehen, zenbait puntu aldatu nahi dira. Ez dira, ordea, bat etortzen, baina hala ere Euskaltzaindiak Txapelketarako deia egin egiten du. Deiari bertsolari gutxik ematen dio baietza: 19 dira izenak, baina hutsune nabarmenak daude. Hala ere, aurreko txapelduna bertan izateak ematen du itxaropenik eta epea luzatu egiten dute. Giro horretan bertsolariak bildu eta Euskaltzaindiaren Batzordearekin bildu beharra ikusten dute. Batzorde bat izendatu eta zenbait baldintza erabaki ere egiten dira. Ondorengo hau da batzorde horrek plazaratzen duen orria:

"Bertsolari txapelketa nagusiari buruz, hainbeste galdera egin denez eta aldaketa nabariak daudenez, herri osoari zor zaion informazioa ematera gatoz.

Azken txapelketaren ondoren, bertsolariek heuren artean, hainbat eztabaida eta kezka azaldu zuten eta bakar batzuk argitara eman ere bai. Kezka hoien eraginez eta Euskaltzaindiak berriro ere txapelketarako deia egin duenez, batzar bat egin zuten, erabaki hauek hartu zituztelarik:

1.- Izen emateko epea luzatzea eskatu.
2.- Antolatzaile batzorde bat osatu txapelketa aurrera eramateko.
3.- Txapelketa irekia antolatu.
4.- Epaimahaikoak heurak izendatu.
5.- Epaia, bertso saioan zehar bistara azaldu behar dela, entzulegoak ikusteko eran.

Erabaki hauek denak Euskaltzaindikoekin eztabaidatzeko, ordezkari batzuk aukeratuak izan ziren, eta bilera batetan garbi adierazi zizkieten Euskaltzaindikoen izenean azaldu zirenei, heuren kezkak eta erabakiak. Orduan garbi geratu zen lehenengo bi puntuetan ez zela konponezinik izango, baina laster Euskaltzaindiak Lekarotzen bilera izango zuenez, erabakiak han hartuko zituztela eta ondoren bilera dei bat egingo zutela, erantzun zitzaien bertsolariei.

Egun batzutara jaso duten eta hona hemen ondoren bera, hitzez-hitz idatzia:

*«Agur t'erdi:*

*Loiolan zuekin egin genuen bileran geratu bezala, bertsolari talde batek egindako eskariak Euskaltzaindiaren bileran aurkeztu nituen, eta arretaz aztertu ondoren, ondoko erabakiok hartu zituen:*

*1.- Izen-emateko epea Maiatzaren 15era arte luzatzen da.*

*2.- Bertsolariei onartzen zaie, orainarte epaimahairako izendatu direnei "betoa" ezartzea. Idatziz adierazi beharko diote Euskaltzaindiari, nor gaitzesten duten eta zergatik.*

*3.- Era berean bertsolariei onartzen zaie epaimahairako izan daitezkeen zenbaitzuren izenak ematea.*

*4.- Epaimahaia Euskaltzaindiak izendatuko du.*

*Gure bileran erabaki genuen bezala, guzti honen berri ematen dizut, bertsolari talde horri jakinerazi diezaiozun.»*

Jasotako erantzuna aztertzearren, beste bilera bat egin zuten. Bertan zeudenen eritziz, heurak antolatu nahi duten txapelketaren helburuak eta Euskaltzaindiak eskaintzen dietenarenak, elkarrengandik urrun daude eta horregatik, txapelketa hobe bat lortzeko asmoz, bere antolaketa nolabait heuren bizkarrean hartzea ikusten zuten bide bakarra eta legezkoa bestalde.

Beraz, txapelketa nagusia ahalik eta azkarren —ahal bada aurten— burutzeko ahalegінetan batzorde antolatzaile bat osatzeari ekin diote eta bertan, bertso munduan lanean ari den jendeak izango du lekua. Batzorde honen esku geratuko litzateke txapelketaren antolaketak duen lan guztia, besteren artean epaimahaiaren aukeraketa.

Garbi utzi nahi dute, puntu honi dagozkiolarik, epaimahaiko partaideak, bertsolariek botazioz aukeratuko dituztela eta azken txapelketan lan horretan arituak, baldin heurak nahi badute, beste batzuekin batera, hautagai bezala jarriko dituztela.

Azkenik hauxe azpimarratu: Bertsolarietatik inork ez duela Euskaltzaindia edo azken txapelketan epaimahaiko izan zirenen aurkakotzat hartzerik nahi lanok, ustez, txapelketa hobe baten alde ari baitira.

Guzti hau egoki deritzate azpian izendatuek, eta laguntza eskeintzen diote antolaketa berri honi:

Xalbador, Olalde, Lazkano, Manu Oruesagasti, Amuriza, Karlos Ibarzabal, Attola, Argiñarena, Otaño, Zelaia, Narbaiza, Matxinandiarena, Mañukorta, S. Azarola, B. Agirre, Igarzabal, J.R. Etxebarria, Zeberio II., Euskitze, Peñagarikano, Lopategi, Mendizabal, Larrañaga, Gorrotxategi, S. Lizaso, Telleria, Ziarda, J.F. Argiñarena, Zabala, J. Sarasua, A. Loidi, J. Enbeita, Ajuria, Bustarri, Alzelai, Ezponda, Egaña, Zaldubi, Areitio, Xanpun, Murua, Zeberio I., Iraola, Garmendia, Begiristain, K. Lizaso, Etxeberria, A. Enbeita.

Azkenerarte izenak jasotzen aritu eta hala ere, bertsolari batzuen erantzuna jakiteko astirik gabe geratu dira. Beraz, zerrenda hau irekia dago oraindik eta izen hauetaz gain zenbait bertso eskolak ere, bere egiten du idatzi hau.

OHARRA: Irakurleok ikus dezakezuenez, azken txapelketan parte hartu ez duen izen haundiko beste zenbait bertsolari falta da zerrenda honetan. Denekin hitzegiteko aukeratik izan ez badute ere, zenbaitzurengana iritsi dira bertsolariak, eta idatzi dutena azaldu ondoren, heurak ere ontzat ematen dituzte asmo hauek. Bestalde jakinarazten dute, aurrerantzean emango dituzten pausoen berri zehatza egunkari eta irratiz zabalduko dutela".

Bertsolarien ohar honen ondoren, Euskaltzaindiak Txapelketa ez antolatzeko erabakia hartzen du, eta, Maiatzaren 31n Bilbon Gabriel Arestiren omenez egindako bileran, honako ohar hau plazaratzen du:

> "Aurtengo Bertsolari Txapelketa dela eta zenbait iritzi desberdin hedatu da. Euskaltzaindiak prentsabidez ikasi duelarik bertsolari talde batek txapelketa hobea antolatu nahi duela, gaurko bileran hauxe erabaki da:
>
> Nahiz Euskaltzaindia aspaldi honetan aritu den Bertsolari Txapelketak apailatzen, gerra aurrean Euskaltzaleak Elkarteak ekin zion bide beretik eta bertsolaritza indartu nahirik, bertsolari talde batek, antolatzeko gogoa erakutsi duenez gero, Euskaltzaindiak ez du oraingoz txapelketarik eratuko".

Bertsolarien batzorde bat hasten da orduan bertsozaleak biltzen eta horiek noski ez ditu beste inork bertsolariek baino hobeto

ezagutzen. Herriz herri dabiltzala, badakite zein aritzen den lan horretan eta egokia zein izan daitekeen ere bai. Bertsozaleak animatzea eta talde-lanean hastea kosta egiten da hasiera batean, baina bertsozale ugari dira Bizkaia, Gipuzkoa, Araba, Nafarroa eta Iparraldean lanerako gertu.

Asmoak eta helburuak bateratzeak ematen ditu bere lanak aurrenik, eta epeak, hasieran urruti diruditen arren, hurbildu egiten dira eta ez dago lo hartzerik. Udazkenean hasi beharra dago probintzia mailako saioak antolatzen. Taldea hasterako, uda heltzen da eta udako oporraldiaren ondoren ekin beharra dago lanari eta hala heltzen zaio.

Probintzia bakoitzak antolatzen ditu bere saioak izena eman dutenen arabera eta nahikoa autonomoki. Saioak bere kasa antolatuz eta epaiak era desberdinez emanez, puntuak bistaratzerakoan, adibidez.

Gipuzkoan 34 bertsolari aurkezten dira, aurreko txapelketan finalerdira heldu zirenak lehen kanporaketa honetatik kanpo direlarik. Horiekin lau talde antolatzen dira, talde bakoitzak bi saio eginez.

Bizkaia-Araban 29 bertsolari dira lehen kanporaketa honetan parte hartutakoak. Aurreko txapelketan finalerdira edo finalera heldutakoak libre.

Nafarroan urtero bezala jokatu da Nafarroako Txapelketa: Iparralde eta Hegoalde biak barne izanik, eta, beren eskaria horrela izan zenez, ontzat hartzen dira bertako erabakiak. Nafarroako 7 finalistak eta Lapurditik Xanpun izango dira Nafarroa eta Iparraldeari dagokion zortziko taldea osatuko dutenak. Gipuzkoatik, kanporaketan gelditutako 9ak eta beste 7 aurreko Txapelketatik aukeratuak: 16 guztira. Bizkaia-Arabatik beste 8. Horrela 32 osatzen dira eta Euskal Herria zehar banatzen dira hortik aterako diren lau talderen saioak: Gasteiz, Sara, Bergara eta Durango.

Aurreko Txapelketako 6 finalistek finalerditik ekingo diote; hauekin batera ariko dira final-laurdenetan aurrera gelditu diren beste hamarrak. Hamasei horietatik Tolosa eta Bilbon 10 gelditu dira atzera, eta aurrerako diren 6 horiekin elkartuko dira aurreko Txapelketako txapeldun eta txapeldun-ordea.

Erabaki guzti hauek bertsolariek hartu dituzte beren bileretan, bai probintzia bakoitzari dagozkion partaidetzak eta baita aurreko txapelketako emaitzen balioak ere. Saioetan zehar egin beharreko

lanaz ere berek eman dute hitza, eta horrela antolatu dira hasieratik amaitu arte.

Diru-kontuak ere ez dira motelak eta nonbaitetik bildu beharra dago uzta. Abiatzerakoan egindako aurrekontuak 14.670.000 pta.koak dira. Handia da, baina heldu egiten zaio. Gauzak taxuz antolatu behar dira, bertsoak ongi entzun behar dira, bertsolari, epaile eta aurkezleei ordaintzea erabakitzen da; horrela egin ere.

Probintzia bakoitzeko saioak antolatzeak eta autonomoki antolatzeak, asko herriratzen du antolakuntza eta bertsozale gehienak lanean jartzen dira. Dirua ere bertatik eskuratzen da hasiera horretan. Udalek harrera ezin hobea eman zutelarik, diru-laguntza eta saio-antolakuntzan. Saioak non antolatu, Gipuzkoan zozketaz erabaki behar izan zen, antolatu nahi zutenak egin beharreko saioak baino ugariago bait ziren.

Final-laurdenetatik gorako saioek beste egitura bat dute: Euskal Herri mailan antolatzen dira, eta lekuak ere hasieratik erabaki ziren. Horregatik atera ziren saioak Sara eta Gasteiza, eta arrakasta ona lortuz, gainera. Saio hauetatik aurrera, gastuak ugariago dira, diru-iturriek beste bide batzuk urratu behar dituzte, eta, saioak egiten diren herrietako udalez gain, Diputazio eta Jaurlaritzak ere laguntzen dute. Probintzia mailako kanporaketa haietako entrenamendua ikasbide ona gertatzen da fase honetan, baina Euskal Herri osoko indarrak lotu beharra dago.

Garai guzti honetan egindako lanen berri ere puntualki eman izan da bai jaialdiak adierazterakoan, bai erabakiak jakin eraztera-koan: prentsaurreko, hormirudi, egunkari, irrati-telebistak. Guzti hauek lagundu dute saioak girotzen: saioen komentario, bertsolarien argazki, elkarrizketa, txapelketako saioen entzutea, etab.

Euskal Herri osoan zehar kartelak banatu beharrak ere eman du lanik, antolakuntzak bere gain hartu bait du lan hori. Horrez gain, leku egokiak, entzungailuz hornituak, jendearentzat erosoak, epaileen lana jendeak ikusteko eran egiteko modukoak... Maratila ugari dira, baina dena, arloz arlo eta saioz saio, aurrera joan da inolako etenik gabe.

Gaien aldetik ere lan handia egin behar izan da eta txapelketan zehar ofiziotarako 232 gai desberdin behar izan dira: nagusian, txikian nahiz puntutan aritzeko. Puntu, oin eta bukaerak 281 eta bakarkako gaiak 77.

Hasiera batean ametsa zirudiena egia bilakatu da eta nahikoa bide onetik, gainera. Antolakuntzaren mailan ez da izan kritikarik, ez bertsolarien eta ez bertso-saioetara etorritakoen aldetik. Bada zerbait.

Tartean badira borrokatxo batzuk ere: azkena eta nabariena, antolatzaileen eta ETBren artean gertatzen da. ETBk zuzenean eman nahi du finala eta antolatzaileek ordaina eskatzen dute. Nahikoa pultsu gogorra jokatzen da eta oihartzun handi samarra lortuz. Azkenik, eskatutako milioia Eusko Jaurlaritzak jartzen du Euskal Telebistaren ordez.

Txapelketa honen antolakuntz batzordearen helburua, itxurazko txapelketa bat ateratzea zen; eta hori lortu bada, barruan lan asko eta ordu asko sartu dira, Euskal Herrian zehar herriz herri sartu diren orduak ezin konta ahala dira. Meritua, Euskal Herrian zehar zabaldurik dauden bertsozale ugari horiena da. Bertsolariek antolakuntza hartu eta eratu den lehen txapelketa hau ez da aurrekoetatik oso desberdina izan; agian, jendearen partaidetzak eman dio aldaketarik.

Aurreko txapelketek zekarten fenomeno pozgarri bat agertzen da honetan ere: jende gaztearen erantzuna. Hor dago bertsolarientzat bizigarririk estimatuena. Inoiz baino itxaropentsuago ikusten dira bertsolariak.

Bertsolaritzak lehen ez zituen lekuak irabazi ditu. Hasierako taberna-txoko eta sagardotegietatik plaza eta aretoetara pasatua aurkitzen bazen ere, horretan pauso berria eman da. Txapelketak jende askorengan du bere oihartzuna. Finaleko saioak ekarritako uholdeak hori adierazten digu.

Euskaldungoa zatiturik aurkitzen da, baina bertsolaritzaren inguruan gazte, nagusi, emakume nahiz gizon, joera politiko bateko bezala besteko, pozik aurkitzen direla dirudi.

Txapelketa, gazteen plazaratzeko bide egokia da, eta horrela gertatu izan da aurretik ere. Azken honetan, gainera, inoiz baino jende gazteagoa ikusi dugu. Finaleko saioan: Sebastian Lizaso txapeldunak 28 urte; Jon Lopategi txapeldun-ordeak 52; Xabier Amurizak 45; Jon Enbeitak 36; Iñaki Muruak 30; Andoni Egañak 25; Jon Sarasuak 19 eta Angel Mari Peñagarikanok 28.

Finalera heldu ez ziren baina ateetan geldititutako beste bertsolari batzuk aipatzekotan, hor ditugu: Euskitzek 19 urte; Mikel Mendizabalek 30; Millan Telleriak 28; Jose Luis Gorrotxategik

41... Argi dago, beraz, bertsolarigo.gaztea daukagula eta horrek asko mugitzen du, zalantzarik gabe, gazte-jendea; eta bertso-eskoletan lanean ari direnentzat ez dago propaganda hoberik.

Zer adierazten digu honek? Lehengoak hobeak al ziren? Oraingoak hobeak al dira? Betiko eztabaidak ditugu. Argi adierazten du behintzat, gazteak ahalmen hobeak dituela beharbada horrelako neurketa baterako, eta, bestetik, gazteek txapelketa asko jokatu dutela azken urteetan eta hori entrenamendu bat dela, noski. Adinarekin, esan daiteke, horrelako neurketa batek behar dituen dohainak ez dira askorik hobetzen.

Bertsolaritza ez da, ordea, Txapelketa bakarrik; eta jendeak badaki ongi, urtean zehar bertsolariak behar direnean, txapelketan agertzen ez diren bertsolari batzuk ere badaudela, eta jai, jatordu eta ospakizunak girotzen apartak. Horien gehienen hasiera txapelketaren batetik hurbil ibiliko da.

Azken txapelketa honen Finala gertakizun askok girotua zetorren eta gori-gorian aurkitzen zen. Saioaren ondoren nabari izan denez, jendeak aurretik uste zezakeen adinako mailarik ez du nonbait eman egun osoko bertso-saioak. Gauza arrunta gertatu da, bertsolarien lanari begiratuz. Izan dira saio mardulak eta arinagoak, bertso apartak eta eskas samarrak. Bertsolarien aldetik, izan dira nahikoa ausart jokatu dutenak eta baita kontu handiz aritu direnak ere. Aurrez uste zenak eta eguneko martxa —edo goizekoa behinepehin— ikusi ondoren txapela irabazi behar zuela zirudienak ez du txapelik eramaten. Lehen ere txapelketek eman dituzte horrelako ustegabeak eta berriz ere gertatuko dira. Aurten, bestetik, puntuak bistan eman direlako, jendeak aurrez jaso du zein den txapelduna; eta egunean zehar zenbait txistualdi gertatu badira ere, azken emaitzaren aurka ez du inork deusik esan. Hitz egin dutenek gartzelako gaiari bota diote errua.

Txapelketa honen ondorengo kritiken artean eritzi aski zorrotzak ere izan dira. Zorrotzago eritzia ematerakoan, eritzi hori frogatzerakoan baino. Gartzelako gai horrek oso kalifikatibo eskasak jaso ditu. Antolatzaileen ustez, ordea, bertsolariek hotz samar hartu zutela egia izan arren, gutxienez bertsolarien lana neurtzerakoan inori abantailarik ematen ez zion gaia izan zen.

Azterketa sakon bat egiterakoan, horiek denak eta egunean zehar egindako saioak, egun osoaren nekeak eta beste, ikusi beharko dira.

Diru aldetik honako kontu hauek ditugu amaieran:

SARRERAK

| | |
|---|---|
| Erakunde-laguntzak | 11.420.000 |
| Beste entitateenak | 3.702.275 |
| Saioetako sarrerak | 9.750.275 |
| *SARRERAK GUZTIRA* | 24.872.550 |

GASTUAK

| | |
|---|---|
| Saioak | 6.470.000 |
| Megafonia, publizitatea, sariak | 5.467.785 |
| Antolakuntza eta beste | 4.473.388 |
| *GASTUAK GUZTIRA* | 16.411.173 |

Txapelketa amaitu da, baina hor lanean aritutako jende-mordo horrek bertsolaritza indartzeko eman ditu bere indarrak, ez txapelketarengatik bakarrik. Aurrera begira, gauzak zuzendu eta lotu beharra dago. Elkartea sendotu beharra dago. Lekua behar da, arduraduna, Batzorde finkoa, egituraketa sendoa, etab. Horretarako, bertsolari eta bertsozalez osatuko den Elkartea taxutu nahi da.

Bertsolaritza gaur egun ere, antzina bezalaxe, bertsolari eta bertsozalez osatzen da: batak bestea ondoan behar du.

Bertsolariak ez dira gaur lehengo iturri beretik sortzen, gaur eskolak antolatu dira leku askotan: haur, heldu, denak dabiltza eskolatzen eta horrela teknikaz jabetzen. Bertso-lanean ahalegindu denak ezagutzen, estimatzen eta gozatzen du gehien bertsolari trebe baten aurrean. Bertsolaritzaren gakoak zenbat eta jende gehiagok ezagutu, orduan eta estimatuagoa izango da bertsolaria. Bertsolariak, gazte bertsozaleen imitagarri bilakatu behar du. Eskolatze-kontu hori ere koordinatu beharra dago. Bertso-saioak ere asko sortzen dira eta horren berri zabaldu beharra dago. Bertsolarien eskubideez pentsatzen hasi beharra dago. Bertsolari gazteen txapelketak, bertso-paper lehiaketak, artxibo-lanak, fitxategia.

Hauek dira Elkarte sortu-berri honen txapelketarik nagusiena. Urte hau, 1987. urtea, Bertsolari Elkartearen sorrerako urte bezala geldituko da. Hortik aurrerakoak, bertsolari eta bertsozaleek Elkarte horren bidez egiten dutenaren baitan egon beharko du edo bestela lehen bezain galduak ibiliko gara.

Sorrera-egunean, "Korputz egunean" Imanol Lazkano gure lehendakari hautatu-berriak bere hitzalditxoaren amaieran esandakoarekin amaituko dugu. Manuel Uztapide zenak kantatutako bertso baten amaiera da:

Anai-arrebok aurrera ere
bide horretatik segi
alegin denak eginda ere
ez baita izango gehiegi.

*E.H.B.E.*

---

## *EL CAMPEONATO DE BERTSOLARIS '86*

## LE CHAMPIONNAT DE BERTSOLARIS '86

*Estas páginas presentan el balance oficial del Campeonato 1985-1986, realizado por la Asociación de Bertsolaris del País Vasco. El artículo relata extensamente la historia de la ruptura con la Academia de la Lengua Vasca. Tras la ruptura, un grupo improvisado de bertsolaris y de amantes del bertsolarismo (núcleo de la nueva Asociación) se encarga de la organización del Campeonato. La Asociación describe aquí los pormenores de la organización material (presupuestos, propaganda, publicidad, preparación de temas, etc.), la respuesta del público (asistencia masiva y juvenil a destacar) y el resultado final, altamente satisfactorio en todos los aspectos para la Asociación.*

---

Ces pages présentent le bilan officiel du Championnat, bilan établi par l'Association de Bertsolaris du Pays Basque. L'article rapporte très en détail, l'histoire de la rupture avec l'Académie de la Langue Basque. Après la rupture, un groupe improvisé de bertsolaris et de passionnés du bertsolarisme (noyau de la nouvelle Association) se charge de l'organisation du Championnat. L'Association décrit ici les détails de l'organisation pratique (budget, publicité, préparation des sujets, etc.), la réponse du public (à souligner l'assistance massive et de jeunes) et le résultat final, très satisfaisant, dans tous ses aspects, pour l'Association.

# Bertsolaritzaz galdeketa

**Elkar-lanean**

## 1. Txapelketak

*Txapelketak, fenomeno eta metodo bezala, erruz ugaldu dira azken aldi honetan: txapelketa nagusiak, auzo eta herrietakoak, helduenak zein gazteenak.*

*Asko esan eta idatzi da txapelketen alde on eta txarrei buruz. Zuk zeuk hauetatik zeintzuk azpimarratuko zenituzke? Eta, batez ere, zer diozu: txapelketak bai ala ez?*

### Amuriza, X.

Txapelketak baditu zenbait alderdi txar eta agian txarrena konpetentzi legea sortzea da, kulturaren sail bat izanik. Beste alderdi txar bat da, bertsogintza ez dela zehazki neurgarria eta gutxiago bapatean. Txapelketa guztiek uzten dituzte atzetik minak eta haserreak. Alderdi onen artean, txapelketak bertsolaria asko saiarazten du eta entzulegoa ere erruz erakartzen. Aurrerapen-bidea da, nos-

ki. Izen berriak plazaratzeko eta zaletasuna zabaltzeko ere txapelketak aproposak dira. Dena jota, txapelketak txarretik baino onetik gehiago daukala uste dut.

### Aranalde, J.M.

Txapelketaren alde onak, honelatsu izenda daitezke: lastoa eta garia apartatzeko ona dela jeneralki; bertsolariak, doinuz etab., prestarazi egiten dituela; gizartean hotsa aterazten duela eta jendea berari begira jar erazten duela.

Eta alde txarrak: apustukeriatik ez dugula ateratzen; bazterketa mingarriak sor ditzakeela; bertsolariek lotuago jarduten dutela; burrunda engainagarri xamarra sor dezakeela.

Eta txapelketak bai ala ez, badirudi mesedegarriak direla oraingoz.

### Egaña, A.

Txapelketen aldekoa naiz. Bertsolari bakoitza eta bertsolaritza bera aldatzeko eta hobetzeko garrantzitsuak iruditzen zaizkit. Horrez gainera, entzulegoak txapelketaren poderioz susperraldia izaten duela ukaezina da. Horiexek lirateke alde onak eta horiexegatik merezi du txapelketa egiteak.

Alde txarren artean, beti aipatu izan dira bertsolariaren tratu txarra, neurketa-sistemaren ahulezia, etab. Dena den, nik okerrago bat sumatzen dut: punta samarrera iristen direnek etsi egiten dutela beren lanketan, hain zuzen, punta samarrera iristeagatik; eta iristen ez direnek ez iristeagatik etsitzen dutela.

Halere, hurrengo Txapelketak denak behartzen ditu mejorara.

### Esnal, P.

Bertso-jaialdia ezezik, lehiaketa eta norgehiagoka ere bada bertsolari-txapelketa, nahiz eta bere helburu nagusia bertsolari onena izendatzea ez, baina bertsolaritza indartzea izan, bertsolari berriak plazaratuz, entzulegoa bertsozaletuz, bertso-jaialdi ikusgarriagoak eta entzungarriagoak eskainiz...

Txapelketaren alde onak, helburuen lortzeak dituenak dira; txarrak, berriz, gehiegizko norgehiagokak edo norgehiagokaren gehiegikeriak lekarzkeenak.

Horiek horrela, eta arriskuak arrisku, txapelketaren alde nago.

**Garzia, J.**

Galdera nagusiari erantzunez: txapelketei bai, noski... gaur egungo egoeran behintzat. Txapelketei, eta ez txapelketari, txapelketa nagusi bakarrari, alegia.

Alderdi on eta txarrak aski ezagunak direla uste dut: *onetan*, giro-suspertzea; doinu, errima eta teknikak landu eta findu beharra, eta gisakoak aipa litezke. *Txarretan*, berriz, bertsolariaren estuasuna; bertsoaren ludikotasuna edo jolas-izaeraren galeraztea; sasi-bertsozaleak ugaltzea (bertsoengatik baino areago, lehiagatik beragatik inguratzen direnak); injustizia (bertsoa ezin omen daitekeelako objektiboki neurtu, epaitu).

Guzti horiek kontutan harturik ere, ordea, txapelketei bai; baina kontrolpean, koordinaziopean. Gainerako guztien azken maila behar du izan txapelketa nagusiak, eta ez aldian behinkako ekintza distiratsu bezain isolatua.

Bertsoa neurtzeko erizpideek beti berak izan beharko lukete, txapelketa nagusian eta txikietan, eta ez egokitzen den epaimahaiaren araberakoak.

**Itzaina, M.**

Nihaurk ez dut nehoiz gustokoa ukan txapelketa. Honek badu artifizial-kutsu bat. Neurketa lan zaila da, eta, bertsolariak hain bertsuak direlarik, ez daiteke dudarik gabe erran zein den nagusi. Bertzalde, bertsolarientzat txapelketa-eguna egun kezkagarria da eta zenbaitentzat beren buruaren baitan duten konfiantzaren galtzeko arriskua. Hortakoz, lehen bietarik kanpo ez litzateke klasifikaziorik behar.

Bizkitartean, kiroletan bezala, zein-gehiagokaren munduan bizi gara. Bertsolaritza ez doa berez, lehen bezala. Txapelketak jendea biltzen du, egun batez bederen giro bat sortzen, gazteari pizten

txaloak dakarren berdin egiteko gutizia. Dohaina duenari, bere burua ezagutcrazteko leku bat emana zaio.

### Izazpi

Txapelketak bai ala ez...? Nire eritzian: *bai.*

Baina ez dugu inoiz ahantzi behar, bertso-txapelketak egokiera bat direla, bertsozaleak eta bertsolariak, denok lanean jar gaitezen eta bertsolaritzari bultzada-berpizte eder bat emateko.

Alderdi onak:

— Bertsolaritzari berriztatze garrantzitsua ematen zaiolako, egitura, doinu eta formula bitxien aldetik.

— Gizartearen aldakuntza sozio-kulturaletara derrigor egokitu behar duelako, eta zer hoberik txapelketa nagusi bat baino?

— Bertsolari gazteak, landare berriak, sortzeko eta batez ere goimailara igotzeko bide bakarra delako. Bertso-txapelketa nagusiari, bai.

Alderdi txarrak:

— Bertsolarien urduritasuna, agian, zauri mingarriak batzuen artean. Juxtu epaitu-ezina, eta abar.

### Lekuona, J.M.

Txapelketak bertsolaritzaren festaburu direnez, tradizio baten, estilo baten eta kultur indar baten *kontzientzia* dakarte. Bestalde, burrundara bortitza dutenez, indarberritzen dira bertsogintza, antolakuntza eta azterketak, bertsolaritzaren *dinamika* areagotuz. Gero, askoren arteko lana dagertenez, *markarri* bat gertatu ohi dira, gazteen promozioan, gaien, tekniken eta doinuen berrikuntzan, une hartako bertsolari onentxoenen izenak aukeratzean eta abarretan.

Alde txarrak ere hor daude: *jendea erretzea* (bertsolariak nahiz antolatzaileak); bertsolari *eredu bat potentziatzea*, beste eredu interesgarrien kaltetan; bertsolari-familiaren barruko *haserreak eta ezinikusiak;* eta bertsolarien *nekeak eta penak*, eta abar.

*Bai txapelketari*, hoberik ezean.

**Lekuona, M.**

Edozein alorretan bezala, bertsolaritzan ere kezka eta urduritasun asko sortzen du txapelketa batek: oren latzak jasan beharrak ez die deus onik ekartzen bereziki goimailako bertsolari ezagunei. Estuasun gehiegia kaltegarri da bertso egoki eta sakonak sortzeko.

Baina txapelketak badu alde onik ere. Aurpegi berriak, gazteak adibidez, beren txokotik eta eskualdetik atera eta ezaguteraz ditzake. Bertsolaritzari berritze bat eskaintzen dio txapelketak. Bertsozaletasunak, bizirik eta indartuz joateko, izen berriak, eredu berriak, zein-gehiagokak eskatzen ditu, bereziki hain apustuzale den Euskadin. Horretarako txapelketa nagusiak eta eskolartekoak aski litezke.

**Muniategi, A.**

Txapelketak bai. Txapelketei esker egin dira ezagun gaurko bertsolariak, txapelketen bitartez plazaratzen da egungo koblakaria. Bertsolariak lantzera eta prestatzera behartzen dira eta hau, zalantzarik gabe, bertsolaritzaren onerako da.

Entzulegoa, aldiz, girotu eta zaleagotu egiten da.

Guzti honek herri-literatura bermatzen du.

**Sarriugarte, I.**

Txapelketak bai, inolako ezpairik gabe. Edozein modutan ere, txapelketak bertsolaritzaren adar bat besterik ez dira. Adar sendoa eta fruitu-emale aparta, baina gehiegi kargatuz gero, zamaren zamaz, apurtu eta zuhaitza zauri dezakeena. Hori gerta ez dakigun, zuhur eta neurriz erabili beharko lirateke saio-mota hauek. Horrela jokatuz gero, abantaila asko eta eragozpen gutxi ikusten diet nik txapelketei.

Izan ere, txapelketaren zantzua susmatu bezain laster, bertsolaritza mintza-, idatz-, eta eztabaidagai bihurtzen zaigu. Lan teorikoak eta iruzkinak, orduantxe ugaltzen zaizkigu; eta erdi-lotan zegokeen bertsozalea ere, bertsoaren kilika sentitzen hasten da. Eta txapelketa bukatzean, bertsolaritza txapeldun eta maila bat gorago.

## 2. Txapelketa Nagusia

*1985-1986ko Txapelketa Nagusia dela eta, ikuspuntu, eritzi eta iruzkin ugari eman da argitara.*

*Zuk zeuk zer balorazio egiten duzu jarraiko puntu hauetako bakoitzaz:*

. *bertsolarien lana*
. *gaien egokitasuna*
. *epaileen lana*
. *antolakuntza*
. *entzulegoaren erantzuna*

### Amuriza, X.

*Bertsolariak:* Bertsolariek txapelketa beren gain hartzea ondo iruditzen zait, baina ez zait ondo iruditzen gero bertsolariak berak batzorde antolatzailean parte hartzea. Bertsolarien lana txapelketa antolatzeko lagunak hautatzean dago. Hori egindakoan, hautatu horiek dira antolakuntza maila guztietan eraman behar dutenak. Zerbaitegatik eman zaie fidagarritasun-botua. Alde honetatik azken txapelketan eginkizunak nahasiegi ibili dira, nork zer egin behar duen ondo mugatu gabe. Txapelketan jokatu behar duten bertsolariek antolaketan ere tarteko ibiltzea ez zait ondo iruditzen.

*Epaileak:* Epaileen lanari buruz, gorabehera handiegiak ikusi dira batetik bestera, batzutan nabarmenak noski, baina horrek ez dauka erremediorik, ez bait dago neurketa zehatzik egiterik, bakoitzaren usteak eta gustuak indar handia dutelarik. Honetan epaitua izatea arrisku handia da, baita epaile izatea bera ere.

*Entzulegoa:* Entzulegoaren erantzuna ona izan da, beti bezala, baina agian azken txapelketan probintzi giroa, pixka bat gainditua zirudiena, berritu egin da.

### Aranalde, J.M.

*Bertsolariak:* bertsolarien lana, ona, nahiz ez duten aparteko piezarik egin.

*Gaiak:* gaien egokitasuna, ongi, ohizkoak kontutan izanik.

*Epaileak:* eritzia ez daukat osatua.

*Antolakuntza:* ona.

*Entzulegoa:* erantzuna, ona.

**Egaña, A.**

*Bertsolariak:* Azken Txapelketako bertsolarien lana ona iruditu zait. Hobea izan zitekeela, dudarik ez; baina, alde batetik, puntuazioa bistan ematearen ondorioz entzulearen erreakzioak zekartzan poz, tristura, kezka eta zalantzak eta, bestetik, komunikabideek eman zioten garrantziak, estutu egin gintuelakoan nago. Bestalde, jokoari azarorako heldu genionak hurrengo martxorako luzetsita geunden: bost hilabete gehiegitxo da beti forman egoteko, eta neuk behintzat egokitasunean irabazi nuena erraztasunean galdu nuen bukaera etorri ahala.

*Gaiak:* egokitzak jo genitzake oro har. Nolanahi ere, pare bat kontu aipatu nahi nituzke: bat, bakarkakoetan gai deskriptiboen eskasia. Bestea, meta-bertsolaritzan erortzeko arriskua; alegia, bertsotan bertsolaritza bera gehiegi aipatzerik ez da komeni, geure zilborrari begira bizi nahi ez badugu behintzat.

*Epaileak:* Lan zailik bada, epailearena da hori. Primeran aritu zirela, negargarri epaitu zutela edo borondaterik ez zeukatela esatea, ez litzateke egia. Bertso bakoitza edo saio bakoitza nahikoa ongi juzkatu zuten; baina bada beste kontu bat askoz ere pikagoa: bertsolari baten saioa juzkatu eta handik ordu-erdira beste batena juzkatzea lan berean, baina gai desberdinez. Horretan oker batzuk izana barkatzekoa da.

*Antolakuntza:* fenomeno. Merezi baino jende hobea mugitzen da gure inguruan.

*Entzulegoa:* horixe bera.

**Esnal, P.**

Nerekiko, iazko txapelketak bi bereizgarri nagusi izan zituen, neurri batean elkarri lotuak biak: 1) Bertsolarien Elkarteak eratu izana eta 2) norgehiagokaren aldea areagotu izana.

Nire eritziz, inoiz baino "lehiaketagoa" izan zen iazko txapelketa, epaimahaikoek puntuak agerian emateari esker. "Lehiaketagoa" eta ikusgarriagoa (baita arriskutsuagoa ere). Eta horrexeri zor zaiola uste dut, neurri batean behintzat, jendearen erantzuna. Helburu hori behintzat lortu zen. Geroak esango du formula baliagarria den ala ez.

Dena dela, esan dezadan Bertsolari-Elkarteak bakarrik antola dezakeela, eta ez bestek, hain lehiaketa den txapelketa, bertsolarien lana hain nabarmen epaituz, eta epaimahaikoen lana agerian jarriz (azken puntu honetaz, ikus *Habe* aldizkarian, 108. zk., 34-35. orr.: "Bertsolari txapelketa-1986: zenbat buru, hainbat aburu" artikulua).

Galderako beste puntuei dagokienean, ez dut uste aurreko txapelketa eta azken honetakoen artean halako alderik izan denik.

**Garzia, J.**

*Antolamendua:* Errazenetik hastearren, esan dezadan tatxarik gabea iruditu zitzaidala antolamendua. Lan bikaina egin zen alde horretatik, eta ez bakarrik azken saiora begira.

*Entzulegoa:* Askotan bezala, entzulegoaren erantzuna ere eginiko ahaleginaren araberakoa izan zela iruditzen zait. Kopuru aldetik behintzat ez dago zertan kexaturik. Azken saiora inguratu zen entzulegoaren nolakotasunaz neure dudak ditut neuk ere, baina hori ez liteke eritzi hutsez juzka.

*Bertsolariak:* Bertsolarien lana, aurreko bi txapelketetakoa baino askoz kaxkarragoa izan zela entzun eta irakurri izan diot bati baino gehiagori, hots, bertso "historiko" gutxi eman duela azken txapelketa honek. Ez nator eritzi horrekin bat. Bertso on askoak entzun dira, eta ez azken saioan bakarrik, eta bertsolari zenbaiti mesede ederra egin dio txapelketa honek (zertan leudeke, bestela, gaur egun Sarasua, Egaña edota Murua bera?).

Estilo-krisia aipatuko nuke nik, halere, zerbait aipatzekotan. 79/80ko txapelketan Amurizak landutako bertsogintzak harritu, hunkitu egin gintuen, eta sei bat urtean iraun duen eredua ezarri zuen. Orain, berriz, badirudi bolada hori pasatuxea dela, ez dagoela hain modako; baina ordezko eredu berririk ez dut nik inondik ikusten. Garbirik ez behintzat.

*Gaiak:* Gaien arazoak ez du irtenbiderik. Gai onak eta txarrak nahasian joan zirela esan liteke, ezer esan gabe hizketan iharduteko asmoa izanez gero. Jakina bait da, batzuentzat denak on direla, eta beste batzuentzat, berriz, denak txarrak. Arazo zabalago eta zailago baten ataltzat daukat gaien hori. Bere testuingurua "natural"etik irtenda dabil bertsolaritza, testuinguru bera gai zeneko garaia joan da, eta bertsolaritzak garai berrietara egokitu beharra dauka: plaza berriak, beharrizan berriak, funtzio berriak ditu bertsolaritzak, eta normala da noraezean ibiltzea. Bada hemen azterketa sakonen premiarik.

*Epaileak:* Epaileen lanaz, azkenik, izan zitekeena baino hobea izan zela uste dut, hobetu beharra nabarmena den arren. Hobetu: hau da, erizpideak bateratu, argitu eta finkatu. Hori egin ondoren ere izango da hanka-sartzerik ugari; baina, egin gabe daukagun bitartean, kasualitate hutsa izango da epaitze-lana taxuz egitea.

**Itzaina, M.**

*Bertsolariak:* Ez da errana txapelketa batean direla entzuten bertsorik onenak. Sobera estuturik dago bertsolaria. Nahiz ez den bertze mundukorik entzun, Txapelketa horretan bertso ederrik eman izan da.

*Gaiak:* 30 urtez goiti badu gai-ematen hasi nintzela, badakit zein lan zaila den gaietan erreberritzea. Entzuten den bezala, denak emanak dira. Oro har, eman izan diren gaiak egokiak aurkitu ditut, zenbait bertzeak baino hobeak, segur.

*Epaileak:* Nihaur epaile ibilirik askotan, badakit zein lan zaila den lan hori, eta bertzeren lanaren kritikan ez naiz hasiko, nahiz zenbait alditan segurik gauzak ez berdin ikusi. Oro har hor ere, lan ona egin dute epaileek.

*Antolakuntza:* Honetaz ez dakit zer erran, ez bait dut horretan parte hartu. Hau, ahatik: ez da komeni *puntu*-kako lanik Txapelketa batean sartzea. Bat gaitik kanpo baldin badoa, bertze bertsolariak ez diro ezer. Hori ezin epaitua da.

*Entzulegoa:* Harrigarriki erantzun du herriak. Ez dakit bertsoaren amodioak ala txapelketak duen jendea horrat ekarri. Norbaitek erraiten zidan saioa bukatzean, beste txapelketa arte hark ez zuela bertso-saiorik entzunen.

**Izazpi**

*Bertsolariak:* Bertsolariak saiatzen dira lantzen eta gertatzen txapelketa baterako. Eta fruitua, gehienetan, goimailakoa izaten da. Azken txapelketan, finalean, nahikoa maila eskasa, baina ez beren erruz, baizik gaiengatik.

Txapelketetan batzuk jaiki egiten dira eta beste batzuk kikildu, beren mailari eutsi ezinez.

*Gaiak:* Hainbeste gai egoki asmatzea, beti oso zaila izango da. Baina finalean hutsune handia ikusi zen, txapelketan zehar askoz egokiagoak egon bait ziren. Azken jaialdia arreta handiz eta gizon arituekin antolatu behar litzateke.

*Epaileak:* Literatur mundua neurtzea beti oso zaila izango da. Eritziak bateratzea ezinezkoa da. Txapelketan nabarmendu zen garbi asko. Horregatik da epaileen lana beti txalogarria eta arriskugarria. Gero agertuko dudanez, ez nago ados "nota" agerian ematearekin.

*Antolakuntza:* Lan izugarria egin zen. Partaide asko bildu ziren eta horrela lanak erraztu. Hala ere, akats edo arrisku batzuk nabaritu nituen, baina hau ez da lekurik egokiena agertzeko.

*Entzulegoa:* Izugarria. Batez ere, gaztediaren erantzuna. Entzulegoa, azken hiru txapelketetan, asko aldatzen ari da. Ez dakit bertsoaz gozatzen duten, edo arrakasta handia duen fenomeno baten jarraitzaile diren.

**Lekuona, J.M.**

*Bertsolariak:* gazteenak oso ongi beren neurrian; zaharrenek gorabehera gehiegi, desoreka nabariak, bertso oso onak eta hasi-berrien hutsegiteak ere bai.

*Gaiak:* gaien egokitasuna, oro har, neurri ederrean. Hori bai, "bandoa"renak despiste gehiegi sortu zuela esan behar gauza onerako.

*Epaileak:* Epaileen lana, meritu handikoa. Lan zehatza egin zen, nahiz eta, lehen beste epaimahaikoek bezala, hauek ere eredu jakin baten aldeko joera markatu, nahitaezkoa denez (Euskaltzaindiarena baino eredu herrikoiagoa, noski).

*Antolakuntza:* arratsaldeko saioa ez zegoen borobilduta. Batetik, puntuak txandatuz osaturiko saioa, zaila da neurtzen, eta gainera hutsalegia da arratsalderako, bazkalondoko saioari goimaila bat eman nahi bazaio. Gero, oso diskutigarria da ofiziotan hamarreko nagusian kantatzeko eskatzea, honetarako ohiturarik ez dagoenez, eta gehienetan, banaka ere, hamarreko nagusian ehoriko saioak irensgaitzak direnez, eta aproba hau ez liteke arratsaldean egin, jaialdiari goitasun bat eman nahi bazaio. Arratsaldeko saioa, goizekoa baino hobea izan behar zukeena, ahulagoa izan zen, eta honetan badu zerikusi antolakuntzak. Eta azkenik, puntuaketa-sistemak ere, hotz-hotzean bukatzen denez, galdu egiten du azkeneko "mani-mano"ak duen gatza eta piperra. Hori jaialdiaren aldetik.

*Entzulegoa:* Entzulegoaren erantzuna, ona esan behar, eta oso ona ere bai, agian, txapelketan bertan, eta ondorenean, gauzak neurri ederrean bideratu eta bukatu zirenez. Aztertzekoa, hala ere, zenbait erakunde laguntzaileri eginiko harrera desegokia.

**Lekuona, M.**

*Bertsolariak:* Bertsolari batzuek ez dute eman beren mailari zihoakionik: karga handiegia zeukaten erantzun egokia emateko. Hala ere, badira trebetasun osoan lan egin dutenak, eta bertso oso ederrak entzun ditugu, finalak ez badu ere aurreko batzuen maila erakutsi. Oro hartuz, itxurazko txapelketa iruditu zait.

*Gaiak:* Izan da gai onik, baina baita batzuk arinegiak eta interes gutxiegi zeukatenak entzule gazteentzat. Txapelketa nagusi batek merezi du plaza edo sagardotegi bateko saioak baino goratasun eta hedadura gehiago. Gure kultura bultzatzeko gisakoak behar lirateke gaiak, eta herriak bizi duen gaurkotasunari lotuagoak, bereziki finalekoak.

*Epaileak:* Lan zaila da betidanik bertso-epaiketa eta, gainera, bapatean emaitza agertu beharrak oraino zailagotzen duena. Gorabehera batzuk izan dira, baina ez da harritzeko: epaile batek ez dezake bertso bat, bapatean, bere osotasunean aztatu, pisatu eta neurtu. Hala ere, ez da esperientzia txarra izan, entzuleen baitan sortu irrikiagatik bereziki. Baina aldaketa zerbait on litzateke.

*Antolakuntza:* Lan gaitza egin du herriak, eskualde guztietan, txapelketa hori moldatzeko. Elkarri uztartuz, bertsolari eta ber-

tsozaleek erakutsi dute beren heldutasuna. Laguntza baliosa ekarri diote komunikabideek ere antolatzaileei, eta hau eskertzekoa da.

*Entzulegoa:* Erantzuna ezin hobea izan da, bereziki txapelketa aitzina zihoanarekin batera, Donostiako final zoragarriraino. Bertsolari berriak edo urrunagokoak ezagutzeko parada ukan du eskualde bakoitzeko bertsozaleak. Eta sekula ez bezala, euskal irratiei esker, Euskal Herri guztiak entzun eta gozatu ditu txapelketako saioak.

**Muniategi, A.**

*Bertsolariak:* Oro har, lan ona. Nahiz eta finalean huts nabariak izan, bertso bikainik entzun zen.

*Gaiak:* Egokitasun onargarria. Baten bat konplexu samarra gertatu zen. Gai asko eta onak jartzea oso zaila da, batez ere gaur txapelketaz kanpo ohi diren saioetan erabiltzen den gai-pila entzunda.

*Epaileak:* Ez da lan erraza. Ez dut uste bertso arrunten puntuaketatik zailagoetara edo atipikoetara dagoen merituzko tartea hain ondo neurtu zenik.

*Antolakuntza:* I) Antolakuntza fisikoa (kanpokoa): lan handia zegoen eta ederto burutu zen; hala ere, sari-banaketa aintzatago hartzekoa da. II) Antolakuntza teknikoa: a) Zer da sei puntuko bertsoa? Nola errimatua behar du ahapaldiak, sei puntukoa izatera iristeko? Finkatu beharra dago. b) Puntutan txandaka ekitea "testulari"en edo "ditxolari"en asmakizuna da, ez bertsolariena. Hauek iharduna alaiagotzeko edo nekatuta daudenean erabiltzen dute. Ez dago saio-modu hori serioski juzkatzerik.

*Entzulegoa:* Finalean, erantzun aparta.

**Sarriugarte, I.**

*Antolakuntza:* Denera jota, antolakuntza bikaina izan dugu. Auzolana indartu, eta berorren inguruan laguntzaile-talde gogotsu bat sortu da. Egia esan, langile apal eta jator hauei esker burutu ahal izan zen txapelketa. Halere, ez letorkiguke txarto zenbait ertz zorrotz leundu eta hutsune batzuk (pertsona zein erakundeei nagokie) betetzea.

*Entzulegoa:* Entzulegoaren erantzunaren lekukotasunik adierazgarriena Euskal Herri mailako saioak dira, nire ustez. Baina entzule-kopurua gutxietsi gabe, gazteriaren agerpen gartsua dugu azpimarragarri den lehenengo puntua.

*Gaiak:* Gaiei heldurik, txapelketa osoari begira, egokitzat jo behar da gai-jartzaileen lana. Finalean, ostera, bertsozalea ez zen konformeegi geratu. Nire ustez honako hiru arrazoiok izan ziren tarteko: a) saioak luzeegiak izatea (hamalauna bertso goiz eta arratsaldez, zortzi bertsolari izanik); b) saio bietan kantatu behar ziren bertso eta arieren banaketa (puntuetako jarduna kendu beharra legoke, nire uste apalean); eta c) gartzelako gaiaren desegokitasuna. Egia da, gaiaren zailtasuna guzti-guztientzat berbera dena, baina entzulegoa dago tartean eta ez dira inola ere ahaztekoak bertsolarien luzimendua eta entzuleen gozamena.

*Bertsolariak:* Bertsolarien lana, orokorrean, txukuna izan zen, nahiz eta bertsozalegoak arteko txapelketetan ezarritako galga gainditzea itxaroten zuen. Erregulartasuna nagusitu da oraingo txapelketan, bere akats eta birtute guztiekin. Halere, bertsolaritzak aurrerapauso galanta eman duelakoan gaude, saio guztien emaitza kontutan hartzen baldin badugu.

## 3. Bertso-neurketa

*Bertso-txapelketetan, lehengoetan eta oraingoetan, bertso--neurketa izan da arazoetako bat, eta ez txikiena.*

*Zein da zure eritzia bi puntu hauei buruz:*

. *erabili izan diren eta erabiltzen diren erizpideak;*

. *emaitzak adierazteko erabili izan diren eta erabiltzen diren erak.*

**Amuriza, X.**

*Erizpideak:* ez dakit zehazki zeintzu erizpide erabili izan diren eta, beraz, ezin dut erantzunik eman.

*Adierazteko era:* emaitzak adierazteko modua birplanteatu egin behar da. Agian ondo dago agerian ematea, baina ez kantatzen

ari denaren muturretan. Arlo hau ez daukat hain argi, era guztiek bait dauzkate beren akatsak. Nire ustez, berriro aztertu behar da, baina bertsolarien ikuspen hurbilegitik pixka bat urrunduz, hots, gai hau ere batzorde antolatzaileak pentsatu beharko luke.

**Aranalde, J.M.**

*Erizpideak:* lehen puntuari gagozkiola, bertsoa literatur sorkuntza denez gero, horrelako lan batean erabili beharreko literatur erizpide gehienak erabiltzen direla uste dut, eta hala egin behar ere dela.

*Adierazteko era:* bigarren puntuari dagokionez, ez dakit garbi zer galdetzen den; baina puntuazioa agerian emateaz baldin bada galdera, nere erantzuna ezezkoa da. Epailearen lana automatikoegi egiten du, eta jendeari bertsoa entzuteko bakea kentzen dio, eta apustu-giroa pizten du lotsagabeki. Eta jendeak ez du bertsoa txalotzen, bertsolaria baizik.

Epaia puntuen batuketa hutsa izateaz galdegiten bada, badirudi puntuen batuketa baino neurketa osoagorik badaitekeela; eta hala bada, egin behar da.

**Egaña, A.**

*Erizpideak:* erabiltzen diren erizpideekin bat nator oro har. Bertsoa sorgina da, baina denok dakigu zein koordenadatan mugitzen den. Agian, epaileek ideien —ez tekniken— berritasunari eta originalitateari garrantzi gutxitxo ematen diotela esango nuke. Gartzelako gaiek aukera ona dute hori neurtzeko, eta puntuazioei bistazo bat ematea nahikoa da, lehen aipatzen nuenaz jabetzeko.

*Adierazteko era:* emaitzak nola adieraz? Hori bai, bada zaila. Nik uste, entzun eta entzun egin ondoren, biharamunean eman behar liratekeela, horrek entzulearen saltsa-gogoa nabarmenki gutxituko balu ere.

**Esnal, P.**

*Erizpideak:* oro har, bat nator erabili izan eta diren erizpideekin. Edo, hobeto esanda, erabilitako erizpideez eman diren emai-

tzekin. Eta "oro har" diot, honako bi puntu hauek azpimarratuz: 1) behin edo beste ez naizela konforme egon zenbait emaitzarekin (eta hau guztiz normala da); eta 2) oro har bat etortzeak ez duela esan nahi epaile bakoitzaren lanarekin ados egotea, nabarmenak bait dira elkarren arteko aldeak (ikus aipatutako *Habe*-ko artikulua).

*Adierazteko era:* gauzak daudan daudenean, emaitzak adierazteko, azkeneko txapelketako era baino nahiago dut, aukeran, aurrekoetan erabilia.

**Garzia, J.**

*Erizpideak:* aurreko puntuei erantzuterakoan esana dut honetaz esan nezakeen gehiena.

Egia da, txostentxoren bat edo beste egin eta zabaldu izan direla, bertsoaren balioa epaitzerakoan kontutan hartu beharreko erizpide nagusiak azalduz. Txosten horiek, ordea, orokorregiak dira neure ustetan, eta ez dute laguntza baliagarririk eskaintzen, bapatean bertsoak puntuatzerakoan. Orokorrak dira, eta orokortasun horretan eztabaidaezinak, derrigorrez onartu beharrekoak: euskara txukuna behar dela, ondo neurtu eta errimatua, emaniko gaiari lotua, lagunaren arrazoiari lotzen zaiona: nola ez onartu erizpide horiek? Abiapuntu on bat besterik ez da hori. Erizpide horiek begi-bistan direla, bertsoak entzun, aztertu eta epaituz bakarrik lortuko dugu hurrengo pausoa ematea. Txapelketaz kanpo, noski, mintegi gisako ikastaroetan egin beharreko lana iruditzen zait. Bertso-epaile ibili nahi lukeen jendeentzako antolatu beharko lirateke ikastaro edo mintegi horiek, eta, zergatik ez, halako diplomatxo edo agiriren bat sortu, ikasketen amaierarako.

*Adierazteko era:* azken txapelketan erabili den sistemaz baditut neure zalantzak. Puntuaketaren garbitasuna bermatzearren sortu zen, eta esperientzia gisan onuragarri iruditzen zait. Ez dut uste, halere, litekeen onena denik. Aurreko txapelketetan egin ohi zenaren kontra-kontrakoa egin nahi izan da, baina tarteko soluzio-bideren bat aurkitu beharko litzateke aurrerantzean.

Epaileak binaka jartzea, saio baten ondoren (eta ez bertso bakoitzaren ondoren, nere ustetan) batezbesteko nota bakarrik eman, etab., frogatu beharreko sistemak direla uste dut, itsu-itsuan ihardun gabe.

### Itzaina, M.

Bertsoa bere osoan baizik ez daitekeela neur uste dut, eta ez batek neurria, besteak euskara, besteak ideia, eta abar. Azken Txapelketan emaitzen adierazteko erabili den era, niretzat ez da ona. Bertsolarien txapelketa adina, epailarien txapelketa bihurtzen du era horrek saioa. Epailaria ez da libro, nahitaez herriaren txistuen beldurrez dago. Bestalde, epaileek batak bestearen puntuazioa ikustea gauza galkorra da. Bertsolariek berek zenbait aldiz ez ote zuten zerbait asmatzen?

Lehenago bitan epaile izan naiz nihaur modu horretan, eta behin segurik denen totala edo suma erakusten genion jendeari aldi oroz, eta ez epaile bakoitzaren puntuazioa. Biharko bidea hau izan daitekeela uste dut.

### Izazpi

*Erizpideak:* erabili diren erizpideak aski finkatuak zeuden aspaldidanik, baina halere, eritziak bateratzea ezinezkoa da. Zenbat buru, hainbat aburu; horrelako gaietan beti horrela gertatuko da. Arriskugarria desberdintasun handiegiak agertzen direnean (potoren bat jaso ez, etab.).

*Adierazteko era:* emaitzak bistan ematea ez zait ongi iruditzen, bi arrazoirengatik:

Bat, puntuen batuketa matematiko bakarrak ez duelako balio (hau egunkari eta aldizkarietan agertu nuen), eta, bistan ematean, puntuen batuketa bakarrik izaten da kontutan.

Bigarren, epaimahaia da juzkatua, ez bertsolaria. Eta, ondoren, horrek erakar ditzakeen haserre, gorroto eta epaimahaiaren aldaketak.

### Lekuona, J.M.

*Erizpideak:* gerraurretik hasiz, beti idatziz eman izan dira arauak. Aurtengoan ere bai. Araudia teori mailan landua zen, baina praxi aldetik (lehen bezala orain ere) epailari bakoitzak ahal duena egiten du, beharbada gehiago eskatzerik ez dagoenez. Ez da egin arauen inolako zabalkunderik, eta, gerraondoan beti gertatu ohi denez, aurtengoak ere argitara gabe geratu dira.

*Adierazteko era:* epailariek baremo homologagarriak erabili dituzte, eta ez da gutxi. Saio bakoitzaren ondoren agerian adieraztea onargarri litzateke. Baina bakoitzak berea? Edota batezbestekoa? Ni bigarrenaren aldeko. Hori bai, diferentzia handirik ez badago, bi aurrenekoen artean "mani-manoa" jokatzekotan. Dena den, berriro aztertu behar litzateke puntu hau, kritika argitsu bat eginez.

**Lekuona, M.**

*Erizpideak:* bertsoa neurtzeko zailtasunaren arazoa da, zenbaki zahatzik ezin eman dela, matematikoki erabakitzea ezinezkoa delako.

Bertzalde, epaile bakoitzak ez dezake bertso bakoitza bere osotasunean ongi azta, pisa eta neur: doinu, errima, hitz, esaera, lotura, gaitasun, sakontasun, lirika, zirika... adar gehiegi du bertso batek epaile berak eritzi zuzena emateko bapatean. Epailan hori bertze gisa batera banatu beharko litzateke, epaile bakoitzak adar horietarik bat edo beste bakarrik neur dezan.

*Adierazteko era:* emaitzak bapatean emateko era berri honek balio berririk ez dio ekarri bertso-neurtzeari, baina entzuleen baitan interes handia sortu du. Entzuleen zaratek (eta txistuek) ez diete beti lagundu bertsolariei beren lan latzean, eta epaileak ere bortxa eta lerraraz ditzakete beren deliberoan.

**Muniategi, A.**

*Erizpideak:* berdin samarrak eta egokiak dira.

*Adierazteko era:* emaitzak mementuan eta agerian azaltzeak ez du berez objektibitatearen garantiarik, ez du tranpa-aukerarik eragozten. Alderantziz, presaren eraginez, hutsegiteak erraz ditzake. Garantia juradoaren seriotasunean datza eta hau konfiantzazko epaimahaia izendatzeak dakar, ez bestek.

Ohol-sistema hau bertsolariari kaltegarri gerta dakioke, despista bait dezake, eta entzulegoari, berriz, arreta galeraz diezaioke. Epaimahaikoarentzat ere, lehen esan bezala, badu akats bat: mementuan huts egiten bada, egina dago betiko. Azkenean eman behar da puntuazioa.

**Sarriugarte, I.**

*Erizpideak:* bertsoak, olerkiak legetxe, gizakiaren gogoa ukitu ohi du. Hori dela eta, zailtasun handiak sortzen dira bertsoak sorturiko zirrara (pertsonatik pertsonara erabat desberdina sarri askotan), eztenkadaren zorroztasuna, edota gaiarekiko atxekimenduaren egokitasuna epaitzeko orduan. Alor labana dugu, benetan. Alabaina, eta batez ere alderdi teknikoei dagokienez, erizpideak zelanbait bateratzea ezinbestekotzat jo beharra dugu aurrera begira. Eginkizun horretan epailanetan aritutakoek, adituek, eta bertsolariek berek hartu behar lukete parte, nolabaiteko adostasuna lortzeko.

*Adierazteko era:* mementu honetan, azken txapelketako esperientzia ikusirik, egokiena beharbada, emaitzak saio-bukaeran ematea izango litzateke, puntuaketa partzialak antolatzaileen eskuetan utziz, inork eskatuz gero erakusteko edota bertsoekin batera argitaratzeko. Horretara, puntuaketak agerian emateak ekar ditzakeen eragozpenak gaindituko lirateke, eta emaitzen publikotasuna segurtaturik geratuko litzateke.

## 4. Gai-jartzaileen eragina

*Bada eztabaida sozialik gaien eta gai-jartzaileen eraginari buruz. Hona gure galdera: Gai-jartzaile eta gaiek mugatu al dute bertsolaritza gaur den honetara edo/eta industri giroko kultur mundu honetan ezinbestekoa da?*

**Amuriza, X.**

Gai-jartzailea ezinbestekoa da lau bertsolaritatik gorako jaialdietan.

Komeni al dira jaialdi horiek? Nik baietz uste dut. Beste kontu bat da gai-jartzaileak nolakoa izan behar duen. Egia esateko, gehienetan ez dira onegiak izaten.

Beste arazo bat da —oso latza, gainera— eredu hori bertsoketa librea irensten ari dela, bai jende artean eredu horrek zabalpide gehiago daukalako, baita bertsolarientzat erosoagoa edo erantzukizun gutxiagokoa delako ere. Bertso-saio libreek —binakakoek edo hirunakakoek— hein handiagoa behar lukete eta guztiz alderantziz gertatzen ari da.

**Aranalde, J.M.**

Ez dut ongi ulertzen. "Egoera" delako horrek zer esan nahi du? Bertsolaritza bazter-fenomeno bat dela gaurko gizartean, eta honek ez diola zor litzaiokeen eskerrik ematen?

Horrela bada, hori kultur gauza da. Kultura modernoak baztertu du bertsolaritza.

Horrez gain, euskararen dentsitate-faltak baztertzen du asko bertsolaria.

Gai-jartzaileak ez dut uste kalterako eragin handirik izan duenik.

**Egaña, A.**

Bertsolaritza, ingurua bera mudatu den neurrian aldatu du. Gai-jartzaileek gaur den honetara mugatu dutela esateak ez garamatza inora. Gai-jartzailearen figura ez zuen, noski, inork zerutik isuriko. Behar bati erantzuteko jarri den figura da gai-jartzailearena.

Dena da aldatu dena. Txirritaren garaian, herri batera joan eta pare bat egun pasa gabe, ez omen zuten lanik berdintzen. Orain, aldiz, kotxea, autopista eta gure bemolak medio, etxetik saioa baino ordu-erdi lehenago irteten badakigu, eta, edozein plazatara iristean, erreferentziarik gabe, zer eta nori kantatu jakin gabe aurkitzen gara.

Horrelakoetan —litekeena da gazteon arazoa izatea batipat— gai-jartzailea ia beharrezkoa gertatzen zaigu.

**Esnal, P.**

Nire ustez, bertsolaritzaren aldaketan izan dute eraginik bai gai-jartzaile eta gaiek, bai gure herriaren giro-aldaketak ere. Dena

dela, ez dut uste horiek izan direnik eragile bakarrak, eta ez dakit esaten zer-nolako zerikusia duten elkarrekin.

**Garzia, J.**

Esan bezala, arazo orokorrago baten baitan ikusten dut nik gaien egokitasunarena. Galderak formulatzearekin etsiko dut, beraz: Zer funtzio du bertsolariak gaurko gizartean: pregoilaria, profeta, artista, kirolaria ote da? Zein testuingurutan kanta lezake, eta zeinetan ez? Zer jokabide eskatu behar zaie komunikabideei bertsolaritzarekiko?

**Itzaina**

Nire eritziz, bertsoa kantutik sortu da. Uste dut askotan kantuz hasten den bertsolaria, hasten dela, ez baitezpada zerbaiten erraiteko, baina isilik ez bait dagoke. Bestalde, erraiten duena bera hurbildik hunkitzen duena da edo ongi ulertzen duen gertakaria. Gaia, kanpotik heldu den zerbait da. Besteak dakarrena. Lehen moldean luzaz har daiteke, nahiz gauza berak errepikatu. Badu molde horrek inkautaziotik zerbait. Bigarren moldeak, gaiarekin, kultura zabalagoa eskatzen du. Eta hemen aitortuko dut, bakan sentitzen dela asko saiotan *berria*-ren grazia. Bestalde, neurtua den saioaren denbora horrek organizatu behar du eta hori gairik gabe... Nahiz badakidan esperientzia batzuk egin izan direla. Ez dakit zer eman duten. Gauza segura da bertsolariek berek gaia galdatzen dutela.

**Izazpi**

Gaiak aldatu egin dira, gizartea aldatu den bezalaxe. Aldakuntza sozio-kultural honek nekazaritzatik industri girora darama bertsolaritza, eta gaiak eta bertsolariak ederki asko egokitzen dira, eta halaxe behar ere. Garaian garaikoa eta tokian tokikoa: esaera hala dugu. Mila bederatziehun eta hirurogeitik aurrera ugaltzen hasi ziren gai-jartzaileak, askotan bertsolarien mesedegarri. Gai-jartzaile ona izanez gero, bazuen eraginik bertsolariak gai egokietan erabiltzeko, gaurkotasuna eta gaien bizitasuna ezartzeko.

Berez, mugimendu guztiak (literatura, erlijioa, artea, etab.) gizarte-eraginaren gurpilean dihoazkigu, zorionez.

**Lekuona, J.M.**

Usadiozko bertso-saioetan eskuarki ez dago gai-jartzaile beharrik. Nahikoak dira bertsolariak berak, zer eta nola kantatu erabakitzeko. Txapelketetan besterik da. Talde zabal batek eramaten du arlo hau, gai asko behar direnez, eta zeregin hau hil edo bizikoa denez. Txapelketaren garapena eta ondorioak gai-jartzaileen taldearen esku daude. Eta hau ongi zaindu beharreko puntua da. Bestalde, jaialdietan, ofiziokoa behar luke gai-jartzaileak, bertsolarien gustukoa eta hauen eskakizunei adi egongo dena. Baina gai-jartzailea bertso-emanaldiaren kudeatzaile ere bada, eta alderdi hau ez da ahaztekoa. Lagungarri denez, ofizio ona eskatzen zaio. Eta gaietan, bertsolarien eta entzuleen onarpena.

**Lekuona, M.**

Ez da dudarik bertsolarien lana mugatzen ahal dutela, eta bertsolaritzari hegalak mozteko arriskurik badagoela. Ez du industri munduak horretara bortxatzen, baina mania bilakatu da gaiak ezartzea edozein bertso-saiotan, neurketa edo zein-gehiagoka baizik ez ikusiz bertsogintzan.

Gaurko gizarte mekanizatu honek aire freskoaren beharra gehiago du mugarri eta kontrolena baino. Bertsolariak bideak aski zabalik behar ditu bere barneko mamia botatzeko, eta ez du bilakatu behar gai-jartzaileen edo entzuleen kaiolako txori. Predikurik onena neskaren gona motzarekin konparatuz, Imanol Lazkanok zioena erran genezake bertso gai jartzeaz: ahal bezain labur eta gehien erakusteko bidea uzten dutenak lirateke gai eta gai-jartzaile onenak.

**Muniategi, A.**

Gai-jartzaileek eta gaiek ez dute mugatu bertsolaritza, zabaldu baizik. Gai-jartzaileei esker ez dira gaur arrotz bestela erabiliko ez liratekeen auziak. Hala ere, egungo kultur mundua bera da, gai-jartzaileez ere baliaturik, bertsolaritza egoera honetara bultzatu duena. Nekazari-gizartearen kultur aroa gainditu da bertsoarentzat ere.

**Sarriugarte, I.**

Galdera zaila, zinez. Edozein modutan ere, ez dirudi industri giroan gaurko dinamika derrigorrezkoa denik. Bertsolaritzaren garapenak berak sorterazi zukeen gai-jartzailearen beharra. Saioak ugaldu ahala, zail egiten zaio bertsolariari tokian tokiko gai eta aipamen aproposak bilatzea. Gaia eskainiz gero, ardura bat kentzen du bertsolariak, nahiz eta batzuetan trantze larrian jarri.

Industri giroko gizartean ezinbestekoa dena, munduarekiko ikuskera berria da; eta bertsolaritzak, aurrera egingo badu, ikuskera berri horren pentsuan ibili beharra dauka. Gero eta urriagoak dira "alborkea", "totoa" eta "monjorra" zer diren dakiten euskaldunak; gero eta ugariagoak, ostera, ekologia, feminismoa, zibernetika, langabezia edota giza eskubideez arduratuta bizi direnak. Lehenengoak ahaztu barik, azken hauei erantzuten jakin beharko du, bereziki, bertsolaritzak.

## 5. Bertso-eskolak

*Azken urteotan bertso-eskolak barra-barra sortu eta ugaldu dira bazterretan. Zure ustetan:*

- *zerk eraginda sortu dira?*
- *zer-nolako betekizuna dute edo eduki beharko lukete?*
- *biharko bertsogintzarako zer ekarpen eta zer arrisku dute edo eduki dezakete?*

**Amuriza, X.**

*Eragilea:* bertso-eskolen sortze-arrazoietan eskola tradizionalen arrazoiak berak daude, hirira edo herri handira egokituak. Horrez gainera, alfabetakuntza, euskaldunberrien garapena, emakumezkoen partaidetza, euskal giroa lantzeko eta lagunartean ondo pasatzeko modua, ohizko eritzi fixisten gaindipena, eta oro har, bertsozaletasuna talde eta ingurune berrietara zabaltzea.

*Betekizuna:* eskola hauen betekizun nagusia zaletasuna eta aukerak zabaltzea da, horretarako giroak eta moduak sortuz.

*Ekarpena/arriskua:* bertso-eskolen gertakariak, biharko bertsolaritzarako ere, gaitz baino on gehiago ekarriko du, eta ekarria du jadanik.

**Aranalde, J.M.**

*Eragilea:* irakasleren baten eta ikasleren batzuen afizioak eraginda, nik uste, beste gauza asko sartu diren bezalaxe, hala nola, antzerki, dantza, marrazki, etab. Eta horri lagundu bide dio bertsolariaren desmitifikazioak. Ez dela, alegia, jaio bakarrik egiten. Ikasi ere egiten dela. Eta batez ere, ikasi egiten dela.

*Betekizuna:* bere gogoz dabilenez gero, eskola horietan dabilenak, badirudi baduela halako literatur sen bereziren bat. Horri erantzutea da beharrenik. Bertsolari-bertsolari batena bada zera hori, hobe; baina ez bada ere, ongi.

*Ekarpena/arriskua:* bertara bil daitekeen jenioren baten esku gelditzen da. Horiek dira benetako berrikuntzak egiten dituztenak. Eta, besterik ezean, bertsozaleak sortzeko balio dute eskola horiek.

Arriskua, berriz, nik ez dakit zein izan daitekeen. Berezko handiegirik ez duen norbait bertsolaritzara bultza dezaketela? Ez du etorkizun handirik izango.

**Egaña, A.**

*Eragilea:* alde batetik, bertsolaritza puri-purian egoteak eta, bestetik, bertsoa denok egin genezakeelako kontzientziak ekarri du bertso-eskolen ugaltzea.

*Betekizuna:* bertso-eskolen eginkizunak, niretzat behintzat, bertsolariak egitea izan behar du. Hobexeagoak ala baldarxeagoak, baina beti ere helburu hori begi-bistan dutela. Bertso-eskola ez da euskara hobetzeko toki bat, ezta euskaldunak biltzeko lekua ere. Bertso-eskola da, bakoitzak astean zehar egin duen buru-lan pertsonala frogatzea erraztuko dion tokia, eta aurrerantzerako nondik-norakoa markatuko diona.

**Esnal, P.**

*Eragilea:* bertso-eskolen sorreraren eta ugaltzearen oinarrizko arrazoia, nerekiko, orain arteko transmisio-bideak huts egin duela ohartzean legoke: gizartea bera ez bada berez gauza belaunaldiz belaunaldi bertsolaritza transmititzeko, sor ditzagun eskolak, gizarteari transmisiogintzan laguntzeko.

*Betekizuna:* beraz, bertso-eskolak gizartearen lagungarri izango dira, eta, zenbait kasu larritan, ordezko. Beti ere kontutan izanik zeintzuk diren bertsolaritzaren euskarriak: euskal giroa, euskara, ahozko euskara, herri-literatura... Arriskuak ikuspegi hori galtzetik letozke.

**Garzia, J.**

Bertsolaritza modan dago. Onerako eta txarrerako dago, gainera, modan. Aitortu zaio, azkenik, euskal kulturaren barruan merezi eta orain arte ukatu izan zaion tokia.

Baina batzutan, ordea, *souvenir* huts bezala aurkezten zaigu bertsolaria, desagertzeko zorian dagoen animalia bitxia erakutsi ohi den moduan.

Gizarte osoan nabari den joera horren ondoriotzat daukat bertso-eskolen ugaltzea. Ez dut uste inola ere, kalterik egin diezaiokeenik horrek bertsolaritzari, salbu eta bertsozale on izan zitekeen zenbaitengan bertsolari ere badelako ustea sorteraztea.

**Itzaina, M.**

Hegoaldean lan handia egiten dela horietan badakit. Baina ez ditut aski ontsa ezagutzen zerbait funtsezkoren erraiteko. Iparralde honetan ez dute erranahi bera. Hemen giroa oso hotza da. Eskola horiei esker, hemengo umeek ikasten dute zerbait bertsolaritzaz: askok ez bait dakite, ikastoletako haurrez kanpo bertsolariak badirela ere. Bizkitartean ohargarri da, haurrek bertsoa maite dutela, doi bat ezagutuz gero. Berak saiatuz, lan eginez, ikusten dute, lan zaila dela, eta bertsoa hobeki estimatzen dute. Uste dut ere, bertsoaren teknika eta doinuez bertzalde, eskolak erakutsi behar duela gaiaren erabiltzen, hemen zabaltzen. Iparraldean bertso-eskolak behar-beharrezkoak dira.

**Izazpi**

*Eragilea:* gehienak inguruko giroak eraginda. Batzuek, bertsozale porrokaturen batengatik. Bere babesean bertso-eskola bat sortuz. Azkenik, txapelketa nagusien eraginagatik, gaztetxoen txapelketak duen bultzadagatik, eta abar.

*Betekizuna:* lehenengo, euskara irakasteko tresna egokia deritzat. Gero, bertso-egituraren teknikak irakatsi eta bide batez euskara ederki landu. Gainera, inoiz ez da ahantzi behar bertsoa jolas-tresna bat izan dela urterik urte, adimena zorrozteko, bizkortzeko eta saiakera horretan ahogozatzeko, algara gozoak eginez.

*Ekarpena/arriskua:* berez, bertsolari-sena dutenek oso mesedegarri izango dute eta ekarpen izugarria izan lezake beregan, bertso-egitura eta teknika bereziak ikasteko. Arriskua: joaten diren denek bertsolari direla pentsatzea. Eta banaka sortzen diren bertsolariak, bizitasuna, "grazia", berezko sorpen hori teknika izoztuen menpean galtzea.

**Lekuona, J.M.**

*Eragilea:* usadioz egiten zen transmisioa gizarte berriago honetan sustatu edota berreskuratu asmoz, noski. Berezko hura erakundetu eta teknikatu asmoz. Bertsolaritzaren etorkizuna eta bertsozaleen heziketa oinarritu ustetan.

*Betekizuna:* transmisioa, artergintza zahar baten egunekotzea, eta entzulegoaren sustapena.

*Ekarpena/arriskua:* ekarpenetan, ahozko tradizioa jasotzea, hizkera-bide bizia ahoratzea, teknika poetikoak ikasi eta erabiltzea, herri-mailako artegintza gozatu eta elkarbanatzea. Eta arriskuak, bertsolaritza medio huts bihurtzea, bertsolaritzan bakarrik geratzea, beste jeneroak ez ezagutzea, estrofismoari garrantzi poetiko guztia ematea, bertsolaritza esparru itxiegia egitea, eta abar.

**Lekuona, M.**

*Eragilea:* Xalbador eta Mattin isilduz gero, Iparraldean entzule gero eta gutxiago (eta zaharragoa) biltzen dute bertso-saioek. Giro

eskas horretan bertsolari berriak ateratzeko menturarik ez dugu ikusten, eskoletako haurretan bertso-jakitea eta zaletasuna sortzen ez badira.

Hegoaldeko exenpluak gaitu bultzatu bertso-eskola sortzera eta bereziki lehen maisuetarik izan den Xanti Iparragirrek.

*Betekizuna:* bertso egiten ikasteari oso aberasgarri deritzagu ikasle gaztearentzat: doinuak, errima, hitzak eta horien lotura, ideiak garbi eta labur argitzea, horiek guztiak ikas ditzake bertsoak eginez.

*Ekarpena/arriskua:* geroari begira, bertsoa ulertzen eta gozatzen duten entzuleak moldatuko ditu bertso-eskolak, bertso-idazleak ugarituko eta afalondoko bertsolaritza eraginen.

Berez, bertsolari-eskolak ez du arriskurik bertsolaritzarentzat. Eskolatik lekora da ikusiko norberak dakarren sokontasun, ugaritasun, erraztasun edo artifizialtasuna. Hazia erein eta sortzen laguntzeak ez du landarea behin-betiko moldatzen: haziaren berezitasunak eta landarearen inguruneak eragin handiagoa dute.

**Muniategi, A.**

*Eragilea:* herri-kulturaren kontzientzia.

*Betekizuna:* bertso-hazia erein, ingurua landu eta landareak jorratu.

*Ekarpena/arriskua:* biharko bertsolaritzaren garantia eta oinarri dira.

**Sarriugarte, I.**

Bertsolaritzaren garapenean eta sendotze-bidean, hutsune bat betetzera etorri dira bertso-eskolak; dolare eta kupelen ordez, ingurune akademikoagoa sortuz. Nik neuk, halere, "bertsotegiak" edo deitzea nahiago nuke, "eskola" hitzak dituen konnotazioak ezabatzearren.

Baina kontuz ibili beharra dago, bertsotegi hauen helburua ez bait da soil-soilik goimailako bertsolariak plazaratzea. Berezko dohaina dutenek aurrera egingo dute, baina bide-erdian geratzen

direnak dirateke, niretzat, garrantzitsuenak; horrelakoei, bertsoak duen alderdi ludikoaz, joko-jolasaren erakargarritasunaz eta abarrez gozatzeko aukera emango zaie eta. Goimailara heltzeko zoria dutenek, aldiz, txerto bizigarria lemaiokete bertsolaritzari, bertsokera berri eta aberasgarria eskainiz.

## 6. Komunikabideak

*Bertsolaritzak nola baliatu beharko luke komunikabideez (prentsa idatziaz eta ikus-entzunezkoez, alegia)?*

**Amuriza, X.**

Galdera honetan ez daukat pentsatu beharrekoa dela beste erantzunik.

Arazo handia da, oraindik planteiatu baizik egiten ez dena, eta agian aztertzen hasita ere, ebazpide gutxi lukeena.

**Aranalde, J.M.**

Galdera hori bera askotan egiten diot nik nere buruari. Eta ez dakit erantzuten.

Baina gauza bat badakit: hasi egin beharko litzatekeela behintzat bertsolaritza komunikabideetan lantzen. Ibiliz ikasten da ibiltzen.

**Egaña, A.**

Oraindik berriegia zait gaia ezer zehatzik azaltzeko. Komunikabideen garrantzia hor dago, eta bertsolaritza zabaldu beharra ere bai. Harreman estua beharko dute, baina ez daukat garbi-garbi nola gauza litekeen.

**Esnal, P.**

Seigarren eta zazpigarrenari batean erantzungo diet. Honelako galderak entzun edo irakurtzen ditudan bakoitzean, Gabriel Arestik 1971n *Kaniko eta Belxitina* liburuaren hitzaurrean idatzi zuen hura datorkit gogora: "Kataluniako teatro-zuzendari famatutako Ricard Salvat ene adiskide maiteak, honela esan ohi du, euskaldunok tradizio para-teatral inbidiagarri bat dadukagula, ez duela konprenitzen zergatik tradizio horri jarraikirik, ez garén lehen mailako dramaturjia batera igan, eta tradizio horren bi pilare nagusiak, bertsolariak eta zuberotar pastoralak direla".

Esan nahi nuke, alegia, bertsolaritzak baduela berezko indarrik arlo berrietan ere bere lekua izateko eta bere betiko eremuan eraberritzeko. Nola? Zehatz-mehatz erantzuten ez dakidanez gero, bosgarren erantzunaren bukaeran esana berritu behar: ezin ahantz ditzakegula bertsolaritzaren euskarriak eta badagoela ahanzteko arriskurik.

**Garzia, J.**

Galderak egitera mugatu behar hemen ere, tamalez: Ohizko jaialdiak "transmititzera" mugatu behar al dute komunikabideek? Bertso-kritika egin behar ote da komunikabideetan? Nork egin behar du aukera? Komunikabideak izan ote litezke bertsolaritzaren plaza berriak? Zein baldintzarekin?

**Itzaina, M.**

Dela Euskadi Irratian, dela Iparraldeko euskal irratietan, bertso asko zabaltzen da. Baina egun telebistaren erreinuan sartuak gara. Hemen ere orain asko lekutan Euskal Telebista hartzen bait dugu, honek behar luke egun oroz 10 bat minutuko saio bat eman, eta hori ordu egoki batean. Prentsa idatziak bertsoak publika ditzala eta oroz gainetik umeek idatzi bertsoak.

**Izazpi**

Bertsoak bere giroa behar du, erdal poema batzuek behar duten bezalaxe. Ordu guztietan edozerk aspertzen du. Egunkariz eta te-

lebistaz balia liteke, baina kontuz: neurri batean, entzulegoa asper-tu gabe. Gehiegikeriak arlo guztietan ondorio bera bait du.

Komeni da entzulea gehiago entzuteko gosez, desiraz gelditzea. Horregatik, komunikabideek duten eraginarekin, neurri batean, derrigor behartuak gaude beraietaz baliatzera. Bestela, bertsolaritza laster baztertuta geldituko litzateke.

**Lekuona, J.M.**

Promoziorako eta irakaskuntzarako medio guztiez baliatu beharra dago, plangintza baten barruan. Ikus-entzunezkoen balioa azpimarratuko nuke, batez ere transmisio-lanetarako. Eta irrati-telebistetako emanaldiek, neurtuagoak eta landuagoak behar lukete izan, bertsogintzaren prestigiorako. Gai-jartzaileez genioenaren antzera, hemen ere esku profesionala eskatzen da, ofizio oneko aurkezlea. Zaindu behar lirateke une bereko gozaldi poetikoa, eta gerora begira eginiko kultur zabalkundea.

**Lekuona, M.**

Bertso-saioak aurretik iragartzeko, gero bertso grabatuak entzun erazteko (onenak hautatuz, komentatuz, beren leku eta giroa oroiteraziz), iragan bertso oroigarrienak errepikatuz, bertsolari zahar eta zenduak beren bertsoekin berriz piztuz (zintetan grabatuz eta zabalduz), bertsolariak ezaguteraziz, ez bakarrik beren bertsoetan, baina ere beren bizileku eta bizibideetan. Zinta sonoroetan egiten den lana bideoz egin beharra dago orain baino gehiago, oso garrantzi handia izango bait du geroari buruz. Bertsogintza sartu behar litzateke bereziki gaztetxoei buruz egin emankizunetan.

**Muniategi, A.**

Bertso "berriak" (sariketak, etab.) eta zaharrak argitaratuz, eta saio, jaialdi eta lehiaketak grabatu eta aldizka eskainiz.

**Sarriugarte, I.**

Enbido latza hamar bat lerro exkaxetan erantzuteko, komunikagintzaren zuta-zeharrak ezagutzeke.

Irrati eta prentsa idatzian aspaldidanik du bere lekutxoa bertsolaritzak, eta horri esker hamaikatxo ezinduk gozatu ahal izan du bertsolarien ihardunez. Prentsa idatziari dagokionez, txalogarriak dira *Hemen* egunkariak oraintsu hasi duen "Bertsolariak Kazetari" gisako esperientziak. Idatzizko komunikabideekin jarraituz, baina, saioei buruzko aipamenen ahultasuna nabarmendu nahi nuke, zenbait kasutan gai-zerrenda huts bihurtu dira eta.

Telebistaz, zer esan? Lan eskerga egingo luke (burutuko al du!), saio nagusiak zuzenean emateaz gain, gazteak plazaratu edo ezaguteraziko balitu eta umeei zuzenduriko emanaldi bereziren bat eskainiko balu.

## 7. Bertsogintzaren berrikuntza

*Nola bideratu beharko litzateke bertsogintzaren berrikuntza tekniko-tematikoa?*

### Amuriza, X.

Bertsolaritzaren berrikuntza tekniko-tematikoak ikerketa eta ikasketa positiboak behar ditu, ez zabaltze edo elkar kopiatze lanak bakarrik. Bertsolaritzari buruz gauza asko esaten eta argitaratzen da, baina gehienetan zertzelada arinak —sarritan arinkeriak— besterik ez. Zenbait gauza orokor eta topikok baino gehiago balio du aportazio txiki batek. Ikerketa eta kritika —estudioak, beraz— gehitu behar dira, berrikuntza fidagarririk izango bada.

### Aranalde, J.M.

Berrikuntza tematikoa gai-jartzailearen esku egon daiteke asko. Baserritarkerietan erortzen garela uste dut askotan gai-jartzaileok. Eta gaur, kale-kultura da nagusi, eta zibilizazio berria. Horri erantzun behar zaio.

Horretaz aparte, gai irrealegiak erabiltzen ditugula iruditzen zait askotan. Egi itxurarik gabeak izaten dira. Eta gaiak behar du, nondik edo handik, benetakotasun bat.

Baina gai-jartzailea gai-jartzaile, bertsolariak du azken hitza gauza honetan. Eta hauek ere badaukate zertan saiaturik. Errazegi dabiltzala uste dut, eta zabarregi. Askotan errespeturik ere gabe. Ez dago zernahi esaterik, eta edozertaz pontifikatzerik. Ezjakinak badira, dioten bezala, mintza bitez horrela, eta ez orojakile bezala.

Teknikari dagokionez, ez daukat eritzi jakinik.

**Egaña, A.**

Berrikuntza teknikorako ez bide, ez behar handiegirik ez dut ikusten. Ez dut horrekin bertsoak behin-betiko dagoenean geratu behar lukeenik esan nahi; baina bai, berrikuntza teknikoen arloak aukera murritzak dituela, eta, nolanahi ere, berrikuntzok sormen indibidualaren eta entzulegoaren onarpenaren artean oreka izan behar dutela.

Berrikuntza tematikoaren gaiak gehiago kezkatzen nau. Lehen ere aipatu dut, beti gai batzuen jira-biran gabiltzala eta hutsa gai horiek beti egungo gizartera egokituak balira. Berrikuntza denon esku dago: gai-jartzaileen esku, noski, bertsolarion esku ere bai, geu ere gauza "berriak" esaten saiatu beharrean gaude, eta entzulegoaren esku, nola ez, azken-azkenean berak onartzen ala gaitzesten bait ditu aldaketak.

**Garzia, J.**

Galdaketa honen erantzukeran garbi asko geratu denez, eztabaida zabal eta sakonen premian dago bertsolaritza. Alferrik da bertsolari-txapelketa nagusi bakoitzaren bezperetan dena konpondu nahi izatea. Bien bitarteko patxada baliatu behar da azterketa-lan premiazko horiek bultzatzeko eta burutzeko.

Bertsolarien elkarteak baduke, nire ustez, erantzunkizunik arazo honetan. Azterketa-lan hori geuk egin, eta bertsolaritza geuk nahi bidetik eraman ezean, axaleko modaren haize aldakorraren menpe ibiliko zaigu beti bertsoaren untzia, halako batez haize-kolpe bortitzen batek historiaren itsasoaz kanpora jaurti dezan arte.

**Itzaina, M.**

Doinu berriak behar dira sortu eta zaharrak publikatu, *Odolaren mintzoa*-z egin izan den bezala. Bertso-eskolek gaiaren erabiltzeko manerak behar dituzte erakutsi, eta ikasi gai baten barnatzen.

Bestalde, oroit naiz arrats bat osoa iragan zuela Mixel Labegerie zenak gitarrarekin Xalbador bere bertsoetan laguntzen. Esperientzia horrek ez zuen segidarik ukan.

Beste erritmo batzuetan behar da saiatu? Orain gazteriak ematen dituen doinu horietan? Nik ez dakit. Oraingoari oraingoaren kreatzea. Dena den, ez dut uste doinurik gabeko bertsolaritza bati buruz goazela... Herriak gehiago kantatzen ez duen une honetan, kantu-txapelketek nehoiz baino jende gehiago biltzen dute. Herria bertso berri eta doinu egokien egarri da.

**Izazpi**

Bertsolari-elkartearen estatutuetan erizpide batzuk agertzen dira; hala ere, berrikuntza horretarako urrats zabal batzuk ezarri beharko lirateke, zerbait teorikoa, ikerketa-lan sakon bat eginez, herri-literaturaren konparaketa bat.

Euskal metrika sakondu, beste batzuekin konparatuz, eta abar. Gaietan, berriz, gizartearen mugimenduak sarritan irakats diezaguke norabidea, geure tradizio-altxorra galdu gabe.

**Lekuona, J.M.**

Lehen aldaketa nabarmena bertso-paperek ekarri zuten, eta bigarren bat txapelketek eta jaialdiek. Baina beti bertsolariak berak izan dira aurrerapenaren eragile. Eta berdin aurrera ere: bertsolariek izan behar dute sortzaile. Batek baino gehiagok lagun dezakete bertsolari-proiektua egiten, baina artisten esku dago beti berrikuntza serioa. Honela egin ezean, bide-galtze asko egiten da. Hori bai, alderdi teorikoetan eta antolabideetan bertsolariek beharko dituzte laguntzaileak, bertsolariei ezinezkoa zaienez denetara iristea. Baina artegintzan, azken hitza berea du bertsolariak. Gainerakoan, manipulazioa letorke eta frakasoa. Bertsolariaren eta entzu-

legoaren arteko sinbiosi horretan, eskuarki bertsolariari dagokio kolektibitateak usmo duena jasotzea, hau hitzez janztea eta teknika onez ematea. Gainerako esku-sartzeak badaezpadakoak izaten dira, noski, nire eritzian.

**Lekuona, M.**

Ba arri baten ondotik, sagardotegietarik plazaratuz, arruntkeriak utzirik, egokitasun bat bildu zuen bertsolaritzak. Xalbador artzainak ekarri dio geroztik barnatasun eta lirismo berezi bat. Azken urte hauetan, Lopategi, Amuriza eta gazteago batzuek ekarri dizkiote gaurko herri-giro eta kultur mailak eskatzen dituzten oihartzun eta igarletasun bat.

Berritze bidean, funtsezko aldaketa gutxi iguriki daiteke argi, jantzi, tresna edo maneren berritze batzuetarik. Baina herriaren nortasun-giroa eta honen geroa begi zorrotzekin urratu eta azalduko duten bertsolariek diote bertsolaritzari dihoazkion bikaintasun eta bizitasun berriak ekarriko.

**Muniategi, A.**

Lan gaitza da. Hain ezagun ez zaizkigun metroak sarriago kantatu behar lirateke. Neurri berriak ere asmatu behar dira. Errimaren koska zailagoa da. Luzeago edo laburrago, kontsonantea behar du. Ez zait iruditzen errima asonantedun bertsolaritzarik.

Gaiak edo temak berritzeak ez du zailtasun teorikorik.

**Sarriugarte, I.**

Bertsolaritza etengabe ari da berritzen. Izan ere, bilakaera hori eteten den une horretantxe egingo du bertsoarenak. Euskaldungoa, gero eta anitzagoa delarik, bertsolaritzak ñabardura, joera eta espresabide berriak ezagutu eta onartu beharko ditu, mamiz zein azalez. Gai-alorrean, jadanik, aportazio berriak ezagutzen ari da bertsolaritza: bertso-eskolak, euskaldun kaletarrak, bertsolari karreradunak, emakumeak, ikastola-kumeak, etab. Baina gaiak ezezik, horiek lantzeko bitartekoak ere berriztatu eta osatu beharko

dira; hau da, doinu, neurri, iharduera, saio-muntaketak, etab. Ahal den neurrian era zaharrak berreskuratu, eta berriak asmatu. Irudimena beharko da bertsozalea asper ez dadin. Bertsolariak, bere aldetik, ahalik eta ondoen hornitu beharko du bere almazena, kulturaz inoizkorik eta jantzien dagoen euskaldun bertsozaleari duintasunez erantzun ahal izateko.

Egia bihurtuko al da, Amurizak 1980.eko txapelketa irabazi ondoren esan zuen harako hura: "Orkestaz eman nahi nituzke bertso-jaialdiak". Eta trikitiaz, eta jazz musikaz. Zergatik ez?

---

## *ENCUESTA SOBRE EL BERTSOLARISMO*

*Se trata de una serie de preguntas dirigidas a personas entendidas en el bertsolarismo: bertsolaris, miembros del jurado y estudiosos del bertsolarismo.*

*Esta mini-encuesta aborda los temas de más actualidad en torno al bertsolarismo moderno, como son: la conveniencia o interés de los campeonatos, la valoración intrínseca y extrínseca del último campeonato, los criterios y sistemas de valoración y puntuación de los bertsos, la influencia del "gai-jartzaile" o apuntador de temas, los "bertsolari-eskola" o escuelas de bertsolaris, la renovación técnico-temática del bertsolarismo.*

---

## ENQUETE SUR LE BERTSOLARISME

Il s'agit d'une série de questions dirigées à des connaisseurs du bertsolarism, des bertsolaris, des membres du jury, ainsi que d'autres spécialistes du bertsolarisme.

Cette mini enquête envisage les sujets d'actualité autour du bertsolarisme moderne, à savoir: la convenance ou l'intérêt des championats, l'évaluation intrinsèque et extrinsèque du dernier championnat, les critères et les systèmes d'évaluation des bertsos, l'influence du "gai-jartzaile", c'est à dire celui qui fixe les sujets, les "bertsolari-eskola" (les écoles de bertsolaris), le renouvellement technique et thématique du bertsolarisme.

# Bertsolariei inkesta

**Joan Mari Torrealdai**

## Sarrera

### 0.1. Aitzin-oharra

1985-1986 urteetako Bertsolari-Txapelketa kultur gertakari nagusi gertatu dela, nekez uka dezake inork. Gertakari horren goibeheak ezagutzera emateko asmoz, txapelketa osoaren balantze gisako zerbait egitea proposatu zien aldizkariak antolatzaileei, egunkarien orrietan sakabanaturik eta barreiaturik ez zedin gal, bestela, informazio hori.

Geroztik, asmoak haziz eta helduz joan ziren aldizkariaren eskuetan. Eta *Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusia 1986* liburua aurkeztean, Euskal Herriko Bertsolari-Elkarteko lagun-talde bati zera proposatu genion: bertsolariei inkesta bat egitea, hainbat arazo eztabaidatu eta eztabaidagarriri buruzko horien eritzia zuzenean jakin ahal izateko. Lehen aldiz ezagutzen da, honela, bertsolarien kolektiboaren pentsaera. Galderak, jeneralean, praktikoak dira. Azken Txapelketa Nagusia hartu da ardatz bezala, eta

Txapelketa dela eta plazaratu diren arazoez osatu da gehienbat galdeketa hau, aurrerago azalduko dugun bezala.

Gure proposamenak bere bidea egin zuen. Bizpahiru aldiz lagun-talde bat bildu zen galderak prestatzeko, eta Joan Mari Torrealdaik moldatu zuen galdeketa.

Lagun hauek osatu zuten lantaldea: Arantxa Arruti, Iñaki Murua, Jesus Murua, Koldo Tapia, Joan Mari Torrealdai eta Zaldubi.

## 0.2. Gaiaren aukera

Esan bezala, praktikotasunaren aldetik jotzen du galdeketak. Batetik, bertsolarigoa zer-nolakoa den (jatorriz, adinez, lanbidez, etab.) eta nola jokatzen duen (ereduak eta ohiturak). Eta bestetik, bertsolarigo honen eritziak eta jarrerak, gaurko bertsolaritzak eskuartean dituen arazoei buruz. Arazo teorikorik ez dugu planteatu nahi izan, baizik eta kontrara. Egungo bertsogintzaren balorazio orokorra eskatu ondoren, gainerako eritzi-emateak arazo hauei buruz izan dira: bertso-saioak, txapelketak, bertso-eskolak, Bertsolari-Elkartea. Oro har, gaurko bertsolarien pentsaera eta jokabidearen argazki bat bezala da inkesta hau. Duela 15-20 urte arras bestelako argazki bat izango genukeen, inkesta beretsua egin izan balitz: protagonistak ezezik, arazoak ere ezberdinak ziratekeen. Eta ziur gaude, 15-20 urte barru beste horrenbeste gertatuko dela: protagonista aldetik noski, baina, baita ere, arazo eta planteamenduen aldetik. Eboluzioan bait dago bertsogintza. Horrexegatik du hainbesteko garrantzia bertsolarigoaren oraingo uneko pentsaera eta jarrera biltzeak.

## 0.3. Metodologia

### 0.3.1. Bertsolarien hautapena

Nor da bertsolari? Galdera sinple honen erantzuna ez da horren sinplea. Bertsolariaren kontzeptua bera ez dago garbi, eta aldatuz joan da historian, bete dituen funtzio sozialen arabera. Era askotako erizpideez balia gaitezke, idazlea definitzerakoan bezalatsu. Definizio operatiboa behar genuen guk, eta hori Bertsolari-Elkartearen eskuetan utzi genuen hasieratik beretik.

Bertsolari-Elkarteak erabili zituen erizpideak, hauek izan dira. Hasteko, azken txapelketa nagusian parte hartuak. Zer esanik ez, parte hartu gabeko bertsolari handiak, erretiratuak egonik ere. Eta gero, beste txapelketetan (nahiz gazteen artekoetan nahiz bestelakoetan) bere burua ezaguterazi dutenak. Denetara, 145 bertsolari.

### 0.3.2. Sondaketa-inkesta, atez ate burutua

145 bertsolari horiengandik 140 erantzun jaso ditugu. Hiru ezin izan dira lokalizatu, eta bik ez dute inkestaren jokuan sartu nahi izan (galdeketa bera ezagutu gabe, dena esan beharra dago). Erantzun-kopuru hain handia biltzea berez mintzo da, bai bertsolarien interesaz eta bai antolatzaileen efikaziaz. Bertsolarien populazio osoaren eritzia eta informazioa da, beraz, egiaz eta benetan, hemen aztertzen duguna.

Ahalik eta erantzunik gehien jasotzeko, inkestatzaileen bidezko bidalketa aukeratu genuen. Bertsozale eta bertsolari gazte zenbait ibili zen etxez etxe galderak egiten.

Galdeketa bera ez da zaila betetzen. Bi item-kategoria ditu: identifikatze- eta informazio-galderak eta bertsolaritzazko eritziak. Eta itxia eta aurretiaz kodetua da gehienbat.

Galdeketaren bidalketa eta jasoketa Bertsolari-Elkarteak egin du. Ikuskatzea, kodetzea, grabaketa eta prozesatzea, aldiz, Siadecoren esku gelditu da. Eta galdeketaren formulatzea, geroko prozesu osoaren ardura eta jarraipena eta, batez ere, interpretazioa, Joan Mari Torrealdaik egin du.

Inkestaren jabea Bertsolari-Elkartea da, eta bere gain doa honen kostua.

*Zenbait ohar, irakurlearen gidatzat*

1. Irakurtzeko erraztasunaren alde, taulak eta laukiak tokiz berezita ematen ditugu. Taulak testu barruan integraturik daude, eta kopuru orokorrak biltzen ditugu horietan. Laukiak, aldiz, eranskin gisa doaz atzean: horietarako deia, testu barnean, honela egiten dugu: "Ik. 1.5.". Laukiotan, tauletako informazio orokor hori zenbait aldagairekin gurutzatu dugu. Gurutzapen esanguratsuenak bakarrik ematen ditugu hemen, testuan analizatzen diren guztiak, hori bai.

2. "Jaiolekua", aldagai bezala, 7 zonatan banatu dugu. Hara zona bakoitzean sartzen diren eskualdeak:

1. zona: Arabako lautada, Kantauri arabarra, Arratia/Nerbioi, Bilbo Handia, Plentzia/Mungia.
2. zona: Durangaldea, Gernika/Bermeo, Markina/Ondarroa.
3. zona: Deba Beherea, Deba Garaia.
4. zona: Urola/Kostaldea.
5. zona: Donostialdea, Tolosaldea, Goierri.
6. zona: Iruñea, Tafalla.
7. zona: Lapurdi, Nafarroa Beherea.

Nola aipa zona hauek idazlanaren barruan? Zenbakiz aipatzea "hotzegia" iruditu zait, irakurlearengandik urrutiegi. Ulerterrazago egitearren, "eskualdeak" aipatu nahi izan ditut. Baina, aise konpreni daitekeenez, eskualdeak oro izendatzea kasu bakoitzean luzeegi gertatzen da batzuetan; hala nola, "1. zona" aipatu behar denean, 5 eskualde banan-banan izendatu beharra. Kasu horietan, maizenik, bat edo beste espreski izendatzera mugatu naiz; adibidez, lehen zonakoan, "Araba/Bilbo Handi ingurua".

## 1. Bertsolariaren irudia eta eitea

Inkestaren lehen zati honetan, honelakoetan ohi denez, kolektibo aztertuaren oinarrizko informazioak bildu ditugu, datu biografikoak, alegia: noiz-non sortua den, egin dituen ikasketak, gaur duen lanbidea, egoera zibila eta, bertsolari denez, "ofizio" honetan zergatik eta noiz-nola abiatu zen.

Zein dugu gizon hau, bertsolaria, itxuraz, tankeraz, eitez? Argazki-robot honek bertsolarigoaren zein irudi eskaintzen digu?

Sarritan —sarriegitan— bertsolariaren eredu eta irudi zahar eta zaharkitua darabilgu XXI. mende industriatsu eta hiritartuaren atarian. Bertsolaria berdin baserritar, eskolagabe, arlote, ezjakin. Txirritaren irudiak pisu handiegia izan du. Gaurko bertsolaria, ordea, ez da honelakoa. Bertsolaria, gaur, ez da jendaurrean agertzen, txapela, abarka eta mahonezko galtzekin. Basarrik 1935ean gainditu omen zuen Txirrita: bertsolaritza sagardotegitik plazara atera da, brusatik gorbatara igaro da.

## 1.1. Bertsolariaren jatorria

### 1.1.1. Jaioturteak

*Urteak*

| | Zk.abs. | % |
|---|---|---|
| Zehaztugabea | 1 | 0,7 |
| 12-16 (1971-1975) | 2 | 1,4 |
| 17-21 (1966-1970) | 15 | 10,7 |
| 22-26 (1961-1965) | 13 | 9,3 |
| 27-31 (1956-1960) | 21 | 15 |
| 32-36 (1951-1955) | 21 | 15 |
| 37-41 (1946-1950) | 18 | 12,9 |
| 42-46 (1941-1945) | 15 | 10,7 |
| 47-51 (1936-1940) | 9 | 6,4 |
| 52-56 (1931-1935) | 14 | 10 |
| 57-61 (1926-1930) | 5 | 3,6 |
| 62-66 (1921-1925) | 2 | 1,4 |
| 67-71 (1916-1920) | 2 | 1,4 |
| 72-76 (1911-1915) | 2 | 1,4 |
| | 140 | 100,- |

Populazio normalaren itxura du bertsolarigoak, adinaren aldetik begiratuta. Gazte-aldera jotzen du pittin bat, gainera. Enborraren gerri mardula 20-45 urtealdian kokatzen da. Bertsolari gazte eta gordina da nagusi. 41 urtetik beherakoak bertsolari guztien % 64,3 dira. Eta 57 urtetik gorakoak % 8,5 dira soilki. Egin kontu, 21 urte artekoak % 12,1 direla, 17 bertsolari gazte, dagoeneko plaza dexente eginak batzuk eta prometari beste batzuk.

Gazte izatea ez da soilki kalendario-problema. Gazteak aldean dakar eskola, kultura, korronte eta joera berrietara irekitasuna, etab.

Ikus dezagun jarraian nola lotzen edo elkartzen den adina zenbait aldagairekin: hala nola, eskualdea, bultzatzailea, kategoria soziala, ikasketa.

a) Jaiolekuaren arabera (Ik. 1.1.), zonaz zona joanda, gazte eta zaharren proportzioa ez da denetan bera. Denetan, hori bai, 40 urtetik beherakoak gailentzen dira, baina proportzio ezberdinetan.

Hona zenbait datu, 41 urtez azpikoen ehunekoa seinalatuz:

Zonarik gazteena (% 90) lehen zona da, hots, Araba/Bilbo Handi ingurua. Gaztea da, baita ere, Deba arroa (% 78), eta batzuk gainera, oso gazteak; Nafarroan ere bertsolari gaztea da nagusi (% 74,9).

Helduxeagoak dira Durangaldeko, Gernika/Bermeoko eta Markina/Ondarroako bertsolarien batezbestekoa (% 63) eta Urola/Kostaldekoa (% 60).

Zonarik zaharrenak beste hauek dira: Iparraldea (% 57,1) eta Goierri/Tolosaldea/Donostialdea (% 54,1).

Nolanahi ere, arestian esana seinalatu behar dugu atzera: edozein eskualdetan ere gazteen pisua zaharrena baino handiagoa da.

b) Bultzatzailearen arabera (Ik. 3.1.) aztertzen baditugu adin-taldeak, sorpresarik ez dago. Konfirmazio bat, bai: eskolak bultzaturiko guztiak aurkitzen dira gazteen artean, 41 urtetik beherakoengan. Beste faktoreek, gutxi edo asko, adin guztietan funtzionatzen dute berdin samar.

c) Kategoriaren araberako analisiak (Ik. 4.1.) garbi uzten duena da, irakasleak, bat ez beste denak, 41 urtetik beherakoak direla, eta berdintsu (% 89,1) langile kualifikatuak. Ugazaba izendatu ditugunak, aldiz, proportzio berean dira 40 urtez goitik eta behetik.

d) Adina ikasketen arabera aztertzean (Ik. 5.1.) ikusten da, 40 urte bueltan kokatzen dela etena.

Lehen mailako ikasketak egin dituztenak gehiago dira 40 urtez gorakoak (% 71,5). OHO egin dutenak parean dabiltza 40tik gora eta behera. Besteetan dator aldea. Lanbide-Heziketan ez dago 40tik gorako bertsolaririk. Bat bakarra dago batxilergoa egin dutenengan; batere ez erdimailako karreretan eta bi bakarrik goimailako ikasketetan. Zenbat eta gazteagoa, ikasmaila altuagoa.

## 1.1.2. Jaiolekua

*Jaiolekua*

| | Zk. abs. | % |
|---|---|---|
| **1. Zona** | 10 | **7,1** |
| Arabako lautada | 2 | 1,4 |
| Kantauri Arabarra | 1 | 0,7 |
| Arratia/Nerbioi | 2 | 1,4 |
| Bilbo Handia | 4 | 2,9 |
| Plentzia/Mungia | 1 | 0,7 |
| **2. Zona** | 27 | **19,3** |
| Durangaldea | 6 | 4,3 |
| Gernika/Bermeo | 13 | 9,3 |
| Markina/Ondarroa | 8 | 5,7 |
| **3. Zona** | 18 | **12,9** |
| Deba Beherea | 4 | 2,9 |
| Deba Garaia | 14 | 10,0 |
| **4. Zona** | 25 | **17,9** |
| Urola/Kostaldea | 25 | 17,9 |
| **5. Zona** | 37 | **26,4** |
| Donostialdea | 12 | 8,6 |
| Tolosaldea | 9 | 6,4 |
| Goierri | 16 | 11,4 |
| **6. Zona** | 16 | **11,4** |
| Iruñea | 15 | 10,7 |
| Tafalla | 1 | 0,7 |
| **7. Zona** | 7 | **5,0** |
| Lapurdi | 3 | 2,1 |
| Nafarroa Beherea | 4 | 2,9 |
| GUZTIRA | 140 | 100,- |

Probintziaz hartuta, Gipuzkoa gailentzen da, bertsolarien erdia eta gehiago berak duelarik: % 57,2. Urruti, oso urruti, dator Bizkaia, ia lauetatik batekin. Hona hemen zifra absolutuak eta erlatiboak:

*Bertsolari-kopurua probintziaz*

| | Zk.abs. | % |
|---|---|---|
| Gipuzkoa | 80 | 57,2 |
| Bizkaia | 34 | 24,2 |
| Nafarroa | 16 | 11,4 |
| Ipar Euskal Herria | 7 | 3 |
| Araba | 3 | 2,1 |
| GUZTIRA | 140 | 100,- |

Gipuzkoaren barruan hiru herrialde daude indar handiko: Deba Garaia, Goierri eta batez ere Urola/Kostaldea.

Bizkaian bertsolari gehien Gernika inguruak sortu ditu, Markina eta Durangaldeak baino gehiago, eta zer esanik ez Arratia, Txorierri eta Mungialdeak baino.

a) Eskualdeak adinaren arabera ikusteak erakus liezaguke, besteak beste, non dauden harrobi berriak, non bertsolaritza puri-purian, etab. (Ik. 2.2.). Goazen adinaldiz adinaldi:

- 15-24 urteetakoak hogeitabat bertsolari dira guztira eta horietako % 33,3 Donostialdekoa da eta bigarren multzoa (% 23,8) Deba Garaikoa. Edade horretako bertsolarien erdia eta gehiago, bada, bi eskualde horietan dago. Ikasle-jendea ere bi eskualde hauetan kokatzen da gehiena (Ik. 4.2.).

- 25-34 adinaldikoak gazteagoak baino ugariago dira, hogeitamazortzi. Hauetako mordo on bat (% 21,1) Urola/Kostaldekoak dira. Nafarroa (% 15,8) eta Goierri (% 13,2) datoz atzetik.

- 35-49 adinaldia da denetan beteena, berrogeitazortzi bertsolarirekin. Eskualde guztietan banaturik daude adin honetakoak, bai, baina hiru eskualdetan badago kontzentrazio txiki bat: % 12,5na dute Durangaldeak, Busturialdeak eta Deba Garaiak.

- 50 urtetik gorakoak hogeitamabi dira, eta hauen ia erdiak eskualderik bertsozaleenetakoak dira: Urola/Kostaldea (% 25) eta Goierri (% 21,9). Bertso-tradizioa dagoen seinale.

b) Bertsolaria bertsolaritzara bultzatzen duten faktoreak nola kokatzen dira eskualdeetan? (Ik. 3.2.). Etxearen eta lagunartearen eragina batez ere Urola/Kostaldean, eta Nafarroan aitortzen da. Zaletasuna aitortzen dutenak batez ere Urola/Kostaldean, Markina-Ondarroan eta Goierrin daude. Bertso-eskolaren eragina ere argi dago gehienbat non dagoen: Busturialdean (% 25) eta Deba Garaian (% 25).

c) Ikasketen araberako sailkapenean (Ik. 5.2.), ez dago egoera oso-oso markaturik, baina bai joerak. Oro har esan daiteke, batxilergotik beherakoetan multzorik handienak Urola/Kostaldean eta Goierrin daudela, hots, gerraosteko bertsolaritzaren eskualdeetan. Batxilergoa edota gehiago ikasi dutenen multzorik handienak (ez ikaragarriak, denetara ere 36 bait dira ikasketa-maila horietakoak) Busturialdean eta Deba Garaian kokatzen dira.

## 1.2. Ikasketak

*Ikasketak*

| | Zk. abs. | % |
|---|---|---|
| Zehaztugabea | 2 | 1,4 |
| Batere ez, lehen mailakoak | 21 | 15,1 |
| O.H.O. | 64 | 46,0 |
| Lanbide-Heziketa. 1. | 9 | 6,5 |
| Lanbide-Heziketa. 2. | 8 | 5,8 |
| Batxilergoa-U.B.I. | 16 | 11,5 |
| Erdimailako ikasketak | 10 | 7,2 |
| Goimailako ikasketak | 9 | 6,5 |
| GUZTIRA | 139 | 100,- |

Ikasketa-maila apaleko jendea da nagusi bertsolarien artean: lauetatik ia hiru ez da batxilergora iritsi eskolan. Are gehiago: % 61,1ek oinarrizko heziketa edo gutxiago du. Analfabeto edo antzekorik ere bada (% 3,5), alegia, batere eskolatu gabeak, "firmatzeko adina", batek dioen bezala, ozta-ozta "ikasi" dutenak.

Lanbide-Heziketa burutuak % 12,3 dira: gutxi, aukeran. Hauetako gehienek ofizialia, elektronika eta maisutza industriala egin dute.

Batxilergoa eta hortik gorako ikasketak lauetatik batek burutu ditu (% 25,2). Horietatik zati on batek (% 11,5) batxilergoa (BBB edo UBI) egin du. Erdimailako ikasketen artean, batez ere maisutza aurkitzen dugu, komertziokoak eta injinerutza teknikoaren gainetik. Eta goimailakoetan, filosofia, biologia eta industri injinerutza agertzen dira, baina sarriago kazetaritza eta euskal filologia.

a) Jaiolekuaren arabera (Ik. 1.3.), Araban eta Bizkaian dago ikasien proportziorik handiena. Txikiena, ostera, Iparraldean, batxilergoa egindako batño ere ez bait dago han.

b) Adinaren arabera (Ik. 2.3.), bistan da eboluzioa zein zentzutan doan: zenbat eta gazteago, eta ikasiago. Hona zifra esanguratsu batzuk:

Lehen mailako ikasketetatik gora egin dituztenak 50 urtetik aurrera % 3,1 bakarrik da; 35-49 adinaldian, % 33,4; 25-34 adin--artean % 44,8; eta 15-24 urte bitartean % 85,7.

Eboluzioa aparte, hiru talde-modu ikusten dira hemen: 50 urtetik gorakoena bat, lehen mailako ikasketekin; 25-49 urte bitarteko gehiengo handi hori gero, gaurko bertsolaritzaren eredua eta irudia ematen duena, ikasketa-maila hobexeagoarekin; eta azkenik, 25 urtetik beherakoen belaunaldia, askoz ere ikasiagoa.

c) Bultzatzailearen arabera (Ik. 3.3.), ez etxeak, ez lagunarteak eta ez zaletasunak izan dute eragin handirik ikasien artean. Baina hainbat faktore aipatu behar direla diotenen artean, hor, heren bat da ikasia. Eta eskolak bultzaturikoen artean (gutxi badira ere), bat ez beste denak ikasiak dira.

d) Kategoria sozialaren arabera, bien arteko lotura dago lehenengo, kategoriaren eta ikasketaren artekoa (Ik. 4.3.). Mutur batean, ugazaben, langileen eta jubilatuen kategoriak ditugu: hauetan, nagusiki —eta ia osoki— ikasketa apaleko jendea dago. Beste muturrean, ikasle-irakasleak: hauetan kokatzen den bertsolariak gutxienez batxilergoa egin du normalean. Bada tartean dagoen kategoria bat, enplegatuena: oinarrizko heziketatik goimailako ikasketarainoko jendea dago hemen.

Gaurko bertsolariaren irudia ez da, ez, Pello Errotak eta Udarregik marrazten dutena. Hau zen Pello Errotaren bertsolaria: "... orain hastera goaz / predikadoriak / bein'e kolejiuan / ibilli gabiak"; eta Udarregirena: "... aitortuko ditugu / publiko egiak, / gure kolejiuak / sagardotegiak".

### 1.3. Oraingo lanbidea

*Oraingo lanbidea*

| | Zk.abs. | % |
|---|---|---|
| Zehaztugabea | 2 | 1,4 |
| Ugazaba | 30 | 21,6 |
| Enplegatua | 9 | 6,5 |
| Langile kualifikatua | 46 | 33,1 |
| Langile kualifikatu gabea | 18 | 12,9 |
| Langabetua | 1 | 0,7 |
| Jubilatua | 6 | 4,3 |
| Ikaslea | 11 | 7,9 |
| Irakaslea | 15 | 10,8 |
| Teknikoa | 1 | 0,7 |
| GUZTIRA | 139 | 100,- |

Langile-jendea da bertsolarien multzo handia. "Langile" kontzeptu ekonomiko-sozialaren barruan sartzen da bertsolarien % 46. Langile kualifikatuak dira hauetako gehienak. Maizenik agertzen diren ofizioak: arotza, hargina, igeltseroa, tornularia, mekanikoa, ajustadorea, gidaria; komunikabideetan dabilenik ere badago, eta kale-garbitzaile bat ere bai.

Beste multzo inportante bat, "ugazaba" izendatu duguna da: % 21,6. Hauek nagusi edo autonomo dira, nahiz baserrian nahiz zerbitzuetan. Hauen barnean bi talde nabarmentzen dira: bateko, baserritarrak (% 7,9) eta besteko, saltzaileak (% 7,1). Badira, baita, kontramaisuak eta artzainak sail honetan.

Irakasleen sailak ere badu garrantzirik: % 10,8. Fisikazko irakaslerik bada bertsolarien artean, baina ziurrenik euskararen irakasleak dira gehienak. Bertso-eskolako irakasle direla seinalatzen dute hiruk.

Enplegatuen kopurua ez da ikaragarria (% 6,5). Administrazioan, zerbitzuetan eta komunikabideetan lan egiten dute enplegatuok.

Jubilatuak (% 4,3) gutxi dira, eta hauek baino ugariago (% 7,9) ditugu ikasleak. Berrikuntzaren seinale eta euskarri.

Lanbideak direla eta, hiruzpalau puntu azpimarra daitezke, aurrera baino lehen.

Bat: bertsolaritza bera ez da "ofizio" bat, bizibidea eskaintzen duen lanbidea. Bertsolariak profesionalki lan egiten du, eta bertsotan egiten du aparte. Bertsotik bizi diren gutxi horiek ere, bertso-irakaskuntzatik bizi dira, ez bertsogintzatik. Idazlea literatura irakastetik biziko balitz bezala.

Bi: Galdetzekoa da, ba ote dagoen bertsolariaren langintzari hobeki egokitzen zaion ofiziorik. Ezaguna da zer-nolako ordu-modutan ibili behar duen bertsolariak hara eta hona, sarri urrutira eta desgaraian. Berez eta printzipioz, badirudi orduen menpekotasunik gabeko lanbidea komeni zaiola. Eta egia esan, gisa honetako lanbide dexente aurkitu dugu. Baina bai bestelakorik ere. Ez dirudi, bada, kontradikziorik dagoenik edozein ofizioren eta bertso-lanaren artean. Ala badago, eta ez da agertzen, bertsogintza batez ere asteburuetan eta uda-partean gauzatzen delako?

Eta hiru: bertsolariak, lanbide aldetik, ez du zerikusirik batere beste "arte-egile" zenbaitekin. Euskal idazleekin, adibidez. Kasu-

rako, euskal idazleen baitan maiz agertzen den profesioa, apaiza, hemen ez da sekula agertzen (bertsozaleen eta bultzatzaileen artean sarritxo ikusten badugu ere). Gainerako lanbideak ere oso ezberdinak dira batzuen eta besteen artean. Oro har, gertakari bat nabarmen daiteke, besteak beste: bertsolaria hurbilago bizi da bere jatorritik eta testuingurutik besteak baino. Baina gerora ez dakigu zer gerta daitekeen: kultura idatzia eta ahozko tradizioa ez ote doaz bat egitera bi-biak bertsolari modernoaren baitan?

a) Jaiolekuaren arabera (Ik. 1.4.), bi puntu seinala daitezke: bateko, 1. zonan (Araba/Bilbo Handi aldean) bertsolari gutxi dira, hori bai, baina erdiak ikasle/irakasle dira. Eta besteko, Ipar Euskal Herrian dauden zazpiak dira "ugazaba" (baserritar ala bestela?).

b) Adinaren arabera (Ik. 2.4.), joera nagusi batzuk argi eta garbi azaltzen dira:

- 50 urtetik gorako bertsolarien artean baserritarrak dira nagusi (% 46,9).
- 35-49 urte bitartean langile-jendea da gehiena: % 64,6.
- 25-34 adinaldian, oraindik ere langile-jendea da gehiena, baina indar gutxiagoz (% 52,6). Eta presentzia handixeagoa du hemen irakasleak (% 18,4).
- Eta, azkenik, 15-24 urtekoen artean panorama bestelakotu egiten da arras. Nagusigoa, orain, ikasle-jendeak du (% 52,4). Eta baserriak ez du pisurik (% 9,5).

c) Bultzatzailearen arabera (Ik. 3.4.), etxea batez ere langilengan izan da faktore eragile (% 61,1). Eta, berdin, zaletasuna (% 61,9). Lagunartearen eragina modu berean banatzen da langile kualifikatu eta ugazaben artean (% 40na). Eskolak bultzaturikoak gutxi dira, baina % 87,5 ikasle-irakasleak. Faktore eragilerik gabe hasi direla bertsogintzan diotenak benetan gutxi dira, baina erdiak irakasle.

d) Ikasketen araberako analisiak (Ik. 5.4.) zer erakusten duen? Lehen mailako ikasketak (edo batere ez) egin dituztenak langilegoan (% 47,6) edo baserrian (% 28,6) kokatzen dira. Oinarrizko heziketa daukatenak proportzio handiagoan dira langile (% 61,6), eta aurrekoaren ia berdintsuan, baserritar (% 27,7).

Kontrako muturrean dauzkagu erdimailako eta goimailako ikasketak eginak edo horretan dihardutenak. Hauetako % 57,8 irakasle da gaur egun, eta beste % 21ek ikasten dihardu.

## 1.4. Egoera zibila

*Egoera zibila*

| | Zk. abs. | % |
|---|---|---|
| Ezkondua bai | 78 | 56,1 |
| Ezkondua ez | 61 | 43,9 |
| GUZTIRA | 139 | 100,- |

Bertsolarien gehiengoa ezkondua da: % 56,1 vs. % 43,9.

35 urte bitartean, aldiz, lauetatik hiru ezkongabea da (% 74,5). Gero aldatzen dira gauzak (Ik. 2.5.).

Ezkontzaren aurreko jokabidea gizarteko beste kolektibo zenbaiten berdin-antzekoa edo desberdina denentz, nola jakin? Jakiniturririk ez dugu gehiegi. Nola jakin, adibidez, mutilzaharrak beste gizarte-taldeetan baino gehiago diren ala ez?

Ohar bat, aurrera baino lehen: Mutilzaharrez ari gara, eta ez neskazaharrez, zeren eta bertsolaritza gizonezkoen lana bait da, antza denez. Inkestan bi emakumezko bertsolari bakarrik topatu ditugu. Tokitan dago garai bateko tradizio zaharra, eta aspaldi galdua (dama nobleak, profazadak, etab.).

Gaira itzuliz: nola erabaki mutilzaharren kopurua? % 4,3 bai behintzat, baina seguru badela gehiago ere. Arazoa honetan datza: zenbat urterekin bilakatzen da ezkongabea mutilzahar? Baina, dena den, gauza bat dago argi: Txirrita ez da gaurko bertsolariaren bizi-eredu.

## 1.5. Familiako bertsolariak

*Zure familian edo senitartean ba al duzu bertsolaririk?*

| | Zk. abs. | % |
|---|---|---|
| Aitona | 18 | 12,9 |
| Gurasoak | 18 | 12,9 |
| Osaba-izebak | 10 | 7,2 |
| Senideak | 8 | 5,8 |
| Beste ahaideak | 7 | 5,0 |
| Besterik | 7 | 5,0 |
| Inor ez | 53 | 38,1 |
| Bat baino gehiago | 14 | 10,1 |
| Zaleak/Kantariak | 3 | 2,2 |
| GUZTIRA | 139 | 100,- |

Begien bistako gertakaria nabarmenduz hasi behar da hemen: % 61,9k badu bere ingurugiro hurbilean (*inner circle*) bertsolariren bat. Familian bertan, alegia. Ingurugiroa eta tradizioa, odola eta giroa, biak eskutik doaz kasu honetan.

Gaurko bertsolarien lauetatik batek (% 25,8) zuzenean jaso du bertsoaren tradizioa: batzuek aitona izan dute bertsolari (% 12,9) eta beste batzuek gurasoetako bat (% 12,9). Senitarte bertsolaria ere fenomeno aski hedatua da, ikusten denez (% 18). Eta ez da ahaztekoa, eta bai azpimarratzekoa, familiartean bertsolari bat baino gehiagorekin topo egitea (% 10,1).

Bere tradizioan eta bere ingurumari hurbilean bertsolaririk ezagutu ez, eta bertsolari bilakatu direnak, % 38,1 dira gaurko bertsolarigoan.

Atzera seinalatu eta azpimarratu behar da datu hori: gaurko bertsolarien % 61,9k familian ezagutu du bertsolaritza, nola edo hala. Munta handiko datua da hau.

Gertakari honetatik abiatuta, ez da samurra erabakitzea odoletik ala girotik datorkion bertsolariari zera hori, grina hori, bertsozaletasuna. Bietatik datorkiola esatea izango da asmatzeko biderik errazena. Errazena ezezik, zuzenena ere bai, segurutik.

a) Eskualde guztietan berdin gauzatzen ote da famili giro hori?

Zazpi zonetatik (Ik. 1.6.) bitan izan ezik, guztietan famili tradizioa da nagusi. Gehien-gehien Nafarroan (% 75), eta gero Goierritik Donostialdera (% 62,2) eta Urola-Kostaldean (% 60).

b) Famili bertsolaritza adinaren arabera aztertuz, bizpahiru puntu dira seinalagarri (Ik. 2.6.). Lehenengo eta behin, adin-talde guztietan, zahar zein gazte, famili tradiziokoak besteak baino ugariago dira. Egia esan, 50 urtetik beherakoengan ez dago alde handirik hauen eta haien artean. Benetako ebaketa —eta hau da bigarren puntua— 50 urtetik gorakoen eta besteen artean dago egon: hauetatik % 75ek badu tradiziorik, eta % 21,9k bakarrik ez du. Beste adinetan, % 38-48 bitartean dabiltza tradiziorik gabekoen zifrak.

Badirudi, beraz, tradizioaren edo/eta ingurugiroaren etena ez dela gertatu-berria, belaunaldi berriarekin etorria, lehenago jazoa baizik. Gaur 50 urte bueltan dabiltzanen belaunaldian gertatu bide da galera edo haustura hori.

c) Bultzatzailearen arabera (Ik. 3.6.), ikusten da, etxeak, faktore eragile izan denetan, % 83,3 famili tradiziokoetan izan duela eragina. Eskolak, aldiz, —hau ere normala— famili girotik kanpokoetan (% 87,5).

d) Ikasketen arabera familiarteko bertsolaritzari begiratuz, ikasketa-mailarik gehienetan ez da konportamendu diferentziaturik nabarmentzen, salbu mailarik gorenekoetan (Ik. 5.6.). Izan ere, erdimailako eta goimailako ikasketak egin dituzten gehienak ez dira bertsogintzara familiaren laguntzaz iritsi: erdimailako ikasketak egin dituztenen % 50ek ez du bertsolaririk familian, eta % 55,6ra iristen da proportzio hori goimailakoetan.

## 1.6. Plazaratzea

### 1.6.1. Plazaratzeko adina

*Zenbat urterekin plazaratu zinen lehen aldiz?*

| | Zk. abs. | % |
|---|---|---|
| Zehaztugabea | 3 | 2,2 |
| 6-10 urterekin | 5 | 3,6 |
| 11-15 urterekin | 13 | 9,4 |
| 16-20 urterekin | 42 | 30,2 |
| 21-25 urterekin | 40 | 28,8 |
| 26-30 urterekin | 19 | 13,7 |
| 31-35 urterekin | 11 | 7,9 |
| 36-40 urterekin | 3 | 2,2 |
| 41-45 urterekin | 2 | 1,4 |
| 46-50 urterekin | 0 | - |
| 50-55 urterekin | 1 | 0,7 |
| GUZTIRA | 139 | 100,- |

Konstatazio bat, hasteko: oso gazterik hasten da bertsotan bertsolaria. Jendaurrean eta plazaz plaza bertsotan, alegia. Ezaguna da familiarteko edo lagunarteko ihardunetik jendaurrekora igarotzea, tabernatik plazara pasatzea, ez dela bapatean eman ohi den urratsa.

Plazaratze-urtealdirik arruntena 16-25 bitarteko hori da argi eta garbi. Gaurko bertsolarien gehiengoa (% 59) hamar urte horietan estreinatu da jendaurrean. Gazteago hasi denik ere bada (% 13). Eta gerora ere, hamar urte gehiagotan, 35 urte bitartean, irauten du plazara irteteko sasoiak (% 21,6).

a) Herrialde guztietan urte beretsutan plazaratzen ote bertsolaria? Badira joerak hemen ere (Ik. 1.7.). Eta badirudi zerikusia dutela eskualdearen euskalduntasunarekin eta bertso-eskolekin. Bi baldintza hauek gertatzen diren herrietan, goizago ematen bide du bertsolariak lagunartetik jendaurrerako urratsa. Hala nola, Deba

arroan % 55,1 hogei urtez azpitik plazaratu da eta Goierri/Tolosalde/Donostialdean % 51,3 da urte beretan jendaurrean hasi dena. Eta % 48,1 da Durangalde/Busturialde/Markinaldean. Hogei urtetik beherako gutxien plazaraturiko zonetan, Araba/Bilbo Handi inguru hori da bat (% 20) eta Nafarroa bestea (% 18,8).

b) Adinaren arabera nola gertatu da plazaratzea? (Ik. 2.7.). Bi talde bereizten dira hemen: 25 urtez azpikoak eta 50 urtez goikoak, batean. Eta bestean, 25-49 urte bitartekoak.

• 50 urtetik gorakoak 20 urtetarako bertsotan hasita zeuden asko (% 46,9). Gainerako gehienak 30 urtetarako plazaratuak ziren.

• Gazteenek, 25 urtetik beherakoek alegia, bat ez beste denek, 20 urte betetzerako plaza egina zuten (% 95,2). Hauetako asko 15 urtetarako jadanik bazebilen. Pentsatzekoa da eskolarteko txapelketetan eta bertso-eskoletan ibiliak direla.

• Zaharrago plazaratu dira 25-49 urte bitartekoak, dexente beranduago: 20 urte aurretik % 29 bakarrik atera da jendaurrera edade horretako bertsolarietan. Plazaratzeko adina luzatu egiten da. 25-34 urtekoentzat ez asko: izan ere, hauetako gehienak 21-25 urterekin jalgi dira plazara. 35-49 urteetakoak, aldiz, are beranduago.

Zein da, orduan, plazaratzeko adin arrunta? Ez dakigu. Ez dakigu 50 urtetik gorakoen goiztiartasuna normala denentz. Badakigu, bai, 25 urtez azpikoen plazaratze-adina esplikagarri dela, aipatu ditugun faktore horien eragin bezala. Ez dakigu azken batean 25-49 urteetakoak beranduegi dabiltzan ala 50etik gorakoak goizegi. Hor da gakoa: zein da plazaratze-adina: 16-20 urte-bitartea ala 21-25 urte-bitartea?

Lehen hipotesian, 25-49 urteetakoak berandu dabilzke, eta atzerapen hori esplikatu beharra legoke, agian traba sozio-politikoengatik.

Bigarren hipotesian, nola esplika orduan 50etik gorakoak goizago hastea?

Dena den, 35-49 urteetako asko urtetan sarturik bertsoetan hasteak badu esplikazio bat nahikoa ona: bertsolaritzak 1980 ondoren izan duen susperraldi eta loraldiak ekarri dituen aukera berriei esker animatu direla (herri arteko txapelketak, bertso-eskolak, etc.).

### 1.6.2. Plazaratze-herria

*Non plazaratu zinen lehen aldiz?*

| | Zk. abs. | % |
|---|---|---|
| Zehaztugabea | 1 | 0,7 |
| Jaioterrian | 41 | 29,5 |
| Eskualdean edo bailaran | 40 | 28,8 |
| Probintzian | 41 | 29,5 |
| Probintziatik kanpo | 16 | 11,5 |
| GUZTIRA | 139 | 100,- |

Bidezko denez, gehienek bere sorterrian edo bizi-ingurunean eman dituzte jendaurreko lehen emanaldiak: % 58,3.

Dexente dira, halere, bere herrialdetik kanpo hasi direnak: probintzia barruan (% 29,5) eta probintziatik landa (% 11,5).

Bi kasu hauetan, seguruenik, hurbileko testuingururik ezean dagoke esplikazioa: Araba/Bilbo Handi inguruan (% 60) eta Nafarroan (% 56,3) gertatzen da gehienik eskualdetik irtetea edo irten beharra (Ik. 1.8.).

Plazaratze-ohiturak aldatuz joan dira urteekin batera (Ik. 2.8.). Plazaratze-lekua zabaltzen hasten da 35 urtetik beherakoen artean. Urte horietan dagoke ebaketa. Zaharrenak, 50 urtetik gorakoak alegia, norberaren jaioterrian edo eskualdean jalgitzen dira plazara (% 81,3). Hauen hurrengoetan ere, 35-49 urtekoak, joera nagusi bera aurkitzen dugu (% 60,3), probintziara ere hedatuz. Hemen dator etena. 25-34 urtekoetan gehiago dira probintzian edo probintziatik kanpo hasitakoak norberaren ingurumarian estreinatuak baino: % 57,8 *versus* % 42,1. Gazteagoetan beste horrenbeste gertatzen da.

Ohar bat, bukatzeko. 25-34 urtekoetan bertsolari-mordo bat probintziatik kanpo hasi da jendaurrean kantatzen. Ez dugu esplikaziorik, gaztetxoen lehiaketa eta txapelketak ez badira behintzat.

### 1.6.3. Plaza-laguna

Lehen aldiz jendaurrean agertzean, zein/zeintzuk izan ditu bertso-lagun? 241 erantzun bildu ditugu. Behin bakarrik agertzen den izen asko dago, ehun inguru. Bi aldiz ere makina bat agertzen da, 52 hain zuzen. Hiru aldiz aipatuak beste horrenbeste, 51, juxtu esanda. Hortik gorako izen gutxi dago, eta daudenak Bizkai aldekoak dira denak: lau aldiz agertzen dira Mugartegi eta Sardui eta bost aldiz (eta gehien) Azpillaga, Iturri (Pedro Ortuzar), Lopategi eta Balendin Enbeita.

Uztapide bat, Basarri bat, hiru aldiz bakarrik aipatzen dituztela kontutan izanda, zer esan nahi du honek? Bertsolari "kontsakratu" horiek ez zirela berriekin ibiltzen? Muxika eta Markinako eskolakoek aiseago onartzen zituztela beren artean hasiberriak? Konpromiso gutxiagoko plazatan zebiltzala? Ez dakigu.

### 1.7. Bultzatzailea

*Zerk bultzatu zintuen bertsogintzara?*

| | Zk. abs. | % |
|---|---|---|
| Etxeko giroak | 18 | 12,9 |
| Lagunarteak | 35 | 25,2 |
| Bertsoak ikasteak eta zaletasunak | 41 | 29,5 |
| Bertso-eskolak | 8 | 5,8 |
| Hainbat faktorek | 27 | 19,4 |
| Ezerk ez | 4 | 2,9 |
| Besterik | 6 | 4,3 |
| GUZTIRA | 139 | 100,- |

Zerk —ez zeinek, baizik eta zerk— bultzatu du mutil edo neska hori bertsogintzara? Zerk egin du bertsolari, azken batean? Boturik gehienekin agertzen den faktore erabakiorra, zaletasuna da (% 29,5): ez odola eta ez giroa, faktore indibiduala eta pertsonala baizik; azken batean, bokazioa. Bokazioa nondik datorren, hori besterik da: odolak eta giroak badute zerikusirik, horixe baietz.

Bigarren lekuan —eta ez urruti— dator gizarte-giroa, ingurunea, lagunartea (% 25,2).

Bistan da bertso-eskolari emaitzak eskatzeko goiz dela oraino, goizegi.

Atentzioa eman lezake hemen ikusteak zein gutxi aipatzen den etxeko giroa bultzagarri bezala, % 61,9k familiartean bertsolariren bat duelarik. Zer esan nahi du honek: etxeak ez duela bertsogintzan eraginik? Ezta inola ere. Beste nonbait aurkitu behar da esplikazioa. Bereizi egin beharko lirateke, agian, bertsogintzaren "sortzaile" eta "bultzatzaile" izatearen kontzeptuak. Hori bateko. Eta besteko, badirudi aita bertsolari batek gutxitan bultzatu izan duela bere semea jendaurreko bertsolaritzara, oraintsu arte. "Ofizio sorgina" omen da bertsolaritza.

Bestalde, bultzatzailea, sarri, ez da faktore bat bakarra izaten, askoren konbinazioa baizik, % 19,4ek espreski seinalatzen duenez.

Faktore desberdinen eragin-modua eta beren arteko josketa ikusteko lekuko paregabea dira Joxemari Mujika "Anatx", Urnietako bertsolari gaztearen hitzak. Etxeko giroa-eskola-lagunartea, hiru elementuok daude testu honetan. Zein izan da egiaz eta benetan eragilerik handiena?

> "Euskarazko klaseen barruan sartu ziaten bertsotako ikastaro bat ere, eta han sortu zen taldearen laguntzaz animatu eta, aupa, gaur artekora iritsi arte (...).
>
> Nik etxeko guztiak dizkiat bertsozale, han isiltasun osoa izaten duk beti irratia bertsotan hasten denean. Gainera niri esan izan didatenez behintzat, nere aitak eta aitonak oso txukun egiten ziaten bertsotan. Hala ere, nahiz eta harrigarri dirudien, ez nian etxetik laguntza edo animorik izan hasi nintzenean, haiengatik izan balitz nik inoiz ez nian plazan kantatzeko pauso hori emango. Orain bai, orain ongi ikusten diate baina, hasiera hartan neu kazkagogor izan ez banintz..." (*Eguna*, 87.10.08).

### 1.8. Laguntzailea

Barne-arrazoiak edo gizarte-eraginak aparte, bertsolariak badu bestelako laguntzarik ere jendaurrera ateratzeko orduan. Norbaitek eraginda edo norbaiten eskutik plazaratu ohi da maiz. Eragile edo laguntzaile hori bertsolaria izan daiteke, bertsozalea izan daiteke, edo taldea.

Hain zuzen, lagunartearen laguntza edo bultzada da gehien aipatzen dena (% 17,8). Lagunarte hori, herriko koadrila da batzuetan eta beste batzuetan bertsolari-laguntaldea. Gero norberaren familia dator (% 9,2), geroago bertso-eskola (% 5,7).

Laguntzaile edo animatzaileak, izen propio eta guzti, ugari aipatzen dira, 62 bai gutxienez. Aipatuenak bakarrik emanez, hona izen batzuk: Patxi Goikolea/Xanti Iparragirre/Joanito Akizu hirukotea (% 5), Enbeitatarrak (% 3,5), Jon Lopategi (% 3,5), Euxebio Igarzabal (% 2,1).

## 2. Bertsolariaren jokabideak

Bi eratako informazioa jaso nahi dugu sail honetan. Bata, bertsolariak, bertsolari bezala, duen esperientzia, eskarmentua: non abestu duen, zein txapelketatan esku hartu duen, zer irakurtzen eta idazten duen, etab. Eta bestea, bertsolariaren gogo eta joera zenbait ezagutzea: hala nola, non eta zer abestea zaion atsegin, bertsolaririk gogokoenak zeintzuk dituen, etab.

### 2.1. Bertso-lekurik erabiliena

Alegia, non abesten du gehien bertsolariak? Besterik da jakitea non abesten duen gustoraen eta bere gogoz non abestuko lukeen.

*Non abestu duzu gehien?*

| | Zk. abs. | % |
|---|---|---|
| Tabernan (afalondo, etab.) | 58 | 41,7 |
| Plazaz plaza | 59 | 42,4 |
| Txapelketan | 12 | 8,6 |
| Eskolan | 9 | 6,5 |
| Besterik | 1 | 0,7 |
| GUZTIRA | 139 | 100,- |

Ez da dudarik, bertsolaria plazaz plaza (% 42,4) eta tabernaz taberna (% 47,1) dabil, batean adina bestean. Beste bertso-lekurik apenas dagoen, egon ere, molde eta tankera honetako bertsolaritzan. Funtzio tradizionalean jarraitzen du bertsolaritzak, elkarbizitzaren eta festaren "pozgarri eta pizgarri", esango genuke. Leku

klasikoak modu klasikoa eta funtzio tradizionala adierazten ditu. Funtzio eta modu tradizionalarekin esan nahi dut XIX-XX. mendeetakoa, haratago joan gabe. Bestelako funtzio sozialik eta molderik izan omen du lehenago bertsolaritzak: eliz bertsoa, hiletariena, profazaden bertsoa, andere noble bertsogileena, guda-bertsoa, Joxe Azurmendik aipatzen dituenez.

a) Bertsoaren leku soziala ez da berdina edozein eskualdetan. Halere, aski orekaturik datoz bi bertso-leku nagusiak (Ik. 1.10.). Plazaren erabilera gehixeago ikusten da Iparraldean (% 57,1) eta Busturialde/Markinaldean (% 51,9). Tabernan aritzea, aldiz, Deba arroan plazaren gainetik dator nabarmen (% 55,6).

b) Tabernan bertsotan aritu, batez ere 25-49 urte bitarteko bertsolari gordinak ari dira (Ik. 2.10.): edade honetako % 48,8 dabil tabernatan, plazatan dabilen % 37,2ren kontra. Zaharragoak batez ere plazaz plaza ibili dira (% 56,3), nahiz eta tabernan ere asko ibili (% 40,6). Gazteen bertso-lekua bai ez dela izan taberna. Txapelketa tabernaren aurretik agertzen da, egin kontu.

Honaino, gertakaria. Hau da, gertatuaren mailan jakin dugu non ibili den bertsolaria bertso-lanetan.

Orain, gertakaria barik, gogoa interesatzen zaigu. Eta non abesten du gogokoen bertsolariak, non kantatuko luke, aukeratzen utzita?

## 2.2. Bertso-lekurik gogokoena

*Non ari zara gustoraen bertsotan?*

| | 1 | | 2 | | 3 | | 4 | | GUZTIRA | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Zk. | % | Zk. | % | Zk. | % | Zk. | % | Zk. | % |
| Zehaztugabea | 3 | 2,1 | 18 | 12,9 | 23 | 16,4 | 94 | 67,1 | 138 | 24,2 |
| Jaialdietan | 26 | 18,6 | 43 | 30,7 | 53 | 37,9 | 2 | 1,4 | 124 | 21,8 |
| Plaza librean | 15 | 10,7 | 50 | 35,7 | 49 | 35,0 | 6 | 4,3 | 128 | 22,5 |
| Atalondoetan | 91 | 65,0 | 25 | 17,9 | 12 | 8,6 | - | - | 128 | 22,5 |
| Txapelketan | 3 | 2,1 | 3 | 2,1 | 3 | 2,1 | 31 | 22,1 | 40 | 7,0 |
| Besterik | 2 | 1,4 | 1 | 0,7 | - | - | 7 | 5,0 | 10 | 1,7 |
| GUZTIRA | 140 | 100,- | 140 | 100,- | 140 | 100, | 140 | 100,- | 568 | 100,- |

"Non ari zara gustoaren bertsotan" galdetuz, hiru aukera zehatz eta laugarren bat irekia eskaintzen zitzaizkion bertsolariari. Lehentasunen marka jarri behar zuen erantzunean.

Gustoen aukera ongi definitua du bertsolarien gehiengoak: lehen mailako aukera, bazkalondo edo afalondotako saioetara doa (% 64,7). Gainerako aukera guztiek ez dute honen lehentasunik, ezta hurrik eman ere. Ez plazak, ez jaialdiak konpeti lezakete sagardotegiarekin.

Bigarren lekuan, bai, hor aukeratzen dira plaza librea (% 36,0) eta jaialdia (% 30,2). Hirugarrenean ere, aukera bera, ordena desberdinean (% 38,1 jaialdiak eta % 34,5 plaza libreak). Txapelketak ez du tirarik, zertan esanik ez; gustoaren aldetik begiratuta, noski.

Eskualde, adin eta baldintza guztietan berdin-berdinak ote dira aukerak?

a) Lehentasunezko aukerari gagozkiolarik, zona guztien konportamendua berdin samarra da, bi salbuespenekin: Durangalde/Busturialde/Markinaldean afalosteko saioen tira besteetan baino txikiagoa da; eta batez ere Iparraldean oso txikia da (% 28,6), jaialdiak duelarik lehentasuna (Ik. 1.11.). Gazte izan, edadeko izan, eskualdeak erabakitzen du bertso-lekuaren aukera.

c) Goimailako ikasketak egin dituztenen multzoa (ez handia) bereizten da gainerakoengandik (Ik. 5.11.). Lehen aukeratzat ez dute hartzen afalosteko saioa, plaza librekoa baizik (% 44,4), beste guztien kontrara.

## 2.3. Epaimahaiko edo/eta gai-jartzaile

*Izan al zara inoiz epaimahaiko edo/eta gai-jartzaile?*

| | Epaimahaiko | | Gai-jartzaile | |
|---|---|---|---|---|
| | Zk. abs. | % | Zk.abs. | % |
| Bai | 38 | 27,3 | 77 | 55,4 |
| Ez | 100 | 71,9 | 62 | 44,6 |
| GUZTIRA | 138 | 100,- | 139 | 100,- |

Bertsolariaren lana, askotan, ez da agortzen jendaurreko saioan. Bertsolaritza, gaur, gizarte-fenomeno zabala da, garai batekoaren aldean. Ondorioz, saioak erruz ugaldu dira. Eta, onerako nahiz txarrerako, saio horietako askok txapelketa-egitura dute azken urteotan. Eta batez ere, gai-jartzailearen presentzia bazter eta txoko guztietara zabaldu da.

Egoera honetan, zein neurritan eta zein modutan parte hartzen du bertsolariak saio horietan, aparte bertsolari bezala?

Epaile edo tribunaleko bezala gutxitan ikusten da bertsolaria (% 27,3). Lan-modu hori bertsozaleen bizkar doa ia osorik.

Gai-jartzaile bezala, bai, maizago aurki dezakegu han eta hemen. Erdia baino gehiago (% 55,4) ibilia da gaia jartzen.

Gaia jartzea epaitzen aritzea baino nahiago ote du bertsolariak? Seguru baietz.

Gehiago, askoz gehiago, ibili da bertsolaria gai-jartzen epaitzen baino. Zergatik ote? Batetik, aukera gehiago duelako gai-jartzaile bezala, saio gehienak ere horrelakoak direnez. Eta bestetik, gai-jartzaile bezala bere burua jator ikusten duelako eta bestean ez, seguru asko.

### 2.4. Txapelketetan esku hartzea

Zein txapelketatan parte hartu duten galderari erantzutean, % 32,7 kasutan erantzuna ez da zehatza. Izen eta guzti agertu diren txapelketak 23 dira. Denetik dago lehen hamarren artean: txapelketa orokorrak, sektorialak, lokalak, irratikoak, herriartekoak.

Hona lehen hamarren zerrenda, partehartzaile-kopuruaren arabera ordenaturik:

1.- 86ko Txapelketa Nagusia (76 bertsolari).

2.- 82ko Txapelketa Nagusia (46 bertsolari).

3.- Probintziako Txapelketa (41 bertsolari).

4.- Zaldibiako Txapelketa (28 bertsolari).

5.- "Fernando Amezketarra" Txapelketa (26 bertsolari).

6.- Eskolarteko Txapelketa (23 bertsolari).

7.- Zarauzko "Lizardi" Txapelketa (23 bertsolari).

8.- Errenteriako "Xenpelar" Txapelketa (23 bertsolari).

9.- Gabiriako Txapelketa (21 bertsolari).

10.- Idiazabalgo "Zepai" Txapelketa (21 bertsolari).

Zertan esanik ez da: zerrenda honek ez du estatistikaren baliorik, bestelakoa baizik. Zein txapelketa gogoratzen eta seinalatzen duen bertsolariak jakiteko balio du. Zerrenda honetan ez daude denak, hori ez, baina bai bertsolariak balioztatzen dituenak. Hori da inportantea hemen.

## 2.5. Euskal kultura idatziaren aurrean

Ahozko kulturaren edo produkzioaren barnean kokatu ohi da bertsogintza. Ez dago, ordea —eta gero eta gutxiago—, kultur produkzio isolaturik. Liburuak, idatzizko kulturaren sinbolo den liburuak, ukatu barik, osatu egiten du ahozko kultura. Literatura landuak herri-literatura osatu beharko lukeen edo osatzen duen bezala.

Baina bi kultur moduok ez dute berdin funtzionatzen. "Bitartekoa mezu" ere badenez, kultura idatziak bere "legeak" ditu eta bertsolaritzak beste batzuk: desberdin "pentsatzen" da, desberdin osatzen da esaldia, erritmoak bestelakoak dira, haria ere bai.

Bestalde, liburuak ez du esan nahi soilki bestelako kultur modua, beste kultur maila ere adierazten du normalean. Gizakume "ikasia"ren sinbolo ere bada liburua. Kultura modernoaren transmisioa idatziz egiten bait da.

Kontsiderazio hauek gogoan, euskarazko kultura idatziaren aurrean zer jarrera duten bertsolariek jakin nahi izan dugu, galdetuz zer eta zenbat irakurtzen eta idazten duten.

*Zenbat irakurtzen eta idazten duzu euskaraz?*

| | Irakurri | | Idatzi | |
|---|---|---|---|---|
| | Zk. abs. | % | Zk.abs. | % |
| Asko | 64 | 46,0 | 27 | 19,4 |
| Gutxi | 69 | 49,6 | 84 | 60,4 |
| Batere ez | 6 | 4,3 | 28 | 20,1 |
| GUZTIRA | 139 | 100,- | 139 | 100,- |

Taula txiki honetako informazioa esanguratsua da oso: ia-ia bertsolarien erdiak gutxi irakurtzen du. Eta bada batere irakurtzen ez duena: % 4,3. Zergatik irakurtzen ez: ohiturarik ezagatik ala ez jakiteagatik? Ohitura ala ezina den erabaki aurretik, kontu egin

dezagun % 3,5 direla bertsolarien artean analfabetotzat jo genitzakeenak.

Asko irakurtzen duenik ere bada bertsolarien artean, duela 25 urte ez bezalako proportzioan seguru asko: % 46. Honatx epe ertainera bertsolaritzaren irudia eta eredua errotik alda dezakeen datu berrietako bat: irakurzaletasuna, eskolaren luzapen edo ordezko dena.

Gaurko bertsolariak irakurri ezezik, idatzi ere egiten du. Idazkintzan ari ohi direnak irakurzaleak baino gutxiago dira, bidezko denez. Baina deus idazten ez dutenak beste dira ia asko idazten dutenak (% 19,4).

Hurrengo taula honetan agertzen da argi eta garbi irakurketaren eta idazketaren arteko erlazioa bertsolarien baitan.

*Euskaraz irakurri eta idatzi*

| Irakurri-Idatzi | Zk.abs. | % |
|---|---|---|
| AS-AS | 26 | 18,5 |
| AS-GU | 35 | 25 |
| AS-EZ | 4 | 2,8 |
| GU-GU | 48 | 34,2 |
| GU-EZ | 20 | 14,2 |
| EZ-GU | 2 | 1,4 |
| EZ-EZ | 5 | 3,5 |
| GUZTIRA | 140 | 100,- |

Multzorik handiena "gutxi irakurri/gutxi idatzi" (GU-GU) horretan biltzen da (% 34,2), harritzekoa ez dena, ahozko literaturgilea izaki bertsolaria. Baina badira eboluzioa joera berriz seinalatzen duten datuak: lauetatik batek (% 25), gutxi idatzi arren, asko irakurtzen du (AS-GU), eta batez ere bada multzo dexente bat irakurri eta idatzi, biak, asko (AS-AS) egiten dituena (% 18,5). Batez ere gazte-jendea eta ikasia bait da joera hori dakarrena (Ik. 2.13.).

Eskualdeka (Ik. 1.13.), Bizkai aldean irakurzaletasuna goitik dabil; behetik, aldiz, Nafarroan eta oso behetik Iparraldean.

Bai irakurtzeko joera eta bai idazteko erraztasuna, kategoria sozialen arabera, enplegatu eta ikasle-irakasleen artean aurkitzen da (Ik. 4.13.).

Zer irakurtzen/idazten dutenaz ere, pare bat ohar egin daiteke taulen aurrean.

*Zer irakurtzen duzu euskaraz?*

| | Zk. abs. | % |
|---|---|---|
| Liburuak eta aldizkariak | 43 | 30,9 |
| Literatura | 8 | 5,8 |
| Bertso-liburuak | 43 | 30,9 |
| Egunkariak | 21 | 15,1 |
| Ez dut irakurtzen | 6 | 4,3 |
| Denetik | 10 | 7,2 |
| Besterik | 8 | 5,8 |
| GUZTIRA | 139 | 100,- |

*Zer idazten duzu euskaraz?*

| | Zk. abs. | % |
|---|---|---|
| Liburuak | 4 | 2,9 |
| Artikuluak | 4 | 2,9 |
| Bertsoak | 51 | 36,7 |
| Eskutitzak | 15 | 10,8 |
| Bertsoak eta artikuluak | 17 | 12,2 |
| Ez dut idazten | 30 | 21,6 |
| Idazten dudan guztia | 9 | 6,5 |
| Lanekoak /eskolakoak | 8 | 5,8 |
| Besterik | 1 | 0,7 |
| GUZTIRA | 139 | 100,- |

Esan dezakegu, badagoela bertsolari irakurzale bat, denetik irakurtzen duena, liburu nahiz aldizkari, literatura nahiz informazio. Bera da nagusi irakurzaleen artean: % 43,9. Honen ondoan, bada bertsolari irakurzale funtzional bat, alegia, bere ofizioari loturiko liburu-mota soilik irakurtzen duena: izan ere, % 30,9k bertso-liburuak irakurtzen ditu, ez besterik.

Bertsolari idazleak zer idazten du? Bertsoak, lehenengo (% 36,7). Gero, bada beste jenero bat, komunikabideetan bertsola-

riei eskatu ohi zaiena: bertsoak prosarekin batean idaztea. Formula honetan ari direnak % 12,2 dira. Hortik goragoko mailan ari direnak, artikuluak zein liburuak idazten dituztenak, gutxi dira, baina badira, lehen ez bezala (% 5,8).

Gutxi hauen ondoan, bada andana bat, guztia, idazten duen oro, euskaraz egiten duena (% 12,3) bizitza pribatuan zein publikoan.

## 2.6. Bertso-motarik gogokoena

### 2.6.1. Neurririk gogokoena

*Zein bertso-mota duzu gogokoen (neurria)?*

| | Zk. abs. | % |
|---|---|---|
| Zehaztugabea | 1 | 0,7 |
| Zortziko txikia | 35 | 25,2 |
| Zortziko nagusia | 73 | 52,5 |
| Hamarreko txikia | 12 | 8,6 |
| Hamarreko nagusia | 5 | 3,6 |
| Neurri ugari | 12 | 8,6 |
| Besterik | 1 | 0,7 |
| GUZTIRA | 139 | 100,- |

Ez dago duda-izpirik neurri-kontuan: erdiak baino gehiagok (% 52,5) zortziko nagusia du maite. Eta laurdenak (% 25,2) zortziko txikia. Gainerako neurriek ez dute, banaka-banaka, tira handirik, ikusten denez.

Ez da kasu guztietan neurrien aukera bera egiten.

a) Bi eskualdetan (Ik. 1.11.), besteetan baino tira txikiagoa du zortziko nagusiak. Bai, zortziko txikiaren konpetentzia du Deba arroan eta batez ere Urola/Kostaldean.

b) 50 urtetik gorakoen artean, ia parean dabil zortziko txiki eta nagusiaren zaletasuna (Ik. 2.11.). Beste guztietan, nagusiaren aldeko zaletasuna gailentzen da.

c) Etxe barneko tradiziotik datozenek zortziko nagusiaren ondo-ondoan aukeratzen dute zortziko txikia (Ik. 3.11.). Eskola-

tik datozenetan, erdiak zortziko nagusia aukeratzen du, eta laurdenak hamarreko txikia.

d) Ugazabei zortziko nagusia adina gustatzen zaie ia zortziko txikia (Ik. 4.11.). Beste puntan ditugu ikasleak. Hauen bigarren aukera, hamarreko txikia da.

e) Lehen mailako ikasketak eginek zortziko txikia dute nahiago. Eta goimailakoak egindakoek hamarrekora dute joera (Ik. 5.11.).

### 2.6.2. Gai-motarik gogokoena

*Zein bertso-mota duzu gogokoen (gaia)?*

| | Zk. abs. | % |
|---|---|---|
| Zehaztugabea | 2 | 1,4 |
| Sentimentala | 42 | 30,2 |
| Umorezkoa | 57 | 41,0 |
| Serioa | 21 | 15,1 |
| Gai ugari | 3 | 2,2 |
| Edozein | 8 | 5.8 |
| Besterik | 6 | 4,3 |
| GUZTIRA | 139 | 100,- |

Umorezko gai-mota du gogokoen multzorik handienak (% 41). Sentimentala dator bigarren (% 30,2), botu dexenterekin hau ere, zeren eta hurrengoa, gai serioa, asko jaisten bait da (% 15,1).

a) Urola/Kostaldean eta Goierri/Tolosalde/Donostialdean (Ik. 1.15.) gogokoena ez da umorezko bertsogintza, sentimentala baizik.

Aitzitik, Deba arroan eta Nafarroan umorezko bertsozale dira gehienik.

Bizkaian gai serioak badu erakarmenik, sentimentalak adina bai, lehena umorezkoa bada ere.

b) 50 urtetik gorakoek gai sentimentalaren aldeko dira nagusiki (% 43,8), gainerakoetan ez bezala (Ik. 2.15.).

c) Bai enplegatuen eta bai irakasleen herenak sentimentala du maiteago (Ik. 4.15.).

### 2.6.3. Bertso-modurik gogokoena

*Zein bertso-mota duzu gogokoen (modua)?*

| | Zk. abs. | % |
|---|---|---|
| Zehaztugabea | 1 | 0,7 |
| Librea | 41 | 29,5 |
| Bakarka | 19 | 13,7 |
| Tema | 70 | 50,4 |
| Modu ugari | 3 | 2,2 |
| Edozein | 3 | 2,2 |
| Besterik | 2 | 1,4 |
| GUZTIRA | 139 | 100,- |

Bertsolarien erdiek, juxtu erdiek, (% 50,4) tema aukeratzen dute bertso-modurik gogokoentzat (kasu: 'bertso-era dialektikoa' edo da "tema", ez 'gaia').

Bertsolari dexente dago (% 29,5), bertso-era librean aritzea gustokoen duena.

Bakarkako modua, aldiz, askoz gutxiagok hartzen du (% 13,7) lehen aukeratzat.

Modu hauek ez dira, ez, toki eta adin guztietan balio berekoak.

a) Hasteko, temazaletasuna, bere osoan, nagusi bada ere, eskualde guztietan ez da tamaina berean nagusitzen (Ik. 1.16.). Teman aritzearen zaleenak Iparraldean, Deba arroan, Araba/Bilbo Handiaren inguruan eta Goierri/Tolosalde/Donostialdean daude. Ez dira hain temazale Nafarroan, Urola/Kostaldean eta, gutxien, Durangalde/Busturialde/Markina/Ondarroan.

b) Zenbat eta gazteago, eta temazaleago dela bertsolaria, ematen du (Ik. 2.16.). 50 urtetik gorakoetan % 40,6k tema aukeratzen du, eta aukera bera egiten dutenak % 76,2 dira 25 urtez azpikoetan.

Arras bestaldera gertatzen da gai librearen aukerarekin. Gazteenen artean oso gutxik (% 9,5) maite du modu hori, eta alderantziz 50 urtez gorakoen artean (% 56,3).

## 2.7. Bertsolari zahar gogokoenak

Hiru izen emateko eskatu guk, eta bai bertsolariek eman ere. Zehaztu gabeko gutxi dago erantzunetan (% 3,6).

Bertsolari "zahar"en izenak eskatu genituen.

Bertsolari bakoitzak erabaki behar zuen zein den gazte eta zein zahar. Egia esan, badirudi "gogoko" izateak aurrea hartu diola edadeari. Bestela ez da esplikatzen, erlatibotasun guztiak kontutan hartuta ere, Peñagarikano bat, adibidez, nola aipa daitekeen "zahar"en artean.

Hona hemen zerrenda osoa, botu gehien izan duenetik gutxien izan duenaganainoko ordenan.

*Bertsolari zaharretan zeintzuk dituzu gogokoen?*

| | Zk. abs. | % |
|---|---|---|
| Uztapide | 66 | 15,8 |
| Lasarte | 55 | 13,2 |
| Basarri | 48 | 11,5 |
| Xalbador | 43 | 10,3 |
| Txirrita | 34 | 8,2 |
| Agirre | 22 | 5,3 |
| Lopategi | 20 | 4,8 |
| Lazkao-Txiki | 19 | 4,6 |
| Lazkano | 13 | 3,1 |
| Xenpelar | 10 | 2,4 |
| Amuriza | 9 | 2,2 |
| Enbeita | 8 | 1,9 |
| Lizaso, Jose | 8 | 1,9 |
| Bilintx | 7 | 1,7 |
| Otaño | 7 | 1,7 |
| Mattin | 4 | 1,0 |
| Mitxelena | 2 | 0,5 |
| Peñagarikano | 2 | 0,5 |
| Gorrotxategi | 2 | 0,5 |
| Etxahun | 1 | 0,2 |
| Gaztelu | 1 | 0,2 |
| Mugartegi | 1 | 0,2 |
| Narbarte | 1 | 0,2 |
| Besterik | 34 | 8,1 |
| GUZTIRA | 417 | 100,- |

Botatuenak, oro har, gazteak dira bertsolaritzaren historian. Harrigarri bada ere, lehen hamar botatuenetatik 6 oraindik bizi dira, eta batzuk ibili dabiltza bertsogintzan. Gipuzkoako "eredua" deitu den hori ateratzen da gailen eta nagusi. Lehen 10 izen horiekin "gipuzkera osatua" aterako litzaiguke.

Harrigarri gertatzen den beste zerbait, zera da: klasikotzat ezagutzen ditugun batzuk (hala nola, Otaño bat, Bilintx bat) oso atzean datozela bertsolarien beren hautapenetan.

Izen-preferentziak desberdinak dira geografikoki, kronologikoki, sozialki, kulturalki, eta beste. Joera eta bertso-era desberdinak antzeman daitezke batean eta bestean egin duten bertsolari-aukeraketa hurbildik segituz:

a) Adibidez, Gipuzkoa eta Nafarroan lehen hiru izenak eredu nagusikoak dira, hots, Uztapide-Lasarte-Basarri (Ik. 1.17.). Baina ez da hirukote bera nagusitzen ez Araba/Bizkaian eta ez Iparraldean. Hemen Xalbador-Mattin-Uztapide datoz lehen tokietan. Eta Araba/Bizkaian: Xalbador-Uztapide-Txirrita.

Uztapide, bai, nonnahi agertzen da, baina bera bakarrik horren goian.

b) Adin guztietan ere ez dira lehentasun berdinez ematen izen berak (Ik. 2.17.).

Desberdintasuna gazteenek markatzen dute, batez ere hauek. 25 urtez azpiko gazteek, Txirrita-Xalbador-Lasarte hirukotea aukeratzen dute.

Gainerako adinetan, Uztapide eta Lasarte denetan agertzen dira. Hirugarren lekua noiz Basarrik, noiz Xalbador-ek, noiz Agirrek hartzen dute.

Adin guztietakoek berdin aukeratzen dutena Lasarte da.

c) Eskolak ere, beste faktore eragileen ondoan (etxea, lagunartea, zaletasuna...), eredu desberdina dakar (Ik. 3.17.). Eskolarentzat gogokoena ez da Uztapide-Lasarte-Basarri hirukotea, beste hau baizik: Txirrita-Xalbador-Xenpelar. Eskolakoen eredu berbera dute ikasle-irakasleek, izen "klasiko"ez osatua (Ik. 4.17.).

d) Ikasketa-mailaren arabera, Txirrita-Xalbador bikotearen presentzia etengabe agertzen da, lehen mailatan, batxilergotik gora, goreneko mailan Xenpelar hirugarrena delarik (Ik. 5.17.).

Laburbilduz, zer esan? Bada hirukote nagusi bat, gehiengoaren aukerari erantzuten diona. Gipuzkoan, sasoiko bertsolari arruntaren baitan ematen da bertsogintzaren "eredu" bat ere suposatzen duen hautapen hori. Baina bada bertsolari-sail bat, oraingoz gutxiengoa, izen eta "eredu" diferentez datorrena. Izen klasikoagoak, zaharragoak, nagusitzen dira hemen, beste tradizio bat suposatzen dutenak. Euskara batuarekin gertatu zena datorkit gogora: gipuzkera hutsa eta XIX-XX. mendeko idazleak bete-betean nagusi zirenean, joera berritzaileak idazle klasikoetara (Axular, etc.) eta beste euskalkietara (lapurtera, adibidez) jo zuen. *Mutatis mutandis*, nago, honelako zerbait gertatzen ote den hemen ere. Kontua da, bai periferian (Araba/Bizkaia/Iparraldea), bai gazteengan, bai kanal berrietan (eskola) eta bai ikasiengan sumatzen dela tradizio klasikoagoetarako joera. Izenak? Badakigu: Xalbador-Txirrita-Xenpelar-Bilintx.

Hautapen honek ez ote du adierazten bertsogintza-eredu diferentea, eta ez ote dakar bertso-era berri bat? Geroak esango du.

## 3. Bertsolariaren eritziak eta jarrerak

### 3.1. Egungo bertsogintzaren balorazioa

Hirugarren zati honetan, hainbat arazori buruz bertsolariak duen eritzia, pentsaera, sentiera eta jarrera, posizionamendua edo portaera arakatuko ditugu. Arazo horiek denak bertsoarekin zerikusi arteza dutenak dira beti ere. Batzuetan bertsogintzaren alderdi formalak eta barnekoak dira. Eta gehienetan, bertsolaritzaren alderdi sozialak.

Egungo bertsogintzaz balorazio orokorra eskatu diogu bertsolariari. Balorazio orokorra, baina ez airean egina, puntu zehatzetara mugatua baizik.

Nork ez du entzun behin eta berriz bertsolaritza aldatuz doala? Eboluzioa omen dago protagonisten aldetik, gaien aldetik, doinuen aldetik, teknikan, estiloan, entzulegoaren aldetik: nahi den guztia. Oro har, gaurko gizartean txertatu eta egokitzen ari da, garai bateko euskal gizarte nekazaria utziz. Aldaketa-prozesu honetan ez da nahitaez dena on edota dena txar. Bego. Baina zer da on eta zer da txar? Nola baloratzen du prozesua protagonistak berak, bertsolariak?

Zer da espreski eta zehatz-mehatz galdetu dena? Galderak, joerak nabarmentzekoak izan dira kasu guztietan. Goazen puntuz puntu:

a) Doinua: Aberastu egin al dira doinuak edota garrantzi gehiegi ematen zaio orain doinuari?

b) Teknika (errima, neurria, etena eta beste, kontutan izanik): aberastu egin al da teknika edota garrantzi gehiegi ematen zaio orain teknikari?

c) Gaia: hobeto ala okerrago heltzen ote zaio orain gaiari?

d) Ofiziotan: egokiago erantzuten ote zaio orain elkarri ala batak besteari ez dio erantzun ere egiten?

e) Hizkuntza (alegia, lengoaia, baliapideak, irudiak, metaforak, etab.): egokiago ala traketsagoa da orain hizkera?

f) Euskara (alegia, gramatika, hiztegia, etab.): euskara aberatsagoa ala pobreagoa erabiltzen da gaur?

Hona hemen, laburbildurik, bertsolariaren eritzia, planteatu zaizkion sei arazoetiko.

*Azken aldi honetan aldatu egin omen da bertsolaritza. Onerako batzuentzat, txarrerako beste batzuentzat. Zer-nolako aldaketa izan da hori zure eritzian?*

| | Doinua | | Teknika | | Gaia | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Zk. | % | Zk. | % | Zk. | % |
| Zehaztugabea | 1 | 0,7 | - | | 1 | 0,7 |
| Orain hobeto | 117 | 83,6 | 111 | 79,3 | 106 | 75,5 |
| Lehen hobeto | 17 | 12,1 | 19 | 13,6 | 16 | 11,4 |
| Berdin | 3 | 2,1 | 8 | 5,7 | 7 | 5,0 |
| Segun eta | - | - | - | - | 4 | 2,9 |
| Besterik | 2 | 1,4 | 2 | 1,4 | 6 | 4,3 |
| GUZTIRA | 140 | 100,- | 140 | 100,- | 140 | 100,- |

| | Ofizioa | | Hizkuntza | | Euskara | | GUZTIRA | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Zk. | % | Zk. | % | Zk. | % | Zk. | % |
| Zehaztugabea | 1 | 0,7 | 1 | 0,7 | 2 | 1,4 | 6 | 0,7 |
| Orain hobeto | 55 | 39,3 | 105 | 75,0 | 103 | 73,6 | 597 | 70,9 |
| Lehen hobeto | 60 | 42,9 | 20 | 14,3 | 22 | 15,7 | 154 | 18,3 |
| Berdin | 11 | 7,9 | 4 | 2,9 | 2 | 1,4 | 36 | 4,2 |
| Segun eta | 8 | 5,7 | 5 | 3,6 | 5 | 3,6 | 22 | 2,6 |
| Besterik | 5 | 3,6 | 5 | 3,6 | 6 | 4,3 | 26 | 3 |
| GUZTIRA | 140 | 100,- | 140 | 100,- | 140 | 100,- | 841 | 100,- |

Eboluzioaren batezbesteko balorazioa biziki positiboa da. Gehiengo handi batek begi onez ikusten du bertsolaritza egiten ari den aldaira eta gogoz aitortzen du bide honen onarpena. Onarpen-indizea, batezbeste, % 71,4 da. Gaitzespen-indizea, aldiz, % 18,3 bakarrik. Eboluzioaren onarpena/gaitzespena neurtzeko jarri ditugun puntuetan onarpen handiena bildu duena, doinuaren aberastasuna izan da. Negatiboki baloratu dute, ostera, "ofiziotan" aritzeak izan duen eboluzioa. % 42,9k uste du, % 39,3ren aurka, "ofiziotan" okerrago egiten dela orain, eta hori, elkarri ez zaiolako erantzuten, dialektika fin hori falta delako. Bertsolarien ustetan, bada, azken urteotan ematen ari diren aldaketetan puntu beltz bakarra horixe da, "ofiziotan" gertatzen dena. Bestela, gainerako puntuetan 20-25 bat bertsolari bakarrik dira eboluzio hau txartzat jotzen dutenak.

*Aldaketaren onarpen/gaitzespen indizea*

| | Guztira | |
|---|---|---|
| | Positiboa | Negatiboa |
| | % | % |
| Doinua | 83,6 | 12,1 |
| Teknika | 79,3 | 13,6 |
| Gaia | 75,7 | 11,4 |
| Ofiziotan | 39,3 | 42,9 |
| Hizkuntza | 75,0 | 14,3 |
| Euskara | 73,6 | 15,7 |
| Onarpen indizea | 71,0 | - |
| Gaitzespen indizea | - | 18,3 |

a) Geografikoki (Ik. 1.18.), onarpen-indizerik altuena Durangalde-Busturialde-Markina-Ondarroa eskualdeetan du eboluzioak (% 76,6). Onarpen-indizerik eskasena Araba/Bilbo Handi inguruan (% 65) eta Goierri-Tolosalde-Donostialdea eskualdeetan (% 66,6) aurkitzen dugu, arrazoi diferenteengatik batean eta bestean: lehen kasuan, hizkuntz eboluzioa ez dutelako positiboki baloratzen eta erdizka hizkuntzan eta euskaran izana; eta bigarrenean, ofiziotakoagatik.

Eboluzioa negatiboen baloratzen duen lehen zona ere Goierritik beherako hori berori da: % 26,1eko gaitzespen-indizea du eboluzioak. Urola-Kostaldea dator gaitzespen-indizean bigarren (% 20,6).

Onarpen-indizearen arabera, honela sailkatzen dira zonak: 1) Durangaldea, Busturialdea, Markina/Ondarroa (% 76,6); 2) Iparraldea (% 73,7); 3) Deba arroa (% 73,1); 4) Nafarroa (% 72,9); 5) Urola/Kostaldea (% 66,6); 7) Araba/Arratia/Bilbo Handia/ Plentzia/Mungia (% 65).

b) Urteetan sailkaturik, garbi dago kritikoenak 25 urtez azpikoak direla, alde handiz zorrotzenak (Ik. 2.18.). Onarpen-indizerik eskasena adinaldi honetantxe aurkitzen da (% 61,9) eta urte-sail berean gaitzespen-indizerik altuena ere (% 26,1). Gazte hauek batez ere onartzen ez dutena, ofiziotan eman den aldaera da. 45-49 urte bitartean aurkitzen dugu gauzen martxarekin bat datozenen kopururik handiena (% 76). 50 urtez gorakoek ere ez dute batere gaizki ikusten oraingo bide hau (% 72,3 ados, eta ez ados % 19,8).

c) Bertsolarigoa kategoria sozialetan sailkatuta, badira aldeak, eta ez txikiak, onarpen/gaitzespen kontuan (Ik. 4.18.).

Onarpen-indizerik handiena langile kualifikatuen artean dago (% 76,8), eta txikiena (% 59,5) ikasleen artean. Bi puntutan intziditzen dute ikasleek: batez ere ofiziotakoan, jakina, baina baita gaietan ere.

Gaitzespen-indizerik altuena jubilatuen kategorian dago (% 35,7). Eritzi nahikoa negatiboa dute hauek zenbait punturi buruz, baina modu berezian doinuari dagokionean: erdiak baino gehiagok (% 57,1) uste du garrantzi gehiegi ematen zaiola orain doinuari.

Eboluzioaren balorazio kritikoa egiteko orduan, bertsolari asko ez da konformatu bere botua seinalatzearekin. Bere eritziaren argumentuak, ohar gisa bada ere, eskaini nahi izan ditu inkesta-orrian. Oharrik gehienak ofiziotakoari, hizkuntzari eta euskarari buruzko alorretan mamitzen dira.

Aldaketaren alderdi onak aipatzean, puntu hauek azpimarratzen dira: oro har, bertsolaritzaren maila igo egin dela, altxatu, teknikaz hobetu eta ikuspegiz zabaldu. Hizkuntzaren alorrean, hizkuntza zuzenagoa, garbiagoa, egokiagoa eta landuagoa erabiltzen dela, errekurtso gehiago erabiltzen dela, kultur maila bera ere igo den heinean. Eta euskararen alorrean, euskara batuagoa eta aditzetan aberatsagoa dela oraingoa.

Aldaketaren alderdi onak baino gehiago aipatzen dira alderdi txarrak, honelakoetan egin ohi denez. Pare batek uste du bertsolariari gehiegi exigitzen zaiola gaur. Globalki hartuta, gaurko ber-

tso-erak galdu egin ditu lehengoaren freskotasuna, txispa, bizitasuna, ziria. Ofiziotakoan nabarmentzen da hori batez ere. Hizkuntzaren erabilera pobretu egin da, erdalkeriaz eta baliapide eskasez, artifizialagoa da orain. Euskararen alorrean, estruktura txarragoak erabiltzea eta espresioak galdu izana salatzen da.

Hizkuntzaren zein euskararen erabilera dela eta, behin baino gehiagotan bereizketa interesgarria egiten da: goimailako bertsolariek hizkera aberatsagoa eta egokiagoa darabilte eta behemailakoek traketsagoa, pobreagoa.

### 3.2. Bertso-saioekiko eritzia

#### 3.2.1. Bertso-saioen iraupena

*Zenbat denborako saioak egin beharko lirateke zure ustez, leku itxietan eta irekietan?*

| | Itxietan | | Irekietan | |
|---|---|---|---|---|
| | Zk. abs. | % | Zk.abs. | % |
| Ordu-erdikoak | - | - | 42 | 30,0 |
| Hiru ordu-laurdenekoak | - | - | 43 | 30,7 |
| Ordubetekoak | 18 | 12,9 | 44 | 31,4 |
| Ordubetetik ordu t'erdirakoak | 82 | 58,6 | - | - |
| Ordu t'erditik bi ordutarakoak | 37 | 26,4 | - | - |
| Segun eta | 1 | 0,7 | 8 | 5,7 |
| Besterik | 2 | 1,4 | 3 | 2,1 |
| GUZTIRA | 140 | 100,- | 140 | 100,- |

Ez dago komentariotan zertan luzaturik taula bikoitz honen aurrean.

Leku itxiko saioen iraupenaz ideiak finkatuago dituzte bertsolariek. Erditik gora (% 58,3) ordubetetik ordu t'erdirako saioen alde daude. Bertsolari-mordoa da (% 26,6), saio luzexeagoak nahiago dituena, ordu t'erditik bi ordutarakoak, hain zuzen.

Leku irekiko saioetan, berriz, aukerak hirutan banatzen dira, multzo berdintsutan: % 31,7k ordubeteko saioak nahi ditu. Eta gainerakoek, laburxeagoak: % 30,2k hiru ordu-laurdenekoak eta beste 30,2k ordu-erdikoak.

Geografikoki sailkaturik, esan behar da, emanaldi itxietan, Iparraldean ia osoki direla saio luzearen aldekoak (ordu t'erditik bi ordutarakoa) eta joera dexentea dago horren alde Deba arroan ere (Ik. 1.19.).

### 3.2.2. Bertsolari-kopurua saioko

*Zenbat bertsolarik hartu behar luke parte, bai leku itxiko eta bai leku irekiko saioetan?*

| | Itxietan | | Irekietan | |
|---|---|---|---|---|
| | Zk. abs. | % | Zk. abs. | % |
| Bik | - | - | 44 | 31,4 |
| Hiruk | - | - | 35 | 25,0 |
| Lauk | 24 | 17,1 | 46 | 32,9 |
| Seik | 95 | 67,9 | 6 | 4,3 |
| Zortzik | 15 | 10,7 | - | - |
| Bitik laura | - | - | 8 | 5,7 |
| Lautik seira | 6 | 4,3 | - | - |
| Besterik | - | - | 1 | 0,7 |
| GUZTIRA | 140 | 100,- | 140 | 100,- |

Taula honek ere aurrekoaren eite bera du: leku itxiko partehartzaileen kopurua definiturik dago; ez, neurri berean, toki irekiko saioei dagokiena.

Leku itxiko saioak sei bertsolariz osatuak nahi ditu gehiengoak (% 68,3). Laukotea hobesten duen talde bat ere bada (% 16,5).

Leku irekiko partaideen kopurua hagitz problematikoagoa da. Lau bertsolari aukeratzen dute % 32,9k. Orpoz orpo jarraitzen zaizkie bi aukeratzen dutenak (% 31,4). Hiru bertsolariz osaturiko saioak nahi dituztenak ere ez datoz hain urruti (% 25).

Badirudi, azken batean, datu erabakitzailea zera dela: laueko ala gutxiagoko taldea.

a) Laueko taldearen alde daude Araban, Bizkaian eta Iparraldean gehienak (Ik. 1.20.).

Bizpahiruko taldea proposatzen dute Nafarroan ia denek, eta gehienek Urola/Kostaldean, Donostialde/Tolosalde/Goierrin eta Deba arroan.

b) Adin guztietan gehiengoa bizpahiru bertsolariko kopuruaren aldekoa da (Ik. 2.20.). Bai, baina 25-49 urte bitartekoen artean erdia pasaxea (% 51,1) dago bizpahiruko taldetxoaren alde. Hauek baino alderago daude gazteagoak (% 71,5) zein zaharragoak (% 59,4).

Oro har, seguru da leku itxiko emanaldien eredua dagoeneko finkatua dagoela bertsolarien baitan. Baina ematen du ez dagoela eredu jakin bat saio horiek nola eratu jakiteko: sakabanaturik daude eritziak, bai saioen iraupenari buruz, bai eskuhartzaileen kopuruari buruz eta bai, gero ikusiko dugunez, gai-jartzailearen komenentziari buruz.

### 3.2.3. Bertsolarien aukera

*Zure ustetan zeinek aukeratu beharko lituzke saioetarako bertsolariak?*

| | Zk. abs. | % |
|---|---|---|
| Bertsolariek | 3 | 2,2 |
| Antolatzaileek | 96 | 69,1 |
| Bertsolari-Elkarteak | 25 | 18,0 |
| Antolatzaileek eta Bertsolari-Elkarteak | 12 | 8,6 |
| Besterik | 3 | 2,2 |
| GUZTIRA | 139 | 100,- |

Bertsolarien aukera, bai, baina ez txapelketan, bertso-saio arruntetan baizik.

Galdera honen azpian dagoen arazoa, bertsolari batzuentzat, larria da: ez dituzte saioetara deitzen, plaza gutxi egiten dute urtean zehar. Beste batzuk geratu gabe, abasto eman ezinik, dabiltzan bitartean, noski.

Oraingo ohiturari jarraiki, eskaintza/eskari legeak agintzen du soilki, merkatuak, saio-antolatzaileen bidez. Dagoen horretan utzi ordez, bada egoeraren aldaketa eskatzen duenik. Bada, kasurako, Bertsolari-Elkarteari edo, saio-orekatzaile eta erreguladore-eginkizuna eman nahi liokeenik, adibidez, asko dabilen bat gutxi dabilen batekin jarriz, etab.

Hori al da soluzioa? Zer pentsatzen dute horretaz bertsolariek?

Orain arteko bidetik segitzea nahi dute gehienek (% 69,1), antolatzaileen esku utziz aukera. Bada multzo bat (% 18) Bertsola-

ri-Elkarteari egiteko hori egotzi nahi liokeena, Elkarteak, berak bakarrik, bere gain har dezan (% 18) edota Elkarteak antolatzaileekin elkar-lanean era dezan (% 8,6). Dena den, esan behar da gutxi direla formula honen aldekoak, antolatzaileen esku uztearen aldekoen ondoan.

### 3.2.4. Gai-jartzailearen premia

*Gai-jartzailerik behar al da?*

| | Leku itxian | | Leku irekian | | Gainerakoetan | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Zk.abs. | % | Zk. abs. | % | Zk. abs. | % |
| Zehaztugabea | - | - | 3 | 2,1 | - | - |
| Bai | 138 | 98,6 | 81 | 57,9 | 17 | 12,1 |
| Ez | 1 | 0,7 | 50 | 35,7 | 120 | 85,7 |
| Besterik | 1 | 0,7 | 6 | 4,3 | 3 | 2,1 |
| GUZTIRA | 140 | 100,- | 140 | 100,- | 140 | 100,- |

Gai-jartzaileak erruz ugaldu dira bertso-saioetan. Agian txapelketa-sistemaren imitazioz, molde bereko saioak antolatzen omen dira bazter guztietan, bestelako formulak galtzeko arrisku eta guzti. Nagusitu den molde :orretan gai-jartzaileak duen gehiegizko presentzia batek baino gehiagok salatu du.

Hiru egoera desberdin bereiziz (leku itxiko saioa, irekikoa eta tabernakoa), jakin nahi izan dugu, bertsolariek berek noiz jotzen duten premiazkotzat gai-jartzailea.

Leku itxietan bai, gai-jartzailea beharrezkoa da: aho batez aitortzen dute bertsolariek (% 98,6). Besterik da, aldiz, leku irekiko saioetan. Gehienek (% 58,3) hala nahita ere, bada multzo hazi samar bat ezezkoan (% 35,3). Leku irekiko saioetan gai-jartzailerik gabe aritzearen aldeko dira Gipuzkoan, eta bereziki Deba arroan eta Urolan.

Arestian esaten genuena gogoratu behar hemen: hots, leku irekiko saioetarako ez dagoela eredu jakin bat. Saio-mota hori aipatzen den orduko, eritziak sakabanatu egiten dira.

Leku irekiko saioetako erantzunetan bi eredu dira nagusi: bata, motza dei genezakeena, eta bestea, luzea. Lehena, honela litzateke: ordu-erdikoa, bi (edo hiru) bertsolarirekin eta gai-jartzailerik gabe. Bigarrena, honela: ordubetekoa, lau bertsolarirekin eta gai-jartzaile eta guzti.

Gipuzkoak eta Nafarroak saio motzeko eredua aukeratzen dute gehienbat. Iparraldea eta Araba/Bilbo Handia eta ingurua bigarren ereduaren zaleago dira argi eta garbi. Bizkaiak, bere osoan ere, joera hori du, hain definitua ez baina.

Gai-jartzailearen arazora itzuliz, gainerako saioetan, informaletan (afaloste, eta beste), gehienentzat gai-jartzaileak sobera daude (% 85,6). Seinala dezagun, halere, harrigarri bezala, % 12,2k horrelakoetan ere gai-jartzailea beharrezkotzat ikustea.

### 3.2.5. Gai-banaketa

*Nola eratu behar dira gaiak?*

| | Zk. abs. | % |
|---|---|---|
| Bertsolari bakoitzari egokitu behar zaizkio | 74 | 53,2 |
| Zozketaz suertatzen diren bezala eman behar dira | 52 | 37,4 |
| Era guztietara | 6 | 4,3 |
| Giroaren arabera | 3 | 2,2 |
| Besterik | 4 | 2,9 |
| GUZTIRA | 139 | 100,- |

Nola eratu behar da saioetako gai-banaketa? Bertsolari bakoitzari egokitu behar al zaio gaia, ala zozketa-sistemaz jokatu behar da? Bi aukerek dituzte abantailak eta joerazko arriskuak.

Bertsolariari gaia moldatu? Bai, bertsolariaren lana asko errazten du, arrazoi borobilagoak jalgiko ditu bertsolariak. Baina mesedegarri ote litzateke bertsolaritzarentzat? Saioa joan eta saioa etorri, ez ote genuke izango arrazoi berdinen arrosario luzea? Bertsolariak, zein gehiago, zein gutxiago, "tipifikaturik" daude: bertsolaria bera ez ote litzateke sarri gai-iturri eta bertso-gai bilakatuko?

Zotz egin eta edozeini edozein gai? Prestaketan eta arrazoietan etengabe saiatu beharko luke bertsolariak. Baina posible al da horrela luzaro irautea? Gaur bertsolaria hara eta hona dabil geratu barik. Ez da toki bakoitzean patxadaz egoten, hango berri jakiteko. Ez da profesional bat, albistearen ehizean ibiltzeko. Nola tertzioz erantzun edozein gai-jartzailek plantea dezakeen situazioari?

Abantailak eta arriskuak gorabehera, bertsolariek bere aukera egina dute. Ez da aukera bakarra. Gehienek, hori bai (% 53,2)

bertsolariari gaia moldatzea eskatzen dute. Eta ulertzen da zergatik. Asko dira, ordea, zozketazko sistema hobesten dutenak (% 37,4). Eta ez arrazoirik gabe.

### 3.2.6. Entzulegoaren bertso-ezagutzapena

*Ba al dakite entzuleek bertsoa zer den?*

| | Zk. abs. | % |
|---|---|---|
| Askok bai | 32 | 23,0 |
| Dexentek bai | 64 | 46,0 |
| Gutxik | 28 | 20,1 |
| Oso gutxik | 6 | 4,3 |
| Eskualdeen arabera | 4 | 2,9 |
| Denetarik | 3 | 2,2 |
| Besterik | 2 | 1,4 |
| GUZTIRA | 139 | 100,- |

Kasu: galdera honek ez du entzulegoaren bertso-ezagutzapena "ezagutu eta neurtu" nahi. Baizik eta bertsolariak nola "sentitzen" duen publikoaren *feedback* edo erantzuna. Jendaurreko bertso-saioan, teatroan bezala, ikusle-entzulegoa solaskide ere bada. Zertan esanik ez: horretarako, bertsoa "ezagutu", "ulertu", "bizi" egin behar da. Alferrik da, bestela. Entzulerik gabe ez dela bertsorik, esan dezakegu, irakurlerik gabe ez dela libururik esan ohi den zentzuan.

Nola baloratzen du, bada, plazaz plaza dabilen bertsolariak publikoaren erantzuna?

Bertsolari gehienentzat (% 69) entzulegoak dexente edo gehiago ezagutzen du bertsoa zer den.

Optimismo honekin ez dago ados ia lauetatik bat (% 24,4): hauentzat jendeak gutxi edo oso gutxi ezagutzen du bertsoa. Araba/Bilbo Handi inguruan (% 50) eta Nafarroan (% 62,5) eritzi honetakoak dira (Ik. 1.24.); agian norberaren eskarmentuaren isladapen.

Zifrak aparte, bistan da —batek baino gehiagok oharterazten duenez— faktore asko eduki behar dela kontutan: adina, giroa, herria,...

### 3.2.7. Jaialdien antolakuntza

*Batezbeste, nola antolatzen dira jaialdiak?*

| | Zk. abs. | % |
|---|---|---|
| Zehaztugabea | 1 | 0,7 |
| Oso ondo | 4 | 2,9 |
| Ondo | 109 | 78,4 |
| Gaizki | 13 | 9,4 |
| Oso gaizki | 0 | - |
| Denetarik | 7 | 5,0 |
| Segun eta | 2 | 1,4 |
| Besterik | 3 | 2,2 |
| GUZTIRA | 139 | 100,- |

Jaialdien antolakuntzarekin pozik daude bertsolariak. Batezbeste, jaialdiak "ondo" antolatzen dira, ondo. Honela uste du gehiengoak (% 78,4). Haratago doa banakaren bat (% 2,9): "oso ondo" antolatzen dira jaialdiak, hauen eritzian. Dozena batek "gaizki" antolatzen direla uste du (% 9,4); baina inortxok ere ez, "oso gaizki" antolatzen direnik.

Oneritzi orokor hori ez da, nahitaez, kexu eta kritika gabea: bada, noski, zer hobeturik. Salakuntzak batez ere jaialdien funtzionaketaz eta ereduaz dira.

Organizazio material eskasa salatzen dute gehienbat, baldintza tekniko eskasak: hala nola, megafoni akatsak, leku desegokiak, propagandarik eza, puntualitaterik eza, bertso-giro eskasa.

Antolatzaileez berez ere badira kritikak: gehien-gehiena, bertsolaritza zer den ez jakitea; gai-jartzaileen ezjakinkeria eta protagonismo gehiegia ere agertzen dira.

Beste kritika-sail bat jaialdi-moldean sartzen da; aipatuena zera da: bertsolari gehiegiko saioena; eta gero beste bi: saio libreak baztertzea eta txapelketen egitura nabaria.

Azkenik, bada kexu-modu bat bertsolariaren irudiari eta funtzioari datxekiona: beren burua inoiz edo behin pailazo gisa ikusten dute bertsolariek, beste ekintzen betegarri, justifikazio huts bezala, folklorearen erakusgarri bailira.

## 3.3. Txapelketak

Sail honetan, txapelketa nagusiei buruzko bertsolarien pentsamendua jaso nahi dugu, noiz-nola antolatu eta ospatu beharko liratekeen, alegia. Lehen atalean, txapelketak orokorki harturik ari gara. Bigarrenean, azken txapelketa nagusiaren balantzea eta puntuz puntuko baloratzea egingo dugu.

### 3.3.1. Txapelketa Nagusiak

Jendaurreko bertsolaritzaren ospakuntza nagusi hauetaz eritzi orokorra bildu ondoren, maiztasunaz, antolakuntzaz, bertsolarien partehartzeaz eta epaimahaiaren hautapenaz ihardungo dugu.

#### *3.3.1.1. Eritzi orokorra*

*Txapelketa nagusiak zer dira zuretzat?*

| | Zk. abs. | % |
|---|---|---|
| Zehaztugabea | 2 | 1,4 |
| Beharrezkoak | 69 | 49,6 |
| Komenigarriak | 66 | 47,5 |
| Alferrikakoak | 2 | 1,4 |
| GUZTIRA | 139 | 100,- |

Bere osoan hartuta, bertsolariak oro daude txapelketen alde, bi kenduta (% 97,1). Erdiek (% 49,6) beharrezkotzat daukate txapelketa. Halako exigentziarik gabe hartzen dute beste askok, komenigarritzat soilki (% 47,5). Bertsolari batek erantzunean erantsi duenak bil dezake beste askoren pentsaera "beharrezkotasuna" ulertzeko orduan: "bertsolarientzat txarra, baina euskararentzat eta abar, beharrezkoa". Euskararentzat, eta bertsolaritzarentzat, batez ere bertsolaritzarentzat.

### *3.3.1.2. Maiztasuna*

*Zenbatero antolatu beharko litzateke txapelketa nagusia?*

| | Zk. abs. | % |
|---|---|---|
| Zehaztugabea | 2 | 1,4 |
| Urtear. behin | 12 | 8,6 |
| Bi urtez behin | 51 | 36,7 |
| Hiru urtez behin | 69 | 49,6 |
| Lau-bost urtez behin | 4 | 2,9 |
| Besterik | 1 | 0,7 |
| GUZTIRA | 139 | 100,- |

Zenbatero ospatu behar da txapelketa nagusia? Hiru urtez behin, erdien ustetan (% 49,6). Edo hortik behera (% 45,3): bi urtez behin ospatzeak ere botu asko ditu (% 36,7). Dozena batek urtero nahi luke.

Aukerok ez dira berdin banatzen leku eta adin guztietan.

a) Txapelketa nagusia urtero edo biz behin ospatzea nahi dutenak erditik gora dira Araban, Nafarroan, Bizkaian eta Goierritik beherako herrialdeetan (Ik. 1.27.).

Hiru urteroko txapelketak toki guztietan du botu ugari; baina berak biltzen ditu bereziki Urola/Kostaldeko, Deba arroako eta Iparraldeko boturik gehien-gehienak.

b) Gazteenak eta zaharrenak hiru urtez behin ospatzearen alderago daude (Ik. 2.27.). Eta 25-50 urte bitarteko bertsolarietan juxtu-juxtu erdiak daude hiru urte baino epe motzagoan antolatzearen alde.

### 3.3.1.3. *Antolakuntza*

*Nola antolatu beharko litzateke bertsolarien partehartzea?*

| | Zk. abs. | % |
|---|---|---|
| Zehaztugabea | 5 | 3,6 |
| Bertsolari guztiak baldintza berdinetan, zerotik hasiz | 47 | 33,8 |
| Azken txapelketako mailaketa kontutan hartuta | 59 | 42,4 |
| Mailaketaren bat sortuz | 17 | 12,2 |
| Probintzi mailan | 3 | 2,2 |
| Eskualdeka | 4 | 2,9 |
| Besterik | 4 | 2,9 |
| GUZTIRA | 139 | 100,- |

Arazo konkretuetara jaitsiz, puntu honetan "zenbat buru, hainbat aburu" dago. Erabili ere, historian zehar, formula desberdinak erabili dira txapelketak antolatzean.

Egon, bi aukera nagusi daude, gero bariante ezberdinez horni daitezkeenak, nahi bada: bata, baldintza berdinetan abiatzea denak; eta bestea, maílaketa onartzea. Besterik da, gero, eliminatoria nola antolatzen den.

Mailaketaren aldekoa da multzorik handiena (% 54,6), eta berauetako ia denek onartzen dute azken txapelketan egin zen bezala jokatzea. Baina bada korronte bizi bat, bertsolarien herena, toki eta adin guztietan, mailaketa eliminatzea proposatzen duena (% 33,8).

### 3.3.1.4. *Bertsolarien partehartzea*

*Zeinek parte hartu behar luke txapelketan?*

| | Zk. abs. | % |
|---|---|---|
| Zehaztugabea | 2 | 1,4 |
| Nahi duen guztiak | 72 | 51,8 |
| Nolabaiteko maila ematen duenak | 64 | 46,0 |
| Besterik | 1 | 0,7 |
| GUZTIRA | 139 | 100,- |

Txapelketan eskuhartzea bera aurrebaldintzatu egin behar al da? Alegia, txapelketan sartu ahal izateko, aldez aurretik balioaren frogak erakutsi behar al ditu? Mailak jarri behar al dira bertsolarien

artean ere, pelotan eta dauden bezala? Bertso-txapelketa bera ez al dago, bada, pelota-txapelketan oinarritua jatorriz?

Ala libre utzi behar da eskuhartzea? Nahi duenak izena eman dezala, eta balio duenak erakus dezala berea txapelketa barnean? Bertsolaritza, kirola baino areago, ez al da, bada, artea?

Deialdi librea ala aurrebaldintzatua?

Jarrera bikoitza ageri da bertsolariengan. Eskuhartze librea eskatzen dute batzuek, gehienek (% 51,8). Orpoz orpo datozkie, ordea, maila exigitzen dutenak (% 46). Bai, ongi bitaraturik daude eritziak puntu honetan.

Jarrerok, gainera, ez dira uniformeak toki eta adin orotan.

a) Bi zonatan salbu (Ik. 1.29.), sarrera librearen aldeko dira gehienak. Bi zona horiek, ordea, bertsolarien dentsitate handienekoak dira: Urola/Kostaldea eta Goierri/Tolosalde/Donostialdea. Eta hauetan gehienek uste dute, maila duenak bakarrik hartu beharko lukeela parte.

b) 35 urtetik gora eta behera hasten dira jarrerak bitaratzen. Urte horietatik gorako gehienek uste dute, frogaturik behar duela izan bertsolari-maila txapelketan parte hartzeko. Urte horietara iristen ez direnek sarrera librea proposatzen dute, batez ere gazteenek (Ik. 2.29.).

### *3.3.1.5. Epaimahaiaren hautapena*

*Nork hautatu beharko luke epaimahaia?*

| | Zk.abs. | % |
|---|---|---|
| Zehaztugabea | 2 | 1,4 |
| Txapelketan parte hartzen duten bertsolariek | 36 | 25,9 |
| Bertsolari-Elkarteak | 85 | 61,2 |
| Bertsolari-Elkarteak eta Bertsolariek | 9 | 6,5 |
| Besterik | 7 | 5,0 |
| GUZTIRA | 139 | 100,- |

Bertsolari-Elkarteak hautatu behar du epaimahaia (% 61,2). Lauetatik batek (% 25,9) beste soluzio bat proposatzen du: partehartzaileek berek aukeratzea tribunala. Tarteko soluziorik ere bada, noski.

Galderan espreski jartzen genuen hirugarren tribunal-izendatzaile bat ere: "bestelako instantziaren batek" antola zezakeela, alegia. Euskaltzaindian pentsatzen genuen guk, posibilitate bezala. Baina bertsolariek ez dute horrelakorik pentsatu nonbait, inortxok ere ez bait du Euskaltzaindia horretarako izendatu, nahiz eta bera izan oraintsu arte egiteko hori bete ohi zuena.

### 3.3.2. Txapelketa Nagusia '86

Azken Txapelketa Nagusiaren azterketara —edo, hobe, baloraziora— etorri gara orain. Aurreko atalean bezala, eritzi orobiltzaile bat eskatzen dugu, hasteko. Eta gero banan-banan arakatzen ditugu puntuok: antolakuntza, epaileen lana, puntuaketa-sistema, gaiak eta bertsolarien lana.

#### *3.3.2.1. Eritzi orokorra*

*Alderdi guztiak kontutan hartuta (betsolarian lana, epaileen lana, antolakuntza, jendearen erantzuna), nola ebaluatzen duzu azken Txapelketa Nagusia?*

| | Zk. abs. | % |
|---|---|---|
| Zehaztugabea | 0 | - |
| Oso ona | 44 | 31,7 |
| Ona | 83 | 59,7 |
| Erdizkakoa | 9 | 6,5 |
| Txarra | 1 | 0,7 |
| Oso txarra | 0 | - |
| Besterik | 2 | 1,4 |
| GUZTIRA | 139 | 100,- |

Oso-oso positiboa da azken txapelketaz bertsolariek duten eritzia: % 91,4ek ontzat edo/eta guztiz ontzat jo du txapelketa hori. Mostratzat, bertsolari baten hitzek balio lezakete: "Bertsolariek ondo kantatu zuten; epaileak ausartak; antolakuntza, oso ona; jendearen erantzuna, ezin hobea".

Eritzi positibo hain altu hau bezain harrigarri gertatzen da eritzi negatiborik eza. Batentzat bakarrik izan da txarra txapelketa eta inorentzat ez oso txarra.

### 3.3.2.2. *Antolakuntza*

*Zer iruditu zaizu antolakuntza?*

| | Zk. abs. | % |
|---|---|---|
| Zehaztugabea | 0 | - |
| Ona | 134 | 96,4 |
| Erdizkakoa | 4 | 2,9 |
| Txarra | 0 | - |
| Besterik | 1 | 0,7 |
| GUZTIRA | 139 | 100,- |

Batasun ia osoa dago antolakuntza balioztatzean: % 96,4entzat ona izan zen. Inorentzat ez txarra.

### 3.3.2.3. *Epaileen lana*

*Bat al zatoz epaileen lanarekin?*

| | Zk. abs. | % |
|---|---|---|
| Zehaztugabea | 1 | 0,7 |
| Gehienetan | 43 | 30,9 |
| Askotan | 69 | 49,6 |
| Gutxitan | 16 | 11,5 |
| Oso gutxitan | 1 | 0,7 |
| Besterik | 9 | 6,5 |
| GUZTIRA | 139 | 100,- |

Epaileen lanarekin, batezbeste, ados egon direnen kopurua oso betea da: % 80,5. Desakordioan egon direnenak ez du pisu handirik: % 12,2.

Oinarrizko adostasunaren barruan, mailak daude. Segurutik ez da nehor beti bat etorri mahaiaren epailan bakoitzarekin eta guztiekin. Kontrakoa litzateke atipikoa. Gehienetan (% 30,9) bat etorri direnak, askotan (% 49,6) etorri direnak baino gutxiago dira, gainera.

Epaileen lanarekin desakordioan dauden horietan, bat bakarra dago ia beti ezados. Gainerako guztiak epaileen lanarekin gutxitan bat etorriak dira (% 11,5).

Azpimarratzekoa da, eta askorentzat ustekabekoa, bertsolariek epaimahaiaren lanarekiko erakusten duten onarpenaren handia.

### *3.3.2.4. Ezadostasunaren arrazoiak*

*Epaileen lanarekin bat ez bazatoz, zergatik da?*

| | 1 | | 2 | | 3 | | 4 | | GUZTIRA | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Ez dagokio | 80 | 57,1 | 112 | 80,0 | 127 | 90, | 135 | 96,4 | 454 | 83,1 |
| Ez dute bertsoa ezagutzen | 2 | 1,4 | 1 | 0,7 | - | - | | | 3 | 0,5 |
| Ez dute bertsoa bere osotasunean hartzen | 13 | 9,3 | 4 | 2,9 | 1 | 0,7 | 1 | 0,7 | 19 | 3,4 |
| Gehiegi baloratzen dute teknika | 6 | 4,3 | 9 | 6,4 | - | - | 1 | 0,7 | 16 | 2,9 |
| Mamiari bakarrik begiratzen diote | 5 | 3,6 | 2 | 1,4 | 3 | 2,1 | 2 | 1,4 | 11 | 2,0 |
| Hasi arteko denbora ez dute kontutan hartzen | 15 | 10,7 | 3 | 2,1 | 3 | 2,1 | - | - | 23 | 4,2 |
| Desberdin balioztatzen dute | 8 | 5,7 | | - | 3 | 2,1 | | | 11 | 2,0 |
| Faboritismoz jokatzen dute | 5 | 3,6 | 4 | 2,9 | - | - | - | - | 9 | 1,6 |
| Besterik | 6 | 4,3 | 5 | 3,6 | 3 | 2,1 | - | - | 14 | 2,5 |
| GUZTIRA | 140 | 100, | 140 | 100,- | 140 | 100,- | 140 | 100,- | 546 | 100,- |

Taula honen aurrean, zer esan?

Espero zitekeen baino kritika gutxiago dago. Asko dira, gehienak ("ez dagokio" horretan daudenak, hain zuzen), kritikara pasatzen ez direnak.

Ezadostasuna erakusteko, 6 aukera eskaini zaio bertsolari bakoitzari, berak ordenatzeko garrantziaren arabera. Ez da ageri nabarmen kritika-gai nagusi eta eritzi-biltzailerik. Nahikoa sakabanaturik daude kritikak aukera guztietan.

Jatorrizko taulari bi kritika-gai erantsi dizkiote bertsolariek: "desberdin balioztatzen dute" eta "faboritismoz jokatzen dute". Balorazio desberdinak gauza asko esan nahi du: erizpide berdinik eza tribunalaren baitan, diferentzia gehiegi batetik bestera, koordinaziorik eza elkarren artean, subjektibismo nabaria, etab. Faboritismoaren salakuntza, are mingarriagoa da: bertsolari guztiekin erizpide berbera ez erabiltzea; partzialkeria, gipuzkoarkeria eta, inoiz, fede txarra ere bai, salatzen dira erantzunetan.

Badira, bestalde, tribunalari egiten zaizkion beste kritika batzuk, "erizpide-kritika" dei genitzakeenak: hala nola, euskararen kalitatea gutxiegi baloratzea, neurri luzearen zailtasuna ez baloratzea, gutxiegi puntuatzea poesia edo lirikotasuna, bertsolaria puntuatzea eta ez bertsoa...

Baina kritikak kritika, oro har, gutxiena da hemen kritika eta gehiena onarpena. Gogora eta azpimarra dezagun: % 80,5 da epaileen lanarekin bat datorrena.

*3.3.2.5. Puntuazioa*

Puntuazioa dela eta ez dela, luze idatzi da; idatzi baino gehiago hitz egin, eztabaidatu. Azken Txapelketa Nagusiaren inguruan puntuazio-sistema izan da segurutik denetan arazorik komentatuena, alde eta kontra.

Puntuazioaz, galdera ugari egin zitekeen, formula konkretuen bila. Bi bakarrik egin ditugu guk, ustez oinarrizkoak, noiz-nola eman behar den puntuazioa galdetuz.

3.3.2.5.1. Nola eman puntuazioa

*Azken txapelketako esperientzia ikusita, nola eman beharko litzateke puntuaketa?*

| | Zk. abs. | % |
|---|---|---|
| Agerian | 113 | 81,3 |
| Gordean | 24 | 17,3 |
| Besterik | 2 | 1,4 |
| GUZTIRA | 139 | 100,- |

Bertsolarien gehiengo handia puntuazioa agerian ematearen aldekoa da (% 81,3). Banakaren bat da, gordean eman behar dela defendituz jarraitzen duena (% 17,5).

3.3.2.5.2. Noiz eman puntuazioa

*Noiz eman beharko litzateke puntuaketa?*

| | Zk. abs. | % |
|---|---|---|
| Zehaztugabea | 4 | 2,9 |
| Bertsoz bertso | 26 | 18,7 |
| Saioaren ondoren | 71 | 51,1 |
| Amaieran | 35 | 25,2 |
| Besterik | 3 | 2,2 |
| GUZTIRA | 139 | 100,- |

Esango genuke gertakariak gertatu diren moduan, agerian ala gordean puntuazioa eman, hori zela arazo nagusia, printzipiozkoa. Eta arazo teknikoa zen bestea: zein mementutan azaldu puntuazioa, bertsoz bertso, saio ostean, amaieran edo geroago. Bistan emateko formula desberdinak daude, ikusten ari garenez. Azken batean, arazoa da, ikusteko edo kontsultatzeko modurik izatea, eta horrela mesfidantzak, errezeluak eta trapukeriak ezabatzea.

Erdiarentzat (% 51,1) saioaren ondoren azaldu beharko litzateke epaimahaiaren erabakia. Laurden batentzat (% 25,2) erabaki hori are beranduago eman beharko litzateke ezagutzera: saioaren amaieran, hain zuzen. Gutxienak dira azken txapelketan erabili zen formula aukeratzen dutenak (% 18,7).

### *3.3.2.6. Gai-prestatzaileen lana*

*Zer-nolakoak izan dira bertsolariei jarri zaizkien gaiak?*

| | Zk. abs. | % |
|---|---|---|
| Zehaztugabea | 1 | 0,7 |
| Denak onak | 3 | 2,1 |
| Gehienak onak | 73 | 52,1 |
| Batzuk onak, besteak txarrak | 63 | 45,0 |
| Gehienak txarrak | - | - |
| Denak txarrak | - | - |
| GUZTIRA | 140 | 100,- |

Gaietan asmatzea ez da sekula erraza. Badakigu. Azken txapelketakoan ere askoren ahotan ibili da gaien egokitasuna/desegokitasuna, batez ere finalekoan, eta bereziki gartzelakoan. Askoren eritziz, txapelketan zehar gai hobeak eman ziren, finalekoan baino. Dena den, analisi-mota horretarako aukerarik ez du bertsolariak gure galderarekin, eritzi globala eskatzen bait da hor.

Gehienak edo denak txarrak izan direla, ez du nehork esaten. Denetarik egon dela gaietan, hori bai: batzuk onak eta txarrak beste batzuk. Askoren eritzia da hori (% 45,3). Askorena, bai, baina ez gehienena. Gehienentzat (% 54,7) onak izan ziren jarritako gaiak, parterik handienean behintzat.

a) Eskualde guztietan ez da onarpen bera sumatzen gai-kontuan (Ik. 1.36.). Gaien egokitasunari buruz kritikoenak Araban, Bizkaian eta Iparraldean aurkitzen ditugu.

b) Ikasle-irakasleengan (Ik. 4.36.) hoztasun handiagoa aurkitzen dugu beste kategorietan baino.

c) Ikasketa-mailaren arabera ikusita (Ik. 5.36.), batxilergoak bereizten du onarpenaren gradua. Batxilergotik beherakoentzat, gai gehienak onak izan ziren. Batxilergotik gorakoentzat, denetarik egon zen.

Nola balora gaia ona ala txarra den? Bertsolariek emandako erantzunetan balorazio-modu hauek egiten dira.

Gaien egokitasuna aipatzerakoan, erizpideok azpimarratzen dira: gai aldrebesik edo ulergaitzik ez izatea, gaien aberastasuna, ondo zabal zitezkeen gaiak izatea, lan egiteko modukoak izatea, gai naturalak izatea.

Txapelketako, eta bereziki finaleko, gaien desegokitasuna seinalatzean, arrazoi hauek ematen dituzte: gai batzuk zabalegiak izatea eta beste batzuk irtenbide gutxikoak, mami gutxikoak izatea, maila berekoak ez izatea, ofizioetan alde handia egotea batari eta besteari emandakoetan, bakarkako gaiak mugatuegiak izatea, topikoetan erortzeko moduko gaiak izatea, lelokeria gehiegizkoak izatea, kaikukeria bultzatzea.

### *3.3.2.7. Bertsolarien lana*

Txapelketako bertsogintza-moldea bera ere auzitan jar daiteke. Berrikusi, alegia. Txapelketa sistema bezala onarturik ere, ez da derrigor lan-egitura horrekin juzkatu eta neurtu behar bertsolariaren balioa. Bestelako eredurik ere pentsa liteke.

Bai, baina, orain eta hemen, bertsolariak bat al datoz oraingo moldearekin, zer kenduko edo erantsiko lukete beren gustora?

*Azken txapelketa nagusian bertsolariek egin behar izan dituzten lanetatik zer kenduko zenuke*

| | Zk. abs. | % |
|---|---|---|
| Zehaztugabea | 2 | 1.4 |
| Ezer ez | 88 | 62,9 |
| Puntukakoa | 35 | 25,0 |
| Kartzelakoa | 3 | 2,1 |
| Puntu luzeetakoak | 3 | 2,1 |
| Besterik | 9 | 6,4 |
| GUZTIRA | 140 | 100,- |

Gehiengoak ez du oraingo eredutik ezer kendu nahi (% 63,3). Bai, ordea, beste multzo on batek (% 36,1). Zer kendu, baina? Proposamen desberdinak dira, horietako bat nagusitzen delarik: puntukako saioa kentzea txapelketatik (% 25,2). Araba/Bizkaian eta irakasleen artean agertzen da nagusiki joera hau (Ik. 1.37. eta 4.37.).

*Azken txapelketa nagusian bertsolariek egin behar izan dituzten lanetatik zer erantsiko zenuke*

| | Zk. abs. | % |
|---|---|---|
| Zehaztugabea | 11 | 7,9 |
| Ezer ez | 92 | 65,7 |
| Gai librea | 17 | 12,1 |
| Puntuka gehiago | 3 | 2,1 |
| Azken puntuaz osotu | 4 | 2,9 |
| Besterik | 13 | 9,3 |
| GUZTIRA | 140 | 100,- |

Eta erantsi, zer erants gaurko eredu honi? Deus ez gehitzearen aldekoa da gehiengoa (% 66,2). Ez dira bestean bezain ugari zer gehitu espreski eta konkretuan adierazten dutenak (% 26,7). Kointzidentziarik handiena (% 12,1) puntu batean ematen da: "gai librea" sartu beharko litzateke.

### 3.4. Bertso-eskolekiko eritzia eta jarrera

Bertso-eskolak, beste gauza askoren artean, bertsolaritzaren desmitifikazio bat ekarri du. Diskurtsu zahar dominantea pikutara bota du. Bertsolaritza bada dohaina, bada sena, bada berezkoa, baina teknika ere bai, literatur fenomenoa ere bai, gizarte-gertakaria ere bai.

Bertso-Eskolak, edo Bertsolari-Eskolak, Bertsolaritza irakaskuntzan sartzea, edo Bertsolaritzaren irakaskuntza; alegia, Bertsolaritza eta Irakaskuntza elkarri lotuta aurkitzea, fenomeno berria da. 1980 aldera zabaldu zen, Txapelketa Nagusiaren arrakastaren ondoren eta ondorioz.

Fenomeno hau, ordea, ez da guztiz berria. Sortu-berrien aurretik, ezagunak dira gutxienez Muxikako eskola, Markinakoa, Legazpikoa, Almen-ekoa.

### 3.4.1. Eritzi orokorra

*Esaldi hauetako zein dago zure pentsaeratik hurbilago*

| | Zk. abs. | % |
|---|---|---|
| Bertsolaritza ez da ikasten, berezkoa da | 63 | 45.0 |
| Bertsolaritza ikasi egin daiteke, beste edozein ofizio bezala | 67 | 47,8 |
| Biek berdin | 10 | 7,1 |
| GUZTIRA | 140 | 100,- |

Galdera hau ez doa zuzen-zuzen bertso-eskolari buruz. Aurretiazkoa da. Baina, noski, badu zerikusirik bertso-eskolak suposatzen duen bertsolaritzaren filosofiarekin.

Elkar ukatzaile bailira planteatu da arazoa sarri: zer, bertsolaria jaio ala egin egiten da? "Estraineko jaio behintzat", esan genezake Joxe Agirrek aspaldi zioenez. Jaio eta egin, biak. Bertsolari-sena eta teknika, berezkoa eta eskola, ez dira elkar ukatzaile, elkar osatzaile baizik.

Dena den, aurrekoa ukatu gabe ere, bietako bat azpimarra daiteke. Eta horrelaxe egiten da. Batzuek berezkoa azpimarratzen dute, eskolarekiko mesfidantzaz inoiz, han "jatortasuna" galduko balitz bezala. Beste batzuek eskolan intsistitzen dute, senaren sakralizazio antzuaren beldur.

Bertsolarien erantzunetan atentzioa ematen du zenbatek jo duen bere botua matizatzera, osatzera; batez ere berezkotasuna azpimarratzen dutenek. "Berezko hori landu eta jorratu egin behar da", esango du batek. Eta beste batek erantsiko: "Bertsoa egiten ikasi egin daiteke, baina berezkoa behar du".

Joerazko jarrerak, bitan banatuta, elkarren paretsu doaz, orpoz orpo elkarren segidan. Bertsolaritza batez ere ikasiz eta landuz beregana daitekeela azpimarratzen dutenak % 47,8 dira guztira. Eta berezkotasuna defenditzen dutenak % 45 dira.

a) Interesgarri da bi joerazko eritzi hauek eskualdeka nola banatzen diren ikustea. Araba/Bizkaian eta Iparraldean ikaste-prozesuaren alde daude gehienak, proportzio aski handietan, gainera. Deba arroan eta Urola/Kostaldean erdibana daude. Eta Nafarroan eta Goierri/Tolosalde/Donostialdean, eskualde horietan, berezkotasuna ateratzen da garaile (Ik. 1.38.).

b) Adinaren araberako taula ere argigarri da. Ikastea adin-tarte guztietan da nagusi, salbu 50 urtetik gorakoen artean. Hau bateko. Eta besteko, adina zenbat eta beherago eta ikastearen aldekoak hainbat eta ugariago proportzionalki (Ik. 2.38.). Baina jarreren diferentzia nabarmena egon, batez ere 50 urtetik gorakoetan dago.

c) Bultzatzailearen araberako banaketan (Ik. 3.38.), eritzi bat bakarra gailentzen da hain nabarmen: bertso-eskolatik datozenen % 87,5 daude ikastearen alde.

d) Ikasketen arabera ere (Ik. 5.38.), joerak ongi sailkaturik daude. Honela: lehen mailako ikasketak eginek, OHO eta Lanbide--Heziketa-1 daukatenek berezkotasuna jartzen dute aurretik gehienbat. Hortik gora, alegia, erdimailako eta goimailako ikasketak egindakoak, horiek denak —eta estudioetan zenbat eta gorago eta eritzietan bateratuago— ikastearen alde daude.

### 3.4.2. Sortze-arrazoiak

*Azken urteotan bertso-eskolak barra-barra sortu eta ugaldu dira bazterretan. Zergatik sortu dira, zure ustez:*

| | 1 | | 2 | | 3 | | GUZTIRA | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Zk. | % | Zk. | % | Zk. | % | Zk. | % |
| Zehaztugabea | - | - | 7 | 5,0 | 12 | 8,6 | 19 | 4,7 |
| Lagunarteko giroa (sagardotegia, taberna) galduz doalako | 35 | 25,0 | 13 | 9,3 | 23 | 16,4 | 71 | 17,7 |
| Bertsolaritza berritu egin behar delako, gizarteak horrela eskatuta | 30 | 21,4 | 20 | 14,3 | 18 | 12,9 | 68 | 16,9 |
| Euskara indartzeko bide bat delako | 41 | 29,3 | 35 | 25,0 | 24 | 17,1 | 100 | 24,9 |
| Bertsolari berriak sortu ahal izateko | 18 | 12,9 | 56 | 40,0 | 28 | 20,0 | 102 | 25,4 |
| Bertsolaritza modan dagoelako | 7 | 5,0 | 7 | 5,0 | 8 | 5,7 | 22 | 5,4 |
| Besterik | 9 | 6,4 | 2 | 1,4 | 8 | 5,7 | 19 | 4,7 |
| GUZTIRA | 140 | 100,- | 140 | 100,- | 140 | 100, | 401 | 100,- |

Bertsolarien ustetan tipo askotako arrazoiak daude bertso--eskolen sorreran: soziologikoak, kulturalak, linguistikoak, etab. Arrazoi objektibo eta sakonak, denak. Ez da moda iragankorra, udaberriko kalentura, txapelketaren arrakastaren ondorengo hutsala. Hiru mailatan ematen dira arrazoiak sorrera esplikatzeko, baina ez dago lehentasun erabatekorik: elkarren ondoan datoz arrazoi soziolinguistikoak eta kulturalak. Arrazoirik aipatuena

edozein eskolaren sorreran dagoen bera da, alegia, taldearen erreprodukzioa. Gure kasuan, bertsolarigoaren birprodukzioa ziurtatzea, bertsolari berriak sortzea. Egia: honen ondo-ondoan, euskararen indartzea dator.

### 3.4.3. Egitekoa

*Zer eginkizun ikusten diozu bertso-eskolari?*

| | 1 | | 2 | | 3 | | GUZTIRA | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Zk. | % | Zk. | % | Zk. | % | Zk. | % |
| Zehaztugabea | - | - | 6 | 4,3 | 12 | 8,6 | 18 | 4,2 |
| Berezkoa nork duen jakitea eta berezkotasuna laguntzea | 73 | 52,1 | 26 | 18,6 | 16 | 11,4 | 115 | 27,3 |
| Bertsoa zer den ikastea | 46 | 32,9 | 52 | 37,1 | 20 | 14,3 | 118 | 28,0 |
| Bertsozaleen kalitatea jasotzea | 9 | 6,4 | 29 | 20,7 | 59 | 42,1 | 97 | 23,0 |
| Bertsolaritza berritzea | 6 | 4,3 | 23 | 16,4 | 24 | 17,1 | 53 | 12,6 |
| Batere ez | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Besterik | 6 | 4,3 | 4 | 2,9 | 9 | 6,4 | 19 | 45,0 |
| GUZTIRA | 140 | 100,- | 140 | 100, | 140 | 100,- | 420 | 100,- |

Eskola zertarako?

Bertsolaritza ikasteko, esango dute batzuek. Alegia, eskola tradizionalaren funtzio bera betetzeko, irakaskuntza emateko eta ikaslea hezitzeko.

Benetako bertsolaria besteengandik bereizteko balio duela eskolak, esango dute beste batzuek. Berezkoa duenarentzat bakarrik balioko luke bertso-eskolak, ez bertsozalearentzat.

Badira, noski, bertso-eskolari bestelako eginkizuna ematen diotenak; hala nola, bertsozaleen kalitatea jasotzea eta bertsolaritza berritzea.

Bitan banaturik daude eritziak hemen ere. Normala da: ikaste-prozesua edo berezkoa nola baloratzen den aurretik, halaxe eskolaren funtzioa ere. Bertsoa ikasi egin daitekeela azpimarratu duenak bertso-ikasketa bezala planteatuko du eskola. Berezkoa azpimarratu duenak berezkotasun hori aurkitzeko eta lantzeko nahiko du eskola.

Berezkotasuna deskubritu eta trebatzeak du “lehentasuna” (% 52,1) eta bertso-ikasteak “gehientasuna” botuetan (% 28).

### 3.4.4. Emaitzak

*Bertsolaritzak zer espero dezake bertso-eskoletatik?*

| | 1 | | 2 | | GUZTIRA | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Zk. | % | Zk. | % | Zk. | % |
| Zehaztugabea | 1 | 0,7 | 12 | 8,6 | 13 | 5,7 |
| Bertsolariak eta bertsozaleak ugaltzea | 115 | 82,1 | 13 | 9,3 | 128 | 44,4 |
| Bertsoen maila jasotzea | 13 | 9,3 | 72 | 51,4 | 85 | 29,5 |
| Molde berdintsuko bertsoak egiteko joera (edo arriskua) | 3 | 2,1 | 21 | 15,0 | 24 | 8,3 |
| Teknikak bapatekotasuna menperatzea | 7 | 5,0 | 18 | 12,9 | 25 | 8,6 |
| Besterik | 1 | 0,7 | 4 | 2,9 | 5 | 1,7 |
| GUZTIRA | 140 | 100,- | 140 | 100,- | 288 | 100,- |

Zer espero du bertsolariak bertso-eskoletatik? Bertsolarigoa zabaltzea eta hobetzea (% 91,4) batez ere. Neurri oso txikian da bertso-eskolei egotzi zaizkien arriskuen beldur (% 7,2). Ez du uste bertso-eskolak batez ere artifizialkeria eta berdinkeria ekarriko dituenik.

Orotara eman diren botuetatik % 79,6k bertso-eskoletako emaitza positiboak azaltzen ditu eta % 18,4ek bakarrik uzta txarrak.

### 3.4.5. Jokabidea

*Aurrerantzean zer egin behar da bertso-eskolekin?*

| | Zk. abs. | % |
|---|---|---|
| Zehaztugabea | 1 | 0,7 |
| Ahalik eta gehien sortu | 73 | 52,1 |
| Batez ere bere egitekoak hobeto definitu | 53 | 37,9 |
| Murriztera jo | - | - |
| Besterik | 13 | 9,3 |
| GUZTIRA | 140 | 100,- |

Ahalik eta gehien, barra-barra sortu behar direla bertso-eskolak uste du erdia pasatuxeak (% 51,8). Itsumustuan sortuz joatearen arriskuen beldur, dexentek uste du eskola hauen helburuak eta funtzioak hobeto definitu beharko liratekeela lehenengo.

Seinalatu beharra dago, datu oso inportante bezala, ez dela inor agertzen bertso-eskolak murriztearen alde. Bertsolari bat bakarrik ere ez dago bertso-eskolaren aurka.

### 3.4.6. Harremanak

*Ba al duzu harremanik bertso-eskolaren batekin?*

| | Zk. abs. | % |
|---|---|---|
| Irakasle bezala | 26 | 18,6 |
| Partaide bezala | 32 | 22,9 |
| Noizbehinkako saiotan parte hartuz | 29 | 20,7 |
| Batere ez | 48 | 34,3 |
| Besterik | 5 | 3,6 |
| GUZTIRA | 140 | 100,- |

Modu bateko edo besteko harremana bertso-eskolarekin % 61,9k du. Asko da, eta, gainera, hauetako gehienek harreman estua dute (% 41), irakasle edo bertako partaide izaki.

Sekula harremanik izan gabeko multzoa ere dexentea da: % 34,5, herena behintzat.

a) Harreman hori asko aldatzen da eskualde batetik bestera (Ik. 1.43.). Esaterako, Araba eta Bizkaian irakasle edo partaide mailako harremana handia da (% 72,9), Deba arroan erdizkakoa da eta oso txikia Urola/Kostaldean (% 12), Nafarroan (% 18,8) eta Iparraldean (% 14,3).

b) Adinaren arabera ere badira diferentziak, pentsatzekoa dena (Ik. 2.43.). Irakasle edo partaide gisa harreman handia dute 15-24 urte bitarteko gazteek (% 85,8). Asko jaisten da 25-49 urte bitartekoengan (% 39,5), baina noizbehinkako harreman dexente dago (% 25). Baina benetan jaitsi, 50 urtetik gorakoetan jaisten da harremana (% 15,6). Hauetako % 62,5ek, gainera, ez du izan inolako harremanik sekula.

## 3.5. Bertsolari-Elkartearekiko eritzia eta jarrera

Juridikoki eta sozialki eraiki-berria da Euskal Herriko Bertsolarien Elkartea. Elkartearen sorrera aurrekoa da galdeketa hau. Elkarteaz egin diren galderak oinarri-oinarrikoak dira, eta oso sin-

pleak: Elkarte bati buruzko eritzia, Elkarte horren konposaketa, egiteko nagusien definitzea eta, azkenik, norberaren jarrera praktikoa.

Inkestaren emaitzak kontutan hartzera, aurretiazko eritzi eta jarrera ezin baikorragoz jaio da Elkartea.

### 3.5.1. Eritzi orokorra

*Nola ikusten duzu Bertsolari-Elkartea?*

| | Zk. abs. | % |
|---|---|---|
| Behar-beharrezkoa | 74 | 52,9 |
| Komenigarria | 64 | 45,7 |
| Alferrikakoa | 2 | 1,4 |
| GUZTIRA | 140 | 100,- |

Begi onez ikusi ezezik, beharrezkotzat jo egiten du Elkartea bertsolarien gehiengoak (% 52,5). Behar-beharrezkotzat, bai. Eta horren premiazko ikusten ez duenak berak ere komenigarri behintzat ikusten du (% 46). Ehuneko ehun, esateko, dago Elkartea sortzearen alde.

### 3.5.2. Partaidetza

*Nortzuk izan beharko lukete partaide zure ustetan?*

| | Zk. abs. | % |
|---|---|---|
| Zehaztugabea | 1 | 0,7 |
| Bertsolariak bakarrik | 21 | 15,0 |
| Bertsolariak eta bertsozaleak | 114 | 81,4 |
| Besterik | 4 | 2,9 |
| GUZTIRA | 140 | 100,- |

Bertsolariez bakarrik ala bertsozaleen laguntzaz osatu behar ote da Elkartea?

Elkartea bertsolarietara soilki mugatzen duen multzoa txikia da oso (% 15,1). Gehiengo zabalaren eritziz, bertsozaleek ere barnean behar dute (% 81,3).

Bistan da, aukera honen arabera, izpiritu korporatibistarik gabeko kolektibo baten erantzuna dela hori. Gehiago ematen du kultur egitasmo baten izenean sortua, talde baten interesak defenditzeko baino.

### 3.5.3. Egitekoak

*Zeintzuk dira, zure ustez, Bertsolari-Elkartearen egiteko nagusiak?*

| | 1<br>% | 2<br>% | 3<br>% | 4<br>% | 5<br>% |
|---|---|---|---|---|---|
| Zehaztugabea | 1,4 | 8,6 | 12,2 | 23 | 51 |
| Bertsoak bildu eta artxibatzea | 18,7 | 12,2 | 9,4 | 11,5 | 2,2 |
| Bertsoak argitaratzea | 1,4 | 5,8 | 0,8 | 6,5 | 10,8 |
| Bertso-saioak antolatzea | 15,1 | 15,1 | 4,3 | 9,4 | 5,8 |
| Txapelketak antolatzea | 23 | 16,5 | 18 | 13,7 | 6,5 |
| Saioak bertsolarien artean banatzea | 7,2 | 12,9 | 7,9 | 5 | 7,2 |
| Epaile eta gai-jartzaileen lana bideratzea | 4,3 | 15,8 | 13,7 | 10,8 | 6,5 |
| Bertso Eskolak bultzatzea | 8,6 | 7,9 | 18,7 | 12,2 | 14,4 |
| Bertsolarien interesak babestea | 11,5 | 5 | 3,6 | 6,5 | 2,9 |
| Besterik | 8,6 | - | 2 | 1,4 | 2,9 |
| GUZTIRA | 100,- | 100,- | 100,- | 100,- | 100,- |
| | (135) | (139) | (139) | (139) | (139) |

| | 6<br>% | 7<br>% | 8<br>% | 9<br>% | GUZTIRA<br>% |
|---|---|---|---|---|---|
| Zehaztugabea | 49,6 | 57,6 | 65,5 | 97,1 | 39,5 |
| Bertsoak bildu eta artxibatzea | 6,5 | 4,3 | 2,9 | | 7,5 |
| Bertsoak argitaratzea | 7,2 | 8,6 | 4,3 | | 6,1 |
| Bertso saioak antolatzea | 6,5 | 4,3 | 2,2 | - | 6,9 |
| Txapelketak antolatzea | 4,3 | 2,9 | 0,7 | - | 9,5 |
| Saioak bertsolarien artean banatzea | 3,6 | 5 | 6,5 | - | 6,1 |
| Epaile eta gai-jartzaileen lana bideratzea | 11,5 | 6,5 | 2,2 | | 7,9 |
| Bertso Eskolak bultzatzea | 5,8 | 2,9 | 1,4 | - | 7,9 |
| Bertsolarien interesak babestea | 5 | 7,2 | 14,4 | 2,2 | 6,4 |
| Besterik | | 0,7 | - | 0,7 | 1,7 |
| GUZTIRA | 100,- | 100,- | 100,- | 100,- | 100,- |
| | (139) | (139) | (139) | (139) | (1.251) |

Bederatzi puntu ditu bertsolari bakoitzak, bere ustezko lehentasun-mailaketaren arabera ordenatzeko. Bederatzi maila daude, beraz, erantzunetan.

Ohar nagusi batzuk egin ditzakegu erantzunak laburbilduz.

Hasteko, esan daiteke, nahikoa barreiaturik daudela eritziak, nahiz eta joera aski indartsu batzuk ere nabaritu.

Hiru egiteko praktiko dira, oro har, besteen aurretik jarriak, alde ikaragarriz ez bada ere: lehenengo eta behin, txapelketak antolatzea, eta gero, bertso-eskolak bultzatzea eta epaile eta gai-jartzaileen lana bideratzea.

Bigarren ohar nagusi bezala esan dezakegu, lehentasunen bat egotekotan, hori txapelketak antolatzea dela. Berak du, izan ere, egiteko guztietan boturik gehien. Baina batez ere berau agertzen da aurreko lekuetan lehen lau mailetan.

Hirugarrenez, ez oso atzean, baina bai atzerago, gelditzen dira gainerako eginkizunak; hala nola, bertso-saioak antolatzea eta bertsolarien artean banatzea, bertsoak biltzea, artxibatzea edota argitaratzea, bertsolarien interesak babestea, etc.

### 3.5.4. Konpromezua

*Prest al zaude Elkartearen alde lan egiteko? Nola?*

| | Zk. abs. | % |
|---|---|---|
| Zehaztugabea | 7 | 5,0 |
| Elkartearen funtzionaketan parte hartuz | 46 | 32,9 |
| Elkartearen aginduetara lan eginez | 33 | 23,5 |
| Urteko kuota ordainduz | 44 | 31,4 |
| Ez, ez nago prest | 9 | 6,4 |
| Besterik | 1 | 0,7 |
| GUZTIRA | 140 | 100,- |

Jarrera benetan positiboa du bertsolariak Elkarteari buruz. Ezin positiboagoa esango genuke, honelakoetan gertatu ohi denarekin konparatuz. Hasteko, Elkartearekin inolako konpromezurik nahi ez duena, gutxiengo ezteusa da (% 6,5). Kuota ordaintzearekin konformatzen den multzoa hagitz handiagoa da (% 31,4). Hemendik gorakoa da harrigarria: % 56,4 dago prest Elkartean aktiboki parte hartzeko. Batzuk Elkartearen aginduetara lan eginez (% 23,5). Eta beste batzuk —multzorik handiena da berau, % 32,9— funtzionaketan parte hartzeko gertu daude: egin kontu, hiru bertsolaritik bat prest dagoela barru-barrutik lan egiteko.

a) Segun non, ez da tamaina berean hartzen konpromezua (Ik. 1.47.). Funtzionaketan zein bestela lan egiteko disponibilitate (borondate) gehien, Durangalde/Busturialde/Markinaldean, Goierritik behera eta Deba arroan ikusten da. Asko moteltzen da gogo hori Iparraldean, Nafarroan eta bereziki Araba/Bilbo Handi inguruan.

b) Borondate hori, adinez adin, 25-34 urtekoetan agertzen da gehien (% 71), gero gazteagoetan. Langintza horretarako gertu daudenak 35-49 urteetan ere erditik gora dira, juxtu-juxtu baina. Erdia baino dexente gutxiago (% 40,7) dira, aldiz, 50 urtetik gorakoen artean Elkartearen ekintzetan zuzenean sartu nahi dutenak (Ik. 2.47.), hori gazteentzat utzia balute bezala.

## Laburbilduz

Irakurketa errazteko asmoz, aurreko guztia hitz gutxitan bildu nahi dugu ondoko orriotan, azterketako ordena bera erabiliz.

Bai, bertsolarien kolektibo hori zer-nolakoa den eta zertan den jakin nahi du inkesta honek. Ustez ongi ezagutzen dugun giza talde hori ez dakigu, jakin, zertan datzan jatorriz, ofizioz, kulturaz. Ez dakigu nola eta zergatik hasi ziren bertsotan. Gutxiago dakigu zer pentsatzen duten bertso-saioez, azken txapelketaz, bertso-eskolez, Bertsolari-Elkarteaz, etab. Eta zertan esanik ez: ez dakigu ezer zeintzu diren beren bertso-mota eta bertsolaririk gogokoenak eta, batez ere, zer jarrera duten bertsogintzaren eboluzioaz.

Nola jakin beraiei galdetu gabe? Horixe da guk egin duguna: berei galdetu. Bertsolari guztiei zuzendu zaie inkesta, eta bost ez gainerako denek erantzun dute. 140 erantzun aztertzen dira, horrela, orri hauetan. Hona, bada, gaurko bertsolarien eritzia eta jarrera, luze eta zabal emana inkestaren barruan.

### 1. Bertsolariaren irudia eta eitea

Zein irudi eta tankera isladatzen du gaurko bertsolariak?

Zorionez, gaurko bertsolariaren irudi bat baino gehiago da. Esan nahi dut: inguruan bezala, denetik dagoela bertsolarien

artean ere. Populazio normala dela, alegia. Populazio marjinal bat identifikatzen errazago izaten da beti. Lanak ditu egungo bertsolarigoa deskribatzeak. Segurutik, askoz errazagoa zatekeen duela 50 urteko bertsolarigoa aztertzea, homogenoagoa zelako.

Aitzin-ohar metodologiko hauen ondoren, gatozen gaurko bertsolarien mugarri nagusiak ezagutzera.

Bertsolari gazte eta gordina da gaurko gehiena. Egin kontu % 64,3k altuenean berrogei urte duela. Eta ematen du, geroa segurtaturik dagoela, jendearen aldetik behintzat, bertsolariak bere funtzio soziala asmatzen badu. Datozenak gehiago dira erretiratuak baino.

Bertsolari gehienak, erdia eta gehiago (% 57,2), Gipuzkoan jaioak dira. Bizkaia dator bigarren, baina laurden batekin bakarrik. Harrobi nagusiak hauexek dira: Urola/Kostaldea (% 17,9), Goierri (% 11,4), Deba Garaia (% 10) eta Busturialdea (% 9,3). Ez ote da hori gertatzen euskarak dentsitate gehien duen tokietan? Deba/ "Kostaldea"ren salbuespenarekin, itsasoak bertsolari gutxi sortzen bait du.

Ikasketa-maila apaleko jendez osatzen da nagusiki kolektibo hau. Oinarrizko heziketatik gora pasa gabeak % 61,1 dira. Batxilergora iritsi dena laurden bat da (% 25,2). Laurden horrexek demaio irudi berria eta berritasun-tankera bertsolaritzari. Horietako batzuek, izan ere, erdimailako eta goimalako ikasketak egin dituzte, eta punta-puntako bertsolariak dira. Bizkaia da ikasiena, eta Iparraldea apalena.

Ikasketa-maila apalak ez du derrigor kultur maila apala adierazten, horri ere ohartu eta kasu egin behar zaio. Bertsolariari asko exigitzen zaio gaur. Eta estudio apalak izateaz gain, aspaldi ahaztuak izan arren, bere burua jantzi eta landu beharrean aurkitu da geroztik bertsolaria. Ugari dira asko irakurtzen dutenak (% 46). Eta dozenerdi bat bakarrik deus ere irakurtzen ez duena.

Ofizioz, langileak (% 46) ugariago dira ugazabak (% 21,6) baino. Ugazaba, alegia, bereziki baserritarrak (% 7,9) eta saltzaileak (% 7,1). Langileen artean, arotz, hargin, igeltsero, tornulari, mekaniko eta gisakoak dira gehienak. Hau da harrigarri lanbideetan: bertsolarien % 10,8 irakasle da, batez ere euskal irakasle.

Gizonezko hori —gizonezkoa, bai; emakumezko-pare bat dago inkestan— noiz-nola hasi da jendaurrean bertsotan?

Gaurko bertsolarien gehiengoa (% 72) oso gazterik plazaratu da, 25 urtez behetik. Toki batzuetan beste batzuetan baino gazteago hasten dira, segun giroa. Ikusten da, baita ere, adinean aurrera doazenak eta gazteenak gizon gordinak baino gazteago plazaratu direla. Ez ote daiteke izan, agian, frankismoak atzeratu egin duela plazaratzeko adina, sorturiko trabak eta desgiroa direla medio?

Norberaren jaioterrian plazara daiteke bat. Edo eskualdean. Edo probintzian. Berdin dio, kasurako. Ez da hain korrientea probintziatik kanpo hastea, herri mugakidea ez bada. Nolanahi ere, badirudi mugak zabalduz doazela gero eta gehiago.

Zer da gizon hori bertsogintzara bultzatzen duena? Faktore erabakiorretan lehenbizikoa zaletasuna da (% 29,5); azken batean, bokazioa. Lagunarteak ere eragin handia du (% 25,2). Bertso-eskolak ere bai, horrek ere badu berea, baina goizegi da uzta biltzen hasteko. Faktore erabakiorragotzat eduki zitekeen etxeko giroa, baina ez da hainbeste (% 12,9). Eta, halere, % 61,9k bertsolariren bat izan du familian. Gehiago oraindik: % 25ek aita edo aitona du bertsolari.

## 2. Bertsolariaren jokabideak

Plazaratu, eta gero zer?

Has gaitezen galdetuz non abesten duen gehien bertsolariak. Modu klasikoa da nagusi eta, beraz, bi bertso-leku: plaza eta sagardotegia, herrietako festak edo koadrila-otorduak direla eta. Leku guztietan ez da berdin. Plazan kantatzeko ohitura gehiago dago, adibidez, Iparraldean eta Busturialdean. Deba arroan taberna plazaren aurretik dator nabarmenki.

Bertsolari gordinak tabernako esperientzia gehiago du plazakoa baino. Zaharragoak gehiago ibili dira plazan. Eta zer esanik ez gazteak: txapelketa bera ere tabernaren aurretik agertzen da gazteen artean.

Hori bai, batzuk zein besteak, gustoraen ibili, afalosteko saioetan dabiltza (% 64,7). Ez da harritzekoa: girorik goxoena eta exigentziarik gutxiena ere hortxe ditu. Plaza librea eta jaialdia gero datoz, oso berandu. Iparraldean lehentasunak ez du berdin funtzionatzen: giroak ez du halako tirarik. Nahiago dute, bai, plazaz plaza ibili. Goimailako ikasketak egin dituztenek ez dute taberna hartzen saialeku gustokoentzat, plaza librea baizik.

Bertsolariaren lana ez da jendaurrean kantatzearekin agortzen. Bertsogintzaren inguruan izan ohi da beste lanik ere sarritan. Bat, epaile bezala ibiltzea izaten da. % 27,3 bat horretan ere aritu izan da, baina gehien-gehienak ez. Gai-jartzaile bezala, bai, horretan askoz gehiago ibili da bertsolaria (% 55,4), batez ere enplegatu eta irakasleak, goimailako ikasketak eginak eta gazte-helduak.

Ez da egia, askok uste duenaren kontrara, bertsolariak irakurtzen eta idazten ez duenik. Bietako ezein egiten ez dakiela uste duenik ere bada. Egia da, bai, irakurtzeko ohitura handirik ez duela askok (% 49,6). Idazteko gutxiago, noski. Baina ia beste horrenbeste dira asko irakurtzen dutenak (% 46), eta bada taldetxo bat etengabe idazten ari dena. Gazte-jende ikasi eta eskolatuak dakartza aire berriak. Bizkaia aurretik doa irakurzaletasunean. Nafarroak eta Iparraldeak lehengo lepotik dute burua (Gipuzkoa barnean Deba arroak markatzen ditu bide berriak).

Zein bertso-mota du gogokoen gaurko bertsolariak? Zein bertso-eran aurkitzen den gustoraen, elkarrizketa guztietan galdetzen zaio bertsolariari. Hirutan banatu dugu guk galdera: neurria, gaia, modua.

Neurririk gogokoena, oro har, erdia eta gehiagorentzat (% 52,5) zortziko nagusia da. Bertsolarien laurdenak (% 25,2) bakarrik aukeratzen du zortziko txikia. Deba arroan eta Urola/Kostaldean, ostera, bitaratu egiten da hautapena: zortziko nagusia beste ia zortziko txikia.

Gaietan, berriz, umorezko gai-mota du gogokoen multzorik handienak (% 41). Sentimentalak ere botu asko du (% 30,2), batez ere Urola/Kostaldean eta Goierri/Tolosalde/Donostialde parajean.

Eta zein bertso-modu du gogokoen bertsolariak? Tema, teman aritzea gustatzen zaie erdiei (% 50,4). Librean aritzea ere atsegin du askok (% 29,5), baina dexente gutxiagok. Bakarkakoak ez du tira handirik: aitortu beharra dago. Etorkizunari begira, ematen du oraingo joera hau indartu egingo dela: zenbat eta gazteago eta temazaleagoa da bertsolaria; librean aritzeak, berriz, zaharren artean du erakarmen handiagoa.

Alde askotatik da interesgarria jakitea ea nor den bakoitzarentzat bertsolari estimatuena eta gogokoena. Bakoitzak hiru bertsolari hauta zitzakeen. Eta bai hautatu ere! Lehen hirurak hauek dira: Uztapide, Lasarte, Basarri. Hirukote hau Gipuzkoako eta Nafarroako bertsolarien hautapenetan da nagusi. Baina ez "periferian".

Araba/Bizkaian Xalbador-Uztapide-Txirrita datoz lehen tokietan. Eta Iparraldean, Xalbador-Mattin-Uztapide. Seinala dezagun, Uztapide dela leku guztietan aukeratzen dena.

Hirukote nagusi horrek (Uztapide-Lasarte-Basarri) ez du balio 25 urtez azpikoentzat. Hauen aukera, Txirrita-Xalbador-Lasarte hirukotearen aldera doa. Adin guztietan bat bakarra agertzen da lehen hiruren artean: Lasarte.

Eskolak ere eredu desberdina dakar: Txirrita-Xalbador-Xenpelar. Eskolakoen eredu berbera dute ikasle-irakasleek. Goreneta-ko ikasketa-mailetan ere berdintsu.

Bada hemen zer azterturik franko. Gauza segurua da joera ezberdinak nabari direla, segun lekuak, adina eta beste. Esan daiteke, bertsolarien kolektiboan badela bertsogintza-molde nagusi bat, "Uztapide-Lasarte-Basarri" hirukoteak ongi ordezkatzen duena. Eredu gipuzkoarra. Gipuzkoan da nagusi bertso-era hori, bereziki sasoiko bertsolari arruntetan.

Eredu nagusi honen ondoan, bestelako joerak eta gustoak badira. Izen-hautapena aztarna salataria da horretan. "Gipuzkera" hori gainditu nahia ote dagoen nago. Ukaezina da behintzat tradizio klasikora itzuli nahia edo, gutxienez, bertso-era diferentearen bilaketa. Xalbador-Txirrita-Xenpelar-Bilintx bertsolariek errepresenta dezaketen bertso-era, hain zuzen. Molde berrien zaletasuna eta bilaketa nonnahi aurki dezakegu: Araban eta Bizkaian, gazteengan, bertso-eskoletan, ikasiengan.

### 3. Bertsolariaren eritziak eta jarrerak

Eboluzioa laudorioz eta gorespenez beterik doa, harik eta ofizioetara iristen garen arte.

3.1. Azalez eta mamiz aldatzen ari omen den bertsolaritza hau nola baloratzen du bertsolariak? Ondoko alor hauetan baloratu behar du aldaketa: doinua, teknika, gaia, ofiziotakoa, hizkuntza, euskara.

Eboluzioaren batezbesteko balorazioa positiboa da oso. Gehiengo handi batek begi onez ikusten du bertsolaritzak daraman bidea. Oro har, puntu guztiak bat eginda, % 71,4ekoa da aldaketaren onarpen-indizea. Gaitzespen-indizea, aldiz, ez da handia: % 18,3 bakarrik.

Onarpen-indizerik handiena doinuaren eboluzioak ematen du: % 83,6k doinuak aberastu egin direla eta hori oso positiboa dela, esaten du. Teknikaren aberastasunak ere onarpen zabala du (% 79,3). Gaiaren aldetik, eta berdin hizkuntza zein euskararen aldetik, bertsolaritzak eman duen aldaketak onarpen-indize altua du, eta maila berdintsuan mantentzen da hiruretan: lauetatik hiruk onartzen du eboluzioa.

Onarpen-indize horren suntsiketa puntu batean dator, beste guztietan altu ibili eta gero: ofiziotan aritzeak ez du aldaketa positiborik izan askorentzat. Aldaketa negatibotzat jotzen dutenak gehiago dira: % 42,9 kontra eta % 39,3 alde. Harrigarri gertatzen da benetan puntu honetako beherakada.

Aldaketa hau ez da leku guztietan berdin ikusten eta baloratzen. Onarpen-indize altuena Bizkaiak ematen du, Bilbo Handiak salbu, honek Arabarekin batera eskasena ematen bait du. Onarpen-indize baxua ematen du Goierri/Tolosalde/Donostialdeko zonak.

Adinaren araberako onarpen-indizerik altuena 35-49 urtekoetan aurkitzen dugu. 25 urtez azpikoak dira kritikoenak, alde handiz gainera.

Kategoria sozialetan ere ikasleak dira onarpen-indize txikiena demaiotenak eboluzioari.

Arrazoi desberdinak daude onarpen/gaitzespen indize horien baloratze-oinarrian. Gaitzespenaren kasuan ere bai, badira motibo ezberdinak, baina bat da denetan nagusia, gorago esan bezala: ofiziotakoaren aldaketa, alegia.

3.2. Balorazio orokorretik eritzi-emate konkretuetara jaisten gara orain. Banan-banan eta elkarren ondotik aztertuko ditugu: bertso-saioak, txapelketak, bertso-eskolak, Bertsolari-Elkartea.

3.2.1. Bertso-saioetan, saioak eta saioak daude. Badira leku itxiko saioak. Badira leku irekikoak. Eta badira saio informalak.

Ez da gehiegi esatea, alderdietako eliteen portaerak barneko hauteskunde-sistema ahalik eta gehien ustiatzeko estrategia ispilatzen duela. Alderdietako zuzendaritzak, beste talde sozialetakoak bezalaxe, izaera bikoitza azaltzen du Duverger-en eritziz: itxura demokratikoa eta errealitate oligarkikoa izaten omen ditu. "Demokraziak" doktrina nagusi izaten jarraitzen du gaur egun eta horrek definitzen du boterearen legitimitatea. Alderdiek, beraz, asko zaindu behar izaten dute itxuraz demokratikoa den zuzendaritza hautatzea.

Mundu osoko alderdiek garatzen dituzte prozedura autokratiko eta oligarkikoak, beren estatutuak kontutan izan gabe, eta prozedura-sail desbideratu baina eraginkorra erabiliz. Teknika hauen sakontasuna beste faktore hauen araberakoa izaten da: alderdiaren osaketa sozialaren araberakoa, bere kideen sentimendu demokratikoaren indarraren, alderdiaren doktrinaren,

alderdiaren adinaren, buruzagien karakterearen eta masek horiei dieten gurtzaren araberakoa.

Aztertu ditugun alderdi gehienen kasuetan, hauteskunde-sistema demokratikoaren ordez, erreklutamendu-teknika autokratikoak erabiltzen dira era sistematikoan: aukerakidetza, exekutiba zentralak edo lokalak izendatzea, aurkeztea, etab., botere errealaren eta agerikoaren arteko bereizketaz larriagoturik hori guztia.

Alderdien bizitzak ezaugarri izaten duen kanpoko forma demokratikoak oligarkiarako joera ezkuta dezake; hori, Michels-ek esan bezala, erakunde ororen baitakoa izanik. Joera hori estudiatzeko behaketa-eremurik egokiena alderdi demokratikoek eta beren barne-egiturek osatzen dute. Alderdien bizitzako azalpen oligarkikoen estudioa, beraz, balio handikoa da eta erabakiorra bere emaitzetan.

Orain arte aztertutako alderdi guztietan eratzen da oligarkia bat, batzuetan espontaneoa, beste batzuetan ez. "Irabazleak dena beretzat eramaten duen" barneko hauteskunde-sistema bat dagoenean, zatiketak gutxitu egingo dira, baina baseen sentimendua nabarmenki nahasgalduta geratuko da. Alderantziz, barneko hauteskunde-sistema oso proportzional batek zatiketa-indize altua emango du, baina ordezkaritza askoz ere egiatiagoa izango da. Bereziki egiten dira, gainera, zatiketa ideologikoak eta interesez sortutako zatiketak, hondarrak banatzeagatik sortutakoak, etab., eta horrek zaildu egiten du azterketa.

Adimen-mailaz masaren gainetik dauden pertsonen eraginez, hautesleek uste dute, urnetara joan eta beren interesen defentsa delegatu baten eskutan utziz, boterean parte hartzen dutela. Alderdien kontrako erasoak egunero egiten dira, ez hauteskundeak daudenean bakarrik; gaia gure garai-garaikoa da. Ba al da hori baino adibide hoberik gizarte totala ulertzeko? Seguru asko ez, horrek bere baitan eta miniaturan botere-erlazioen tentsioak, presio-taldeak eta beste hainbat kontzeptu sozial ispilatzen bait ditu. Alderdi politikoak dira bizitza politikoaren agente nagusi.

Barneko demokraziak barneko oposizioa eskatzen du. Horretarako, ahalik eta gehien segurtatu behar da alderdien barruan frakzioak eratzea, eta berebat gutxiengoen ordezkaritzak izatea. Antolaketa eta programa partzialki autonomoak dituzten barne-frakzioei izaten utzi egin behar zaie, interes desberdinak integratzeko direnean. Gizartearen demokratizazioaren alde da-

goen edonork derrigorrez egon behar du frakzioen eraketaren alde.

Jendaurrean batasun trinko bezala azaldu nahiz, kritikoak —frakzioak eratzen dituztenak— diziplinatzera jotzen dute alderdiek eta haiek kalera botatzeko posibilitatea ere kontutan hartzera. Zehapen guztiak legitimatzeko balio duen formula erabiltzen da azkenean: "jokabide alderdiarentzako kaltegarria". Iraizpen-prozedurek zurruntasuna ezartzen diote alderdiaren bizitzari.

Alderdien barneko ordezkaritzan ere estatu mailako arazo berak planteatzen dira aginteari dagokionez: librea ala derrigorrezkoa behar duen. Demokraziaren ordezkaritza hutsaren aldeko interpretazioari jarraituz ere, delegatuek faltseatu egin dezakete kideen borondatea batzarreetan, hautesleena parlamentuetan faltseatzen den bezalaxe.

Alderdiz osatutako Estatuan barneko demokrazia ezin da derrigorrezko agintetik banandu, alderdiek, egitez, monopolioa bait daukate kandidatuak hauteskundeetan aurkezteko. Beraz, diputatuek "alderdia"ren agindua jasotzen dute batez ere, eta ondoren bakarrik hautesleen onarpena.

Derrigorrezko agintea ezartzeak, ordea, basea politizatua egotea eskatzen du, eta edukiak eztabaidatzeko egoeran. Aldiz, alderdiei buruzko ikerketa enpirikoek base horren apatia politikoaren froga ugari ematen dute.

Autoreak bat datoz edozein alderdirentzat batasuna beharrezkoa dela esaten, eta inork ez du ukatzen "alderdiz osatutako alderdia" posible dela; baina gero, erakundearen arauketek (hots: alderdietako konstituzio, lege eta estatutuen demokraziazko inperatiboek) ezin diote egitezko desdemokratizazio bati itzuri egin.

Prozesu horri begira daudenen artean bi erreakzio desberdin suma daitezke. Batzuentzat oligarkia itzuriezineko ondorioa izango da. Eremu desberdinetako "manager"ek ezarritako jokamoldeetara egokitzen den neurrian bakarrik zentzu izango du hiritarren edozein konpromisuk. Alderdien barneko bizitza itxuraz bakarrik omen da demokratikoa. Beste autore batzuek masen desdemokratizazioa geratzea posible dela hartzen dute oinarritzat. Hauek esatera, barne-demokraziaren itomen oligarkikoa ez omen da itzuriezineko prozesu sozial eta politikoa, eta demokratizazio-estratagemak ez omen daude aurrez porrot egitera kondenatuak.

Alderdi-sistema alderdianitz polarizatuaren ereduaren barnean aurkitzen da Euskadi. Problema nazionalak sortutako urratua gehitu behar zaio horri; honek, noski, neurri batean konplikatu egiten bait du espektru politikoa. Sistemaren aurkako alderdi garrantzitsuak izateagatik bereizten da Euskadi, gobernuaren aurkako oposizio bilateralak dituzten alderdiak izateagatik. Aldiz, "sistemaren zentru metrikoa" izendatuko genukeena ere okupatua dago garbi-garbi. Polarizazio politikoa eta alderdi-sistemaren joera "zentrifugoak" nabarmenak dira. Alde batetik "super-eskaintza"ren politika praktikatzen dute alderdiek, gehiegi aginduz, eta, bestetik, "pragmatismo ideologiko"aren politika alderdi "zentralek".

Gai honi buruz pixka bat pentsatzen jarriz gero, ondorio harrigarriak ateratzera iritsiko ginateke. Masak pasiboki onartzen al du, koadro gidariak hautatzera eta bileretara joaten den militante-nukleo txiki baten eskuetan uztea bere gidaritza? Azterketa-lan guztietan ateratzen denez, militante eragileek zuzentzen omen dituzte afiliatuak. Alderdietako kideek ez dute gizarte igualitarioa eta uniformea osatzen, komunitate biziki hierarkizatua baizik. Baina gainera, eta urrats bat aurrera emanez, sistematikoki eta kontzienteki egiten al da hori? Autoritarismoa edo "zentralismo demokratikoa" bezalako hitzak erabil al daitezke? Autore klasikoek deskribatutako fenomeno horiek berak gertatzen al dira Euskadin ere? Horixe da hemen aztertu nahi dudana.

Alderdi bakoitzeko elkarrizketatuen[1] kopurua zehazteko jarraitu dudan erizpidea, alderdiaren frakzionalitatearen eta beraren indar elektoral eta sozialaren funtzioan dago. Elkarrizketarako aukeratutako pertsona bakoitzak alderdi baten frakzio bakoitzeko ordezkari izan behar zuen, edo inoiz hala izana izan beharko du, frakzio nagusia edo boterean dagoena ere barne sartuz. Jakina, oso zaila gertatzen da, kasu batzuetan, frakzioaren izenean hitz egingo duten pertsonak aurkitzea, bai organizazio-zailtasunagatik —beharbada organizaziorik ez dute, eta joera latenteak besterik ez dira—, eta bai organizazio-mota "koaliziokoa" eta ez-lideratua izateagatik, edo inoren izenean zerbait esan eta horrek ekar liezaizkiokeen ondorioen beldur izateagatik.

Elkarrizketa egituratu gabeak, marko teoriko egoki bat osatu ondoren eta gai interesgarri eta adierazgarrienak aurrez estudiatu ondoren egin dira; era horretan, elkarrizketaren gida osatu ahal izan da, eta, ondoren, jasotako informazioa era sistematikoan aztertu, baliozko konparazioak eta ondorioak ateraz.

Pertsona eta egoera bakoitza desberdina balitz bezala tratatzeko aukera ematen dio egituratu gabeko elkarrizketak ikertzaileari, elkarrizketa garatzen doan neurrian aldatuz joateko aukera. Baina, bestalde, elkarrizketa desberdinen arteko ordena, izaera eta edukina zenbat eta gehiago aldatu, orduan eta datu zientifikoak aurkitzeko aukera gutxiago. Galderek nolabait ere standarizatuta egon behar dute.

Behar diren neurriak hartuz gero, bi prozedurok ez dute nahitanahiez elkar kanpoan uzteko modukoak izan behar. Elkarrizketak osatu egin daitezke, beren garapenaren edo beste elkarrizketen garapenaren argitan, eta baita errepikatu ere.

Azkenik, esan behar da aurrez prestatutako galderak egin ondoren, erantzunak "irekiak" izan daitezkeela, galdera zentral batzuk mantenduz behintzat: hau da, galderok erantzunez, kasuak sailkatu, kasuen arteko konparazioak egin eta, nolabait ere, tipologizazio bat egiteko modua utziko duten posibilitate fijo batzuen barruan mugituz.

## Ondorioak

### 1. Frakzioak egoteari buruzko doktrina ofiziala

#### a) Coalición Popular

Frakzioak erabat debekatuta daude koalizioaren barne-estatutuetan. Koalizioan alderdi desberdinak egotearekin konpentsatzen da frakzioen ausentzia.

#### b) Partido Socialista Obrero Español

PSOEn "eritzi-korronteak" daude legalizatuta; ez dira iristen "frakzio"aren organizazio-mailara eta gainditu egiten dute "joera"rena, Sartori-ren terminologian. Eritzi-korronteak ezin du eduki lokalik, finantziaziorik, karnetik edo komunikabide propiorik, eta ez dago proportzionalki ordezkatua organo baterazleetan.

c) Eusko Alderdi Jeltzalea

Estatutuetan frakzioak sortzeko posibilitatea kontutan hartzen ez bada ere, ez dago espresuki debekatua. Estatutuak errealitatearekin desegokituta daudela esateko kasu nabarmena dirudi; nahiz eta orain, Eusko Alkartasunaren zatiketa gertatu ondoren, egokitzapenaz hitz egiteak zentzurik ez duen.

d) Euskadiko Ezkerra

Kasu bakarra da frakzioak legalizatzen dituena eta karguak hautatzeko edo iharduteko eta adierazteko kanalak izateko proportzionalitatea onartzen duena. EEn bi eratako afiliazioa dago: lokala eta sektoriala.

e) Herri Batasuna

Barne-egitura berezia dauka honek, zeharkako alderdien antzekoa, hau da, batutako baseko talde sozialez osatua dago. Frakzioak legalizatzeko premia, beraz, ez da hain nabarmena.

### 2. Alderdiaren edo alderdiaren hurbileko prentsa

Hiru egoera-mota bereiz daitezke: alde batetik EEren *Hemendik* daukagu; hartzen diren gutun guztiak argitaratzeko obligazioa du eta ideologi debateko aldizkari bezala dago pentsatua. Barne-arazoetan neutrala dela pentsatzen dute kritikoek ere.

Beste muturrean *Euzkadi, Alderdi* eta *Deia* jar ditzakegu. Kritikoak —gaur EAn daudenak— bat datoz barne-arazoetan neutraltasunik ez dagoela salatzean. "Ofizialisten" kontrola salatzen da, informazio alternatiboak blokeatu egiten dituztela.

Tarteko maila batean jar ditzakegu AP, PSOE eta HB. Barneko zirkularrak "ofizialistak" direla esan daiteke eta aurrez hartutako erabakiak justifikatzeko izaten direla, baina kritikoek ez dituzte beligerantetzat salatzen.

### 3. Ahaldundu bidezko komunikazio-sistema

Esan daiteke zentrala dela PNV eta HBn, eta bigarren mailakoa PSOE eta EEn. Bi alderdi hauetan komunikazio-kanal osagarria da; elkarrizketatuen artetik inork ez du ikusi horren kontra ezer salatu beharrik.

PNV eta HBri dagokienez, badirudi orokorki onartzen dela ahalmendu guztiak beren txostenetan neutralak ez direlako eritzia, baina zaila dela zenbat diren kuantifikatzea. Ekintzaren "konszientzia" ere ez litzateke oso argi egongo, elkarrizketatu batzuek "giza egintza" izateari egozten bait diote horren erantzukizuna.

Beharbada, sistema beraren baitan egon daiteke problema, elkarrizketatuaren "borondate onean" oinarritzen bait da dena. Sistema bera da akatsak izateko modukoa, ahaldunduaren objektibotasun-ustean oinarritzen bait da. Komunikazio-sistema hau beste batzuekin osatu beharra dago.

#### 4. Kritika-askatasuna mass-mediatan

Azterketa-gai honetan ere hiru permisibilitate-maila ezar daitezke. Alde batetik, EE daukagu. Alderdi horretan militatzeak ez dakar, inola ere, edozein hiritarri onartzen zaizkion eskubideen murriztapenik.

Tarteko mailan, PSOE eta HB daude. Hauetan, kritika noiz egiten den kontu izaten da, eta ez dago arau jakinik. Beste alde batetik, PNV eta AP dauzkagu; komunikabideetan egindako kritikak debekatu egiten dituzte hauek. APn, kritikek ematen duten "irudi txarra"rengatik.

PNVren barnean, "isiltasun-paktua"ren kontrako jarrera gogorra zegoen, eta horregatik auzipetutako bat baino gehiago zegoen. Ondorio bezala, esan daiteke, militantziak, batzuetan, eskubide zibilei uko egitea eskatzen duela, "alderdi-arrazoi"ez eta onartutako helburuen lorpenerako.

#### 5. Alderdiaren instantzia desberdinen autonomia

APk eta PSOEk mugatuta daukate alderdiaren instantzia lokalen autonomia; ez, hartu beharreko erabakiaren eremuagatik, erabaki horren transzendentziagatik baizik. HBn eta EEn autonomia lokala ematen da, funtsezko ideologi printzipiorik urratzen ez den bitartean.

PNVn "konfederabilitatea" hitza erabiltzen da eta geografi eremu desberdinen autonomiari eta subiranotasunari egiten dio erreferentzia. Baina printzipio horren "adiera" desberdinak daude, eta, ondorioz, oso eztabaidatua gertatzen da printzipio hori praktikan.

Hiru interpretazio bereiz daitezke: a) konfederalismo hutsa, hitzarmen konfederala hausteko posibilitatea onartzen duena (Ormaza, Amezketa); b) konfederalismo murriztua (Insausti eta Anasagasti), eta c) konfederalismo tartekoa, beto-eskubide bezala ulertua arazo batzuetan (Garaikoetxea, Boneta).

### 6. Diziplina-auzitegiak

PNV ez beste alderdietako jendearen artean inork ez du pentsatzen (ez disidenteek, ez iraitziek) diziplina-auzitegiek paper garrantzitsua jokatzen dutenik; aldiz, PNVko kritikoen artean, gaur EAn daudenen artean, gaia arretaz eta kezkati tratatzen da, gai zentrala dela garbi utziz.

Elkarrizketetan azaldu denez, honako hauek dira salaketak: "lehiakideak baztertu egiten dituzte motibo ideologikoz", "boterearengatiko borrokaren parte dira", "estatutuak urratu egiten dira", "purga ideologikoak egiten dira", "orain arte ez bezalako jokabideak", "erabilera abusiboa", "ez dira neutralak hautatzeko moduan"...

Adierazgarria da nola, beste alderdietan inork aipatzen ez dituen bitartean, PNVren barruan etengabeko erreferentzia nabarmenak eta kezkagarriak izaten diren. Jendaurrean gehien zabaldu diren ekintzen artean aipa daitezke: Bermeoko kasua, Nafarroakoa, Gasteizkoa, etab.

### 7. Hauteskundeetako manipulazio konkretuak

Arlo honetan ez dut salaketa handirik jaso, salbu HBren kasuan, horiek "asanblada guztiz anarkiko"ez hitz egiten bait dute. Labur esanda, lakra itzurizaila dela dirudi, baina gertatzen dena, eta hauteskunde-prozesu orokorretan normala den baino neurri handiagotan, gainera; eta pentsatzen hasteko datua da hori.

### 8. Ageriko buruak eta benetakoak

PNVn eta EAn inork ez du ukatzen mementuren batean buru agerikoak eta buru benetakoak izan direnik; batzuek justifikatu egiten dute "prestakuntzagatik", eta beste batzuek kritikatu. Badaude beste salaketa batzuek, ETAk HB gidatzen duela esaten dutenak. HBkoak izandako batzuek hala dela aitortzen dute, eta bertan jarraitzen dutenek ukatu egiten dute.

### 9. Militanteen formazioa

Gai honek orain ez du trantsizioaren hasieran zuen transzendentziarik. Hitzaldi bidez eta eguneroko praktikaz bideratzen da gaur gai hori. Militanteen eta sinpatizanteen arteko diferentziena beste gai bat da; izan ere, alderdietako leader-ek ez dute, beharbada, sinpatizanteen independentzia ondo kalibratzen, batez ere erreferendumei begira.

### 10. Barneko hauteskundeen sistema

Puntu honetan ez dut deskribapen orohartzailerik egingo, baina aztertu nahi nuke elkarrizketatuengandik jasotako informazioa Duverger-en ekarpenen arabera.

a) Alianza Popular

Honen barneko hauteskunde-sisteman, zerok detektatzen dira beste gauzen artean: zeharkako sufragioa, maila desberdinetako delegatuak eta “demokrazia errepresentatiboa”, gizartearen maila orokorrean bezala.

b) Partido Socialista Obrero Español

Hemen ere badaude zeharkako botua, maila desberdinetako delegatuak eta “demokrazia errepresentatiboa” kongresuen artean. Hemen ez ditu, APn bezala, alderdiaren lehendakariak izendatzen karguak.

c) Eusko Alderdi Jeltzalea

Esan daiteke ez dagoela lehen deskribatutako eritzi-deformazioaren mekanismorik, baina sistemarik inportanteena zera da, botuen balioaren aldaketa eta “gizon bat/botu bat” printzipiotik urruntzea, guzti hori arrazoi historikoz justifikatuz.

d) Euskadiko Ezkerra

Alderdi honetan zerak bakarrik aipa daitezke: demokrazia errepresentatiboaren baldintzapenak, barneko erreferendumen ausentzia eta sistema asanbleario hutsari itzuri egitea.

e) Herri Batasuna

Esan daiteke ez zaiola jarraitzen "gizon bat / botu bat" printzipioari, botuen balioaren aldaketa justifikatuz batasun herritarraren programaren exigentziengatik.

## 11. Frakzioen azterketa

a) Joera pertsonalistak eskuin-zentru espainolean

Hain aberatsa eta hain kontutan hartzekoa izan zen lehengo Unión de Centro Democrático haren egoeratik aparte, orain dagoen masa-alderdi bakarraren, APren, egoera badirudi itxaronaldi batean aurkitzen dela "Sánchez-Aróstegui" *affaire*-aren ondoren.

Gipuzkoan ere sortu zen antzeko beste kimu berri bat, batez ere belaunaldien arteko diferentziekin zerikusi handiagoa izan zuena; eta, seguru asko, beste gehiago ere izango dira. Dena den, boterearengatik borrokatzen duten joera pertsonalistak (garrantzizko ideologi desberdintasunik gabe gehienetan) zailak dira deskubritzen, aztertzen eta, batez ere, aurrikusten. Eboluzio politiko orokorraren eta koalizio-lagunekiko erlazioen baldintzapean egongo da dena.

b) Izquierda socialista

PSE/PSOEren barruan % 10etik hurbil dabil. Esan daiteke ezkerreragoko taldea dela alderdiaren barruan, eta bere postulatuen artean, honako hauek sartzen direla: UGTren pisu handiagoa alderdian, eta horren eragina gehitzea, langileen interesak erasan ditzakeen politika gubernamentalari kontrapisua jartzeko; autonomiaren gaian, politika biziki autonomistagoa proposatzen dute. Barne-demokrazia gehitzearen aldeko dira, eta, gehiegizko pragmatismoa alboratuz, utopia sozialistari eutsiko dion alderdi bat nahi dute. Korronte honek balio dezake alderdiaren debate ideologikoa bizkortzeko. Baina horren egiazko eragin-kortasuna txikia da, eta, azkenean, botua alderdiko sektore ofizial maioritarioetakoren bati ematera behartuta aurkitzen dira.

c) "PSOEko gipuzkoarrak" (ofizialak)

Deitura hau, nabarmenki desegokia eta okerra izanik, Nicolás Redondori jarraituz erabiltzen dut hemen, bertan sartuz, na-

gusi gipuzkoarrak izanik ere, Euskadiko eskualde-exekutibaren aldeko diren edozein lurraldetako pertsona guztiak. Talde honek ia ez dauka jenderik Bizkaian, nahiz eta pertsonalitate aipagarriak dituen; eta Araban, tratatzeko dugun gaiak baldintzapetua dago.

Ideologiaz, euskal nazionalismoarekiko onarberagoak dira, eta nazionalistekin akordio eta konpromisuetara iritsi-zaleagoak. Bestalde, gobernu espainoleko ministrari ekonomikoengandik hurbilago aurkitzen dira, eta errazago onartzen dituzte exekutiba federal espainolak ezartzen dituen postulatuak.

d) "PSOEko bizkaitarrak" (ofizialak)

Izenari dagokionez, aurreko atalean esandakoa gogoratzen dut. Euskal nazionalismoarekiko bibentzia desberdinek nazionalismoarekiko jarrera beligeranteagoa taxutu dute PSOEren barruan (Sartori) eta liskarrez eta kereilaz zipriztindutako erlazioa daukate harekin.

Sozioekonomiaren arloan, nabarmenki desmarkatzen dira gobernu espainoleko ministrari sozialdemokrata ekonomikoengandik. Bururapen marxista jatorrik defendatu gabe, eta Felipe Gonzálezen buruzagitza kuestionatzen hasi gabe, hartu beharreko erabakietan UGT presenteago egotearen aldeko dira. Status horren posibilitate urriengatik ez dira "eritzi-korronte" bihurtzen.

e) PNVko ofizialistak

Ofizialistek behin eta berriro esaten dute, alderdian ez dagoela ez ezker ez eskuinik, eta, bere baitan klase guztien ordezkaritza duen alderdi interklasista izanik ere, errebindikazio nazionalak alboratu egiten dituela diferentzia horiek guztiak, alderdiaren oreka lortuz.

Hauentzat, askatasun nazionaleko mugimendu handi bezala pentsatzen da alderdia, eta aztertu ditugun diferentziak problema pertsonal sinpleen ondorioz sortuak dira, beren eritziz. Pisuko diferentzia ideologiko handirik ez dagoela diote, eta, gehienez ere, barneko problemak boterearengatiko borrokarekin omen daude erlazionatuta. Ezker/eskuin binomioaren aurrean jarrerarik hartu gabe, ez bait da existitzen, orain dagoen alderdi-kontzepzioa defendatzen dute, eta osaketaz heterogenoak dira.

### f) PNVko kritikoak (Eusko Alkartasuna)

Barne-sistema maioritario baten bidez frakzioak murrizteko kasu garbia zen hau. Heterogenotasun izugarria da talde honetan lehenengo nabarmentzen dena. Printzipio aglutinatzaile bakarra zera izango da beharbada: nazionalismo erradikalago baten defentsa, alderdi-kontzepzio desberdin baten defentsa, Nafarroaren arazoa izanik horren gai garratzena.

Kontzepzio nazionalista erradikalagoak beste sektorearen "ikuspen autonomista etsipendu"arekiko deskonfidantza zuen berarekin. Demokrazia espainola sendotzeko ahaleginetan, printzipio nazionalisten defentsan zabartu egin direla pentsatzen dute. Kritikoen taldean, aldiz, "ezkerrago"ko eredu batean pentsatzen da, diferentzia guztien gainetik, sektore honek benetako garrantzia ematen bait dio aldagai horri. Muinak, ordea, nazionalismo errebindikatzaileago bat izaten jarraitzen du.

### g) Euskadiko Ezkerraren egoera

"Nueva Izquierda" frakzioa alderditik atera ondoren, esan daiteke Euskadiko Ezkerran ez dagoela frakziorik. Hemen egin beharko genukeen galdera, beste honako hau litzateke: frakzio batek noiz jarraitu beharko lukeen bere ideia desberdinak alderdiaren barruan defendatzen ala diferentzia horiek noiz diren beste alderdi bat eratzeko bezain garrantzitsuak. Horri erantzunez, esango genuke alderdiaren osaketa sozialaren, adinaren, historiaren, bere leader-en, etab.en kontu izaten dela hori.

Hona beste galdera gako bat: frakzioari dagozkion eskubide guztiak onartzen zaizkion frakzio bat noiz iritsiko da alderdi bateko afiliatuak bere postulatuaz razionalki ezin dituela konbentzitu ikustera?

### h) HBko "ortodoxoak"

Masa-bloke bat egindako hori zuzentzen duen "abangoardia iraultzaile" moduko bat dugu hau. Talde kontzienteki iraultzaileak dira hauek, estrategia orokorra markatzen dutenak. Ez dago borrokarik gabeko batasunik, ezta batasunik gabeko borrokarik; beraz, teoria eta praktika integratu eta ideiak eta masen jokabidea konbinatuko dituen profesional-nukleo bat behar da.

Esan daiteke, kontzepzio elitista dagoela oinarrian, konpromisu garbia bait dago sektore herritarrak "kontzientzi maila handiago" batez prestatzen joateko. Talde honek babes ideologikoa ematen die sektore herritar inkontziente eta korporatistei. Hemen arazoa zera da: ea nola definitzen den "nor dagoen jadanik kontzientzi maila hori izatera iritsita", eta ea talde horrek erabateko kontrola duen organizazioaren gain.

i) HBren "sektore herritarrak"

Errebindikatzeko gai edo alderdi partzial edo sektorialetan oinarritzen dira, berau beste proiektu orokor batean txertatuz. Baina gauzak lortzeko prozesu honetan, parte hartzen duten herriko sektoreek kontzientzi maila handiagoa bereganatuz joan behar omen dute. Beraz, HBren taxueran bertan bi atxekimendu-maila daudela hartzen da abiapuntu: jadanik kontzientzia dutenak, abangoardia iraultzailea, eta oraindik kontzientziarik ez duten, baina izatera iritsiko diren beste guztiak.

Sektoreak osatzeko ez dago murriztapenik, ez da jartzen kopuru-mugarik. Sektore guztiak biltzen dituen eskaera amankomuna behin lortu eta gero, desagertu egiten da, eta sektoreek, jada prestaturik, benetako xedea deskubritzen dute eta helburu horretarantz bideratzen dira.

### 12. Bilera erabakiorretara joatea. Eremu mailakatua

Alderdi guztietan ikusten da jaitsi egiten dela bilera erabakiorretan edo militantzia aktiboko lanetan biltzen den jende-tasa. Horren zergatien artean daude: trantsizioaren lilura hura galdua, antolabide egokirik eza, denbora-falta, desinformazioa, etab.

Gaia hor dago, eta pentsatzen jartzeko gauza da. Garrantzitsuagoa deritzot beste eremu mailakatu haren gaiari, elkarrizketatuen artean inork ez bait du ukatzen: gizartea - botuemailea - sinpatizantea - afiliatua - militante aktiboa - kargu publikoa edo alderdikoa.

Gai honek bi alderdi ditu: bata kualitatiboa, "demokrazia" edo "alderdia" hitzek komunitate biziki hierarkizatuak izatea inplikatzen bait dute; bestea kuantitatiboa, zeren, adibidez, gehiengo absolutua duen alderdi batekin eta militanteen barneko abstentzioa gertatua, pertsona-kopuru txiki batek erabaki bait lezake milioika pertsonaren etorkizuna.

### 13. Erabaki nagusiak baseei kontsultatzea

Ez da posible, jakina, erabaki guztiak baseei kontsultatzea, utopia litzateke. Baina nork erabaki behar du zer kontsultatu eta zer ez? Horra hor gakoa. Elkarrizketatuek bakoitzak bere eritzia eman du gaiari buruz, eta eritzi horietatik honako hau atera daiteke:

Elkarrizketatuak bi jarreraren inguruan taldeka daitezke: baseen kontsultarik eza justifikatzen saiatzen direnak ("prozesu mantsoa da", "denborarik ez dago"), eta kontsulta gehiago eskatzen dutenak. Bigarrenok pentsatzen dute, gaurko egoera hobe daitekeela.

Ondorio bezala esan daiteke, alderdiek ez daukatela militantearen ekimenerako partaidetza-bide egokirik. Guztiek eska eta onar dezaketen minimo bezala, erabakiak a posteriori ezeztatzeko posibilitatea egongo litzateke, boterearen benetako kontrola egikaritu ahal izateko.

### 14. Alderdiaren agintea ala hauteslearena? Alderdi-diziplina

Hauteskunde-kanpainan nabarmenki konprometitu ondoren, agindua betetzeko obligazioa al dauka alderdiak? Ez betetzea libre izanez gero, nola jokatu beharko luke? Elkarrizketatuen erantzunak hiru talde handitan bil daitezke:

a) Beste guztiaren gainetik alderdiko exekutibaren agintea jartzen dutenak karguaren egikaritzako epe barruan. Jarrera hau alderdi-diziplinaren derrigorrezkoarekin loturik dago. Botere-erantzukizunak dituzten pertsonak dira.

b) Hauteskundeetako aginduak besteren gainetik jartzen dituztenak, baseei espresuki kontsulta egiten ez zaien bitartean behintzat. Botuaren diziplina mantentzearen aldeko dira, eta jarrera kritikoak izandako jendea da.

c) Botere-erantzukizunik gabeko alderdi txikiak, beraz bi aginteak kontraesanean jartzea nekez gertatuko zaien alderdiak.

### 15. Gobernatzaileen hautespen-sistema

Elkarrizketatuak zerrenden hautespen-sistema oraingoa baino "gutxiago itxi" baten alde azaldu dira ia ahobatez. Zerrendaren barruan hautatzeko zerrenda-sistemaren alde azaldu dira ge-

hiengo ikaragarriz. Primario-sistemari buruz, bi motatako eragozpenak jartzen dira:

a) "Ez du ekipo homogenorik sortzen". Eragozpen honek ez du zentzurik, talde parlamentarioek homogeno izan beharrik ez daukatela pentsatzen badugu. Edozein modutara, ekipo homogenoak sortuko lirateke zirkunskripzio bakoitzean.

b) "Botu gutxiren aldearengatik espezialista aipagarriak uzten ditu kanpoan", hau alderdi txiki eta homogenoetan. Baina, hain zuzen alderdi txiki eta homogeno izateagatik har dezakete hobespen-botua ez errespetatzeko akordioa.

### 16. Alderdi barneko munduaren gardentasuna

Ia elkarrizketatu guztiek eskatzen dute alderdi barneko munduan izandako debateak eta ateratako emaitzak gardenago azaltzea gizartearen aurrean. Gardentasun horrek ezin du erabatekoa izan, estrategiaren beharkizunez.

Erantzunek eta eritziek salaketa bat azaltzen digute. Barne-demokrazia botere-kontrolaren funtsezko bariablea delakoa onartuz gero, informatuta egoteko gizartearen eskubidea eztabaidaezina da eta gardentasunik eza botere-abusuaren egos-salda izango da.

Kuriosoa da nola, botere legegileak alderdien barnea nolabait arautu beharko ote lukeen galdetzerakoan, harridurazko erreakzioak sortu diren. Dena den, argi dago alderdien kanpora begirako obskurantismo-marjina murriztu egin behar dela.

### 17. "Catch-all" alderdia eta frakzioak

Alderdi hauek labur defini daitezke pragmatiko izateagatik eta sistemaren zentru metrikoan kokatutako alderdi nagusi izateagatik ("Mundu osoaren alderdiak"). Jakina, horien golkoan hartutako erabakiek gizarte osoaren gain izaten dute oihartzun.

"Eremu mailakatua"ren mekanismoak, baseen kontsultarik eza, alderdi-agintearen garrantzia eta gehiengo absolutuko botu-diziplina, denak batera biltzen baditugu, azkenean oposizio eta kontroleko plataformarik eraginkorrena barne-demokrazia delako ondorioa aterako dugu.

Gehiengo absolutua duen alderdi bateko militanteen arteko debateek zein puntutaraino ordezka dezakete parlamentua edo

gizartea? Mundu honek hainbesteko garrantzia baldin badu, galde dezakegu ea gizartearen beraren ikerketa- eta arreta-falta zergatik gertatzen diren.

## 18. Siglaren indarra *versus* karismaren indarra

Bi jarrera bereiz daitezke. Batetik, alderdiaren indarrari lehentasuna ematen diotenak. Alderdi handien aparatuaren hurbileko pertsonak izaten dira. Siglarik gabe ez dagoela karismarik, uste dute.

Bestetik, bi indarrak kontutan hartu eta mementu bakoitzean garrantzitsuena zein den aztertzen dutenak daude. Inork ez du uste, harrigarria, karismaren indarra siglaren gainetik egon daitekeenik. Sigla eta karisma, biak dira alternatiba politikoen eta beren programen azterketa razionalaren gainetik dauden portaera irrazionalak.

Elkarrizketatu gehientsuek bi maila bereizten dituzte. Bata, "politizazioa"ren maila, erreakzio herritar garrantzitsuak edo jarrera politikoak jasotzen dituena, eta Euskadin Estatuan baino nabarmenki altuagoa dena; bestea, "ideologizazioa"rena, hau da, jarrera razional estudiatua, masek ez dutena.

## 19. Ba ote demokraziarik frakzioen legalizaziorik gabe?

Azken joerek seinalatzen digutenez, badago militanteen artean joera bat, hartu behar diren erabakiak beren izenean exekutiboek har ditzaten uztekoa. Bestalde, gure inguru honetan "joerei" trabak jartzen zaizkie, "frakzio"ak osatzera irits ez daitezen.

Beharbada, premisa faltsua jarri dugu oinarrian: frakzioak behar direla, alegia, barne-demokrazia egon dadin. Baina "demokrazia" egoteko oinarrizko baldintzetako bat oposizio organizatua egotea ezarriz gero, frakzioak beharrezkoak dira.

Ezin ahaztuko da arrisku bat ere badagoela. Anaiarteko batailak, iharduera gubernamentalaren paralizazioa, handinahi pertsonalak, botere-gutiziak, klanen sorrerak, ezegonkortasuna, etab... Militanteak botere-maila izugarri batera altxako lituzke, gainera.

Badago tarteko bide bat ere: azpiunitatez osatutako unitateak direla alderdiak, eta azpiunitateok ikusezinak direla neurri handi

batean. Gertatzez ematen den egoera bat legalizatzea suposatuko luke. Informal dena atzitzea suposatuko luke, horren indarra onartzea eta bideratzea.

Barne-demokraziaren bizitasunaren eta autentikotasunaren demostrazioa izango litzateke frakzionalismoa. Frakzioek dinamika berritzailea ezar liezaiekete alderdi politikoei, egitura ez hain inmobilistak eta bizkorragoak sortzen lagunduko lukeen dinamika.

Bestalde, Euskadin hain da gogorra alderdien arteko beligerantzia, non botuaren sendotzea ekarri bait du, salbu zatiketen kasuan. Dinamika subpartidista eta frakzio berritzaileen dinamikaren bidez bakarrik lor daiteke askotan benetako "aldaketa".

## 20. Azken ondorioak

Gogoratzekoak dira hau bezalako lan batek aurkitu dituen eragozpenak. Gai batzuetan erabatekoak ziren elkarrizketatuen arteko kontraesanak eta, beraz, puntu ilun batzuk inguratuz pasa behar izan ditut, besteetan ondorio ahalik eta zorrotzenetara iristeagatik. Behaketa-metodo, kualitatibo eta kuantitatibo, izugarri dagoen arren, guztiak oztopo berarekin trabatzen dira: deklaratutakoaren egitasunean oinarrituta egotean, alegia. Ez dut uste nire lana batzuei arrazoia kendu eta besteei ematea litzatekeenik. Nire egiteko bakarra, zera izan da: gauzak aztertzea, nik gogoetak egin eta besteri egin eraztea, egia aldaezinik eta fede-dogmarik ezartzen hasi gabe. Egoera batzuk agerian jartzen eta gaiaren analisian laguntzen saiatu da lan hau, benetako aktoreen, elkarrizketatuen, eritzia hartuz abiapuntu.

Gaiari buruzko interesa errealitatearen ikusmenetik sortu zait. Eritziak ordezkatu baino gehiago, eritziak egin egiten bait dituzte alderdietako exekutiboek. Sozializazio edo birsozializazioko prozesu handi bat da barne-dinamika. Herriaren borondatea, aurrefabrikatutako marko batean sartuta geratzen da. Alderdia ez da eritzien izaerara egokitzen, baizik eta eritzi horiek taxutzen lagundu egiten du neurri handi batean.

Afiliatuei galdatzen zaien disziplinak erizpide-askatasuna zapuztu egiten du, "ortodoxo"tasuna mantentzeko. Galdatutako disziplina kontrolatu egiten da, zenbait kasutan alderdiaren eta bere buruenganako gurtza sortzera eta horien hutsezintasunean sinistera daraman propaganda eta pertsuasioko ahalegin baten bitartez. Gurtza-izpiritua sustatu egiten da kritika-izpiritua zapalduz.

Era horretan, organismo itxiak, disziplinatuak, mekanizatuak, monolitikoak eraikitzera iristen da, barne-egituraz armadaren antzeko diren organismoak. "Gizon libre" haiek beren pentsaerak trebakuntz-prozesu batean sartuta ikusten dituzte, barneko totalitarismoa eraman dezakeen prozesu batean. Alderdi politikoek atxekipen intimoa eskatzen dute, eta mundua esplikatzeko sistema itxi eta oso bihurtzen dira. "Fede erlijiosoa", entusiasmoa eta intolerantzia nagusitzen dira alderdietan. "Demokrazia"ren mehatxurik gogorrena ez da alderdi-erregimenarena, alderdi horietako barne-egituren azken joerena baizik, alderdien arteko adinezko eta tamainazko desberdintasunak ahaztu gabe.

Euskal alderdi guztietan daude esperientzia osasuntsu imitagarriak, atzerriko alderdietan bezalaxe. Bi gauza hauek batera segurta daitezke: koadro politiko eratuek gara dezatela ihardueraren bat eta harreman estuagoa eta leialagoa egon dadila herriaren eta zuzendarien artean.

Nire lanaren helburua lortutzat emango nuke, galdera honen inguruan gogoeta sortzeko gai izan baldin banaiz: Alderdi batek bere barnean demokratikoki funtzionatzen ez badu, demokraziaz jokatzeko gauza izango al da boterea hartu ondoren?

Euskaratzailea: **Xanti Iruretagoiena**

*E.P.A.*

---

*1 Hauek dira elkarrizketatuak: Valentin Solagaistua, Anton Ormaza, Florencio Arostegui, Iñaki Anasagasti, Juan Manuel Eguiagaray, Jesus Insausti, Odon Elorza, Markel Izagirre, Xabier Martin, Leopoldo Barrera, Xabier Markiegi, Juan Infante, Vicente Serrano Izko, Koldo Amezketa, Nicolas Redondo, Inmaculada Boneta, Carlos Garaikoetxea, Karmelo Etxebarria, Adolfo Careaga, Iñaki Esnaola.*

## BIBLIOGRAFIA


DUVERGER, M.: *Los Partidos Políticos,* Fondo de cultura económica, México, 1956.

JACOBS, J.; SCHWART, H.: *Sociología cualitativa,* Trillas, México, 1984.

LENK, K.; NEUMANN, F.: *Teoría y sociología críticas de los partidos políticos,* Anagrama, Barcelona, 1980.

MICHELS, R.: *Los partidos políticos,* Amorrortu, Buenos Aires, 1969.

SARTORI, G.: *Partidos y sistemas de partidos 1,* Alianza Editorial, Madrid, 1980.

# Euskal sorgina: estereotipo bat

Alizia Stürtze
Iñaki Gonzalez de Garai

## I. Sarrera

"Euskal Herriak, berauen aberriak, badu, horraatik, ahalegin desmitifikatzaileen akuiluaren premia galanta... gezurrak kataiatu, baina egiak askatu egiten bait ditu herriak..." idazten du Xosé Estévez historilariak *Sorginak eta Errepresioa Euskal Herrian* (Gordailu, Donostia, 1984) izeneko gure dibulgazio-liburuskari egindako hitzaurrean. Baina, bide hori egiten saiatzen bazara, betiko lau topiko baztertzen ahalegintzeko asmoz bazabiltza, kontuz, gero! Jasan beharko bait dituzu, agian, euskal olinpoan dauden zenbaiten hira eta irain neurrigabeak. Eta gutxi batzuek soilik onartuko dizute euskal berreskurapen-prozesuan zeure harri-koxkorra ekartzeko asmotan egin duzula lana, besterik gabe.

Hori da, hain zuzen, Juan San Martin euskaltzainarekin gertatu zaiguna. *Egan* (3-4, 1985, 207-212) aldizkaritik sorgingo eta errepresioaz gure liburuskaz bereak eta bost botatzen ditu. Bere haserre, sumin eta subjektibotasuna nolabait hobeto justifikatu ahal izateko, inprimaketa-akatsak eta guzti aipatzen ditu. Eta harriga-

rriena, zera da: bere punta-puntako aldizkariaren 6 orrialde ematen dizkiola 96 baino ez dituen gure liburu xumea *kritikatzeari*.

Izan ere, gure asmoa (argitaratzen ari garen historiazko bildumarena, hain zuzen) ez da ikerketa-lanak idaztea, tesi berriak agertzea. Helburu horietatik urrun gaude. Gure liburusken bidez lortu nahi genukeena, zera litzateke eta ez besterik: euskal historiaren gai zenbait euskaraz ematea; batetik, literaturaz beste diziplinak ere gure hizkuntzan irakurtzeko ohitura sortuz joateko eta, bestetik, nahikoa ezezaguna izateaz gain, mitifikatu samarra dagoen euskal historiaren zenbait ikuspegi berri eskaintzeko, tema konkretu batzuk direla medio.

Honek ez du esan nahi, ezta gutxiagorik ere, ekiten diegun gaiak aurretik ondo mamitu ez ditugunik. Historiaz edota beste edozein diziplinaz idazterakoan, ondo mugatu behar da lehenbizi lana nori zuzendua dagoen; baita hori kontutan hartu ere, kritika bat egiterakoan, San Martin Jauna! Lan baten helburuak ulertu behar dira lehenengo eta betetzen direnen araberako kontuak hartu gero. Nori berea.

Bada, halere, San Martin-en kritikan oraindik ere gehiago harritu gaituen zerbait, bere intolerantzia eta errespetu-faltaz aparte. Hain zuzen, *sorginkeriaz*-ko bere erizpideak. Horien arabera, sorginen inguruko azterketak borobildu eta bukatutzat eman genitzake. Henningsen historilariaren lanak direla medio, gaiak zituen puntu ilunak argiturik omen daude dagoeneko. Bere idazlana zehar, dudaren izpirik ez da inon azaleratzen. Alderantzizkoa da zeharo, gure ustetan, tema honi dagokion ikerketa-maila. XVI. mendeko sorginen ugalketa bere osotasunean esplikatzen duen teoriarik ez da egundaino argitaratu. Izan ere, diziplina ezberdinak ukitzen dituen gaia dugu sorginena, batetik, eta, bestetik, Europako historia eta tokiko historia batera ikustea derrigorrezkoa duena.

Hemendik abiatuko gara orain ere. Hots: gure asmoa, berriro, polemiketan alferrik jarraitzea edo geure buruen defentsan enpeinatzea ez besterik izango da: liburuan eskainitako estudioari jarraipena ematea, hain zuzen, sorgingoaren arazoari Euskal Herriaren historia sozial eta politikoan gure ustez dagokion barneko esanahia agerteraziz. Horregatik pentsatu dugu, kritika hura *Egan*-en egin bazitzaigun ere, estudio honetarako ez bait da azken finean (bitartean pasa den denboragatik ere) aitzakia bat besterik izango, lan hau *Jakin*-en argitaratzea, *Sorginak eta Errepresioa Euskal Herrian* liburuskaren luzapen eta argitzapen gisa.

Lantxo honetan, beraz, aipatutako gure liburuska prestatzerakoan jasotako informazioaz geuk ateratako konklusioak eta zintzilik utzitako zenbait galderaren laburpena azalduko ditugu. Beste diferentziak aparte, egiaz interesatzen dena hori delako esperantzarekin.

## II. Sorgingoa eta sorginzalakeria Europa Modernoaren hastapenetan. Sorgin-ehiza larriaren zergatiak

### *1) "Sorgingo" hitzaren pluraltasun eta aberastasun semantikoa. Aurredefinizioaren beharra*

Gizarte baten forma ideologikoekin zerikusirik duen edozer berbak anbiguo izan behar du derrigorrez, bere irudikapen-ahalmena hizkuntzaz kanpoko faktoreen menpean egonik. Hitzaren oroipen-efektua gure unibertso sinbolikoari atxekia dago, geure mitoei. Sineskera/erlijioa, superstizioa/mitoa (baita San Martin-ek aipatzen dituen feminismo eta marxismoa ere) eta tankera honetako hitzen kategorizazioa (txar/on, behemailako/goimailako, desarrazoizko/arrazoizko, basati/zibilizatu...) lotua dago geure kode semantikoari, nahitaez mugatzen gaituen adimenezko egoitzari.

Horixe da, hain zuzen, sorgingoak sorterazten duen arazoetako bat. Dagokion definizioarena. Unibertso semantiko oso bat hartzen du sorgingoak bere barnean. Konplexutasun handiko fenomeno sozio-kulturala dugu sorginena, Lison Tolosana antropologoaren hitzetan "erabateko buruzalutasuna exigitzen duena"[1]. Sorgingoak ez du irakurketa bakar bat eskaintzen, asko baizik. Izan ere, hitz zehazgabe eta balioanitza dugu, ardatz-hitza, *peg-word,* funtzio eta kontzeptu desberdin eta kontraesanezkoak ere batzuetan esekita dituena, alegia. Europako nekazal ingurune zenbaitetan gizarte-funtzioren bat egun oraindik ere mantentzen duen gai-hitza da, nahiz eta betetzen duen eremua bazterrekoa izan, Barandiaran-en ustetan.

San Martin euskaltzainarentzat, gauzak oso garbi omen daude: *"Sorginkeriak toki segururık ızatekotan superstizioarena da".* Esaldi motz honekin, sorginkeria eta superstizioa parekotzat jotzeaz bestalde, "superstizio" hitza bera ere interpretazio bakarreko eta balio semantiko finkoa duen hitza balitz bezala erabiltzen du,

"kotxe", "txakur", "udare" edota "etxea" esaten dugun lasaitasun berberarekin. Eta sofisma honetan oinarriturik, honako hau dela gure akatsik grabeena konkluditzen du: "Sineskera zaharretako mitolojia eta sorginkeria nahastea".

Żatika abia gaitezen. Lehenik, eta superstizio berbari gagozkiolarik, zera adierazi behar da: oso hitz *narriatua* dela berau, erantzuki-kutsua oso barneraturik daukana. Hori dela eta, kontu handiz erabiltzekoa da gertakari historikoa izendatzeko unean. Espasa-Calpe-k dakartzan definizioei begiratuta, berehalakoan jabetzen gara horretaz: "Creencia extraña a la fe, creencia ridícula, culto o veneración que se da a quien no se debe...".

Superstizioaz ulertzen badugu "kultura bizi batean kokaturik dauden beheko beste kultura hil baten zatiak"[2], kasu horretan bi gauza onartzen ari gara batera: antzinako mitologiari zegokion sistema bat zela sorgingoa, batetik, eta, bestetik, honen ondorioz, XVI. menderako jadanik kristauaurreko euskal unibertso sinboliko-kulturalak (sorgingoa ere barne) ez zuela inolako erregulazio-zeregin sozialik betetzen, enkistaturiko reminiszentzia baino ez zelarik.

Alabaina, ez dirudi horrelakoa zenik Euskal Herri nekazariaren egoera. Batez ere, Euskal Herri menditsu deritzonean. Izan ere, bertako ohitura *basatiak* (askatasun sexuala eta beste), kristautze-maila baxua, leinu-egitura nola jabetza-molde amankomunen garrantzia eta tankerako datuak jasotzen dira garaiko kroniketan, honako oharpen hau egiteko, konklusio gisa: euskal menditarren arraza iraunkor eta urrunak sorginkerian erortzeko daukan arriskua. Honen arabera, antzinako ideologi moldeen funtzioak bizirik dirauela esan genezake, sorgingoa ere barne, noski.

Sorginkeria eta superstizioa parekotzat jotzerakoan, gizarte-funtziorik gabeko fenomeno gorabeheratsu edo epidemikoaz ari bagara, ordea, psikosi kolektiboaren tankeran agertzen dena (goitik eraginda ala ez, eta zein neurritaraino, gero aztertuko genuke), garaiko hizkera intelektualaren *crimen magiae*-az ari gara hitz egiten, garaikidea dugun Henningsen-en *sorginzalekeria*-z[3]. Eta esan beharra dago, egungo historilari eta antropologo gehienek ondo bereizten dutela buruzko eraikuntza estereotipatu eta fantastiko hau, "zelo erlijiosoak sortutako"[4] fenomeno hau, sorgingo herritarrarengandik. Geuk ere bereizketa bera egingo dugu aurrerantzean.

Dena den, sorginzalekerian oinarritutako sistema hau adierazteko ere ez dute egungo historilariek *superstizio* hitza erabiltzen, beste zenbait definizio zehatzago nahiago dutelarik: sorgin-deabruzko mitologia inkisitzailea, fantasia kolektibo baten estereotipatzea, ...

Azter ditzagun orain bi ereduak eta nola eta zergatik konbinatu ziren sorgin-ehizaren une larrienetan, hobeto ikusi ahal izateko, nolabait, San Martin Jauna sutan jarri omen duen gure liburuskaren azpitituluaren zergatiak: "*2 kultur molde aurrez aurre*".

## 2) *"Maleficium"etik "sabbath"era. Herri-sorgingoa eta beronen satanizazioa*

Zehatz dezagun zertxobait gehiago gure gai-hitzen esangura. Sorgingoa esaterakoan, zera adierazi nahi dugu nagusiki: nekazal gizarte gehienek ezagutu duten ideologi sistema funtzionala (erabilgarria). Sistema honek, bestalde, bizirik zirauen Behe Erdi Aroko gizarte europar zenbaitetan, ingurunearekiko menpekotasuna eta bitasunaren iraupena (kristauaurreko beste sineskera askorekin batera) zirela kausa. Segurtasunik ez iraunkor honen aurrean, sorginak (kreatu eta birkreatu egiten den ideia bezala) koplaburukoaren (*chivo expiatorio* delakoaren) funtzioa betetzen zuen (beste batzuen artean), gaitz zenbaiti aurpegi eman ahal izateko; sorginaren bidez gorputz hartzen bait zuten gaitz eta eritasun askok, baita heriotzak berak ere zenbaitetan, ondorioz konbatigarriago, ukigarriago bihurtzen zirelarik.

Beste arazoa litzateke (orain tratatu behar ez duguna) nolako pertsona edo sektoreak aukeratzen zituzten komunitate haiek zorigaiztoko unetan sorgin-botere haiek gorputz har zezaten. Gauza jakina da, ikertzen ari garen garaian oso estua zela emakumezkoen eta sorginkeriaren arteko korrelazioa. Baziren, alabaina, beste zenbait korrelazio, orokorrean zera onar daitekeelarik: talde sozial saihestu guztiak (makina bat zegoen mende haietan) sorginkeriarengatik salatuak izateko arriskutan zeuden beti, arrazazko taldeak (euskaldunen kasua esaterako) zein talde mespretxatuak (emakumezkoak eta haurrak) zein baztertuak izan[5].

Esandakoaren arabera, orduan, eta Europari gagozkiolarik, kristauaurreko garaietan nagusi ziren ideologi moldeen osagaietako bat litzateke sorgingoa, XV eta XVI. mendeetan oraindik ere bere esanahia bizirik mantentzen zuen sistema, zenbait tokitan.

Kristautasunarekin, bere bizikidetasunaren eraginaz, noski, ez zuen lehengoa bera izaten jarraitu urte haietan. Mantentzen zuen, ordea, bere funtzionaltasun soziala, zenbait baldintza sozio-ekonomikok aldaketa handirik gabe zirauen leku batzuetan.

Izan ere, ebanjelizazioa azalekoa baino ez zen bazterretan (mendietan, adib.), Elizak ez zuen indarrik, behar adina behintzat ez, sineskera zahar haiek behin-betiko baztertu ahal izateko. Kontutan hartzekoa da, bestalde, ingurunearekiko menpekotasun eta beldurrari ez zietela behar bezala erantzuten gero eta izpiritualago bihurtzen ari ziren Eliza *ofizialaren* promesek.

Sorginzalekeria, berriz, elite eskolatuaren kreazio intelektuala izango litzateke, Feudalismo berantkorraren *Establishment* delakoak sortua. Hondatzaile da izakeraz, kristautasunaren inbertsioa, eta ez da *maleficium*-ean oinarritzen (herri-sorgingoaren antzera), *sabbath*-ean parte hartzean baizik. N. Cohn-en arabera (op. cit.), mitologia hau inkisizio-prozedura judizialaren hedapenari esker eratuz joan zen. Izan ere, kateko salakuntzak baimentzen zituen sistema hark, zeinak tortura egia lortzeko tresna ezinbestekotzat jotzen bait zuen.

Garaiko elitearen kreazioa izan arren, mitologia hura osatzen zuten elementu gehienak lehenagotik zetozen. Hala frogatzen du behintzat *En Pos del Milenio* liburuaren egileak, mendeetan zehar egin dituen bilakuntzen ondoren. Hegan egiteko gaitasuna, adibidez, *sabbath*-ak, edo sekta satanikoaren existentzia, estereotipo berri bati erantsitako osagarri zaharrak baino ez ziren, Erdi Aroaren tradizioan bertan jasoak kasu askotan. Izan ere, haietariko batzuek gaur arte iraun dute, ahozko komunikazioa dela bide. Euskal Herriari gagozkiolarik, Aita Barandiaranek bildutakoaren arabera, berezgaindiko erak erabiltzen omen dituzte sorginek lekuz aldatzeko (*"sasi guztien gaineti eta odei guztien azpiti"*). Biltokiak ere badituzte (*"ez geala ba geala, amalaumilla emen geala"*), honek dakarren ondorioarekin: helburu zehatz batekin biltzen den talde bat osatzen dutela sorginek, alegia. Biltzarre horiek, bestalde, antzinatik sakratutzat hartu izan diren tokietan ospatzen jarraitzen omen dute maiz antzean: koba-zulo, bide-gurutze, mendi-tontor eta abarretan. Tradizio berdintsuak jaso ditu Lison Tolosanak Galiziako zenbait herriskatan.

Baina, har dezagun berriz ere inkisizio-estereotipoaren haria. Onartutzat ematen da egun, sorginzalekeriaren izurriteak sorginetan sinesten zutenengan suertatu zirela soilik, sineskera zahar

hauek eta elite ikasiak eratutako deabruzko mitologiaren artean emandako sinkretismoa zela bide. Herri-mitologia amarrugabe eta erabilgarriari teologo eta legegizonek burututako beste abstrakzio intelektual hura eransten zitzaion unean, orduantxe kutsatzen ziren histeria kolektibo haiek, antza, sorgingoaren osagai guztien esanahia goitik behera eraldatuz, gainera: Henningsen-ek dioenez, "tokiko kultura herritarraren eta metropoliaren kultura elitistaren arteko estaldurak buruzko mutazio kolektibo zenbaiti bide eman zien, sorginzalekeriaren eragileak izan zirenak hain zuzen".

Iraupen laburreko histeria kolektibo haiek nolabait argitu ahal izateko eredu demonologikoaren herri-integrazio hau onartu arren, *iceberg*-aren muturra baino ez dela deritzogu. Izan ere, ideiak giza harremanen adierazpidea besterik ez dira gure ustez, eraikuntza soziala egitura sozioekonomikoaren kausa eta ez ondorio den bezalatsu. Sarraski haien sorburua gizakiaren irudimenezko ahalmenean datzala onartzeari axaleko samarra deritzogu. Honek ez du esan nahi, noski, gizarte-psikologiaren erabilera interesgarritzat jotzen ez dugunik, jazarpen zein sorgin-ehizen aurrean ematen diren histeria kolektiboetan murgildu ahal izateko eta nolabait ulertzen hasteko gertatutako emoziozko egoera kolektiboen prozesuak (hor ditugu, besteak beste, Euskal Herriak jasandako *layra* izeneko ustezko izurriteak); ezta psikoanalisia tresna garrantzitsutzat hartzen ez dugunik ere, Erdi Aroko Europan nekazaritzak ezagutu bide zituen estasi eta ametsetako esperientziei (naturaz gaindiko bidaiak, haurriltzeak, giza jaletasuna...) erantzun zientifiko bat emateko.

Sorginzalekeria eta erakarri zituen ondorioei gagozkielarik ere, gauza bera esan daiteke. Ezinezkoa zaigu, izan, fenomeno hauek beren osotasunean argitzea, herrisketan sortutako inbidiak eta tirandurak direla medio. Ezta akusatu askoren *taedium vitae* edota lekukoen salakuntzetan oinarrituz ere. Guzti hauek, faktoreetariko batzuk baino ez dira.

Sorgin-sektaren benetako existentzian finkatutako azalpenak, bestalde, Margaret Murray-ren motako sekta izan, Michelet edota Runerberg-en tankerakoa izan, euskarririk gabeko teoriak direla deritzogu (San Martin Jaunak, detektibe-susmo ernea erakutsiz, gure lana Michelet-en *La Sorcière* izenekoaren "kalko" bat dela lerro artean aditzera ematen duen arren). Sektaren errealitatea onartzen dutenak (Diana gurtzeko bilduta edota iraulketarako antolatuta), eta mende haietan sorginkeria nabarmen suspertu zela admititzen dutenak[7], biak zulo berean erortzen dira: auzietan ida-

tzitakoa egiatzat onartzea, alegia. Arazo hau dela eta, ados gaude Cohn-ek (op. cit.) dioenarekin: erabilitako froga guztien artean bat faltsua dela erabat onartuz gero (hegaldiak, Satanen presentzia...), ezin gara besteetan oinarritu, nahiz eta onargarri deritzegun. Izan ere, zer isladatzen da auzietako aktak edo Den-Lancre-ren idatzietan zehar? Bada, garaiko ikarak, elitearen obsesio demonologikoak, pentsamolde klerikala kutsatzen duen misoginia, inbidiak... Errealitate materiala, gabezia, klase-borrokak, hori dena ezkutuan gordetzen dute dokumentuek.

### *3) Sorgingoa eta Ikerbide berriak urratu beharra*

Henningsen-en ustetan (op. cit.), "sorginenganako sineskerari buruzko teoria dinamiko bat sortu ahal izateko", jazarpen masiboetatik kanpo ikertu beharko litzateke Europako sorgingoa. Idazle honen aburuz, *witch-craze* delakoak nahaspilatu eta desitxuratu egiten bait du erabat *sitz-im-leben* herritarra. Etengabe handituz doan elurrezko bolaren antzera, inkisizio-prozedurak lekuko eta hobendunen kosmoikuskera ezabatu egiten du guztiz, gugandik ezkutatuz horrela noraino zen sakona erlijio-ideologia nagusiaren bereganatzea herri xumearengan. Ondorioz, ezinezkoa zaigu jakitea nekazal komunitate zenbaitek barneraturik zutenentz hierarkia kosmiko kristauaren isladapena baino ez zen "*mundu honetako hierarkizazio soziala*"[8], honek suposatuko zukeen arriskuarekin (klase menperatzaileen ikuspuntutik, jakina).

Henningsen-ek aurkeztutako ikerbide hau, bestalde, oso lagungarri gertatuko litzaiguke (halaxe uste dugu behintzat) marginalitateen historia egiten saiatzen garenoi (herriak izan edota talde sozialak). Esana dugu, dagoeneko, sorgingoa nolabait zutik zirauen tokiek baino ez zutela errepresio zabalik ezagutu. Areago oraindik. Deabruzko sektaren mitoa garaile gertatu zen bakar-bakarrik sorginak kolektibotzat hartzen ziren lekuetan. Gaurdaino arakatutako dokumentuek, behintzat, horixe frogatzen omen dute. (Izan ere, Europako iparraldean *maleficium* delakoa aipatzen da salaketetan. Ez, ordea, sekta baten kidea izateagatiko akusaziorik).

Honen arabera, antzinako ereduaren erroek tinko zirauten tokietan beste inon ez zuen inkisizio-estereotipoak ezartzerik izan. Hau onartuz gero, honako ikerbide hauek jorratzen hasi beharko litzateke:

• Noraino bereizten ziren marginalitate horiek (pertsegizioak nagusiki zigortu zituenak, alegia) beren albokoengandik, mugimendu zentripetu orokorrari enbarazu egiten zioten forma ideologiko zahar (edo zaharberritu) batzuei atxekirik jarraitzeagatik. Homogenizazio-prozesu hartan, goiko klase lokalek ere hartzen zuten parte (beste arrazoien artean, jabetza-molde tradizional zenbait baztertzeko asmoz). Jazarpenaren eta talde edo herri saihestuen arteko korrelazioa estua gertatuko balitz (Europa mailan, esaterako), zera onartu beharko litzateke: sorgin-ehizaren helburu nagusietako bat zela bazterreko forma guztien erasotzea, *komunitate sakratua*-ren etsaiak direlako aitzakiaz.

Honek izan beharko luke, gure ustez, aukeran dagoen ikerbideetako bat, agerian jarri ahal izateko, nolabait, sektore saihestuek betetako *rola* sorginkeriaren aurkako jazarraldi gehienetan. Batez ere, Erreforma eta Kontrarreformaren ondoren, non gainegitura menperatzaileak besteren elementuak bereganatzeko ahalmena agortua bait dauka jadanik.

• Europan zehar ematen diren jazarraldiak zein puntutaraino datozen bat miseria gorriko uneekin, batetik, gabeziak dakartzan bazterreko sektoreen areagotzearen kariaz, eta, bestetik, krisialdiak eragindako ezegonkortasun soziala nolabait baretu ahal izateko. Zoritxarrez, egun dakigunarekin (guri heldu zaigun materialarekin behintzat), ez dago behar bezala baloratzerik noraino-koa izan zitekeen korrelazio hura, jazarritako guneen eta gainegiturazko forma zenbaiten iraupenaren artean egon zitekeena, alegia. Ondo neurtzerik ez daukagun bezalaxe ehizaldiekin bat omen datorren sorgingoaren suspertzea bera ere noraino egia den, egia bada. Izan ere, benetako susperraldia ezagutu al zuten sorginek une haietan ala goitik puztutako fenomenoa izan zen?

Alabaina, bada arazoari aurre egiteko beste aukera: zergatik eta noizdanik sortu eta aplikatuz joan zen inkisizio-gainegitura hura aztertzea eta, horrekin batera, zergatik handietsi zen ahalmen satanikoa estereotipo haren barruan. Edota, beste hitzetan, eredu satanikoa haren egitekoak zeintzuk izan ziren praktikan.

Harris-en ustetan[9], "oso ondo eraikia zegoen sistema dugu sorginena, latz, iraunkor eta euskorregia gertatu zena", ez zela helburu zehatz bat bete ahal izateko sortu eta bultzatu pentsatzeko. "Erdi Aro berantkorreko krisiaren erantzukizuna Elizaren eta Estatuaren lepotik kendu eta deabruari leporatu ahal izateko" sorturiko estereotipoa dugu sorginena. Izan ere, horrela, "errugabe

agertzeaz gainera", ezinbesteko elementu bihurtzen dira bai Estatua eta bai Eliza. Honen arabera, erakundezko egituraren premiazko elementua dugu sorginzalekeria, klase pribilegiatuen menperapena iraun erazteko erabiltzen dena; klase-interesek bideratutako buruzko sistema bat, zeinaren bidez herri-klaseek jasaten duten esplotazio objektiboaren *desrealizazioa* ematen bait da.

Baina, noren aurka zuzentzen da sorginzalekeria hau? Bada, sektorerik ahulenen aurka. Sistemak berekin du marginalitatea. Bere egitura ekonomiko, sozial eta politikoek behartu egiten dute sistema zenbait talde baztertzera eta, horrez gain, gizartearen gaitz guztiak talde horiei leporatzera. Izan ere, gizadiaren etsai nagusiak, deabruak alegia, baztertuez baliatzen dira bere eginkizunak bete ahal izateko; gauzak horrela, beldur eta obsesio guztiak kristaltzen dira marginatuengan. Edozein gizabanako edo talde baztertu koplaburuko bihurtzeko gai da, berak bait dira bekatuaren haragipen nabariena, deabruaren kokagunerik maiteena.

Eliteak bultzaturiko ideia dugu hau. Krisi edo izurritearen erantzuleak, marginatuak berak izango dira, marginalitatea bera bekatuaren seinaletzat hartuko bait da. Hori horrela, eta krisialdia dela kausa edo baztertu ugari agertzen denean, *lumpen* honek jasan beharko ditu herri-hirak, botereak jasan beharrean. Koplaburukoaren bidez gaizkia gauzatzeko komunitateak duen behar horretaz baliatzen da boterea, hain zuzen (kinka larriko uneetan batez ere), bere nagusitasuna eztabaidatzen has ez dadin herria. Ondorioz, agintari eklesiastiko eta zibilak indarturik ateratzen dira, eta aginpidea garaile; eta, gainera, borroka sozialak desbideratu egiten dira, botereak *azpiproletalgo* honen arriskugarritasuna alboratzea lortzen duen bitartean (izan ere, eta bere kontzientzia politikorik eza gorabehera, arriskugarri gerta bait liteke *lumpen* hori, krisialdietan batez ere).

Harris-ek dioenez, inkisizio-sistema penala dela medio, sorgin-sistema bat sortuz doaz agintariak eta, horren bidez, hainbat kontraesan bideratuz komunitatearengan, haietariko bat "plebeiu proletalduen eta ezproletalduen arteko kontrakotasuna" delarik.

Nola Elizak hala Estatuak, biek bultzatu egiten dituzte herri-sineskera zenbait, eguneroko bizitzan eragina izan dezaketen izpiritu gaizkileei dagozkienak, hain zuzen. Akinoko San Tomasen hitzetan "deabruak benetakoak dira... badaukate eguratsa uhertu, haizeak sortu eta zerutik sua botatzerik...". Elizarengan bilatu behar da psikosi satanikoaren garapena. 1484. urteko *Summis desi-*

*derantes affectibus* delako buldak zioenez, "uztak, gizadia edota animaliak suntsitzen dituzten sorginen bidez mintzatzen da Satan". Inkisidore eta epaileek gizaldiz gizaldi sortutako sorgin-sistema haren arabera, sorginak ziren izurrite, gerrate eta despopulatze guztien errudun, horretaz ez zegoen zalantzarik. Etsaia (deabrua) gero eta boteretsuago ari zen bihurtzen eta, tamaina hartako arerioa eraso ahal izateko, edozein motatako edozein neurri bidezkotzat har zitekeen.

Ikus dezagun, orain, zer datzan sorgin-sistema horren azpian. Orokorki, nekazal populazioaren kaparik behartsuenek jasan behar izan zituzten salaketa eta terreapen gehienak. (Villeneuve-ren ustetan[10], oso ondo bereizi behar dira hiri eta jauregietako azti, astrologo eta igarleengandik, hauetariko asko oso ondo begiratuak zirelarik). Bestalde, jazarturikoen hainbesteko nabarmen bat emakumezkoek osatua zen (Alemaniako Hego-Mendebaldean erre zituztenen artean, esaterako, % 82 emakumeak ziren): babesgabeko atsoak, emaginak, beren gabezia eta errumeskeriagatiko andre jasangaitzak.

Demonologoen gehiengoak gizaki haien itsuskeria eta lizunkeria nabarmentzen du batipat. Izan ere, emakumea, garaiko Spenberg-en hitzak erabiliz, "akasdun animalia" baino ez da, ustegabeko izakia (Akinoko San Tomas-ek zioenez), deabruaren egoitza izateaz bestalde, erraz dena.

Nonnahi azaleratzen den elizaren misoginia honen arabera (eta hau esateagatik, ez gara *feminismoan* erortzen ari, San Martin Jaunak aditzera eman duen legez), bigarren mailako izakia izanik, berezkoa zuen emakumeak sorgin bihurtzeko arriskua.

### *4) Konklusio gisa*

Euskal Herriaren adibidea ukitu baino lehenago, hona hemen aurretik esandakoaren inguruko ondorio batzuk.

- Kosmoikuskera animistaren osagaietako bat da herri-sorgingoa. Sineskera horien arabera, izpirituak ez dira gaizkile edo ongile hutsak (ezta jainkoa eta sainduak ere). Substratu honen gainean, eliteak sortu eta bultzaturiko beste mitologia satanikoa gainjartzen da.

Bizitza, gaixotasun eta heriotzan badute izpirituek beren eragina. Herri-sineskera honetaz baliatzen da sorgin-sistema berria, he-

rri-esanahi sakona eta funtzionala hutsalerazi, mutatu eta itxuragabetzeko. Horrela, sistema ezezkor, suntsitzaile eta funtziorik gabeko bilakatzen dute sorgingoa.

- Zergatik ezartzen da estereotipo sataniko hori? Esana dago, jadanik, inkisizio-prozedura ohizko prozedura akusatzailearen ordez ezartzeari dagokiola zehatz-mehatz taxututako itaunketa-sistema baten eratze progresiboa, honek dakartzan ondorioekin, hots, sorgin-sektaren existentzia materiala admititzea eta talde horren helbururik behinena gaizkia lurraz jabetzean datzala onartzea. Sorginkeria hau heresiaren parekotzat jotzen da.

Baina, nolatan ezartzea lortzen da delitu-figura hau? Zer dela eta elitearen eginahal guztiak, sorgingoa itxuragabetu eta deabruen menpean jartzeko?

Maila ezberdinak ditu erantzunak. Sorginkeria, berragertu egin zen ala berragerterazi egin zuten XVI eta XVII. menteedako urte haietan? Caro Barojaren ustetan, edozein jazarpenen atzetik badago beti egitate erreal bat. Honen arabera, suertatutako gehiegikeria eta hilketa guztiak zer edo zergatik gertatu ziren: sorgingoaren nolabaiteko suspertzearengatik, alegia. Horrela, ondorioa (errepresio itsua) kausa baten erantzuna baino ez zen izan (sorginkeriaren indartzea).

Alabaina, tankera horretako baieztapenek arazo orokorraren alde bat baino ez digute erakusten gure ustez (holokausto historiko guztiak justifikatzen dituzten bitartean), tokiko histeria kolektiboekin zerikusirik duena, hain zuzen.

Izan ere, pulpituetatik zabaldutako deabruaren arrisku neurrigabeak *gaizkia* haragitzen ohituta dauden komunitateek bereganatzen badituzte, une horretan oso toki apropos bilakatzen dira *sorgin-eztandak* ustekabean ezagutzeko. Uholdeak, lehorteak, izurriteak, goseteak... edozer krisialdiren aurrean, gertu egongo dira giza talde horiek koplaburukoren bat aurkitzeko, ezbeharraren eragile zuzena dena. Horretaz, hona zer zioen garaiko Jacques d'Autun kaputxinoak: "Il n'est point de désordre semblable à celui des Assemblées de village, lorsque (...) des facheux accidents quoique naturels, comme le déreglement des saisons, donnent occasion à ceux qui n'en savent pas la cause, de l'imputer à des idiots..." Nahas-mahas horretaz baliatuko dira espekulatzaile zenbait beren helburu ekonomiko edo politikoak lortzeko, ur uher horietan, inbidiak, liskarrak eta mendeku-grinak libre ibiltzeko aukera dutelarik. Badirudi, halaxe dio *La vie quotidienne sous l'Ancien Régime*

liburuaren egileak, ustezko sorginen salaketa eta atzipena direla komunitate haiek krisialdiari aurre egiteko zuten bide bakarra.

Baina honek ez du dena argitzen. Izan ere, ez da ahaztu behar delituzko figura apezeria eta agintari zibilek sortua dela (klase menperatzaileek, alegia) eta ez nekazal komunitateak.

Onar daiteke elite ikasiak (boterearen ordezkari intelektual bezala) sinestea Satanen ahalmenak gero eta handiagoak zirela, sorgina gizarte kristauaren aurkako konspirazio sataniko horren partehartzaile izanik.

Cohn-ek ikertutakoaren arabera, hain zuzen, erlijio-gerrate, mairuen garaitia, eliza ofizialaren luxukeria, heresien hedapena, ohituren zabartasuna... edonora begiratuz, deabruaren botere hazkorra eta kristautasunaren ahulezia besterik ez zen ikusten. Sorgin-deabruen arteko harremanetan iraulketa bat gertatu da, eta, ondorioz, morroi izatetik, nagusi izatera pasa da Satan.

Baina, zer datza Satanen ahalmenaren beldur horren azpian? Mendeak dira zenbait egiturazko aldaketa gertatzen ari dela, honek dakartzan krisi eta ezegonkortasunarekin. Atomizazio feudalaren aurka ari den erdiratze-prozesuaren urteak dira haiek, monarkien indartzea, burgesia aberastuaren igoera eta boterea lortzeko borrokak batera gertatzen ari diren urteak. Erlijioari dagokionez, bestalde, mugimendu heretiko guztiez gain, Erreforma eta Kontrarreforma jasan behar izan ditu Elizak. Ondorioz, askoz itxiago eta dogmatikoago bilakatuz. Hortik aurrera, egitura instituzional haren babesean, mota guztietako neurriak hartuko dituzte bi elizek, protestanteak eta katolikoak. Hortik, sorgingoaren inguruan sortutako delituzko figura.

Figura horrek, bestalde, beste funtzio bat ere beteko du: Eliza eta monarkiaren mugimendu erdirakoi eta konbergentearen lagungarri izatearena, hain zuzen. Sorginen aurkako erasoaldiak direla eta, inseguritatea areagotu egiten da jendearengan, elkarrekiko susmoak ugaldu eta komunitatearen zati bat bestearen aurka jartzen den bitartean. Ondorioz, sektore baztertuengana desbideratzen dira frustrazioak, eta agintariak nagusitu egiten dira. Sorginkeriaren aurkako (hau da, gaizkiaren eta desordenaren aurkako) aliantzek, Eliza eta Tronuaren artekoek hain zuzen, eutsi egingo diote orden politiko eta erlijio-diziplina derrigortzeari. Aurrerantzean, elizak ez du oztopo handirik izango herri-festak, *haragikeriak* eta abarrak debekatu eta zigortzeko, *abstinentzia,* aitorrak eta jaunartzeak naharotzen diren bitartean. Monarkiak berak ere zailtasun

gutxiago aurkituko du bere saioaldi erdiratzaileak aurrera eramateko. Honen agerbide argia dugu Richelieu-ren garaiko Ipar Euskal Herria.

Gure ustez, beraz, sorgin-ehizen eragile nagusi, sakon eta ezkutua horixe dugu: garai hartako mugimendu konbergentea, hots, egitura, erakunde eta ideologien bateratze eta homogeneoztatzearen beharra, eta beronek sortzen duen ezegonkortasuna. Testuinguru honetan, mugimendu historiko erdirakoi haren osagai bat besterik ez litzateke izango inkisizio-mitologia. Egituraren parte bat. Ez, ordea, egituraren aberrazio bat.

Badaude, zalantzarik gabe, beste eragingarri asko. Baina bigarren mailakotzat jotzen ditugu. XVI eta XVII. mendeetako sorgingoa eta sorginzalekeria europarrak eta gertatutako errepresioa beren osotasunean ulertzeko, diziplina askoren beharra dago, hori ez dago ukatzerik: psikiatria soziala, historia, antropologia... Alabaina, arazo orokorrak badu bere ardatz nagusia, gure ustetan: mugimendu konbergentea.

Ikus dezagun orain, eskema hori aplikatzerik dagoenentz Euskal Herriaren kasuan.

## III. Sorgingoa eta sorgin-ehiza Euskal Herrian

### 1) *Sorgingoa, sorginzalekeria eta zentralizazio-prozesua Euskal Herrian*

Egun oraindik, gaiari dagokion zenbait puntu ikertu eta argitzen ez den bitartean, ezinezkoa da Euskal Herriko sorgin-errepresioa bere osotasunean azaltzea. Oso erosoa da San Martin Jaunak egiten duena, hots, 1610. urteko epaiketa bakarrik kontutan hartu, garaiko sorgin-ehiza "psikosis-kolektibo izugarri" baten kariaz soil-soilik sortu zela nolabait frogatzen saiatzeko. Psikosi haren leherterazlea, De Lancre-ren pertsekuzioarekin izuturik, Zugarramurdi eta Urdazubin kokatu ziren ustezko *sorginen* presentzia izan zela esanez. Izan ere, San Martin-en ustetan, "beldurrez heurak kutsatuko ote ziren", muga-inguruko herrietan kateko salaketak barreiatu ziren "salatzaile herriko jendea zela, populua bera jaunei, elizako erretoreari edo goragoko agintariei salakuntzak egiten zitzaienak, jaun horiek Inkisizioko tribunalari parte

eman zezaten". Eskerrak jaunak bazirela herriaren beldur hura baretu eta konpontzeko!

Oso erosoa da, izan, herri-kutsapenaren teoria hau; baita oso partziala ere, zeren bazterrean uzten bait du gaiarekin zerikusia duten funtsezko hainbat puntu.

Zerikusi handia izan zuen histeria kolektibo hark kateko salaketekin. Ez dago dudarik. Baina, tankera bereko beste egoera historikoetan bezalatsu, izurrite horien iturburuan ez zetzan ondorioak jasan zituen herria, beste giza sektorea baizik. Izan ere, populua ez zen sorgin-eztandaren sorterazlea izan, ez lehen mailan behintzat, *leherterazlea* beste nonbait bilatu behar delarik. Ilunpean dauden eragile horiek azaleratzea, hori da historilariaren egitekoa, eta baita interpretazio-hipotesi berriak eskaintzea ere, ausartak diruditen arren, askotan.

Aurreko partean azaldu dugunez, inkisizio-prozeduran datza, gure ustez, kateko salaketak argitzeko gakoetako bat, eta prozedura hura ez zuen populuak ezarri, ez horixe; mitologia satanikoa herriak asmatu ez zuen bezalaxe, goiko klaseek baizik, nahiz eta geroago komunitateak forma ideologiko hori barneratu, sorgin-zoraldien oinarrian dauden mutazio kolektiboak sortuz.

Logroñoko prozesuaren inguruko giroaz hitz egiten diguten dokumentuek garbi erakusten duten legez (zeharka bada ere), pulpituetatik botatako sermoiak edota ediktu-promulgazioak izan ziren sorgin-eztanden lehenengo bultzatzaileak. Salazar inkisidoreak erak horixe bera egiaztatzen zuen 1611. urteko bere informean: "ez dago ediktu gehiagoren beharrik... nere esperientziak erakusten didanez, sorginak eta beren ekintzak ez ziren existitzen *batzu-batzuek horietaz hitz egiten eta idazten hasi ziren arte*... eta hau frogatzeko aukera Olagueko herrian izan nuen. Aitortzera joandako guztiek hauxe deklaratu zuten: Sorgin-kontu guzti hau Fray Domingo de Sardo-k gai honetaz eman zuen sermoiarekin hasi zela".

Horrez gain, Lapurditik ihesi etorri zirenen artean, gutxi batzuk baino ez ziren Logroñon prozesatuak izan. Bestalde, San Martin euskaltzainak Ipar Euskal Herriko errepresioaren zergatiez ezer gutxi aipatzen du. Zergatik ote, Pirinioek komunitate sozio-ekonomiko bakar bat baino ez zutela osatzen kontutan hartzen badugu? De Lancre-ren obsesioak (euskal hugonoteak ere barne) eta gehiegikeriak direla medio ezin da dena esplikatu. Izan ere,

garaiko emaitzak baino ez dira epaile haren pentsamoldea, eta itsumen demonologiko guztiak; gainera, Lapurdira etor zedila ez zuen edozein giza taldek exigitzen, bertako jauntxoek baizik. Definitu beharko litzateke zein helburuarekin. Eta De Lancre-k sortutako izua zela eta, noraino baretu zen ekaiztsu samar omen zegoen egoera soziala.

Baina oraindik beste argudiozko ardatza erabiltzen du San Martinek gure liburuskaren gai nagusia botatzeko, hots, 1609-1611 epealdian, Inkisizioak eta batez ere Alonso de Salazar y Frias izeneko inkisidoreak izandako jokaera guztiz aurrerakoia argudio definitibotzat hartzea hau hobeto defendatzeko, errakuntza nabarmenak idatziz, gainera: 1611. urteaz geroztik sorgin-epaiketarik ez zela berriro eman Gaztelako Koroan. Dokumentuen arabera, ordea, 1664-1794 epealdian, hain zuzen, ezagutu zuen Gaztelak sorgin-prozesuen portzentaia altuena.

Salazar y Frias-en jokaera dela eta, oso progresistatzat jotzen badute batzuek, horrek ez du gizon haren ikuskera politiko zuhurra agerian jarri baino egiten, beste zenbaiten ustetan. Batzuentzat humanismoa denari, beraz, beste zenbaitek pragmatismo deituko diote.

Edonola ere, sorginei buruzko Salazar-en pentsamoldea XVI. mendeko Supremarenaren jarraipena baino ez da. Izan ere, teoria eszeptiko horri eutsiz, Kontseilu Goren hark aurre eman zion, behin eta berriro XVI. mende osoa zehar, tokiko inkisidore eta batez ere aginte zibilaren zelo neurrigabeari. Jarrera horren adierazgarri, hortxe ditugu Supremak jarritako mugak 1525eko sorgin-erreketari Nafarroan. Edota 1526an, inkisidoreek burututako bilera berezia Granadan, non, zigorrak beharrean, sermolariak Nafarroa aldera bidaltzea askoz probetxagarriagotzat jo bait zuten. Baita, ildo beretik, Supremak aginte lokalei egindako eskaera-mordoa Malleus delakoa hitzez hitz jarrai ez zezaten, kode honen antitesia zena, Andosilla-ren *De Superstitionibus* izenekoan oinarritzen zirelarik Kontseilu Gorenekoak. Salazar y Frias-ek, beraz, Ofizio Sainduaren tradiziozko jokaera berreskuratu egin zuen, ez besterik. Airean geratzen den puntua, bada, hauxe litzateke: zelako presio edo arrazoiek bultzatu zuten erakunde hura, Logroñoko prozesuaren urteetan, sorgin-arazoekiko bere ohizko moderazioa baztertu eta Europako errepresio-bideari ekitera.

Baina, aparatu haren sorginkeriekiko eszeptizismoak, XVI. mendean zehar erakutsitako "esku leuna"k, esan nahi al du (San

Martin Jaunak aitortzen duen legez) Inkisizioak ez zuela inolako parterik hartu Euskal Herrian oraindik bizirik zirauten forma ideologiko zenbaiten zapalkuntzan? Edonola ere, zer deritze euskaltzainak Frantziako auzitegi zibilen funtzioei? Benetan sinesten al du azar-kontua baino ez zela izan De Lancre Jauna? Kasu horretan, nola esplika daiteke jesuiten zerikusi nabarmena mitologia satanikoaren prestatzean (baita De Lancre epailearen beraren formazioan ere)? Nola, Pirinio Mendietako sorgin-ehiza eta Henry. IV.a eta Louis XIII.aren erreinaldietan Frantziak ezagututako monarkiaren indartze zentralistaren arteko bateratasun kronologikoa?

Hortxe dugu, hain zuzen, Euskal Herriko sorgin-errepresioaz idazterakoan dagoen zailtasunetariko bat: hots, bi monarkia ezberdinek kontrolatutako lurraldea dela euskal lurra, kadentzia eta tresna ezberdinez baliatzen diren monarkiak, nork bere homogenizazio-prozesua aurrera ateratzeko.

Inkisizioa, monarkiaren kontroleko aparatutzat harturik, Iberiar Penintsulan garatu zen soilik, honi zegozkion berezitasunak zirela eta, hain zuzen. Ofizio Sainduak, izan ere, lehen mailako eginkizuna bere estatuaren zentralizazioan zuen, XVI. mendearen bigarren erdialdetik aurrera batez ere. Gainerako monarkia europarren zerbitzuan zeuden beste aparatuen antzera, Inkisizioa bera ere oso erakunde baliotsua gertatu zen "eredu sozial, erlijioso, eta sexual"[11] homogenoa (tridentino delakoa, hain zuzen) ezarri eta penintsulako gorputz sozial osoa kontrolatzeko (bere komisari eta familiarren sareaz baliatuz), aldi berean foruen "berezitasunak" lautzen zituelarik. Horrexegatik izango ziren horren ugari jurisdikzioaren inguruko auziak Ofizio Sainduaren eta euskal erakundeen artean. Gipuzkoa, Bizkaia eta batez ere Nafarroako agintariak Inkisizioaren mutur sartzearen kontra behin eta berriro agertzen ziren bitartean, Gaztelako tresna bat zela esanez, hona zer zioten Ofizio Saindukoek: "Urtean bitan batzarre nagusian biltzen dira, eta hau oso arriskugarritzat jotzen dugu, Inkisizioaren sarrera eragozteko agindua ematen ausartu direlarik bertan". Halere, borroka luze honen garaile bakarra Inkisizioa izan zen, batez ere 1576az gero, non delitu guztiak (sorginkeria ere barne) bere esku gelditu bait ziren[12].

Argi dago, Ofizio Sainduaren jokaera askoz ere moderatu, barkakor eta eszeptikoagoa izan zela aginte zibilena baino (Erret Kontseilu Nafarra, Batzarre Nagusiak...), bere eskusartzeari esker justizia sekularraren zorroztasuna nabarmenki leundu zelarik.

Hala eta guztiz ere, errepresio gogorragoa nork erabiltzen duen argitzea ez da objektiboki garrantzi handiko datua, homogenizazio-mugimendu bati dagokion eredu ideologikoaren ezarpenaz ari garenean batipat. Izan ere, badira maiz askoz eraginkor eta trebeago suertatzen diren errepresio-moldeak. Inportanteena zera da: sorginen "arazoa"ren eta beronen aurka erabilitako konponbideen azpian, zer-nolako helburuak ezkutatzen diren jakitea, eta ea lortu egiten diren. Inkisizioari eta bere jokaera "irekia"ri gagozkielarik, bere kartak badakiela zuhurki jokatzen, uste dugu. Egin dezagun birpasa txiki bat:

• Arestian esan dugun bezala, delitu-mota guztietarako kontrola lortzen du Inkisizioak, foru-jurisdikzioaren gainetik. "*Arazo*" bat sortzen denean, sorgin-izurrien garaietan alegia, aginte foralen zorroztasun jasangaitzaz baliatzen da Ofizio Saindua bere onurarako, oztopo foral hainbat gaindituz.

• Inkisizioaren erakundea estatu zentralistaren zerbitzuko tresna bat dela onartzen badugu (historilari gehienekin batera), Gaztelaren menperapen-tresna, hain zuzen (Kamen espezialistaren hitzetan "Penintsulako komunitateei ideologia nagusia ezartzeko erabiltzen den arma klasista"), orduan honako hau onartu beharrean aurkitzen gara: sorgin-guneen ugalketa eta sorterazten duten kezka oso probetxagarriak gertatzen direla Inkisizioaren xedeetarako, eredu sozialaren inposiziorako. Ildo honetatik, horra hor Granadan 1526. urtean izandako bileraren ondorengo txostena, non aipatzen bait dira "komenigarritzat jotzen ziren gauzak jendea errakuntza berdinetan berriro eror ez dadin". Hala nola: "baselizak eraikitzea biltzarreak egiten ziren ustezko tokietan, bertan meza esateko... jendeak meza entzun dezala agintzea jaiegun guztietan eta astegun zenbaitetan... predikuak euskaraz egin daitezela euren errakuntzak gaitzesteko..."[13]. Sorginkerien aitzakiaz, eredu ideologikoaren ezarpena askoz errazago egin zen, dudarik gabe.

1560. urteaz gero, gainera, eredu hori askoz ere zehatzago bihurtu zen, intolerantzia erlijiosoa gogortzen zen bitartean eta Erreforma nola Kontrarreformaren doitasun dogmatikoa eta kontrolatu nahia areagotuz (orduantxe hasi zen ezkontz eredu monogamoaren nahitaezko ezarpena). Testuinguru honetan, oso baliagarri gertatzen dira sorgin-arazoak, gure ustez, inkisizio-aparatuarentzat. Sortutako egoeraz baliaturik, askoz errazago bereganatzen bait du populazioak forma ideologiko zaharrak (txarrak eta arriskutsuak suertatu direnak) baztertu beharra, eredu tridentinoa erresistentzia handirik gabe onartzen duen bitartean. Honek dakartzan

ondorioekin maila askotan: praktika sexualak, jai-ospakizunak, herri-ohiturei lotuegi dagoen apezeria zaharraren "garbiketa" (gauza jakina da, prozesatuen artean herriko apaiz ugari egon zela, gutxienez 22 elizgizon 1538-1557 bitartean).

Euskal sorgingo herritar eta kolektiboa erasotzeko modurik onena, beraz, ohituren kontrolean zetzan, Inkisizioaren Kontseilu Gorenaren ustetan. Tokiko zenbait inkisidoreren eta agintari zibil gehienen eritziz, ordea (baita Europako beste monarkien ustez ere), zigor gupidagabea eta neurririk gabeko egozpena ziren irtenbide bakarrak. Alabaina, bilatutako xedea berdintsua zen azken funtsean (gure aburuz behintzat), hots: forma ideologiko zaharrak gogamen kolektibotik desagerteraztea, eredu menperatzailearekiko ukapen-jarrera potentzialarengatik. Honek ez du esan nahi, Reguera historilariak adierazten duen bezala (op. cit.), ideologia jakin bat dagoenik sorginaren atzean. Nahiz eta sorgintzat salatuak eta Gaztelako Koroaren arerio politikoak (nafarrak, guztiz gain) nahasian agertu zenbait kasutan. Adibidez, 1527. urtean Zaraitzu, Erronkari eta Orreagako haranek jasandako sorgin-ehiza, non, Bennassar-ek dioenez (op. cit.), sorginak Alderdi Nafar delakoarekin identifikatu izan bait ziren. Beste zenbaitetan ere, bat datoz sorginen goren puntuak, gerrate zibil eta tokiko borroka politikoekin (arazo erlijiosoak ere tartean daudelarik batzuetan). Hala eta guztiz ere, arestian esan bezala, sorginen kolektiboak ez du ideologia politiko zehatzik berekin. Baina lotuta dago, behin eta berriro aipatu dugun legez, herri-kulturarekin, eredu ofizialaren kontrakoa gerta daitekeenarekin hain zuzen. Horretan datza bere arriskugarritasun potentziala: protesta, erreberia eta erresistentziarako edozein bide bere inguruan biltzeko izan dezakeen gaitasunean. Alabaina, gaitasun hori bere kontrolpean jartzea lortzen du talde menperatzaileak, eta, bide batez (lantxo honen lehen atalean adierazi dugun bezala), sorginaren jatorrizko funtzioetariko batez (koplaburukoarenaz) baliatzen da, bere interesen arabera lekualdatzeko: hala krisia nola marginazioa justifikatzeko, batetik, eta, bestetik, eredu berria onartu beharra agerian jartzeko herriaren aurrean.

Hau litzateke, gure eritziz, Euskal Herriko sorgin-errepresioari dagokion irakurketa historiko globala. Erizpide honen alde, hortxe dugu beste funtsezko faktore bat: behin eta berriro birsortzen diren sorgin-guneak XV. mendearen bukaeratik XVII.aren hasierarte, beti ere leku berdintsuetan: Enkarterriak, Durangaldea, eta, batez ere, Pirinikoak eta hauen inguruak, Biarno eta Jakerria

ere barne. Sorgin-guneak, bada, ez dira edonon agertzen eta garatzen. Izan ere, lurralde haiek, Pirinio aldeak batez ere, bazuten beren izate propio eta mugatua, forma ideologiko zaharrek (egoera berrira egokituak, noski) eta horien funtzioak indarrean zirautelarik bertan. Sorgingo funtzionalak erabilgarri izaten jarraitzen zuen leku haietantxe sortu eta birsortu ziren sorgin-izurriak. Sorginekiko beldurra berekin zuen sistema hartan, izu horren inguruan sortutako tentsio sozialak horizontalki baretu ohi ziren. XVI. mendearen bukaeraz gero, (edota lehenago) berriz, sorginarengan gauzatutako tentsio hura goitik, bertikalki, konponduko zen errepresioaren bidez, beldurra eta berorren funtsa eraldatuz. Eta, gainera, transformazio hau ez zen gertatu herri-eredu kulturalaren berezko bilakaerak eraginda, baizik eta goitik zuzendutako erizpideen kariaz.

Lurralde desberdinen azterketa sistematikoa oso interesgarria litzateke; baita, horrekin batera, sorgin-izurriak noiz barreiatzen diren jakitea, zelako errepresioa ematen den eta nork eskatuta, zein une sozial, politiko eta ekonomikotan hasten diren salaketak (bai tokiko mailan baita maila orokorrean ere). Horri ekinez gero, sorpresa ugari hartuko genuke, dudarik gabe, baita motibazio ezberdin eta kontraesan asko jasoko ere.

Alabaina, XVI. mende osorako baliagarritzat hartu dugun hari eroalea (hau da, sorgin-errepresioaren azpian datzan homogenizazio-prozesua) aldatuko ez litzatekeelakoan gaude. Izan ere, nahikoa garbi bait dago, gure ustez, Euskal Herri penintsularraren kasuan behintzat, sorgin-errepresioaren ondoriorik behinena zera dela: Inkisizioaren nagusitzea foruen gainetik, heresia erasotzeko boterea bere eremutzat hartzen duelarik.

### 2) *Pirinioak: lurralde integratua eta inguruko monarkien lehen mailako helburua*

Gure herriaren historiaz aritzerakoan, maiz antzean arinkeria gehiegiz erabiltzen dugu Euskal Herria kontzeptua. Batzutan, errebindikapen nazionalisten ondorioz; beste batzutan, berriz, trikimaina hutsa baino ez da, azterketa historikoa interes politikoen pean dagoelako nahiz behar ez diren estrapolazioak egiten direlako.

Oro har, XVI eta XVII. mendeetan hizkuntza zuen Euskal Herriak bere nortasunaren ezaugarri bakarra. Maila politikoan,

ekonomikoan nahiz sozialean, ez dago planteamendu orokorra egiterik. Horrexegatik, edozein arazo historiko (sorgin-ehiza, esaterako) aztertzerakoan, dagokion inguru soziala zehazki ezagutu beharko dugu.

Antzeko zerbait gertatzen da sorginen aurkako errepresioari ekiterakoan. Errepresio-aldiak leherterazten dituzten zergatiak ezberdinak izaten dira, prozesuen bilakaerak ezberdinak gertatzen diren bezalatsu. Non eta noiz kontutan hartu behar dugu. Gure liburuskan, XVII. mendearen hasieran eta inguru piriniarrean kokatzen ditugu prozesuak. Urte haietan, hain zuzen, eten egin bait zuen Inkisizioak ordurarte izandako jarrera, bere indar errepresibo itzela zabaleraziz.

Zergatik, bada, frantses eta gaztelaniar monarkiek sorgingoa jazarri zuten ia aldi eta leku berean? Nahitaez bi arazo nagusi hauek sortzen dira:

• Alde piriniarren integrazio-maila nabarmena, bere nortasun espezifikoa[14], geroxeago ikusiko dugunez.

• Maila politiko-estrategikoan balio handiko lurraldea izatea. Izan ere, monarkia feudal ezberdinek, hots, Ingalaterra, Frantzia, Biarno, Aragoe edota Gaztelaniak, nork bere eragin politikoa ezarri nahian, etengabe eskusartzen zuten inguru horretan. Gauzak honela, sorgingoarengatiko akusazioa edozein motatako mugimendu ezerosoak zapaltzeko bide eraginkor bihur zitekeen.

Oso laburki bada ere, egin dezagun gizarte pininiarren ezaugarritzea; baita errepresio-aldiaren testuinguruarena ere.

Azpimarratzekoa da lurralde honen kohesio handia, non berdintsuak bait dira hala oinarrizko egitura ekonomikoa nola bilakaera soziala eta politikoa. Bazterreko lurraldea izanik, egungo muga piriniarrak ez zuen berezitasunik isladatzen garai hartan. Oro har, inguru honetako populazioaren baliabide ekonomikoak urriak ziren, ia esklusiboki lehen sektorean oinarrituak. Hiri-desarroilo ahula ere ez da ahaztu behar. Atzerapen ekonomiko hori gorabehera, lehen mailako rola jokatzen zuten abereek. Iharduera horren garrantzia zela medio, lur zilegiak nahikoa zabalak ziren.

Nabarmena zen gizarte hauen oligarkizazioa. Botere politikoa beren esku izateaz gain, goi-klaseek hainbat eta hainbat jaun-motako eskubide jasotzen zuten. Lur komunalen ustiapena ere berek erabakitzen zuten, honen inguruan gazka ugari sorteraziz.

Garai hartan, bailara piriniarrak eta inguruneak pobre eta atzeratutzat hartuak zeuden[15]. Salazar-en eritziz, klima eta erliebearen laztasuna zela medio, agintari eklesiastikoek ez zituzten behar bezala bete lurraldearekiko beren eginbeharrak.

Iharduera ekonomikoaren ondorioz, oinarrizko harreman sozio-ekonomikoak amankomun-motakoak ziren. Izan ere, familia nuklearra ez zen eredu sozial nagusi bihurtzera heldu. Aitzitik, etxeek (etxekoek) eredu ernalgarri nagusia izaten jarraitzen zuten, burges-motako familiarekiko nabarmenki ezberdinduz. Reguera-k dioenez (op. cit.), bigamiarengatiko prozesatuen kopuru altua, Calahorrako auzitegian, Euskal Herriko egitura sexual nahiz familiar bereziaren froga da.

"Cendea" zen erakunde sozial zabala, zeinaren inguruan herriska batzuen ordezkariak biltzen omen bait ziren. Zenbait egileren ustetan, erakunde horren funtzioa gizartearen jentil-antolamenduan zetzan[16].

Maiz aditzera eman da kristautasuna nabarmen eta sakon ezarri izan zela gure herrian. Hori mitoa! XVI. mendean kutsu paganoa etengabe zerien erritual kristauari eta hainbat herri-ohiturari. San Martin Jaunak "superstizio" edo "fertilitate-errito"tzat jotzen dituen zenbait herri-ospakizun (akelarrea ere barne agian), herria zetxekien antzinako adierazpideak baino ez ziren. Izan ere, forma ideologikoak ez bait dira zeharo baztertzen, nolabaiteko funtzioa mantentzen duten bitartean. Bere menpekotasun izadiarekikoa zela, biziera komunala zela, nahitaez erritual prekristau oso batekin jarraitzen zuen gizarteak. Erritual horren agerpideak aski ezagunak ditugu: izadiaren fenomenoei kultu egitea (hauen pertsonifikazio-adibide argi bat Mari delarik), solstizio eta abar ospatzea, hildakoekiko loturak mantentzea, hainbat toki (mendi, haitzulo, bidagurutze, etab.) sakratutzat edukitzea... sorginen boterean sinestea bera.

Esan bezala, XVII. mendean sorginak, belagileak... beren garrantzia zuten gizartean. Salazar inkisidoreak berak euskal hirietan honelako pertsonaia asko zegoela baieztatu zuen[17], nekazariak horien bezero nagusiak zirelarik. Hala eta guztiz ere, errepresioaren helburuek beste norako bat omen zuten. Baina, kontutan hartu behar duguna zera da: sorginengan sinesteak bizirik jarraitzen zuela herri-mentalitatean.

Zenbait eraldaketa ezagutu zen nekazal inguru hartan. XVI. mendearen bigarren erdialdetik aurrera batez ere, premia biziko

elikagaien hornidura zaildu egin zen eta Pirinioen inguru osoan herri-klaseek krisialdi ekonomiko baten eraginak jasan behar izan zituztelarik. Garaiko bihi-falta nahiz oihan-baliabideen agortzea aski frogaturik daude. Burdin-produkzioaren atzeraldiak eta lur langarrien hedakuntzak[18] (zilegien kaltetan) nekazal ekonomiaren oinarri ahulak zulapetzen zituzten. Horrez gain, nazioarteko gerrate ugariak, erlijioarengatikoak, frantses eta espainiar koroen artekoak... hemen ere isladatu ziren, klase sozial ezberdin eta goi-klase bereko fakzioen arteko borrokak eta lurraldearen hondamen orokorra sorteraziz. Gosetea, miseria, izurriteak, ezegonkortasuna hedatu ziren nonnahi[19].

Egoera hartan, antzinako leinuen oinarri ekonomikoak (eliz patronatuak, hamarrenak, burdinolak, errotak...) atzeratuz zihoazen[20]. Halaber, herri xeheak (nekazariak, merkatari txikiak, behemailako apezeriak...), protesta eta erreboltak zirela medio, handikien boterea kilikolo jartzen zuen, burdinolen jabetza bereganatuz batzutan, edo, bestetan, patronatu gorrotagarrien legaltasuna zalantzan jarriz. Beren nagusigoa mantendu nahian, goi-klaseak botere zentralarekin bat egiten saiatuko zirela esan daiteke oro har. Errepresiorako tresna eraginkor bihurtu zen sorginkeriagatiko akusazioa (mementu ezin hobea); baita udal-boterea eskuratzearren borrokatzen ziren oligarkia familiarrek elkar salatzeko medio baliagarri ere[21].

Lapurdin gertatutakoa adierazgarria da oso. Bertan, XVI. mendea zehar, jaun-boterearen aurkako erresistentzia garrantzizkoa gertatu zen. XVII. mendearen hasierako sorgin-prozesuen ondoren, Urtubiko jaunak (errepresio-aldia bultzatu zuen, hain zuzen), antzinako pribilegioak mantentzeaz gain, Lapurdiko bailegoa lortu zuen. Areago oraindik, denborarekin beste fakzio nobleak (Senperekoa) baztertu zituen, bere hegemonia sendotuz.

Zentralismoaren eragina ukaezina da, izan, Euskal Herriko klaseen egituran. Prozesu erdirakoiak ondorio dramatikoak izan zituen. XVI. mendearen hasieran, koroa gaztelauak Nafarroako Erresumaren konkista burutu zuen. Ondoren, nafar bandoaren aurkako errepresioa eman zen, sorginkeriagatiko akusazioa aitzakiatzat erabili izan zelarik behin baino gehiagotan. Bitartean, prozesu erdirakoiak aurrera jarraitzen zuen Hego Euskal Herri osoan. Zer esanik ez Iparraldean: hemen, Nafarroa Behereko merinaldea monarkia frantsesari behin-betiko erantsia gertatuz gero Henry IV.aren garaian, foruen aurkako saioaldiak areagotu egin ziren nabarmenki. Geroztik, eta bereziki Richelieu-ren agintaldian, zerga

berrien, eskusartze militarren, kargu-izendapenen eta abarren eragina ongi ezaguna izango zen, eta ez bakarrik Euskal Herrian, baita inguruko lurraldeetan ere (Biarnon, esaterako, sorgin-prozesuak garai berean zabaldu bait ziren).

Argi zegoen, "pribilegio" direlakok eta era guztietako berezitasunek ez zutela lekurik absolutismorantz zihoazen monarkia berri haietan.

Horrez gain, bi monarkien arteko muga politikoa sendotzen hasia zen, honen eragina maila guztietara zabalduz. Erlijio mailan eta protestantismoaren sarrera galerazi nahian, Hondarribia, Doneztebe, Baztan eta Bost Hiribilduek Baionako apezpikuarekiko zuten menpekotasuna hautsi egin zuen Felipe II.ak 1566. urtean.

Zentralismoaren ezarrera hura bertako klase batzuen kolaborazioari esker egin zen neurri handi batean. Izan ere, goiko klaseek arras bereganatuak omen zituzten monarkia erdirakoien helburuak. Gorteetan edo itsas-osteko ihardueretan parte hartuz, etekin politiko nahiz ekonomiko nabarmenak lortzen zituzten nobleek. Botere zentralekiko menpekotasuna areagotuz zihoan heinean, bere bizimodu tradizionala arriskuan ikusten zuen herri xeheak.

Herri-ohituren arazketari dagokionez, Kontrarreformaren eraginak laster ezagutuko ziren Euskal Herrian. XVI. mendearen bigarren erdialdetik aurrera gailur eklesiastikoa nahiz agintari zibilak jo eta ke ari ziren herri xehearen bizitza zuzentzen. Honen inguruan hartutako erabakien kopurua ez da batere txikia. Izan ere, gogor jazartzen hasten dira[22] hildakoekiko kultua (ospakizun errituala bera arautzen eta kontrolatzen, bertan bil zitekeen lagunen kopurua murrizten...), Elizak baimentzen ez zituen sexu-harremanak, apaizeriaren bizimodua bera eta abar luze bat. Gaizkia sortzen zen leku guztietatik eta, antza, jendearen bilera zabaletan zeukan habiarik egokiena berorrek.

Honetan datza botereak akelarreari buruz sortutako ezaugarritzea (meza beltza, haurren hilketak...). Akelarrea *amets huts*, *fertilitate-errito* (honek, hain zuzen, Margaret Murray-ren teoria onartzea suposatzen du nolabait) edo *orgia*-tzat definitzea arriskugarria da; prozesuetan oinarritutako iturriak ontzat ematea arriskutsua den bezalatsu, neurri handi batean. Antzinako akelarreaz aritzerakoan, ez dago gertakari soilera mugatzerik; arestian deskribatutako giza harreman komunalak hartu behar dira kontutan. Hala eta guztiz ere, baliteke giza ordenamenduaren inbertsioa ematea ake-

larre-biltzarreetan, baina, informazioa hain mugatua denez gero horretaz, ez daukagu gure analisia honetan oinarritzerik.

Botereak ideologia eta ohitura herritarrak arazten baditu ere, aldi berean, helburu zehatz batzuk ezartzen saiatuko da: ezkontz erakundearen finkapena (eta, jakina, gizonezkoaren lehentasuna emakumezkoaren gainean), gizarte laiko eta eklesiastikoaren arteko bereizketa (eliz gizonaren protagonismoa bultzatuz), heriotza eta bizitzaren arteko banaketa osoa (gizakia babesik gabe utziz)... Euskal Herri osoan ebanjelizazio sakona inposatzen da[23]. Horretan ados zeuden sorginetan adituak: De Lancre epailea eta Salazar inkisidore humanista[24].

Egitura ideologikoaren finkatze-saio hauetan ez dugu baztertu behar kontrarreformaren xederik nagusiena, hau da, protestantismoaren hedakuntza galeraztea. Hain zuzen, estatu-arazo bihurtu zen berau monarkia gaztelauarentzat. Erlijio-gerrateetan alderdi katolikoaren alde egin zuen borroka Felipe II.ak. Ideia eta liburuen sarrera eragotzi nahian, Hego Euskal Herriko itsas portuetan eta Pirinioetan zehar osasun-kordonadura ezarri zen. Arazo ideologiko horren atzean asmo politiko argiak zeuden. Izan ere, hugonoteak, klase ezberdinez osatutako aliantza batean bildurik (zeinetan burgesek eta behemailako nobleek parte hartuko zuten), monarkia frantsesaren oinarriak kilikolo jartzera heldu ziren bolada batean. Kutsapen-arriskua hor zegoen. Oso arrisku hurbila, ez bait dugu ahaztu behar kalvinismoaren hedakuntza Biarnon eta Ipar Euskal Herriko zenbait aldetan eta zenbait klaseren artean. Areago, arestian aipatu dugunez, kontutan hartzen badugu ekonomi eta giza harremanetarako mugaren rola oraindik ez zutela betetzen Pirinio Mendiek.

Sorgin-ehizari gagozkiolarik, prozesuen agiriek, agintari lokalen txosten eta kexek eta hainbat pulpitutatik luzaturiko sermoien mamiak bi ondorio hauek baieztatzen dizkigute:

- Euskal Herrian ere, gaizkia antolaturik omen zegoen: agintariek ziotenez XVII. mendearen hasieran, Nafarroa Behereko iparraldean ez omen zegoen sorgin-sektarik gabeko herri bat ere[25].

- Gaizkia marginalitateari zetxekion. Edozein agote, adibidez, talde baztertu baten kidea izanik, sorgin izatearen susmagarritzat hartua izateko arriskuan zegoen beti ere. San Martin-ek "sorginak, gizajo inozente batzuk baizik ez zirela" esaterakoan, arrazoi du. Guk honi zera erantsiko gekioke: emakumezkoak, adinekoak (atso-agureak), eskaleak... gizartearen babesgabeko taldeak alegia,

izan zirela orokorki sorgintzat salatuak. Ikusi besterik ez dago akusatuen zerrendak. Dena den eta arestian esan dugunez, noizean behin sorginkeriagatiko akusazioa baliagarri gertatzen zen beste motatako helburuak lortu ahal izateko; esaterako, familia etsaiak udal-boteretik urruntzeko, mendeku hutsak egiteko... Baina balizko akelarreetan aberatsak azaltzen omen baziren ere, aparteko gertakaria zen hura, antza denez.

Baztertuek osatutako sekta hauengana desbideratzen saiatuko zen boterea gizarteak jasandako gaitz eta lazeria guztien erresponsabilitateak. Historian zehar (eta egun oraindik), peligrositate sozialari zeharo atxekia egon da marginalitatea[26]. Areago krisi-garai hartan, non pobre eta baztertuen kopurua gehituz bait zihoan populazioaren bizi-baldintzak txartzen ziren neurri berean.

Ez dugu ahaztu behar histeriaren sortzailea boterea izan zela. Sektaren ezaugarritzea (originaltasun-eza eta, bestalde, Europan zehar erabilitako ereduaren berdintasuna), honen frogatzat jo dezakegu. Urtubiko jaunak, Urdazubiko monjeek, tokiko agintariek, monarkiaren ordezkariek... guztiek gogoz parte hartu zuten sorgin-histerian eta -ehizan.

*A.S.-I.G.G.*

---

1 LISON TOLOSANA, C.: *Brujería, estructura social y simbolismo en Galicia,* Akal, Madrid, 1979.

2 TYLOR, E.B.: *Cultura primitiva. Los orígenes de la cultura,* Editorial Ayuso, Madrid, 1977.

3 HENNINGSEN, G.: *El abogado de las brujas. Brujería vasca e Inquisición española,* Alianza Editorial, Madrid, 1983.

4 COHN, N.: *Los demonios familiares en Europa,* Alianza Editorial, Madrid, 1980.

5 LE GOFF, J.: *Lo maravilloso y lo cotidiano en el Occidente medieval,* Gedisa, Barcelona, 1985.

6 BARANDIARAN, J.M.: *Brujería y brujas. Testimonios recogidos en el País Vasco,* Txertoa, San Sebastián, 1984.

7 "[El Renacimiento violento de la brujería] *supuso el relajamiento intelectual y moral de Europa*" (Tylor, E.B.: *op. cit.*).

[8] PUENTE OJEA, G.: *Ideología e Historia. La formación del cristianismo como fenómeno ideológico,* Siglo XXI, Madrid, 1984.

[9] HARRIS, M.: *Vacas, cerdos, guerras y brujas. Los enigmas de la cultura,* Alianza Editorial, Madrid, 1983.

[10] VILLENEUVE, R.: *Le fléau des sorciers. Histoire de la diablerie basque au XVII^e^ siècle,* Flammarion, 1983.

[11] BENNASSAR, B.: *Inquisición española. Poder político y control social,* Ed. Crítica, Barcelona, 1981.

[12] KAMEN, H.: *La Inquisición española,* Ed. Crítica, Barcelona, 1967.

[13] REGUERA, I.: *La Inquisición española en el País Vasco,* Txertoa, San Sebastián, 1984.

[14] REGUERA, I.: *op. cit.*

[15] VILLENEUVE, R.: *op. cit.;* Salazar inkisidorearen eritzia, in: HEN-NINGSEN, G.: *op. cit.*

[16] OLMEDA, M.: *El desarrollo de la sociedad española. Los pueblos primitivos y la colonización,* Ayuso, Madrid, 1974.

[17] HENNINGSEN, G.: *op. cit.*

[18] OTAZU, A.: "Los banderizos del Bidasoa", in: *Bol. Real Academia de la Historia,* 172, (1975).

[19] VILLENEUVE, R.: *op. cit.*

[20] OTAZU, A.: *El igualitarismo vasco: Mito o realidad,* Txertoa, San Sebastián, 1972.

[21] VILLENEUVE, R.: *op. cit.;* OTAZU, A.: *El igualitarismo...*

[22] FERNANDEZ ALBALADEJO, P.: *La crisis del Antiguo Régimen en Guipúzcoa, 1766-1833: cambio económico e historia,* Akal, Madrid, 1975; VALVERDE, L.: *Historia de Guipúzcoa,* Txertoa, San Sebastián, 1984; VILLENEUVE, R.: *op. cit.;* CHARPENTIER, J.: *La sorcellerie en Pays Basque,* Librairie Guénégaud, 1977; CARO BAROJA, J.: *El tocado antiguo en las mujeres vascas;* SAN MARTIN, J.: *Arraten sortzen da bizitza.*

[23] GOYHENETXE, E.: *Historia de Iparralde,* Txertoa, Donostia, 1985.

[24] HENNINGSEN, G.: *op. cit.;* VILLENEUVE, R.: *op. cit.*

[25] HENNINGSEN, G.: "Las víctimas de Zugarramurdi...", in: *Saioak-2* (1978).

[26] CARO BAROJA, J.: *Las formas complejas de la vida religiosa (siglos XVI y XVII),* Sarpe, Madrid, 1985.

# JAKIN

# BERTSOLARIAK

## Soziologia

**Gerra ondoko historia**
**Eskolak, txapelketak**

Uztaila
Iraila

44

1987

Ategorrieta hiribidea, 23, 1. esk. – 20013 Donostia
Tel.: (943) 27 17 13